

I. XEDAPEN OROKORRAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA

11724 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

Urriaren 29ko 20/2014 Legeak (Gobernua eskuordetzen duena hainbat testu bategin eman ditzan, Espainiako Konstituzioaren 82. artikularekin eta hurrengoekin bat) 1.c) artikularen bidez baimena eman zion Gobernuari testu bategin bat onartzeko, zeinean behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta jasoko baitira Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta zenbaki honetan aipatzen diren eta harekin lotura duten legezko xedapen guztiak, bai eta haiek aldatu dituzten lege-mailako arauak ere. Testu hori idazteko hamabi hilabeteko epea ezarri zen, urriaren 29ko 20/2014 Legea indarrean jarri zenetik kontatzen hasita –hain zuzen ere, 2014ko urriaren 31tik–.

Legegintzako errege-dekretu hau dela-eta kontsulta egin zaie ordezkaritza handieneko sindikatu- eta enpresa-erakundeei. Halaber, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak beroni buruzko txostena egin du.

Horregatik guztiagatik, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako ministroak hala proposatuta, Estatu Kontseiluarekin bat etorritz eta Ministro Kontseiluak aurretiaz, 2015eko urriaren 30eko bileran, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzea.*

Honi erantsirik doan Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen da.

Xedapen gehigarri bakarra. *Arauetara igortzea.*

Onartzen den testu bateginean txertatutako xedapenei beste arau batzuetan egindako aipamenak testu bategin honetako egoki diren manuei egindakotzat joko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, honako hauek:

1. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
2. Abenduaren 30eko 42/1994 Legearen 30. eta 31. artikulak (Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko Legea).
3. Azaroaren 8ko 30/1995 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarria (Aseguru Pribatuen Antolamenduari eta Gainbegiratzeari buruzko Legea).
4. Abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 69. eta 77. artikulak (Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko Legea).
5. Abenduaren 30eko 66/1997 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarria (Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko Legea).
6. 47/1998 Legea, abenduaren 23koa, Zenbait kasu berezitan Gizarte Segurantzaren Sistemari erretiro aurreratua onartzeko arauak ezartzen dituenak.
7. Abenduaren 30eko 50/1998 Legearen 29. eta 30. artikulak (Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko Legea).

8. Abenduaren 29ko 55/1999 Legearen 26. artikulua (Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurriei buruzko Legea).

9. Uztailaren 9ko 12/2001 Legearen seigarren xedapen gehigarria (Enplegua sustatzeari eta enpleguaren kalitatea hobetzeari begira lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko Legea).

10. Abenduaren 12ko 45/2002 Legearen 4. artikulua, bigarren xedapen gehigarria eta bigarren xedapen iragankorra (Langabeziatik babesteko sistema erreformatzeko eta lan-aukerak areagotzeko premiazko neurriei buruzko Legea).

11. 28/2003 Legea, irailaren 29koa, Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtza arautzen duena.

12. Abenduaren 29ko 30/2005 Legearen berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria (2006rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea).

13. Apirilaren 24ko 8/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarria (Tropari eta Marinelei buruzko Legea).

14. Abenduaren 7ko 37/2006 Legearen 2. artikulua (Zenbait kargudun publiko eta sindikal Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartu eta pertsona horiei langabezia-babesa emateari buruzko Legea).

15. 18/2007 Legea, uztailaren 4koa, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian dauden beren konturako langileak Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartzen dituen. Lehen xedapen iragankorra salbuetsi da.

16. Abenduaren 4ko 40/2007 Legearen bosgarren, bederatzigarren, hamalagarren eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarriak (Gizarte Segurantzaren Arloko Neurriei buruzko Legea).

17. Abenduaren 30eko 27/2009 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarria (Enpleguari eusteko eta enplegua sustatzeko eta langabeak babesteko premiazko neurriei buruzko Legea).

18. 32/2010 Legea, abuztuaren 5koa, Langile autonomoak jarduera utzi ondoren babesteko berariazko sistema ezartzen duena. Hamargarren eta hamaikagarren xedapen gehigarriak salbuetsi dira.

19. Irailaren 17ko 35/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarria (Lan-merkatua Erreformatzeko Premiazko Neurriei buruzko Legea).

20. Abenduaren 3ko 13/2010 Errege Lege Dekretuaren 20. artikulua (Inbertsioa sustatu eta enplegua sortzeko zerga-, lan- eta liberalizazio-arloko jarduketei buruzko Errege Lege Dekretua).

21. Apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuaren 5. artikulua (Ezkatuko enplegua erregularizatu eta kontrolatzeko eta etxebizitzaren birgaikuntza sustatzeko neurriei buruzko Errege Lege Dekretua).

22. Abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hamabosgarren, hogeita hamahirugarren, hogeita hemeretzigarren, berrogeita batgarren, berrogeita seigarren eta berrogeita hamabigarren xedapen gehigarriak eta azken xedapenetatik hamabigarrena (Gizarte Segurantzaren Sistema Eguneratu, Egokitu eta Modernizatzeari buruzko Legea).

23. 28/2011 Legea, irailaren 22koa, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezia Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzen duena. Zazpigarren xedapen gehigarria eta azken xedapenetatik laugarrena salbuetsi dira.

24. Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren zortzigarren xedapen gehigarria (Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko Errege Lege Dekretua).

25. Abenduaren 28ko 29/2012 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria (Etxeko Langileen Sistema Berezian kudeaketa eta babes soziala hobetzeko eta izaera ekonomiko eta sozialeko beste neurri batzuk hartzeko Errege Lege Dekretua).

26. Martxoaren 15eko 5/2013 Errege Lege Dekretuaren I. kapitulua eta lehenengo xedapen gehigarria (Langile zaharrenen lan-bizitzaren jarraipenaren aldeko neurriak eta zahartze aktiboa sustatzeko neurriak ezartzeari buruzko Errege Lege Dekretua).

27. Abenduaren 20ko 16/2013 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria (Kontratazio egonkorra sustatzeko eta langileen enplegagarritasuna hobetzeko neurriei buruzko Errege Lege Dekretua).

28. Abenduaren 23ko 23/2013 Legearen I. kapitulua, lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak eta azken xedapenetatik bosgarrena (Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren jasangarritasun-faktorea eta errebalorizazio-indizea arautzen dituen Legea).

Azken xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Legegintzako errege-dekretu hau eta berak onartzen duen testu bategina 2016ko urtarrilaren 2an jarriko dira indarrean.

Aurrekoa ezertan kendu gabe, Gizarte Segurantzari egindako ekarpen demografikoari dagokion amatasun-osagarria, testu bateginaren 60. artikuluan araututakoa, aplikatzekoa izango zaie, hartan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren pentsio kontributiboei.

Testu bateginaren 211. artikuluan araututako jasangarritasun-faktorea, bestalde, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen diren Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro-pentsioei soilik aplikatuko zaie.

Madriren, 2015eko urriaren 30ean.

FELIPE e.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako ministroa,
FÁTIMA BÁÑEZ GARCÍA

GIZARTE SEGURANTZAREN LEGE OROKORRAREN TESTU BATEGINA

AURKIBIDEA

- I. titulua. Gizarte Segurantzaren sistemako arau orokorrak.
- I. kapitulua. Atariko arauak.
 - 1. artikulua. Espainiarren Gizarte Segurantzarako eskubidea.
 - 2. artikulua. Gizarte Segurantzaren printzipioak eta helburuak.
 - 3. artikulua. Gizarte Segurantzaren eskubideen ukaezintasuna.
 - 4. artikulua. Eginkizunen mugatzea.
 - 5. artikulua. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren eta beste ministerio-sail batzuen eskumenak.
 - 6. artikulua. Antzeko eginkizunen koordinazioa.
- II. kapitulua. Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremua eta egitura.
 - 1. atala. Xedapen orokorrak.
 - 7. artikulua. Aplikazio-eremuaren hedadura.
 - 8. artikulua. Nahitaez araubide batean baino gehiagotan sarturik egoteko debekua.
 - 9. artikulua. Gizarte Segurantzaren sistemaren egitura.
 - 10. artikulua. Araubide bereziak.
 - 11. artikulua. Sistema bereziak.
 - 2. atala. Kolektibo jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien xedapenak.
 - 12. artikulua. Familiartekoak.
 - 13. artikulua. Desgaitasuna duten langileak.
 - 14. artikulua. Kooperatibetako bazkide langileak eta lan-bazkideak.
- III. kapitulua. Afiliazioa, kotizazioa eta diru-bilketa.
 - 1. atala. Sistemari afiliatzea, eta sistema osatzen duten araubideetako altak, bajak eta datu-aldaketak.
 - 15. artikulua. Afiliazioaren nahitaezkotasuna eta irismena.
 - 16. artikulua. Afiliazioa, altak, bajak eta datu-aldaketak.
 - 17. artikulua. Gizarte Segurantzaren Administrazioaren betebeharrak eta informaziorako eskubidea.
 - 2. atala. Gizarte Segurantzako kotizazioa eta baterako diru-bilketaren kontzeptuen araberako kotizazioa.
 - 18. artikulua. Nahitaezkotasuna.
 - 19. artikulua. Kotizazio-oinarriak eta -tasak.
 - 20. artikulua. Kotizazioan onurak eskuratzea, haiei eustea eta haiek galdu eta itzultzea.
 - 3. atala. Kuoten eta sistemaren gainerako baliabideen likidazioa eta diru-bilketa.
 - 1. azpiatala. Xedapen orokorrak.
 - 21. artikulua. Eskumena.
 - 22. artikulua. Kuotak eta gainerako baliabideak likidatzea eta ordaintzea.
 - 23. artikulua. Ordainketa geroratzea.
 - 24. artikulua. Preskripzioa.
 - 25. artikulua. Kredituen hurrenkera.

26. artikulua. Sarrera bidegabeak itzultzea, bermeen kostuak itzultzea eta epai bidez deklaraturako zenbatekoak ordaintzea.

27. artikulua. Gizarte Segurantzaren eskubideen gaineko transakzioak.

2. azpiatala. Borondatezko epeko likidazioa eta diru-bilketa.

28. artikulua. Erregelamenduzko epean ez ordaintzeak dakartzan ondorioak.

29. artikulua. Kuotak likidatzearen arloko betebeharrak betetzea eta konpentsazioa.

30. artikulua. Epez kanpo ordaintzeagatiko errekaruak.

31. artikulua. Berandutze-interesak.

32. artikulua. Ordainketak egozteak.

33. artikulua. Zorren erreklamazioak.

34. artikulua. Kuoten likidazio-aktak.

35. artikulua. Kuotengatiko zorrak zehaztea.

36. artikulua. Egiartzatzeko ahalmenak.

3. azpiatala. Betearazpen-bideko diru-bilketa.

37. artikulua. Kautela-neurriak.

38. artikulua. Premiamendu-probidentzia, betearazpen-prozedurako beste egintza batzuk eta kenkari-prozedura.

39. artikulua. Hirugarrengotzak.

40. artikulua. Finantza-entitateen, funtzionario publikoen, profesional ofizialen eta agintarien informatzeko eginbearra.

41. artikulua. Enbarga daitezkeen ondasunak ostentzea.

IV. kapitulua. Babes-jarduna.

1. atala. Xedapen orokorrak.

42. artikulua. Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-jarduna.

43. artikulua. Borondatezko hobekuntzak.

44. artikulua. Prestazioen ezaugarriak.

45. artikulua. Prestazioak direla-eta dauden erantzukizunak.

46. artikulua. Gertakari arrunten ondoriozko pentsio kontributiboen eta pentsio ez-kontributiboen ordainketa.

2. atala. Prestazioetarako eskubidea aitortzea eta zehaztea eta hari eustea.

47. artikulua. Kotizazioen ordainketan egunean egoteko betekizuna.

48. artikulua. Epeak egun bihurtzea.

49. artikulua. Araubide batean baino gehiagotan aldi berean kotizatu izanaren eragina Gizarte Segurantzaren pentsioei dagokienez.

50. artikulua. Diru-sarrerren zenbaketa, prestazioetarako eskubidea aitortzearen edo hari eustearen ondorioetarako.

51. artikulua. Bizilekua, prestazioen eta gutxienezko osagarrien ondorioetarako.

52. artikulua. Kautela-neurriak hartzea.

3. atala. Prestazio bidegabeen preskripzioa, iraungitzea eta itzulketa.

53. artikulua. Preskripzioa.

54. artikulua. Iraungitzea.

55. artikulua. Prestazio bidegabeen itzulketa.

4. atala. Errebalorizazioa, pentsioen gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak eta amatasun-osagarria, Gizarte Segurantzari egindako ekarpen demografikoa dela-eta.

1. azpiatala. Xedapen erkideak.

56. artikulua. Pentsio publikotzat hartzea.

2. azpiatala. Pentsio kontributiboak.

57 artikulua. Pentsioen hasierako zenbatekoa mugatzea.

58. artikulua. Errebalorizazioa.

59. artikulua. Gutxienera iristen ez diren pentsioetarako osagarriak.

60. artikulua. Amatasun-osagarria Gizarte Segurantzaren sistemako pentsio kontributiboetan.

61. artikulua. Terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioak.

3. azpiatala. Pentsio ez-kontributiboak.

62. artikulua. Errebalorizazioa.

5. atala. Gizarte-zerbitzuak.

63. artikulua. Xedea.

6. atala. Gizarte-laguntza.

64. artikulua. Kontzeptua.

65. artikulua. Laguntza asistentzialen edukia.

V. kapitulua. Gizarte Segurantzaren kudeaketa.

1. atala. Entitate kudeatzaileak.

66. artikulua. Zerrenda.

67. artikulua. Egitura eta eskumenak.

68. artikulua. Izaera juridikoa.

69. artikulua. Kudeaketan parte hartzea.

70. artikulua. Nazioarteko harremanak eta zerbitzuak.

71. artikulua. Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak kudeatzen dituzten entitateei informazioa ematea.

72. artikulua. Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa.

2. atala. Zerbitzu erkideak.

73. artikulua. Sorrera.

74. artikulua. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.

3. atala. Entitate kudeatzaileetarako eta zerbitzu erkideetarako arau erkideak.

75. artikulua. Izenaren erreserba.

76. artikulua. Tributu-salbuespenak eta beste onura batzuk.

77. artikulua. Datuen erreserba.

78. artikulua. Langileen araubidea.

VI. kapitulua. Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzea.

1. atala. Entitate laguntzaileak.

79. artikulua. Zerrenda.

- 2. azpiatala. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak.
 - 1. azpiatala. Xedapen orokorrak.
 - 80. artikulua. Definizioa eta xedea.
 - 81. artikulua. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak eratzea.
 - 82. artikulua. Kudeatutako prestazio eta zerbitzuen berezitasunak.
 - 83. artikulua. Enpresaburu elkartuen eta atxikitako beren konturako langileen aukera-araubidea.
 - 84. artikulua. Araubide ekonomiko-finantzarioa.
 - 2. azpiatala. Gobernu- eta partaidetza-organoak.
 - 85. artikulua. Zerrenda.
 - 86. artikulua. Batzar Nagusia.
 - 87. artikulua. Zuzendaritza Batzordea.
 - 88. artikulua. Zuzendari kudeatzailea eta mutuako gainerako langileak.
 - 89. artikulua. Kontrol eta Jarraipen Batzordea.
 - 90. artikulua. Prestazio Berezien Batzordea.
 - 91. artikulua. Gobernu- eta partaidetza-organoetako kideen bateraezintasunak eta erantzukizunak.
 - 3. azpiatala. Ondarea eta kontratazioaren araubidea.
 - 92. artikulua. Mutuei atxikitako Gizarte Segurantzaren ondarea.
 - 93. artikulua. Ondare historikoa.
 - 94. artikulua. Kontratazioa.
 - 4. azpiatala. Kudeaketaren emaitzak.
 - 95. artikulua. Emaitza ekonomikoa eta erreserbak.
 - 96. artikulua. Soberakinak.
 - 97. artikulua. Gizarte Segurantzaren Gertakari Profesionalen Funtsa.
 - 5. azpiatala. Beste xedapen batzuk.
 - 98. artikulua. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren eskumenak.
 - 99. artikulua. Informazio-eskubidea, kexak eta erreklamazioak.
 - 100. artikulua. Kautela-neurriak eta erantzukizun mankomunatuak.
 - 101. artikulua. Desegitea eta likidazioa.
- 3. atala. Enpresak.
 - 102. artikulua. Enpresen lankidetzak.
- VII. kapitulua. Araubide ekonomikoa.
 - 1. atala. Gizarte Segurantzaren ondarea.
 - 103. artikulua. Ondarea.
 - 104. artikulua. Titulartasuna, atxikipena, administrazioa eta jagoletza.
 - 105. artikulua. Ondasun higiezinak eskuratzea.
 - 106. artikulua. Ondasun higiezinak eta balore-tituluak besterentzea.
 - 107. artikulua. Ondare higiezinaren errentamendua eta lagapena.
 - 108. artikulua. Enbargaezintasuna.
 - 2. atala. Gizarte Segurantzaren baliabideak eta finantza-sistemak.
 - 109. artikulua. Baliabide orokorrak.
 - 110. artikulua. Finantza-sistema.
 - 111. artikulua. Inbertsioak.

3. atala. Gizarte Segurantzaren aurrekontua, kontu-hartzailletza eta kontabilitatea.
112. artikulua. Kontu-hartzailletzari buruzko xedapen orokorra eta arau erregulatzailerak.
113. artikulua. Kreditu-aldaketak, gerakinak eta aurrekontu-eskasiak Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalean.
114. artikulua. Eskuratzeen amortizazioa.
115. artikulua. Urteko auditoretza-plana.
116. artikulua. Gizarte Segurantzaren kontuak.
4. atala. Gizarte Segurantzaren erreserba-funtsa.
117. artikulua. Gizarte Segurantzaren erreserba-funtsa eratzea.
118. artikulua. Funtsaren zuzkidura.
119. artikulua. Aurrekontuko soberakina finkatzea.
120. artikulua. Funtsa zuzkitzeko eta gauzatzeko erabakia.
121. artikulua. Funtsaren aktiboen erabilera.
122. artikulua. Funtsaren finantza-kudeaketa.
123. artikulua. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Kudeaketa Komitea.
124. artikulua. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Inbertsioetarako Aholku Batzordea.
125. artikulua. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Jarraipen Batzordea.
126. artikulua. Aurrekontu-kudeaketako eta -egozpeneko eragiketen izaera.
127. artikulua. Urteko txostena.
5. azpiatala. Gizarte Segurantzako kontratazioa.
128. artikulua. Kontratazioa.
- VIII. kapitulua. Gizarte Segurantzaren arloko prozedurak eta jakinarazpenak.
129. artikulua. Prozedura-arauak.
130. artikulua. Prestazioen arloko prozeduren izapidetze elektronikoa.
131. artikulua. Gizarte Segurantzako datuak bitarteko elektronikoen bidez ematea.
132. artikulua. Administrazio-egintzak bitarteko elektronikoen bidez jakinaraztea.
- IX. kapitulua. Gizarte Segurantzaren arloko ikuskatzeak, arau-haustek eta zehapenak.
133. artikulua. Ikuskatzailetzaren eskumenak.
134. artikulua. Ikuskatzailetzarekiko lankidetzak.
135. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.
- II. titulua. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorra.
- I. kapitulua. Aplikazio-eremua.
136. artikulua. Hedadura.
137. artikulua. Bazter utzitakoak.
- II. kapitulua. Enpresen inskripzioa eta afiliazioari, kotizazioari eta diru-bilketari buruzko arauak.
1. atala. Enpresen inskripzioa eta langileen afiliazioa.
138. artikulua. Enpresen inskripzioa.

- 139. artikulua. Afiliazioa, altak eta bajak.
- 140. artikulua. Prozedura eta epeak.

2. atala. Kotizazioa.

1. azpiatala. Xedapen orokorrak.

- 141. artikulua. Behartuta dauden subjektuak.
- 142. artikulua. Subjektu erantzuleak.
- 143. artikulua. Itunen deuseztasuna.
- 144. artikulua. Kotizatzeke betebeharraren iraupena.
- 145. artikulua. Kotizazio-tasa.
- 146. artikulua. Laneko istripuengatiko eta gaixotasun profesionalengatiko kotizazioa.
- 147. artikulua. Kotizazio-oinarria.
- 148. artikulua. Kotizazio-oinarriaren gehieneko eta gutxieneko mugak.
- 149. artikulua. Aparteko orduen kotizazio gehigarria.
- 150. artikulua. Normalizazioa.

2. azpiatala. Kasu berezietako kotizazioa.

- 151. artikulua. Iraupen laburreko kontratuetako kotizazioa.
- 152. artikulua. Hirurogeita bost urterekin edo gehiagorekin kotizatzea.
- 153. artikulua. Erretiroa eta lana bateragarri diren kasuetako kotizazioa.

3. atala. Diru-bilketa.

- 154. artikulua. Arau orokorrak.

III. kapitulua. Babes-jardunaren alderdi erkideak.

- 155. artikulua. Babes-jardunaren irismena.
- 156. artikulua. Laneko istripua zer den.
- 157. artikulua. Gaixotasun profesionala zer den.
- 158. artikulua. Lanez kanpoko istripuak eta gaixotasun arruntak zer diren.
- 159. artikulua. Gainerako gertakariak zer diren.
- 160. artikulua. Arrisku katastrofikoak.

IV. kapitulua. Prestazioen arloko arau orokorrak.

- 161. artikulua. Prestazioen zenbatekoa.
- 162. artikulua. Prestazioen ezaugarriak.
- 163. artikulua. Pentsioen bateraezintasuna.
- 164. artikulua. Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko prestazio ekonomikoen errekargua.
- 165. artikulua. Prestazioetarako eskubidearen baldintzak.
- 166. artikulua. Altarekin parekatutako egoerak.
- 167. artikulua. Prestazioak direla-eta dauden erantzukizunak.
- 168. artikulua. Prestazioak direla-eta dauden erantzukizunen kasu bereziak.

V. kapitulua. Aldi baterako ezintasuna.

- 169. artikulua. Kontzeptua.
- 170. artikulua. Aldi baterako ezintasuneko prozesuen gaineko eskumenak.
- 171. artikulua. Prestazio ekonomikoa.
- 172. artikulua. Onuradunak.
- 173. artikulua. Subsidiarako eskubidearen sorrera eta iraupena.
- 174. artikulua. Subsidiarako eskubidea azkentzea.
- 175. artikulua. Subsidiarako eskubidea galtzea edo etetea.

176. artikulua. Behaketa-aldiak eta betebeharrak bereziak gaixotasun profesionalaren kasuan.

VI. kapitulua. Amatasuna.

1. atala. Kasu orokorra.

177. artikulua. Babestutako egoerak

178. artikulua. Onuradunak.

179. artikulua. Prestazio ekonomikoa.

180. artikulua. Amatasun-subsidiorako eskubidea galtzea edo etetea.

2. atala. Kasu berezia.

181. artikulua. Onuradunak.

182. artikulua. Prestazio ekonomikoa.

VII. kapitulua. Aitatasuna.

183. artikulua. Babestutako egoera.

184. artikulua. Onuradunak.

185. artikulua. Prestazio ekonomikoa.

VIII. kapitulua. Haurdunaldiko arriskua.

186. artikulua. Babestutako egoera.

187. artikulua. Prestazio ekonomikoa.

IX. kapitulua. Edoskialdi naturaleko arriskua.

188. artikulua. Babestutako egoera.

189. artikulua. Prestazio ekonomikoa.

X. kapitulua. Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea.

190. artikulua. Babestutako egoera.

191. artikulua. Onuradunak.

192. artikulua. Prestazio ekonomikoa.

XI. kapitulua. Ezintasun iraunkor kontributiboa.

193. artikulua. Kontzeptua.

194. artikulua. Ezintasun iraunkorraren graduak.

195. artikulua. Onuradunak.

196. artikulua. Prestazio ekonomikoak.

197. artikulua. Gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen oinarri arautzailea.

198. artikulua. Ezintasun iraunkorragatiko prestazio ekonomikoak jasotzearekin bateragarri direnak.

199. artikulua. Gaixotasun profesionalen ondoriozko ezintasun iraunkorrari buruzko arau berezia.

200. artikulua. Kalifikazioa eta berrikuspena.

XII. kapitulua. Ezintasunik sortzen ez duten lesio iraunkorrak.

201. artikulua. Baremoaren arabera kalte-ordainak.

202. artikulua. Onuradunak.

203. artikulua. Ezintasun iraunkorragatiko prestazioekin bateraezin direnak.

- XIII. kapitulua. Erretiroa, modalitate kontributiboan.
- 204. artikulua. Kontzeptua.
 - 205. artikulua. Onuradunak.
 - 206. artikulua. Jardueraren ondoriozko edo desgaitasun kasuko erretiro aurreratua.
 - 207. artikulua. Langileari egoztekoa ez zaion arrazoi batengatik erretiro aurreratua.
 - 208. artikulua. Erretiro aurreratua, interesdunaren borondatez.
 - 209. artikulua. Erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea.
 - 210. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.
 - 211. artikulua. Erretiro-pentsioaren jasangarritasun-faktorea.
 - 212. artikulua. Preskribaezintasuna.
 - 213. artikulua. Bateriaezintasunak.
 - 214. artikulua. Erretiro-pentsioa eta zahartze aktiboa.
 - 215. artikulua. Erretiro partziala.
- XIV. kapitulua. Heriotza eta biziraupena.
- 216. artikulua. Prestazioak.
 - 217. artikulua. Subjektu kausatzaileak.
 - 218. artikulua. Heriotza-sorospena.
 - 219. artikulua. Bizirik dagoen ezkontidearen alarguntasun-pentsioa
 - 220. artikulua. Alarguntasun-pentsioa, banantzea, dibortzioa edo ezkontza-deuseztasuna dagoen kasuetan.
 - 221. artikulua. Izatezko bikoteen alarguntasun-pentsioa.
 - 222. artikulua. Aldi baterako alarguntasun-prestazioa.
 - 223. artikulua. Alarguntasun-prestazioen bateragarritasuna eta azkentzea.
 - 224. artikulua. Zurztasun-pentsioa.
 - 225. artikulua. Zurztasun-pentsioaren bateragarritasuna.
 - 226. artikulua. Familiartekoen aldeko prestazioak.
 - 227. artikulua. Oroharreko kalte-ordain berezia.
 - 228. artikulua. Gertakari arrunten ondoriozko heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen oinarri arautzailea.
 - 229. artikulua. Pentsioen zenbatekoaren muga.
 - 230. artikulua. Preskribaezintasuna.
 - 231. artikulua. Heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen onuradun izateko eragozpena.
 - 232. artikulua. Heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen ordainketaren kautelazko etetea, kasu jakin batzuetan.
 - 233. artikulua. Zurztasun-pentsioen eta familiartekoen aldeko pentsioen gehikuntza, kasu jakin batzuetan.
 - 234. artikulua. Zurztasun-pentsioen ordainketa, kasu jakin batzuetan.
- XV. kapitulua. Familia babestea.
- 235. artikulua. Erditzeagatiko kotizazio-aldi parekatuak.
 - 236. artikulua. Seme-alabak edo adingabeak zaintzeagatiko onurak.
 - 237. artikulua. Familia-prestazioa, modalitate kontributiboan.
- XVI. kapitulua. Araubide Orokorraren xedapen erkideak.
1. atala. Araubide Orokorraren babes-jardunaren borondatezko hobekuntzak.
- 238. artikulua. Babes-jardunaren hobekuntzak.
 - 239. artikulua. Prestazioen zuzeneko hobekuntza.
 - 240. artikulua. Zuzeneko hobekuntza kudeatzeko moduak.
 - 241. artikulua. Kotizazio-tasa gehigarriak ezartzeagatiko hobekuntza.

2. atala. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko xedapenak Araubide Orokorrean.

- 242. artikulua. Laneko istripuen arloko ez-betetzeak.
- 243. artikulua. Gaixotasun profesionaletarako berariazko arauak.
- 244. artikulua. Azterketa medikoak falta izatearen erantzukizunak.

XVII. kapitulua. Araubide Orokorreko langile jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien xedapenak.

1. atala. Lanaldi partzialean kontratatutako langileak.

- 245. artikulua. Gizarte-babesa.
- 246. artikulua. Kotizazioa.
- 247. artikulua. Kotizazio-aldien zenbaketa.
- 248. artikulua. Prestazio ekonomikoen zenbatekoa.

2. atala. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratatutako langileak.

249. artikulua. Babes-jarduna.

XVIII. kapitulua. Etxeko Langileentzako eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako sistema bereziak.

1. atala. Etxeko Langileentzako Sistema Berezia.

- 250. artikulua. Aplikazio-eremua.
- 251. artikulua. Babes-jarduna.

2. atala. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezia.

- 252. artikulua. Aplikazio-eremua.
- 253. artikulua. Sisteman sartzeko arauak.
- 254. artikulua. Afiliazioa, altak, bajak eta datu-aldaketak.
- 255. artikulua. Kotizazioa.
- 256. artikulua. Babes-jarduna.

XIX. kapitulua. Kudeaketa.

- 257. artikulua. Kudeaketa, eta kudeaketan laguntzea.
- 258. artikulua. Administrazio- eta osasun-zerbitzuak emateko itunak.

XX. kapitulua. Finantza-araubidea.

- 259. artikulua. Finantza-sistema.
- 260. artikulua. Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen arloko berariazko arauak.

XXI. kapitulua. Sistemaren arau orokorren aplikazioa.

261. artikulua. Zuzenbide ordeztaila.

III. titulua. Langabezia-babesa.

I. kapitulua. Arau orokorrak.

- 262. artikulua. Babesaren xedea.
- 263. artikulua. Babes-mailak.
- 264. artikulua. Babestutako pertsonak.
- 265. artikulua. Babes-jarduna.

- II. kapitulua. Maila kontributiboa.
- 266. artikulua. Prestazioetarako eskubidea sortzeko betekizunak.
 - 267. artikulua. Legezko langabezia-egoera.
 - 268. artikulua. Prestazioetarako eskubidea eskatzea, sortzea eta iraunaraztea.
 - 269. artikulua. Langabezia-prestazioaren iraupena.
 - 270. artikulua. Langabezia-prestazioaren zenbatekoa.
 - 271. artikulua. Eskubidea etetea.
 - 272. artikulua. Eskubidea azkentzea.
 - 273. artikulua. Langabezia-egoerak irauten duen bitarteko kotizazioa.
- III. kapitulua. Maila asistentziala.
- 274. artikulua. Langabezia-subsidioaren onuradunak.
 - 275. artikulua. Inskripzioa, errenta-gabezia eta familia-erantzukizunak.
 - 276. artikulua. Subsidiaroko eskubidea sortzea eta luzatzea.
 - 277. artikulua. Subsidioaren iraupena.
 - 278. artikulua. Subsidioaren zenbatekoa.
 - 279. artikulua. Subsidiaroko eskubidea etetea eta azkentzea.
 - 280. artikulua. Subsidioa jasotzen den bitarteko kotizazioa.
- IV. kapitulua. Prestazioen araubidea.
- 281. artikulua. Prestazioetarako eskubidearen automatikotasuna.
 - 282. artikulua. Bateriaezintasunak.
 - 283. artikulua. Langabezia-prestazioa eta aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa.
 - 284. artikulua. Langabezia-, amatasun- eta aitatasun-prestazioak.
 - 285. artikulua. 55 urtetik gorakoen langabezia-subsidioa eta erretiroa.
- V. kapitulua. Kolektibo jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien xedapen bereziak.
1. atala. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian dauden langileak.
- 286. artikulua. Aplikatzekoak diren arauak.
 - 287. artikulua. Nekazaritzako behin-behineko langileen langabezia-babesa.
 - 288. artikulua. Andaluzian eta Extremaduran bizilekua duten nekazaritzako behin-behineko langileen langabezia-babesa.
 - 289. artikulua. Prestazioak jasotzen diren bitarteko kotizazioa.
2. atala. Beste kolektibo batzuk.
- 290. artikulua. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratatutako langileak.
 - 291. artikulua. Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Bereziko langileak.
 - 292. artikulua. Tropako eta itsas armadako militar profesionalak.
- VI. kapitulua. Prestazioen finantza-araubidea eta kudeaketa.
- 293. artikulua. Finantzaketa.
 - 294. artikulua. Entitate kudeatzailea.
 - 295. artikulua. Bidegabeko ordainketen itzulketa.
 - 296. artikulua. Prestazioen ordainketa.
 - 297. artikulua. Prestazioen kontrola.
- VII. kapitulua. Betebeharren, arau-hausteen eta zehapenen araubidea.
- 298. artikulua. Enpresaburuen betebeharrak.
 - 299. artikulua. Langileen eta langabezia-prestazioen eskatzaile eta onuradunen betebeharrak.
 - 300. artikulua. Jarduera-konpromisoa.

- 301. artikulua. Enplegu egokia.
- 302. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.
- 303. artikulua. Egintzak aurkaratzea.
- VIII. kapitulua. Zuzenbide ordeztailea.
- 304. artikulua. Zuzenbide ordeztailea.
- IV. titulua. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia.
 - I. kapitulua. Aplikazio-eremua.
 - 305. artikulua. Hedadura.
 - 306. artikulua. Bazter utzitakoak.
 - II. kapitulua. Afiliazioa, kotizazioa eta diru-bilketa.
 - 307. artikulua. Afiliazioa, altak, bajak, datu-aldaketak, kotizazioa eta diru-bilketa.
 - 308. artikulua. Gertakari profesionalak eta jardueraren uztea estalita izanez gero egin beharreko kotizazioa.
 - 309. artikulua. Erretiroa eta norberaren konturako lana bateragarri diren kasuetako kotizazioa.
 - 310. artikulua. Kotizazio-oinarriaren hautaketa, adina zein den ere.
 - 311. artikulua. 65 urterekin edo gehiagorekin kotizatzea.
 - 312. artikulua. Langile autonomo jakin batzuentzako gutxienerako oinarria.
 - 313. artikulua. Gutxienerako oinarria, jarduera-aniztasuneko egoeran daudenen hasierako altaren kasuetan.
 - III. kapitulua. Babes-jarduna.
 - 1. atala. Gertakari babesgarriak.
 - 314. artikulua. Babes-jardunaren irismena.
 - 315. artikulua. Aldi baterako ezintasunaren estaldura.
 - 316. artikulua. Gertakari profesionalen estaldura.
 - 317. artikulua. Ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoen babes-jarduna.
 - 2. atala. Prestazioen arloko xedapenak.
 - 318. artikulua. Aplikatzekoak diren arauak.
 - 319. artikulua. Altaren aurreko kuoten ondorioak.
 - 320. artikulua. Kuotetatik salbuesteko kasu jakin batzuetako oinarri arautzailea.
 - 321. artikulua. Aldi baterako ezintasunaren prestazioaren sorrera eta zenbatekoa.
 - 322. artikulua. Erretiro-pentsioaren zenbatekoa.
 - IV. kapitulua. Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezia.
 - 323. artikulua. Aplikazio-eremua.
 - 324. artikulua. Sisteman sartzeko arauak.
 - 325. artikulua. Kotizazioaren arloko berezitasunak.
 - 326. artikulua. Aldi baterako ezintasunaren eta gertakari profesionalen estaldura.
- V. titulua. Jarduera uzteagatiko babesa
 - I. kapitulua. Xedapen orokorrak.
 - 327. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.
 - 328. artikulua. Araubide juridikoa.
 - 329. artikulua. Babes-jarduna.
 - 330. artikulua. Babeserako eskubidea sortzeko betekizunak.
 - 331. artikulua. Jarduera uztearen legezko egoera.

332. artikulua. Jarduera uztearen legezko egoera egiaztatzea.
- II. kapitulua. Jarduera uztearen legezko egoera, kasu berezietan.
333. artikulua. Ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak.
334. artikulua. Kapital-sozietateetako bazkide izateagatik autonomo diren langileak.
335. artikulua. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak.
336. artikulua. Beren jarduera profesionala elkarrekin egiten duten langile autonomoak.
- III. kapitulua. Babesaren araubidea.
337. artikulua. Jarduera uzteagatik babeserako eskubidea eskatzea eta eskubide hori sortzea.
338. artikulua. Prestazio ekonomikoaren iraupena.
339. artikulua. Jarduera uzteagatik prestazio ekonomikoaren zenbatekoa.
340. artikulua. Babeserako eskubidea etetea.
341. artikulua. Babeserako eskubidea azkentzea.
342. artikulua. Bateriaezintasunak.
343. artikulua. Jarduera uztea, aldi baterako ezintasuna, amatasuna eta aitatasuna.
- IV. kapitulua. Prestazioen finantza-araubidea eta kudeaketa.
344. artikulua. Finantzaketa, kotizazio-oinarria eta -tasa.
345. artikulua. Diru-bilketa.
346. artikulua. Organo kudeatzailea.
- V. kapitulua. Betebeharren, arau-hausteen eta zehapenen araubidea.
347. artikulua. Langile autonomoen betebeharrak.
348. artikulua. Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea.
349. artikulua. Arau-haustek.
350. artikulua. Jurisdikzio eskuduna eta alde zurreko erreklamazioa.
- VI. titulua. Prestazio ez-kontributiboak.
- I. kapitulua. Familia-prestazioak, modalitate ez-kontributiboan.
1. atala. Prestazioak.
351. artikulua. Zerrenda.
2. atala. Norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatik diru-esleipena.
352. artikulua. Onuradunak.
353. artikulua. Esleipenen zenbatekoa.
354. artikulua. Desgaitasun-gradua eta beste pertsona baten laguntza-premia zehaztea.
355. artikulua. Familia-aldaketen adierazpena eta ondorioak.
356. artikulua. Sortzapena eta ordainketa.
3. atala. Seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatik prestazio ekonomikoa, familia ugariantzat, guraso bakarreko familientzat edo desgaitasuna duten amentzat.
357. artikulua. Prestazioa eta onuradunak.
358. artikulua. Prestazioaren zenbatekoa.
4. atala. Prestazioa erditze edo adopzio anizkoitzarengatik.
359. artikulua. Onuradunak.

360. artikulua. Zenbatekoa.

5. atala. Xedapen erkideak.

361. artikulua. Bateriaezintasunak.

362. artikulua. Errebalorizazioa.

II. kapitulua. Pentsio ez-kontributiboak.

1. atala. Baliaezintasun ez-kontributiboa.

363. artikulua. Onuradunak.

364. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

365. artikulua. Pentsioen ondorio ekonomikoak.

366. artikulua. Pentsioen bateragarritasuna.

367. artikulua. Kalifikazioa.

368. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

2. atala. Erretiroa, modalitate ez-kontributiboan.

369. artikulua. Onuradunak.

370. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

371. artikulua. Eskubide-aitorpenaren ondorio ekonomikoak.

372. artikulua. Onuradunen betebeharrak.

III. kapitulua. Prestazio ez-kontributiboei buruzko xedapen erkideak.

373. artikulua. Kudeaketa.

Lehenengo xedapen gehigarria. Araubide bereziei aplikatzekoak zaizkien arauak.

Bigarren xedapen gehigarria. Langile emigratzaileen babesa.

Hirugarren xedapen gehigarria. Funtzionario publikoak eta sartu berriak diren beste langile batzuk Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzea.

Laugarren xedapen gehigarria. Administrazio publikoei bigarren lanpostu edo jarduera batean emandako zerbitzuak aintzat hartzea.

Bosgarren xedapen gehigarria. Europar Batasuneko Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten aseguratuen Gizarte Segurantzako araubidea.

Seigarren xedapen gehigarria. Prestakuntzako, praktiketako, lankidetzako edo espezializazioko egonaldiak.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Deuseztatuta dagoen Toki Administrazioiko Funtzionarioen Araubide Berezitik datozen funtzionarioentzako osasun-laguntzaren araubidea.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Amatasunagatiko eta aitatasunagatiko prestazio ekonomikoen kudeaketa.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Itsasoko Gizarte Institutua.

Hamargarren xedapen gehigarria. Hirugarrenei ondasunak saltzeagatik eta zerbitzuak emateagatik lortutako diru-sarrerak.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Gastuak baimentzearen arloko eskumenak.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentzia, beste estatu batean aseguratuta egonik Espainian bizilekua dutenei dagokienez.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Kaleratze kolektiboko espediente jakin batzuk direla-eta izenpetu beharreko hitzarmen bereziaren araubide juridikoa.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen hitzarmen berezien araubide juridikoa.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziaren jarraipen batzordea.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Nekazaritza-ustategiaren titularren ezkontidea.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia egokitzea.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Profesional elkargokideen sailkapena.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren ordezkotako aukera diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen babes-eremua.

Hogeigarren xedapen gehigarria. Ertzaintzako kideen erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoetako montepioei kotizatutako aldien zenbaketa.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen egokitzapenari eta nahikotasunari buruzko txostena.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Gizarte Segurantzaren kuoten eta baterako diru-bilketaren ekarpenen hobariak izaera bereziko zenbait lan-harremanetan, eta zenbait eremu geografikotako langileak direla-eta aplikatu beharreko murrizketak.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Etxeko Langileentzako Sistema Bereziako kotizazioan onurak aplikatzea.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Epai bidez ezgai deklaratu diren pertsonen parekatzea.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Familia-establezimenduen titularren ezkontideak.

Lehenengo xedapen iragankorra. 1967 baino lehenagoko legeriatik eratorritako eskubide iragankorrak.

Bigarren xedapen iragankorra. Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko prestazioak.

Hirugarren xedapen iragankorra. Lehengo araubideetan egindako kotizazioak.

Laugarren xedapen iragankorra. Aurreko legeriaren aplikazioa, erretiro-pentsiorako eskubidea sortzeko.

Bosgarren xedapen iragankorra. Erretiro aurreratua zenbait kasu berezitan.

Seigarren xedapen iragankorra. Altarekin parekatutako egoera birmoldaketa-prozesuetan.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Erretiro-adinaren eta kotizazio-urteen pixkanakako aplikazioa.

Zortzigarren xedapen iragankorra. Erretiro-pentsioaren oinarri arautzaileari buruzko arau iragankorrak.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. Erretiro-pentsioa kalkulatzeko, kotizatutako urteei esleitu beharreko portzentajeak aplikatzea.

Hamargarren xedapen iragankorra. Erretiro partzialari buruzko arau iragankorrak.

Hamaikagarren xedapen iragankorra. Erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak aplikatzea.

Hamabigarren xedapen iragankorra. Hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten langileak kuotetatik salbuetsita egon diren aldiak erretiro-pentsioaren ondorioetarako nola zenbatu.

Hamahirugarren xedapen iragankorra. Alarguntasun-pentsioari buruzko arau iragankorra, 2008ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko banantze judizial edo dibortzio kasuetan.

Hamalaugarren xedapen iragankorra. Seme-alabak edo adingabeak zaintzeagatik onuren aplikazioa.

Hamabosgarren xedapen iragankorra. Adierazpen matematikoaren α parametroaren balioa pentsio kontributiboen errealizazio-indizea finkatzeko.

Hamaseigarren xedapen iragankorra. Kotizazio-oinarriak eta -tasak eta babes-jarduna Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren.

Hamazazpigarren xedapen iragankorra. Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezitik datozen besteren konturako langileak.

Hemezortzigarren xedapen iragankorra. Kotizazio-oinarriak eta -tasak eta murrizketak pixkanaka aplikatzea Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian.

Hemeretzigarren xedapen iragankorra. Lan-bazkide jakin batzuk sailkatzeko araubidea.

Hogeigarren xedapen iragankorra. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta eman aurretiko kuotek prestazioen ondorioetarako daukaten balioa.

Hogeita batgarren xedapen iragankorra. Ordezko entitateen integrazioa.

Hogeita bigarren xedapen iragankorra. Futbol-klubek Gizarte Segurantzarekin dituzten zorrak.

Hogeita hirugarren xedapen iragankorra. Diru-bilketarako itunak.

Hogeita laugarren xedapen iragankorra. Prestazio ez-kontributiboan bateraezintasuna.

Hogeita bosgarren xedapen iragankorra. Desgaitasuna duten pertsonen subsidio ekonomikoen iraupena.

Hogeita seigarren xedapen iragankorra. Ezintasun iraunkorraren kalifikazioa.

Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra. Pentsio kontributiboetarako gutxienezko osagarriak.

Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. Legezko langabezia-egoera jakin batzuk egiaztatzea.

Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen sartutako langileen aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren estaldura.

Azken xedapenetatik lehena. Eskumen-titulua.

Azken xedapenetatik bigarrena. Beste ministerio-sail batzuen eskumenak.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Erretiro-pentsioari buruzko arauak egokitzea, adina jaisteagatik.

Azken xedapenetatik laugarrena. Jardunean dauden langileak.

Azken xedapenetatik bosgarrena. Besteren konturako nekazaritzako langileei buruzko xedapenak.

Azken xedapenetatik seigarrena. Kalez kaleko edo etxez etxeko salmentan diharduten langile autonomoak.

Azken xedapenetatik zazpigarrena. Aldi baterako ezintasunari buruzko eskumenak.

Azken xedapenetatik zortzigarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

I. TITULUA

Gizarte Segurantzaren sistemako arau orokorrak

I. KAPITULUA

Atariko arauak

1. artikulua. *Espainiarren Gizarte Segurantzarako eskubidea.*

Espainiarrek Gizarte Segurantzarako duten eskubidea, Konstituzioaren 41. artikuluan jasotakoa, lege honetan xedatutakoari egokituko zaio.

2. artikulua. *Gizarte Segurantzaren printzipioak eta helburuak.*

1. Gizarte Segurantzaren sistema, modalitate kontributiboko eta ez-kontributiboko babes-jardunaren bitartez egituratua, unibertsaltasun, batasun, elkartasun eta berdintasun printzipioetan oinarritzen da.

2. Estatuak, Gizarte Segurantzaren bitartez, azken horren aplikazio-eremuan sartutako pertsonen –modalitate kontributiboan edo ez-kontributiboan eskatutako betekizunak betetzeagatik– eta beren ardurapean dituzten familiartekoei edo parekatuei bermatzen die babes egokia izatea lege honetan jasotako gertakariak eta egoerak direla eta.

3. artikulua. *Gizarte Segurantzaren eskubideen ukazintasuna.*

Deuseza izango da langileak lege honek ematen dizkion eskubideei uko egiteko itun oro, banakakoa nahiz kolektiboa izan.

4. artikulua. *Eginkizunen mugatzea.*

1. Estatuari dagozkio Gizarte Segurantzaren antolamendua, jurisdikzioa eta ikuskatzea.
2. Langileek eta enpresaburuek elkarrekin egingo dute lan Gizarte Segurantzaren kudeaketan, lege honetan ezarritako moduan; hori, halere, ez da eragozpena izango legeek interesdunen parte-hartzerako ezarritako beste bide batzuetarako, Konstituzioaren 129.1 artikuluari jarraituz.
3. Gizarte Segurantzaren antolamendua ezingo da oinarri izan merkataritza-irabaziak lortzeko eragiketarako.

5. artikulua. *Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren eta beste ministerio-sail batzuen eskumenak.*

1. Estatuak Gizarte Segurantzaren arloan dauzkan eginkizun ez-jurisdikzionalak, Gobernuak berezko ez dituenak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak beteko ditu, ezertan eragotzi gabe beste ministerio-sail batzuek beren arloen berriarazko eremuan izan ditzaketen eginkizunak.

2. Estatuaren eskumenen barruan, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari honako ahalmen hauek dagozkio, lege honetan araututako arloei dagokienez:

- a) Gobernuari erregelamendu orokorrak proposatzea, aplikatu daitezkeen.
- b) a) letran jasota ez dagoen erregelamendu-ahala baliatzea.
- c) Gizarte Segurantzaren eginkizun ekonomiko-finantzarioak garatzea –horretan, salbuespen izango dira Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean eta harekin bat datozen xedapenetan Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioari esleitutakoak edo, kasua bada, lege horrek arlo horretan berriarazko eskumenak ematen dizkien bestelako organoei esleitutakoak–, eta, halaber, Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileen, zerbitzu erkideen eta beraren kudeaketan laguntza ematen diharduten entitateen zuzendaritza- eta tutoretza-eginkizunak. Izan ere, haien botereak eta ahalmenak eten edo aldatu ahalko dituzte erregelamenduz ezartzen diren kasuetan eta ezartzen diren formaltasun eta betekizunekin.
- d) Gizarte Segurantzaren ikuskapena, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren bitartez.
- e) Ezartzea Gizarte Segurantzaren arloan erantzukizuna duten subjektuak zein kasutan egongo diren behartuta jakinarazpenak bitarteko elektronikoz jasotzera, Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 27.6 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak egoki antolatuko du zein zerbitzu eta erakunde egingo dituzten Gizarte Segurantzaren azterlan juridiko, soziologiko, ekonomiko eta estatistikoak, bai eta haiek garatu eta aplikatzeko eragiketak eta izapide administratiboak sinpletu eta arrazionalizatzeko azterlanak ere.

4. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari Gizarte Segurantza dela eta esleitutako eskumenen baliatzea lege honetan, berau aplikatu eta garatzeko xedapenetan edo Ministerioaren xedapen organikoetan finkatutako organo eta zerbitzuei dagokie.

6. artikulua. *Antzeko eginkizunen koordinazioa.*

Gobernuari dagokio behar diren xedapenak ematea Gizarte Segurantzaren sistemako organismoen, zerbitzuen eta entitate kudeatzaileen ekintza koordinatzeko gizarte-aurreikuspeneko, hezkuntzako eta gizarte-laguntzako eginkizunak betetzen dituztenen ekintzarekin.

II. KAPITULUA

Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremua eta egitura

1. atala. *Xedapen orokorrak*

7. artikulua. *Aplikazio-eremuaren hedadura.*

1. Gizarte Segurantzaren sistemari sartuta egongo dira, prestazio kontributiboen ondorioetarako, edozein dela haien sexua, egoera zibila eta lanbidea, Espainian bizilekua duten espainiarrak eta Espainian bizilekua duten edo legez dauden atzerritarrak, baldin eta, bi kasuetan, beren jardura nazioko lurraldean egiten badute eta honako letra hauetakoren batean sartuta badaude:

a) Besteren konturako langileak, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 1.1 artikuluan ezarritako baldintzetan jardura ekonomikoaren adarretako batean lanean ari direnak, edo haiekin parekaturikoak, izan aldi baterakoak, sasoiakoak edo finkoak, are aldizkako lan-kontratu finkoa dutenak ere, urruneko langileak barne, eta edozein delarik ere, kasu guztietan, langilearen lanbide-taldea, jasotzen duen ordainaren forma eta zenbatekoa, eta lan-harremanaren izaera, arrunta edo berezia.

b) Norberaren konturako langileak edo langile autonomoak, norbanakoen enpresen nahiz familia-enpresen titularrak izan ala ez izan, hemezortzi urtetik gora badituzte eta lege honetan eta bera garatzeko arauetan berariaz xedatzen diren betekizunak betetzen badituzte.

c) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak.

d) Ikasleak.

e) Funtzionario publikoak, zibilak eta militarrik.

2. Halaber, Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremuan sartuta egongo dira, prestazio ez-kontributiboen ondorioetarako, Espainiako lurraldean bizilekua duten espainiar guztiak.

Halaber, Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremuan sartuta egongo dira, prestazio ez-kontributiboen ondorioetarako, Espainiako lurraldean legezko bizilekua duten atzerritarrak, Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritako moduan, eta, kasua bada, horretarako onartutako, izenpetutako edo berretsitako nazioarteko itun, hitzarmen, akordio eta tresnetan ezarritako moduan.

3. Gobernuak, gizarte-babes publikoko sistemen esparruan, gizarte-babeseko neurriak ezarri ahalko ditu Espainian bizilekurik ez duten espainiar guztientzat, bizilekua duten herrialdeen ezaugarrien arabera.

4. Gobernuak, goi mailako kirolarien erabateko gizarteratzea eta laneratzea errazteko neurri gisa, ezarri ahalko du haiek Gizarte Segurantzaren sistemari sar daitezela.

5. Artikulu honetako aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, Gobernuak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposatuta eta ordezkaritza handieneko sindikatu-erakundeei eta lanbide-elkargo eskudunari entzunda, interesdunek eskatuta, Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubidearen aplikazio-eremutik kanpo utzi ahalko ditu besteren kontura lan egiten duten eta, beren lanaldiari edo ordainsariei erreparatuta, marjinalizat jotzen den edo funtsezko bizibidetzat ezin har daitekeen lana egiten duten pertsonak.

8. artikulua. *Nahitaez araubide batean baino gehiagotan sarturik egoteko debekua.*

1. Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremuan dauden pertsonak ezingo dira lan berarengatik sarturik egon, nahitaezko izaeraz, sistema hori osatzen dutenez bestelako aurreikuspen-araubideetan.

2. Lege honetan erregulatuz bestelako nahitaezko aurreikuspen-sistemak, zenbait lanbide-taldek eratuta eduki ditzaketenak, Araubide Orokorrean nahiz araubide berezietan sartuko dira, bidezkoa denaren arabera, betiere aipatutako taldeak araubide horien aplikazio-eremuan sartzea nahitaezkoa denean.

9. artikulua. *Gizarte Segurantzaren sistemaren egitura.*

1. Gizarte Segurantzaren sistema honako araubide hauek osatzen dute:

- a) Araubide Orokorra, zeina lege honetako II. tituluaren erregulatzen baita.
- b) Araubide bereziak, zeinak hurrengo artikuluan aipatzen baitira.

2. Gizarte Segurantzaren sistemako araubide bereziak 10. artikulua 3. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera erregulatuko dira. Erregelamendu bidez ezarriko dira araubide batzuetatik besteetara pasatzen diren pertsonen bidean diren eskubideak kontserbatzeko denbora, irismena eta baldintzak, araubide horietako bakoitzean egoteko aldiak orokortuz, gainezartzen ez diren bitartean. Arau horiek zenbaki honetan xedatutakoari egokituko zaizkio, edozein dela ere ukitzen duten araubidea, eta kontuan hartuko dute horietako bakoitzaren babes-jarduna zein edukitaraino iritsi den.

10. artikulua. *Araubide bereziak.*

1. Zenbait jarduera profesionaletan araubide bereziak ezarriko dira beren izaerarengatik, denborazko nahiz tokiko baldintza bereziengatik edo beren produkzio-prozesuen izaerarengatik halakoak ezartzea beharrezkoa denean Gizarte Segurantzaren onuren aplikazio egokirako.

2. Araubide berezitzat hartuko dira honako talde hauetan sailkatzen direnak:

- a) Norberaren konturako langileak edo langile autonomoak.
- b) Itsasoko langileak.
- c) Funtzionario publikoak, zibilak eta militarrik.
- d) Ikasleak.

e) Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, haietan araubide berezia ezartzeko beharrezkoa delakoan, erabakitzen dituen gainerako taldeak, 1. zenbakian ezarritakoari jarraituz.

3. Aurreko zenbakiko b) eta c) letretan sartzen diren gainerako taldeei dagozkien araubide bereziak horretarako ematen diren berariazko legeen arabera arautuko dira, eta haien erregulazioan homogeneotasunera jo beharko da, hurrengo zenbakian adierazitako moduan.

4. IV. tituluaren ezarritakoa eragotzi gabe, aurreko zenbakian jasota ez dauden araubide berezietako erregelamenduzko arauetan, horietako bakoitzaren aplikazio-eremua finkatuko da, eta haiei buruzko gaiak erregulatuko dira, titulu honen xedapenetan ezarritakoei erreparatuta eta Araubide Orokorrean ahal den homogeneotasun handiena bilatuz, sistemaren finantzetan baliagarri dagoenaren arabera eta araubide horiek ukitutako taldeen ezaugarriei begiratuta.

5. Gizarte Segurantzaren sistemaren antolamenduaren buruan egon behar duen batasunerako joerarekin bat, Gobernuak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposatuta, xedatu ahalko du 2. zenbakian aipatzen diren taldeei dagozkien araubide berezietatik edozein Araubide Orokorrean sar dadila, berariazko legeen arabera direnak izan ezik, betiere hori posiblea den kasuetan, ukitutako taldeen ezaugarri bereziei eta kasuan kasuko araubide bereziaren erregulazioan Araubide Orokorrekiko lortutako homogeneotasun mailari erreparatuta.

Era berean, xedatu ahalko da aurreko zenbakian ezarritakoa sartzea beste araubide berezi batean gauza dadin, bi araubideen ezaugarriek hala gomendatzen dutenean eta horrekin Araubide Orokorrean homogeneousotasun handiagoa lortzen denean.

11. artikulua. *Sistema bereziak.*

Lege honetan araututako sistema berezietan gainera, horrela jokatzeko beharrezkotzat gertatzen den Gizarte Segurantzako araubideetan, sistema bereziak ezarri ahalko dira honako arlo hauetako batean edo batzuetan: sailkapena, afiliazioa, kotizazio modua edo diru-bilketa. Sistema horien erregulazioan, jarduera dela-eta edo haietan sartutako pertsonen izaera dela-eta eskuduna den ministerioak informatuko du.

2. atala. *Kolektibo jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien xedapenak*

12. artikulua. *Familiartekoak.*

1. 7.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira hartuko besteren konturako langileetat honako hauek, non eta ez den kontrakoa frogatzen: enpresaburuaren ezkontidea eta bigarren gradurainoko –hori barne– odolkidetasunez edo ezkontza bidez eta, hala badagokio adopzio bidez haren ondorengo, aurreko eta gainerako ahaide direnak, enpresaburuaren lantokian edo lantokietan badihardute, berarekin bizi direnean eta bere kargu dituztenean.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitakoa ezertan eragotzi gabe eta Lan Autonomoaren Estatutuaren uztailaren 11ko 20/2007 Legearen hamargarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, langile autonomoek besteren konturako langile moduan kontratatu ahalko dituzte hogeita hamar urtetik beherako seme-alabak, nahiz eta haiekin bizi. Kasu horretan, langabeziagatiko estaldura familiarteko kontratatuei emandako babes-jardunaren esparrutik kanpo geratuko da.

Tratamendu bera emango zaie seme-alabei 30 urtetik gorakoak izan eta laneratzeko zailtasun bereziak dituztenean. Ondorio horietarako, joko da zailtasun berezi horiek existitzen direla langilea honako talde hauetakoren batean sartuta dagoenean:

- a) Garuneko paralisia, gaixotasun mentala edo desgaitasun intelektuala duten pertsonak, gutxienez ehuneko 33ko desgaitasun-gradua aitortua dutenak.
- b) Desgaitasun fisiko edo sensoriala duten pertsonak, gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua aitortua dutenak.

13. artikulua. *Desgaitasuna duten langileak.*

1. Enplegu-zentro berezietan enplegatuta dauden eta desgaitasuna duten langileak besteren konturako langile gisa sartuko dira beren jarduerari dagokion Gizarte Segurantzako araubidean.

2. Gobernuak haien lan-baldintzei eta Gizarte Segurantzari buruzko berariazko arauak onartuko ditu, lan-jardueraren ezaugarri berezietan erreparatuta.

14. artikulua. *Kooperatibetako bazkide langileak eta lan-bazkideak.*

1. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek Gizarte Segurantzaren onuzer gozatuko dute, eta kooperatibak honako modalitate hauen artean aukeratu ahalko du:

- a) Besteren konturako langileen parekatu gisa hartzea. Kooperatiba horiek Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuko dira, edo beraren araubide berezietako batean, kasuan-kasuan, beren jardueraren arabera.
- b) Dagokien araubide bereziko langile autonomo gisa hartzea.

Kooperatibek beren estatutuetan egingo dute aukera horren alde, eta aukera hori aldatu ahalko dute soilik Gobernuak ezartzen dituen kasuetan eta baldintzetan.

2. Lurraren ustiapenerako kooperatibetako bazkide langileek eta uztailaren 16ko 27/1999 Legearen 13.4 artikulua aipatzen dituen lan-bazkideak besteren konturako langileekin parekatuko dira Gizarte Segurantzaren ondorioetarako.

3. Nolanahi ere, ez lan elkartuko kooperatibei, ez lurraren ustiapen komunitarioko kooperatibei, ez eta haiek osatzen dituzten bazkide langileei ez zaizkie aplikatzekoak izango Soldatak Bermatzeko Funtsaren kotizazioari eta prestazioei buruzko arauak.

4. Baimena ematen zaio Gobernuari artikulua honetan aurreikusitako aukeraren norainokoa, moduak eta baldintzak erregulatzeko, bai eta, kasua bada, Gizarte Segurantzako araubideen arauak kooperatiba-jardueraren berezitasunei egokitzeko ere.

III. KAPITULUA

Afiliazioa, kotizazioa eta diru-bilketa

1. atala. Sisteman afiliatzea, eta sistema osatzen duten araubideetako altak, bajak eta datu-aldaketak

15. artikulua. *Afiliazioaren nahitaezkotasuna eta irismena.*

Gizarte Segurantzaren afiliazioa nahitaezkoa da 7.1 artikuluan aipatzen diren pertsonentzat, eta bakarra da bizitza osorako eta sistema osorako; hori, halere, ez da eragozpena izango hura osatzen duten araubideetako alta eta bajetarako, bai eta afiliazioaren ondoren gerta daitezkeen gainerako aldaketetarako ere.

16. artikulua. *Afiliazioa, altak, bajak eta datu-aldaketak.*

1. Afiliazioa egin ahalko da horretara behartuta dauden pertsonak eta entitateek eskatuta edo interesdunek eskatuta; bestela, Gizarte Segurantzaren Administrazioak ere ofizioz egin ahalko du.

2. Erregelamenduz zehazten diren pertsonak eta entitateei egokituko zaie afiliazioa eskatzeko eta Gizarte Segurantzaren Administrazioaren kasuko organismoek aurreko artikuluan aipatutako altak, bajak eta aldaketak eragiten dituzten egitateen berri emateko betebeharrak betetzea.

3. Baldin eta betebeharrak horiek dagozkien pertsonak eta entitateek ez badituzte betetzen, interesdunek zuzenean eskatu ahalko dute beren afiliazioa, alta, baja edo datu-aldaketa; hori, halere, ez da eragozpena izango haiek izan dituzten erantzukizunak ordaintzeko, horren barne dela, kasua bada, prestazioak beren kargura ordaindu behar izatea eta bidezko diren zehapenak ezartzea.

4. Bai afiliazioa, bai aurreko artikuluan aipatutako altak eta bajak emateko eta gainerako aldaketetarako behar diren izapideak, ofizioz egin ahalko dituzte Gizarte Segurantzaren Administrazioaren organismoek, baldin eta egiaztatzen bada, dauzkaten datuetan oinarrituta edo Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren jardueren nahiz beste edozein prozeduraren ondorioz, betebeharrak horiek ez direla bete.

5. Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 42. artikuluan ezarritakoa ezertan kendu gabe, beren jardura berekiari edo lantokietan modu jarraituan ematen den jarduerari dagozkion obrak edo zerbitzuak beste batzuekin kontratatzen edo azpikontratatzeko duten enpresaburuek egiaztatu beharko dute, kontratatutako edo azpikontratatzeko jardura ematen hasi baino lehen, ea kontrata edo azpikontrata betetzeko aldi osoan zehar bete ote den langileetako bakoitzak lantoki horietan betetzen duen lanpostuaren Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta.

6. Aurreko zenbakian ezarritako egiaztatze-eginberrak ez da eskatzeko izango kontratatutako jardura etxe baten titularrak bere etxebizitza dela-eta kontrata dezakeen eraikuntzari edo konponketari bakarrik dagokionean, eta, ezta ere, obraren edo industriaren jabeak jardura hori enpresa-jardura batengatik kontratatu ez duenean.

17. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Administrazioaren betebeharrak eta informaziorako eskubidea.*

1. Arloan eskudunak diren Gizarte Segurantzaren Administrazioako organismoek egunean mantenduko dituzte afiliatutako pertsonen buruzko datuak, bai eta atal honetan ezarritako betebeharrak betetzea dagokien pertsonenak eta entitateenak ere.

2. Enpresaburuak eta langileak eskubidea izango dute Gizarte Segurantzaren Administrazioako organismoen bidez informazioa jasotzeko, eta Gizarte Segurantzaren berekin lotutako zer datu dauden jakiteko. Eskubide bera izango dute zuzeneko interes pertsonala dutela frogatzen duten pertsonen, lege honetan ezarritakoaren arabera.

Ondorio horietarako, Gizarte Segurantzaren Administrazioak langile bakoitza informatuko du 205.1 artikulua araberako ezarritako erretiro arrunterako etorkizunean izango duen eskubideari buruz, erregelamenduz ezartzen den adinetik aurrera eta ezartzen den aldizkakotasunarekin eta edukiarekin.

Hala eta guztiz ere, langile bakoitzari egokitu dakioken erretiro arrunterako eskubideari buruzko komunikazio hori informazio-ondorio hutsetarako bidaliko da, eta ez du sortuko langilearen edo hirugarrenen aldeko ez eskubiderik ez eskubide-itxaropenik ere.

Betebehar hori eskatzekoa izango da, halaber, erretiroaren ondoriozko konpromisoak jasotzen duten izaera osagarriko edo ordezkoko aukerako tresnak direla-eta; esate baterako, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, ordezkoko aukerako mutualitateak, enpresetako gizarte-aurreikuspeneko planak, aurreikuspen-plan aseguruak, pentsio-planak eta -funtsak eta enpresen pentsioengatikoko konpromisoak bideratzeko banakako aseguruak eta aseguru kolektiboak. Informazioa Gizarte Segurantzak ematen duen informazioaren aldizkakotasun berarekin eta konparagarriak eta homogeneoak diren moduetan eman beharko da.

2. atala. *Gizarte Segurantzako kotizazioa eta baterako diru-bilketaren kontzeptuen arabeko kotizazioa*

18. artikulua. *Nahitaezkotasuna.*

1. Gizarte Segurantzako kotizazioa nahitaezkoa da sistemako araubide guztietan.

Langabezia-gertakariaren kotizazioa, bai eta Soldatak Bermatzeko Funtsagatikoko, lanbide-heziketagatikoko eta Gizarte Segurantzaren kuotekin batera biltzen diren gainerako kontzeptuengatikoko kotizazioa ere, nahitaezkoa izango dira lege honetan eta bera garatzeko arauetan ezarritako araubide eta kasuetan eta haietan ezarritako irismenarekin.

2. Kotizatzeke betebeharra sortuko da kasuko jarduera hasten den unetik, eta araubide bakoitza erregulatzen duten arauetan zehaztuko da zeintzuek bete behar duten hura.

3. Kotizatzeke betebeharra eta Gizarte Segurantzaren gainerako baliabideak ordaintzeko betebeharra betetzeko erantzuleak dira araubide eta baliabide bakoitzak diru-sarrerara egiteko betebeharra zuzenean ezarrita duten pertsona fisiko edo juridikoak edo nortasunik gabeko entitateak, bai eta, gainera, erantzukizun horiek dakartzaten egitate, ez-egite, negozio edo egintza juridikoen erantzule solidarioak, erantzule subsidiarioak edo *mortis causa* oinordekoak ere, Gizarte Segurantzaren betebeharrak edo legeen aurkakoak ez diren itun edo hitzarmenak aipatzen dituen edo salbuesten ez dituen lege mailako edozein arau aplikatuta. Erantzukizun solidario, subsidiario edo *mortis causa* hori lege honetan eta bera garatzeko araudian ezarritako diru-bilketarako prozeduraren bitartez deklaratu eta eskatuko da.

4. Kotizatzeke betebeharragatikoko erantzukizuna enpresaburuari dagokion kasuan, lege honetan eta bera garatzeko araudian ezarritako diru-bilketarako prozedura zuzendu ahalko da enplegatzen dituen langileen zerbitzuen prestazioa egiazki jasotzen duenaren aurka, nahiz eta enpresaburu gisa formalki ez agertu lan-kontratuetan, erregistro publikoetan edo entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen artxiboetan.

19. artikulua. *Kotizazio-oinarriak eta -tasak.*

1. Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriak eta -tasak, haiek biltzeko kontzeptuak eta Gizarte Segurantzaren kuotak urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezartzen direnak izango dira.

2. Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriek, kasuan kasuko araubidean, gehieneko muga gisa izango dituzte urte bakoitzerako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatutakoak, eta gutxieneko muga gisa, berriz, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa, seiren bat gehituta, xedapen espresu baten bidez kontrakoa adierazi ezean.

3. 1. zenbakian aipatutakoa ezertan kendu gabe, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariei dagokien kotizazioa jarduera ekonomiko, okupazio edo egoera bakoitzerako legez finkatutako primei buruzko tarifan ezarritako kotizazio-tasak aplikatuz egingo da. Kasuko primak, ondorio guztietarako, Gizarte Segurantzaren kuotatzat hartuko dira.

Langabezia-gertakarirako kotizazioaren oinarria, hura estaltzen duten Gizarte Segurantzako araubide guztietan, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariei dagokiena izango da.

Halaber, Soldatak Bermatzeko Funtserako eta lanbide-heziketarako ekarpenak finkatzeko kotizazio-oinarria, halakoak egiteko betebeharra dagoen Gizarte Segurantzako araubide guztietan, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariei dagokiena izango da.

20. artikulua. *Kotizazioan onurak eskuratzea, haiei eustea eta haiek galdu eta itzultzea.*

1. Gizarte Segurantzaren oinarri, tasa eta kuotetan eta baterako diru-bilketaren kontzeptuengatik murrizketak, hobariak edo beste edozein onura jaso ahalko dute soilik kotizatzeke betebeharra betetzeko erantzukizuna duten enpresek eta gainerako subjektuek, baldin eta haiek emateko datan haien ordainketan egunean daudela ulertzen bada.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren kotizazio-onurak eskuratzeak eta haiei eustea eskatuko dute, nolahi ere, enpresek eta kotizatzeke betebeharra betetzeko erantzukizuna duten gainerako subjektuek, halako onurak eskatu eta lortu dituztenek, bitarteko elektronikoz ondoren aipatzen direnei buruzko datuak ematea, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezartzen dituen moduan eta baldintzetan: enpresen inskripzioa; langileen afiliazioa, altak eta bajak; batzuen eta besteen datu-aldaketak, eta Gizarte Segurantzaren esparruko kotizazioari eta diru-bilketari buruzko datuak.

Aurrekoa gorabehera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak baimena eman ahalko du, salbuespeneko kasuetan eta modu iragankorrean, dokumentazio hori elektronikoa ez den beste euskarri batean aurkezteko, interesdunak hala eskatuta eta langileen kopurua, haien barreiatzea edo subjektu erantzulearen izaera publikoa direla-eta.

3. Erregelamenduzko epean Gizarte Segurantzaren kuotak eta kotizazioan onurak lortu ondoren sortutako baterako diru-bilketako kontzeptuei dagozkien kuotak ez ordaintzeak berekin ekarriko du soilik haiek automatikoki galtzea, epe horretan sartu ez diren aldietako kuotei dagokienez, salbu eta hori Gizarte Segurantzaren Administrazioak egindako oker baten ondoren gertatu bada.

4. Baldin eta, Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen kausengatik, kotizazioko etekinak ez badira erregelamenduz ezarritako moduan kendu, hiru hilabeteko epean horien zenbatekoa itzultzeko eskatu ahalko da, etekina kendu behar zen likidazioa aurkeztu den egunetik aurrera zenbatuta. Eskaera epe horretan egin ezean, eskubidea azkendu egingo da.

Kasu horretan itzulketa egitea bidezkoa bada, eskaera aurkeztu ondoko hiru hilabeteko epean itzulketa egin ez bada, 31.3 artikuluan xedatutako berandutze-interesa gehituko zaio itzuli beharreko zenbatekoari; hala, interes hori dagokion etekinaren zenbatekoari aplikatuko zaio, eskabidea aurkezten denetik ordaintzeko proposamena egin arteko denboragatik.

3. atala. *Kuoten eta sistemaren gainerako baliabideen likidazioa eta diru-bilketa*

1. azpiatala. Xedapen orokorrak

21. artikulua. *Eskumena.*

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Gizarte Segurantzaren sistemaren kutxa bakarra denez gero, erakundearen baliabideen likidazioa eta bilketa kudeatzeaz arduratuko da, bai eta Gizarte Segurantzaren kuotekin batera biltzen diren kontzeptuen likidazioa eta bilketa kudeatzeaz ere, hala borondatezko epean nola betearazpen-bidean, Estatuaren zuzendaritza eta babespean.

2. Likidazio-eginkizuna beteko da ezertan eragotzi gabe Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak gai horretan esleituta dauzkan eskumenak, eta, halaber, kuotez bestelako baliabide zehatz batzuei dagokienez, ezertan eragotzi gabe beste administrazio-organismo edo -organo batzuek esleituta dauzkaten eskumenak.

3. Dirua biltzeko eginkizuna betetzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egoki irizten dien zerbitzuak itundu ahalko ditu administrazio publikoekin edo xede horretarako gaitutako entitate pribatuekin.

Entitate pribatuei emango zaizkien gaikuntza horiek, aurreko lerrokadan aipatzen direnak, aldi baterako izango dira. Entitate horiekin egindako itunek Ministro Kontseiluaren baimena jaso beharko dute.

22. artikulua. *Kuotak eta gainerako baliabideak likidatzea eta ordaintzea.*

1. Honako sistema hauetako baten bidez likidatuko dira Gizarte Segurantzaren kuotak, langabeziarenak eta kuotekin batera biltzekoak diren kontzeptuak, lege honetan eta berau aplikatu eta garatzeko arauetan aurreikusitako moduan:

a) Autolikidazio-sistema: Gizarte Segurantzaren kuotak eta kuotekin batera biltzekoak diren kontzeptuak ordaintzeko erantzukizuna duen subjektuak egiten du likidazioa.

b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak zuzenean likidatzeko sistema: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egiten du langile bakoitzaren likidazioa; horretarako, aintzat hartzen ditu kotizatzerak behartuta dauden subjektuei buruz dituen datuak eta kotizatzeak betebeharra betetzeko erantzukizuna duten subjektuek emandako datuak, 29.2 artikuluari jarraituz.

Sistema horren bitartez, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak langile bakoitzari dagokion kotizazioa zehaztuko du; betiere, ordaintzeko erantzukizuna duen subjektuak hala eskatuz gero, eta subjektu horrek eman beharreko datuek likidazioa kalkulatzeko aukera ematen badute.

Kuotak ez dira sistema horren bidez likidatuko, likidatu beharreko aldian Gizarte Segurantzako kasuan kasuko araubidean alta emanda ez dauden langileen kasuan, nahiz eta ordainketaren erantzuleak likidazioa egiteko datuak emanak izan.

c) Likidazio erraztuko sistema, zeina honako kuota hauek zehaztuko aplikatuko den: Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian nahiz Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartutako langileen kuotak, Etxeko Langileentzako eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Araubide Orokorreko Sistema Berezietako kuotak, jarduerarik gabeko aldietan, bai eta Eskola Aseguruko zein hitzarmen berezietako kuota finkoak, eta sistema honen bitartez likida daitekeen beste zernahi kuota.

2. Gizarte Segurantzaren sistemako kuotez bestelako baliabideak likidatuko dira lege honetan edo bere aplikazio- eta garapen-arauetan haietako bakoitzari dagokionez ezartzen den moduan eta ezartzen diren betekizunekin.

3. Kuotak eta gainerako baliabideak ordaintzeko epea eta modua izango dira lege honetan, bere aplikazio- eta garapen-arauetan, edo araubide bakoitzari eta sistema berezietan aplikatzekoak diren xedapenetan zehaztutakoak. Ordainketa horiek egin ahalko

dira Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, zuzenean, edota 21. artikuluari jarraituz itundutako entitateen bidez, bai eta, egoki denean, legez aurreikusitako beste baldintza batzuetan ere.

Halaber, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak horretarako baimendutako entitateetan ere ordaindu ahalko dira kuotak eta gainerako baliabideak. Ministerioak eginkizun hori betetzeko arauak ezarriko ditu, eta, entitateak arau horiek betetzen ez baditu, Ministerioak baimena kendu ahalko dio, aurretik horri buruzko espedientea irekita.

Kuotak eta gainerako baliabideak itundutako edo baimendutako entitateetan ordaintzeak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian ordaintzearen ondorio berberak izango ditu, ordaintzen diren unetik bertatik.

23. artikulua. *Ordainketa geroratzea.*

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, zordunak eskatuta eta erregelamendu bidez ezartzen den moduan, Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketa geroratu ahalko du, eta geroratze horrek eten egingo du lege honetan ezartzen den diru-bilketarako prozedura.

2. Geroratzeak ezingo ditu hartu langileen ekarpenari eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariei dagozkion kuotak. Geroratzea emateari buruzko administrazio-ebazpena eraginkorra izan dadin, zor daitezkeen kuotak gehienez ere hilabeteko epean ordaindu behar dira, jakinarazpen-egunetik kontatzen hasita.

3. Geroratzeak zorraren printzipala eta, kasua bada, eskaera egiten den datan eskatzekoak diren errekarquak, interesak eta prozeduraren kostuak hartuko ditu, eta geroratzea ematen den unetik aurrera ezingo dira beste batzuk eskatu, ez-betetze kasurako xedatzen denaz beste.

4. Geroratzearen betetzea segurtatu beharko da zorraren printzipala eta errekarquak, interesak eta kostuak estaltzeko behar besteko bermeen bitartez, eta bete gabekotzat joko da geroratzea emateko ebazpenean ezartzen den bermerako eskubide pertsonalak edo errealak finkatutako epean eratzen ez badira.

Betebehar hori ez da eskatzekoa izango geroratutako zorraren zenbatekoa edo onuradunaren izaera direla-eta, erregelamenduz ezartzen den kasuetan. Kasu berezietan, aurreko zenbakian ezarritako betekizunetik guztiz edo partzialki salbuetsi ahalko da, hori gomendatzen duten aparteko arrazoiak gertatzen direnean.

5. Zorraren printzipalak, horren gaineko errekarquak eta geroratu beharreko prozeduraren kostuek interesa sortuko dute, eta ematen denetik ordaintzeko egunera arte izango da eskatzekoa, geroratzeak iraun bitartean, une bakoitzean indarrean dagoen berandutze-interesaren arabera. Interes hori bi puntu handiagoa izango da, zorduna aparteko kausengatik bermeak aurkezteko betebeharretik salbuetsiz gero.

6. Ordainketa geroratzeko baldintzetako edozein betetzen ez bada, geroratzea aitortu baino lehen hasitako premiamendu-prozedurari berrekingo zaio, bestelako izapiderik gabe. Era berean, oraindik premiamenduaren xede izan ez den zorrari dagokionez, premiamendu-probidentzia onartuko da, bestelako izapiderik gabe. Zor horri zenbateko nagusiaren ehuneko 20ko errekarqua aplikatuko zaio, baldin eta 29. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako obligazioak epearen barruan betetzen badira, eta ehuneko 35ekoa, ordea, epearen barruan betetzen ez badira.

Eskatzen diren berandutze-interesak ordainketa egiteko erregelamenduzko epea amaitzen denetik aurrera sortutakoak izango dira beti.

7. Geroratzea ez dela bete joko da onuradunak Gizarte Segurantzarekin dauzkan betebeharretan egunean egoteari utzi dionean, geroratzea eman eta gero.

24. artikulua. *Preskripzioa.*

1. Lau urteren buruan preskribatuko dute ondoren aipatzen diren eskubide eta akzioek:

a) Gizarte Segurantzaren Administrazioak daukan eskubidea, zorrak kuoten eta baterako diru-bilketako kontzeptuen arabera zehaztekoa, kasuan kasuko likidazioen bitartez.

b) Zorrak Gizarte Segurantzaren kuoten bitartez eta baterako diru-bilketako kontzeptuen bitartez ordain daitezzen eskatzeko ekintza.

c) Zehapenak ezartzeko ekintza, Gizarte Segurantzaren arauak ez betetzeagatik.

2. Helburu gisa kuotez bestelako baliabideak dituzten Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak dagokienez, preskripzio epea aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoa izango da, haien izaera juridikoa zein den.

3. Preskripzioa eten egingo da arrazoi arruntengatik eta, kasua bada, ordainketaren arduradunaren gaineko ezagutza formalarekin zorraren likidazioa edo diru-bilketak lortzeko egindako edozein administrazio-jardunengatik, eta, bereziki, zorra erreklamatu edo likidazio-akta bidez egindako erreklamazio administratiboarengatik. Preskripzioa etenda geldituko da, halaber, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak arautzen duen uztailaren 21eko 23/2015 Legearen 20.6 artikuluan aipatzen diren jarduketak hasteagatik.

25. artikulua. *Kredituen hurrenkera.*

Gizarte Segurantzako kuoten eta baterako diru-bilketaren kontzeptuen ondoriozko kredituek, eta, hala denean, horien gaineko bidezko errekaruek eta korrituek izango dute, beren osotasunean, Kode Zibilaren 1924. artikulua 1. puntuan aipatutako kredituen lehentasun-hurrenkera bera. Gizarte Segurantzako gainerako kredituek izango dute aipatu aginduaren 2.a E) zenbakian ezarritako lehentasun-hurrenkera.

Konkurtsu-kasuetan, Gizarte Segurantzako kuoten eta baterako diru-bilketaren kontzeptuen ondoriozko kredituak, eta, hala denean, horien errekaruak eta interesak, bai eta Gizarte Segurantzako gainerako kredituak ere, konkurtsu-legerian ezarritakoaren mende geratuko dira.

Legeak kredituak kobratzeko ezarritako hurrenkera ezertan galarazi gabe, premiamendu-prozedura beste betearazpen-prozedura judizial edo administratibo berezi batzuekin batera gertatzen denean, enbargoa zeinetan egin lehenengo eta prozedura horrek izango du lehentasuna.

26. artikulua. *Sarrera bidegabeak itzultzea, bermeen kostuak itzultzea eta epai bidez deklaraturako zenbatekoak ordaintzea.*

1. Kotizatzen edo Gizarte Segurantzarekiko bestelako zorrak, Gizarte Segurantzaren Administrazioak bildu beharrekoak, ordaintzen behartuta dauden pertsonak eskubidea izango dute, erregelamendu bidez ezartzen diren moduan eta kasuetan, egin dituzten diru-sarrera okerren zenbatekoa guztiz edo partzialki itzul diezaieten.

Diru-sarrera oker baten ondorioz itzuli beharreko zenbatekoa honako hauek osatuko dute:

a) Oker egin den eta halakotzat aitortu den diru-sarreraren zenbatekoa.

b) Diru-sarrera premiamendu-bidean egin denean, ordaindu diren errekaruak, interesak, kasua bada, eta kostuak.

c) 31.3 artikuluan aurreikusitako berandutze-interesa, diru-sarrerak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian egin denetik ordainketa-proposamena egin den arte iragan den denboran oker ordaindutako zenbatekoei aplikatuta.

Nolanahi ere, aplikatuko den berandutze-interesaren tasa interes horren sortzapenaldian indarrean zegoena izango da.

2. Ez da bidezkoa izango kuotak edo oker ordaindutako bestelako baliabideak itzultzea, gerta daitezkeen era guztietako erantzukizunak kendu gabe.

3. Sarrera bidegabeak itzultzeko eskubideak lau urteren buruan preskribatuko du, diru-sarrera egin eta biharamunetik kontatzen hasita.

4. Gizarte Segurantzaren Administrazioak Gizarte Segurantzarekiko zor baten exekuzioa eteteko aurkeztutako bermeen kostua itzuliko du, beraren zenbatekoa egiaztatu ondotik, zor hura epai bidez edo administrazio-ebazpen bidez bidegabekoa dela deklaritzen denean eta aitorten hori irmo bilakatzen denean.

Zorra partzialki bidegabekoa dela deklaritzen bada, aipatu bermeen kostuari dagokion partera iritsiko da itzulketa.

Era berean, jarritako errekurtsioa edo erreklamazioa partzialki onartzen diren kasuetan, betebeharraren pean dagoenak eskubidea izango du ekarritako bermearen murrizketa proportzionala izateko, erregelamenduz ezartzen den moduan.

5. Epai irmo baten indarrez interesdunei itzultzekoak diren edo halakotzat deklaritzen diren sarrerak bidegabekotzat hartuko dira, eta ebazpen horretan finkatutako moduan itzuli beharko dira, eta, kasua bada, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 24. artikulua aplikatuko da.

27. artikulua. *Gizarte Segurantzaren eskubideen gaineko transakzioak.*

1. Ezingo da amore eman, ez epaiketa bidez ez epaiketatik kanpo, Gizarte Segurantzaren eskubideak direla-eta, ezta arbitraje pean jarri ere eskubide horien inguruan sor daitezkeen gatazkak; hori Ministro Kontseiluan erabakitako errege-dekretu baten bidez egin beharko da, aurretiaz Estatu Kontseiluari entzunda.

2. Gizarte Segurantzarekiko kredituen lehentasunezko izaerak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari prozesu konkurtsaletan abstenitzeko eskubidea ematen dio. Halere, prozesu horietan zehar, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak konkurtso-legerian ezarritako akordio edo hitzarmenak sinatu ahalko ditu, eta, zordunaren eta bidezkotzat jotzen diren bermeekin, ordaintetarako baldintza bereziak hitzartu ere. Baldintza horiek ezingo dira zordunarentzako hobeak izan prozesu judizialaren bukaerako hitzarmen edo akordioan jasotakoak baino.

2. azpiatala. Borondatezko epeko likidazioa eta diru-bilketa

28. artikulua. *Erregelamenduzko epean ez ordaintzeak dakartzan ondorioak.*

Diru-sarrera egiteko erregelamenduz ezarri den epean zorra ordaintzen ez bada, errekarria aplikatuko da eta berandutze-interesak sortuko dira, lege honetan ezarritako moduan.

Errekargua eta berandutze-interesak, eskatu ahal direnean, dagozkien zorrekin batera ordainduko dira.

Diru-sarrera erregelamenduz ezarritako epetik kanpo egitea Administrazioak egindako oker bati egotzi ahal zaionean eta Administrazioa enpresaburu ez denean, ez da errekarriurik aplikatuko, eta ez da interesik sortuko.

29. artikulua. *Kuotak likidatzearen arloko betebeharrak betetzea eta konpentsazioa.*

1. 22.1 artikulua a) letrak aipatzen den kuotak autolikidatzeko sisteman, kotizatze betebeharra betetzeko erantzukizuna duten subjektuek bitarteko elektronikoen bidez transmititu beharko dizkiote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari Gizarte Segurantzaren kuoten eta kuotekin batera biltzekoak diren kontzeptuen likidazioak, likidazio hori dagozkion kotizazio-dokumentuak aurkeztuta egin behar duten kasuetan salbu.

Ordainketa egiteko erregelamenduzko epearen azken egun naturalera arte egin ahalko dute subjektuek aurreko lerrokadan aipatzen den transmisio edo aurkezpen hori.

2. 22.1 artikulua b) letran aipatzen den kuotak zuzenean likidatzeko sisteman, kotizatze betebeharra betetzeko erantzukizuna duten subjektuek langile bakoitzari dagokion likidazioa kalkulatzeko eskaera egin beharko diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, eta kalkulu hori egin ahal izateko datuak bitarteko elektronikoen

bidez transmititu beharko dizkiote, ordainketa egiteko erregelamenduzko epearen azken-aurreko egun naturalera arte.

Kalkulu hori egingo da Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kotizatzen behartuta dauden subjektuen inguruan dituen datuen arabera. Datu horiek honako hauek dira: batetik, subjektu erantzuleek emandakoak (enpresak inskribatzearekin edota langileen afiliatzearen, alden, baje eta datu-aldaketan berri ematearekin lotutako betebeharrak jarraituz); bestetik, Diruzaintza Nagusiak berak dituenak (kotizazioari eragiten diotenak); eta, azkenik, aipatutako subjektu erantzuleek likidazio-aldi bakoitzean aurkeztu beharrekoak.

Era berean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak dagozkien kenkariak aplikatuko dizkie likidazioa erregelamenduzko epean egiten duten langileei, eta, hala behar denean, konpentsatu egingo du langile horiei ordainketa eskuordetuaren araubidean ordaindutako prestazioen zenbatekoa, likidazio-aldi berean zor diren kuotekin. Hori guztia Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta laguntzaileek emandako datuen arabera egingo du, artikuluan honen 5. zenbakian aurreikusitakoa betez.

Baldin eta, likidazioa egin ondoren, kuotak ordaintzeko erantzukizuna duen subjektuak likidazioa zuzentzeko eskaera egiten badu, eta hasieran transmititutako datuez bestelakoak diren beste datu batzuk ematen baditu, zenbaki honen lehen lerrokadan adierazitako betebeharrak betetzat joko dira kuoten likidazio berria erregelamenduzko epean egin daitekeenean, eta kasu horretan baino ez, salbu eta epearen barruan likidatzeko ezintasunak Administrazioari egotz dakizkiokeen zergatietan badu jatorria.

Aipatutako betebeharrak betetzat joko dira, halaber, baldin eta likidazioa egin ondoren eta erregelamenduzko epearen barruan, ordainketa egiteko erantzukizuna duen subjektuak likidazioko oker materialak, aritmetikoak edo kalkulukoak zuzentzeko eskaera egiten badu, oker horiek eskusiboki Administrazioari bazezko egozgarri, eta, ondorioz, likidazio berri bat egin beharra badago, oker horiek aipatutako epetik kanpo zuzenduz.

3. Aurreko zenbakietan adierazitako betebeharrak betetzen ez direnean edota, erregelamenduz ezarritako epeetan beteta ere, kuotak ordaintzen ez direnean zein langilearen ekarpena soilik ordaintzen denean, lege honetan eta bera aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan azaldutako ondorioak sortuko dira.

4. 22.1 artikuluan c) letran aipatzen den kuoten likidazio erraztuko sisteman, ez da beharrezkoa izango da artikuluan honetako 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak betetzea; betiere, erregelamendu bidez ezarritako epearen barruan egin bada kuota horien xede diren subjektuak Gizarte Segurantzako dagokien araubidean alta emateko eskaera, alta hori beharrezkoa den kasuetan.

Alta erregelamenduzko epetik kanpo eskatzen bada, ez da beharrezkoa izango artikuluan honen 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak betetzea, eskaera aurkeztu ondoko aldiako kuoten likidazioari dagokionez, likidazio hori sistema honen bidez egingo baita.

Kasu horietan, aplikatzekoa izango da betebeharrak horiek epe barruan bete diren kasuetarako lege honetan aurreikusitakoa.

5. Subjektu erantzuleek epearen barruan betetzen badituzte 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak, aukera izango dute Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzeko betebeharraren ondorioz ordaindutako prestazioengatik kreditua eta likidazioen xede diren aldietan zordundutako kuotengatik zorra konpentsatzeko, kuota horiek ordaintzeko unea edozein izanda ere.

Zenbaki honetan araututako egoeraz bestelakoetan, kuotak ordaintzeko erantzukizuna daukaten subjektuek ezingo dituzte beren kredituak Gizarte Segurantzaren aurrean konpentsatu, ordainketa eskuordetuaren araubidean ordaindutako prestazioengatik edo kuota horien zenbatekoa duen beste edozein kontzeptuengatik, haiek ordaintzeko unea edozein izanda ere, eta borondatezko epean edo premiamendu-bidean erreklamatuak izan zein ez. Nolanahi ere, subjektu erantzule horiek eskubidea izango dute Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo kasuan kasuko entitate kudeatzailearen edo laguntzailearen aurrean dagozkien kredituak ordaintzea eskatzeko.

30. artikulua. *Epez kanpo ordaintzeagatiko errekarquak.*

1. Kuotak ez badira ordaintzen Gizarte Segurantzari ordaintzeko ezarritako erregelamenduzko epean, honako errekarqu hauek sortuko dira, ordaintetak geroratzeko aurreikusitako berezitasunak ezertan galarazi gabe:

a) Ordainteta egiteko erantzukizuna duten subjektuek epearen barruan bete badituzte 29. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak, zorraren ehuneko 20ko errekarqua, zor diren kuotak ordaintzeko epemugaren ondoren ordainduz gero.

b) Ordainteta egiteko erantzukizuna duten subjektuek ez badituzte 29. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak epearen barruan bete:

1.a. Zorraren ehuneko 20ko errekarqua, zor diren kuotak zorraren erreklamazioan edo likidazio-aktan adierazitako ordaintzeko epea amaitu aurretik ordainduz gero.

2.a. Zorraren ehuneko 35eko errekarqua, zor diren kuotak ordaintzeko epea amaitu ondoren ordainduz gero.

2. Gizarte Segurantzarekiko zorrek zuzenbide publikoko diru-sarreraren izaera dutenean, eta zor horien objektuak kuotez bestelako baliabideak direnean, 1.a) zenbakian aurreikusitako errekarquaz handituko dira, erregelamenduzko epean ordaintzen ez badira.

31. artikulua. *Berandutze-interesak.*

1. Gizarte Segurantzarekiko zorren berandutze-interesak eskatzekoak izango dira, betiere, zorra ez bada ordaindu premiamendu-probidentziaren jakinarazpenetik edo kenkari-prozeduraren hasierari buruzko komunikaziotik hamabost egun iragan direnean.

Halaber, interes horiek eskatzekoak izango dira zorraren zenbatekoa ez denean ordaindu zor-erreklamazioen edo likidazio-akten aurka aurkeztutako errekurtsioak ezesteko ebazpenetan finkatutako epean, baldin eta ebazpen horien betearazpena eten bada haien aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren izapideetan.

2. Eskatzekoak diren berandutze-interesak zorraren printzipalak diru-sarrerarako erregelamenduzko epearen muga-egunetik sortutakoak izango dira, bai eta ordaintzeko unean aplikatzeko den errekarquak sortutakoak ere, aurreko zenbakiaren arabera eskatzekoak diren egunetik kontatzen hasita.

3. Berandutze-interesaren tasa sortzapen-aldiko une bakoitzean diruak duen legezko interes indarduna izango da, ehuneko 25 gehituta, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak bestelako tasarik ezartzen ez badu.

32. artikulua. *Ordaintetak egoztea.*

Lege honetan geroratzearako eta ordenamendu juridikoan konkurtso-prozeduran sartutako zordunentzako ezarritako berezitasunak kendu gabe, premiatutako zorraren kobrantza partziala egotziko zaio, lehenengo, kobrantza hori eragin duen betearazpenari dagokion enbargoaren edo bermearen ordaintetari, eta gero zorraren gainerakoari. Bai kasu batean, bai bestean, kobrantza lehenengo prozesuko kostuei eta gero titulu zaharrenei aplikatuko zaie, eta zenbatekoa proportzionalki banatuko da printzipalaren, errekarquaren eta interesen artean.

33. artikulua. *Zorren erreklamazioak.*

1. Subjektu erantzuleak ez baditu zor dituen kuotak erregelamenduzko epean ordaintzen, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, honako kasu hauetan, erreklamatu egingo dio zenbateko hori, 30. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion errekarqua aplikatuta:

a) Alta emanda dauden langileei dagokienez kotizatu ez duenean, baldin eta ez baditu epearen barruan bete 29. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak, edota, epearen barruan bete arren, transmititutako kuota-likidazioek edo kotizazio-datuek

edo aurkeztutako kotizazio-dokumentuek zuzenean haiengandik eratorritako oker materialak, aritmetikoak edo kalkulukoak dituztenean.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak egoera horiek egiaztatzen baditu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari ezagutaraziko dio, eta likidazio-proposamen egokia helaraziko dio.

b) Alta emanda dauden langileei dagokienez kotizatu ez duenean, eta langile horiek ez direnean ageri transmititutako kuota-likidazioetan edo kotizazio-datuetan, ez eta epearen barruan aurkeztutako kotizazio-dokumentuetan ere; langile horiei dagokienez, joko da subjektu erantzuleak ez dituela bete 29. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak.

c) Diferentziak daudenean ordaindutako kuoten eta legez likidatu beharrekoen zenbatekoen artean (transmititutako likidazioen edo kotizazio-datuen zein aurkeztutako kotizazio-dokumentuen ondorio zuzenak direnak), eta ez bada egokia Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak haien izaera kotizagarriaren gaineko balorazio juridikoa egitea; kasu horretan, hurrengo artikulua 1.b) zenbakian ezarritakoaren arabera jokatu da.

d) Kuotengatik zorrak dituztenean, eta kuota horiek likidatzea ez dagokionean Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileari.

2. Halaber, honako hauei zorraren zenbatekoa erreklamatu zaie, zor horiek ordainarazi behar direnean, aintzat hartuta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak dituen datuak edo Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak ezagutzera emandakoak, eta lege mailako arau batek ere ez duenean Gizarte Segurantzari zorrak ordaintzeko erantzukizuna salbuesten:

a) Erantzule solidarioei. Kasu horretan, erreklamazioaren xede izango dira erantzukizun solidarioak estaltzen duen zorraren zenbateko nagusia, errekarquak, interesak eta erreklamazio hori egin arte sortutako kostuak.

b) Erantzule subsidiarioei. Kasu horretan, eta erantzukizuna legez mugatuta egotean salbu, erreklamazioaren xede izango da erreklamazioa egiteko unean hasierako zordunari eska dakiokkeen zorraren zenbateko nagusia, alde batera utzita errekarquak, interesak eta kostuak.

c) Jatorrizko zorduna zendu delako, erantzukizuna bere gain hartu duenari. Kasu horretan, erreklamazioaren xede izango dira zorraren zenbateko nagusia, errekarquak, interesak eta erreklamazioa egin arte sortutako kostuak.

3. Kuotengatik –aurkaratuak izan nahiz ez izan– zorren erreklamazioetan eskatutako zenbatekoak epe hauen barruan ordaindu beharko dira:

a) Hil bakoitzaren 1etik 15era bitartean jakinarazitakoak, jakinarazpen egunean hasi eta hurrengo hilaren 5era arte, edo hurrengo lehenengo egun baliodunera arte.

b) Hil bakoitzaren 16tik hilaren amaierara bitartean jakinarazitakoak, jakinarazpen egunean hasi eta hurrengo hilaren 20ra arte, edo hurrengo lehenengo egun baliodunera arte.

4. Kuotez bestekoak diren errekursoengatik Gizarte Segurantzarekin hartutako zorrak, halaber, zor-erreklamazioaren xede izango dira, eta erreklamazio horretan beraren zenbatekoa eta diru-sarrera egiteko erregelamenduzko epeak aipatuko dira.

5. Zor-erreklamazioen aurkako gora jotzeko errekursoa aurkezteak soilik etengo du diru-bilketarako prozedura nahikoa den abalaz bermatzen denean edo zorraren zenbatekoa izendatzen denean, horren barne dela, kasua bada, sortutako errekarqua.

Errekursoa ezesteko ebazpena dagoen kasuan, jakinarazpenetik hamabost egun igaro badira zorra ordaindu gabe, premiamendu-bidea hasiko da, premiamendu-probidentzia baten bitartez edo kenkari-prozeduraren bitartez, bidezkoa denaren arabera.

34. artikulua. *Kuoten likidazio-aktak.*

1. Bidezkoa izango da likidazio-aktak egitea honako hauek direla-eta sortutako kuoten ondoriozko zorrengeatik:

a) Langileak afiliatuta edo alta emanda ez egotea Gizarte Segurantzaren sistemako araubideetako batean.

b) Alta emanda dauden langileei dagozkien kotizazio-desberdintasunak, desberdintasun horiek transmititutako likidazioetatik edo kotizazio-datuetatik edota aurkeztutako kotizazio-dokumentuetatik zuzenean eratorri zein ez, epearen barruan nahiz kanpoan.

c) Ordaintzeko betebeharra duen subjektuaren erantzukizunaren deribazioa, edozein direla ere beraren kausa eta aplikatzekoa den Gizarte Segurantzako araubidea, betiere Gizarte Segurantzarekiko zorrengeatiko erantzukizuna kanpo uzten ez duen lege mailako edozein arautan oinarrituta. Legez ezarritako erantzukizun solidarioko kasuetan, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak akta egin ahalko die subjektu erantzule guztiei edo horietakoren bati. Kasu horretan, likidazio-aktak erantzukizun solidarioa aplikatzen zaion zorraren printzipala, errekaruak, interesak eta sortutako kostuak hartuko ditu, akta luzatzen deneko datara bitarte sortutakoak.

d) Gizarte Segurantzaren kotizazioetan bidegabeki aplikatzea enplegurako lanbide-heziketaren azpisistemaren prestakuntza-ekintzen finantzaketarako erregelamendu bidez ezarritako hobariak.

a), b) eta c) letretan aipatzen diren kasuetan, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak errekerimenduak egin ahalko dizkie edozein arrazoi tarteko zor diren kuotak ordaintzera behartuta dauden subjektuei, haiek jardunean den funtzionarioari zorra aitortu ondoren. Kasu honetan, zorraren kuoten araberako ordainketa, errekerimenduan jasotakoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak finkatzen duen epean egingo da; epe hori, nolana ere, ez da lau hiletik gorakoa izango. Errekerimendua betetzen ez bada, likidazio-akta eta arau-haustearen akta egingo dira, kuotak ez ordaintzeagatik.

Kuoten likidazio-aktak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak egingo ditu, eta kasu guztietan ikuskatzailtza horren organoen bitartez jakinaraziko dira; organo horiek, halaber, egitate berengatik egindako arau-hausteen aktak jakinaraziko dituzte, erregelamenduz ezartzen den moduan.

2. Erregelamenduz ezarritako betekizunen arabera egindako likidazio-aktak, behin interesdunei jakinarazita, behin-behineko likidaziotzat hartuko dira, eta behin betiko bihurtuko dira Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Zuzendaritza Nagusiaren edo kasuan kasuko zuzendaritza probintzialaren administrazio-egintza baten bitartez, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzako organo eskudunak proposatuta. Proposamen hori nahitaezkoa izango da eta ez da loteslea izango, eta interesdunarekin entzunaldi-izapidea egin ondoren gauzatuko da. Behin betiko likidazio-egintza horien aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da, egintzak eman zituen organoaren gainetik dagoen organoan. Likidazio-aktak langileei emango zaizkie ezagutzera, eta ukituta daudenek erreklamazioa aurkeztu ahalko dute, likidazioa egiten deneko aldiari edo kotizazio-oinarriari dagokienez.

3. Zorren zenbatekoak, likidazio-aktetan agertzen direnak, ordainduko dira jakinarazpena egin eta hurrengo hilaren azken egunera arte, behin likidazioari buruzko behin betiko administrazio-egintza eman ondoren; bestela, kenkari-prozedura hasiko da edo premiamendu-prozedura, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako moduan.

4. Egitate berberak direla-eta egin beharreko likidazio-aktak eta arau-haustearen aktak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak egingo ditu aldi berean. Horiek ebazteko eskumena eta prozedura 2. zenbakian adierazitakoak dira.

Arau-hausteen akta horietan proposatzen diren zehapenak ehuneko 50 murriztuko dira automatikoki, baldin eta arau-hausleak likidazioa onartzen badu eta beraren zenbatekoa 3. zenbakian adierazitako epean ordaintzen badu. Murrizketa automatiko hori egin ahalko da

soilik likidazioaren zenbatekoa hasiera batean proposatutako zehapena baino handiagoa bada.

35. artikulua. *Kuotengatiko zorrak zehaztea.*

1. Zorren erreklamazioak eta Gizarte Segurantzaren kuotengatiko premiamendu-probidentziak, dagozkien kasuetan, arau hauek betez egingo dira:

a) Ordaintzeko erantzukizuna duen subjektuak epearen barruan betetzen baditu 29. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak, kuota-likidazioa egiteko erreferentzia izan diren kotizazio-oinarrien arabera egingo dira.

b) Ordaintzeko erantzukizuna duen subjektuak ez baditu epearen barruan betetzen 29. artikulua 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betebeharrak, kotizazio-oinarri gisa hau hartuko da: zorraren erreklamazioaren xede diren langileen lanbide-taldearen edo -kategoriaren azkeneko kotizazio-taldea zein izan den, haren gutxieneko eta gehieneko oinarrien batezbestekoa, oinarri bakarrak aplikatu behar diren egoeretan salbu.

2. Likidazio-aktak egitean, langileak jasotzeko eskubidea duen guztizko ordainsaria hartuko da oinarritzat, edota, beste baten kontura egindako lanagatik jasotzen duena altuagoa bada, benetan jasotzen duen ordainsaria, ordainsari hori kotizazio-oinarrian integratu behar duenean, legean edo garapen-arauetan ezarritako moduan.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak ez duenean jakiterik zein den langileak jasotako ordainsariaren zenbatekoa, kotizazio-oinarri gisa hau hartuko da: likidazio-aktaren xede diren langileen lanbide-taldearen edo -kategoriaren azkeneko kotizazio-taldea zein izan den, haren gutxieneko eta gehieneko oinarrien batezbestekoa, oinarri bakarrak aplikatu behar diren egoeretan salbu.

36. artikulua. *Egiaztatzeko ahalmenak.*

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egiaztatu egin ahalko ditu 22.1 artikuluan aipatutako sistemen bidez kalkulaturako kuoten likidazioak; horretarako, behar beste datu edo dokumentu eskatu ahalko ditu. Egiaztapen horretan kotizazio-desberdintasunik atzemanaz gero, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak zor-erreklamazioaren edo likidazio-akta bidez eskatuko ditu zenbateko horiek, 33.1 eta 34.1 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, hurrenez hurren.

Aurreko lerrokadan xedatutakoak ez ditu eragotziko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak legez esleituta dauzkan eginkizunak betez egiaztapenak egiteko dituen ahalak.

3. azpiatala. *Betearazpen-bideko diru-bilketa*

37. artikulua. *Kautela-neurriak.*

1. Gizarte Segurantzarekiko zorren kobrantza ziurtatzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak behin-behineko kautela-neurriak hartu ahalko ditu, arrazoizko zantzuak daudenean uste izateko, hala egin ezean, kobrantza ezinezkoa izango dela edo hartarako zailtasun larriak egongo direla.

Neurriak saihestu nahi den kaltearen arabera finkatuko dira. Konpontzea zaila edo ezinezkoa den kaltea eraginen luketenak ez dira inoiz hartuko.

2. Kautela-neurriak honelakoak izan daitezke:

a) Sarrera bidegabeen itzulketetatik edo Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egin beharreko beste pagamenduetatik atxikitzea, zorraren kobrantza bermatzeko behar den zenbatekoan, hain zuzen.

Sarrera bidegabeen itzulketa baten kautelazko atxikipena, osoa edo partziala, jakinarazi beharko zaio interesdunari itzulketa akordioarekin batera.

b) Ondasunen edo eskubideen prebentziozko enbargoa. Prebentziozko enbargo hori segurtatuko da dagozkion erregistro publikoan jasoz edo enbargatutako ondasun higigarriak gordailutuz.

c) Legez aurreikusitako beste edozein.

3. Gizarte Segurantzarekiko zorra likidatu gabe egonda ere sortzapena egin denean, bera ordaintzeko erregelamenduzko epea iraganda, betiere zor hori dagokienean oinarriak, tasak eta aurrez ezarrita dauden eta erantzukizuneko gehieneko zenbateko bat finkatzeko bidea ematen duten beste datu objektibo batzuen aplikazioaren arabera zehatz daitezkeen kopuruei, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kautela-neurriak ezarri ahalko ditu, haien kobrantza segurtatze aldera, aurrez kasuko esparrua zein den, zuzendari probintzialek edo, bestela, zuzendari nagusiak edo haiek eskuordetzen duten agintariak baimena emanda.

4. Horrela hartutako kautela-neurriak kendu egingo dira, zorra ordaindu ez bada ere, neurri hauek hartzea eragin duten inguruabarrak desagertzen badira edo, interesdunak eskatuta, nahikotzat jotzen den beste berme batekin ordezkatzea erabakitzen bada.

Kautela-neurriak behin betiko neurri bilaka daitezke premiamendu-prozeduraren esparruan. Bestela, ofiziosz kenduko dira, eta ezingo dira luzatu sei hilabeteko epetik goiti, hartzen direnetik hasita.

5. Diruaren eta salgaien prebentziozko enbargoa erabaki ahalko da, establezimendurik gabe egindako jarduerengatik eta irabazizko lanengatik eska daitekeen Gizarte Segurantzarekiko zorraren ordainketa bermatu ahal izateko, langileak afiliatu ez direnean edo, bestela, Gizarte Segurantzako dagokien araubidean alta eman ez zaienean.

Halaber, ikuskizun publikoetako diru-sarreretan esku hartu ahalko da, kasuko enpresetako langileak afiliatu ez direnean eta alta eman ez zaienean, edo haiengatik Gizarte Segurantzako kotizaziorik egin ez denean.

38. artikulua. *Premiamendu-probidentzia, betearazpen-prozedurako beste egintza batzuk eta kenkari-prozedura.*

1. Diru-sarrera egiteko erregelamenduzko epea iragan bada zorra ordaindu gabe, behin zorraren erreklamazioa edo likidazio-akta administrazio-bidean irmo bihurtuta, halakoak bidezko diren kasuetan, premiamendu-bidea abiatuko da, premiamendu-probidentzia eginez, zeinean ordaintzeko dagoen zorra eta hari dagokion erreklargua identifikatuko baitira.

2. Premiamendu-probidentzia, organo eskudunak egina, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak premiamendu-prozedurari hasiera emateko betearazpen-titulu nahikotzat hartuko da. Zorra ordaintzera behartuta dauden subjektuen ondasun eta eskubideen kontra jotzeko, epaitegietako epaiek adina indar izango du.

Premiamendu-probidentziaren jakinarazpenean, subjektu erantzuleari ohartaraziko zaio ezen, eskatutako zorraren diru-sarrera egiten ez bada hura jaso edo argitaratu eta hamabost egunen buruan, sortutako berandutze-interesak eskatuko direla-eta ondasunak enbargatu egingo direla.

3. Premiamendu-probidentziaren aurkako gora jotzeko errekurtsua honako arrazoi hauengatik baizik ezingo da onartu, betiere justifikazioa emanda:

- a) Ordainketa.
- b) Preskripzioa.
- c) Zorra finkatzerakoan egindako oker material edo aritmetikoa.
- d) Zorra barkatzea edo geroratzea, edo prozedura etetea.
- e) Ez jakinaraztea zorraren erreklamazioa –halakoa bidezkoa denean–, likidazio-akta edo haiek nahiz kuoten auto-likidazioek sortutako ebazpenak.

Errekurtsua aurkezteak eten egingo du premiamendu-prozedura, bermea aurkeztu behar izan gabe, harik eta aurkaratzea ebazten den arte.

4. Baldin eta interesdunek gora jotzeko errekurtsua edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezten badute prozedura exekutiboan emandako premiamendu-

probidentzia besteko egintzen aurka, premiamendu-prozedura ez da etengo, ez bada jazarritako zorraren ordainketa egiten, behar besteko abalarekin bermatzen ez bada edo haren zenbatekoa jartzen ez bada, horren barne direla errekarua, sortutako interesak eta printzipalaren ehuneko 3, erregelamenduz ezarritako prozedura-kostuen konturako zenbateko gisa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eskura.

5. Zordunaren ondarearen aurkako betearazpena enbargoaren bidez eta haren balioa gauzatzearen bidez egingo dira, edo, kasua bada, zordunaren ondasunak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari esleitzen. Enbargoa zorraren printzipala eta eragin diren eta diru-sarrera egin arte edo Gizarte Segurantzari esleipena egin arte eragingo diren errekaruak eta prozeduraren interes eta kostuak estaltzeko behar adinako zenbatekoan egingo da, beti proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

Baldin eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren betetzea bermatuta badago abal, enbargo, hipoteka edo beste edozein berme pertsonal nahiz errearen bitartez, lehenbizi exekutatu egingo da. Exekuzio hori Gizarte Segurantzaren Administrazioari diru-bilketako organoek burutuko dute, premiamendu-prozedura administratiboaren bitartez.

6. Baldin eta zorduna administrazio publiko bat, organismo autonomo bat, enpresa-entitate publiko bat edo, oro har, zuzenbide publikoko beste edozein entitate bada, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren organo eskudunak, 1. zenbakian aipatzen diren epeak iraganda, kenkari-prozedura hasiko du, aurrez entitate ukituari entzunaldia eman ondoren, Gizarte Segurantzaren aldeko atxikipena adostuta, printzipalari, errekaruari eta interesei dagokien zenbatekoan, entitate zordunari Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura transferitu beharreko guztizko kopuruaren gainean kalkulatu, eta zorra guztiz edo partzialki azkenduta geratuko da Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak atxikitako zenbatekoa haren ordainketari aplikatzen dion momentutik.

Entitate horien ondarearen gaineko premiamendu-bidea hasiko da soilik, 2. zenbakian ezarritako moduan, legeak aurreikusten duenean enbarga daitezkeen ondasunen titulartasuna eduki dezaketela. Kasu horretan, eta premiamendu-probidentzia behin betikoa denean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren organo eskudunak aurreko lerrokadan ezarritako atxikipena erabakiko du; hori, halere, ez da eragozpena izango enbarga daitezkeen ondasunen gaineko premiamendu-prozedurari jarraipena emateko, zorren kobrantza osatu arte.

7. Betearazpen-bideko diru-bilketak sortutako kostuak eta gastuak ordainketaren erantzulea den subjektuaren kargura izango dira beti.

8. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak proposatuta, Gobernuak Gizarte Segurantzarekiko zorrak premiamendu-bidean kobratzeko prozedura onartuko du.

9. Aurreko zenbakietan xedatutakoak ez du ezertan eragotziko 39. artikuluan eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko araudian berariaz ezarritakoa.

39. artikulua. *Hirugarrengotzak.*

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagokio premiamendu-bidean sortzen diren hirugarrengotzak ebaztea. Halakoak erakunde horri aurkeztea alde aurreko betekizuna izango da, haiek jurisdikzio arrunteko epaitegietan bideratu ahal izateko.

2. Hirugarrengotza bakarrik oinarritu ahalko da zordunari enbargatutako ondasunen jabarian, edo hirugarrengotza aurkezten duenak bere kreditua berreskuratzeko daukan eskubidean, premiamendu-espeditetan bilatutakoaren aurretik.

3. Hirugarrengotza jabarikoa baldin bada, premiamendu-prozedura eten egingo da harik eta hura ebazten den arte, behin enbargoaren ondorengo segurtatze-neurriak hartuta, ondasunen izaera zein den. Hirugarrengotza eskubide hobekoa baldin bada, prozedurak jarraituko du ondasunak gauzatu arte, eta handik ateratakoa gordailutuko da hirugarrengotzaren emaitza gisa. Jabariko hirugarrengotza ez da onartuko eskritura publikoa eman ondoren, kasuko ondasunen salmenta burutu ondoren edo haiek, ordainketa gisa, Gizarte Segurantzari esleitu ondoren. Zuzenbide hobeko hirugarrengotza ez da onartuko biltzaileak salmentaren prezioa jaso ondoren.

40. artikulua. *Finantza-entitateen, funtzionario publikoen, profesional ofizialen eta agintarien informatzeko eginbeharra.*

1. Premiamendu-egoeran dauden eta Gizarte Segurantzari zor dioten dirua eskudirutan, kontuetan, baloreetan edo beste ondasunetan gordailutzen duten pertsonak edo entitateak behartuta daude Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari informazioa ematera eta hark beren legezko eginkizunetan eskatzen dietena betetzera.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen obligazioak bete beharko dira, izaera orokorrean edo Gizarte Segurantzaren Administrazioako organo eskudunen banan-banan eginiko eskaeraz, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta epeetan.

3. Ezingo dira artikuluko honen aurreko zenbakietan ezarritako betebeharrak bete gabe utzi bankuko sekretua babes hartuta.

Kontu korronteen, aurrezki-gordailuen eta eperako gordailuen, mailegu- eta kreditu-kontuen eta banku, aurrezki kutxa, kreditu-kooperatiba eta banku- zein kreditu-trafikoan diharduten pertsona fisiko edo juridiko guztien gainerako eragiketa aktibo edo pasiboan mugimenduei buruzko errekerimenduak egingo dira aurrez Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari nagusiak edo, kasua bada eta erregelamenduz ezarritako baldintzetan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari probintzialak baimena emanda, eta haietan zehaztu beharko dira ikerketaren xede diren eragiketak, ukitutako subjektu pasiboak eta ikerketaren irismena, xede duten aldiari dagokionez.

4. Funtzionario publikoak, profesional ofizialak barne, Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin lankidetzan aritzera behartuta daude, eta daukaten informazio guztia, edozein motatakoa, eman beharko diote, beharrezkoa denean Gizarte Segurantzaren baliabideak eta horiekin batera biltzekoak diren gainerako kontzeptuak biltzeko, honako egoera hauetan salbu:

- a) Korrespondentziaren edukia sekretua denean.
- b) Administrazio Publikoari helburu estatistiko hutsez emandako datuak sekretuak direnean.
- c) Notario-protokoloaren sekretua dagoenean. Sekretu horretan babestuta egongo dira bai Notariotzari buruzko 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 34. eta 35. artikuluetan aipatutako agerkari publikoak, bai ezkontza-gaiei dagozkienak, ezkontzaren araubide ekonomikoari buruzkoak izan ezik.

5. Profesionalek diru-bilketa dela-eta garrantzizko informazioa Gizarte Segurantzaren Administrazioari emateko duten betebeharra ez da iritsiko beren jardueraren dela-eta ezagutzen dituzten ondarez besteko datu pribatuak, baldin eta haiek jakitera emateak arriskuan jartzen badu pertsonen ohorea edo intimitatea edo haien familiarena. Ez da iritsiko, halaber, aholkularitza edo defentsako zerbitzu profesionalak ematearen ondorioz bezeroen datu konfidentzialetara.

Profesionalek ezingo dute sekretu profesionala aipatu beren Gizarte Segurantzako kotizazioa egiaztatzeari oztopo egiteko asmoz.

Ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren zortzigarren artikuluko 1. zenbakiaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira agintari eskuduntzat: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak, Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzako eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikusatzailatzako Zuzendaritza Nagusiko zuzendaritza-organoko eta -zentroen titularrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari nagusia eta zuzendari probintzialak.

6. Gizarte Segurantzaren Administrazioari datu pertsonalak lagatzeko, ez da ukituaren adostasunik beharko, lagapen hori egiten denean artikuluko honetan ezarritakoa betez edota, oro har, laguntzeko eginbeharra betez, Gizarte Segurantzaren baliabideak eta Gizarte Segurantzaren kuotekin batera bildu beharreko kontzeptuak eraginkortasunez likidatzeko eta biltzeko.

Aurreko lerrokadan aipatutakoa betetze aldera, honako hauek behar beste datu, txosten eta aurrekari eman beharko dizkiote Gizarte Segurantzaren Administrazioari,

likidazioak egiteko eta dirua biltzeko eginkizunak zuzen bete ditzan: agintariak (edozein dela ere horien izaera); Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organoen titularrak; organismo autonomoak, agentziak eta enpresa-entitate publikoak; ganberak eta korporazioak, elkargoak eta elkarte profesionalak; gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, eta, oro har, funtzio publikoetan lan egiten dutenak edo horiekin elkarlanean aritzen direnak; horretarako, betiere, betebeharrak horrek izaera orokorreko xedapen bidez ezarrita beharko du, edo Gizarte Segurantzaren Administrazioak errekerimendu zehatz bidez hala eskatu beharko du. Era berean, aipatutako administrazioari eta bertako langileei sostengua, laguntza, sorospena eta babesak eman beharko dizkiote, beren eskumenak balia ditzaten.

Artikulu honetan adierazitako datuak bitarteko elektronikoen bidez lagako dira, ahal izanez gero.

7. Artikulu honetan xedatutakoari jarraituz emandako datuak, txostenak eta aurrekariak Gizarte Segurantzaren Administrazioak likidazioak eta diru-bilketak egiteko esleituta dauzkan eginkizunen esparruan erabiliko dira soilik, lege honen 77. artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

41. artikulua. *Enbarga daitezkeen ondasunak ostentzea.*

Enbarga daitezkeen ondasunak gordailutzen dituzten pertsonak edo entitateak, baldin eta Gizarte Segurantzak egindako enbargoaren aurrez ezagutzen badute, erregelamenduz ezarritako premiamendu-prozedura administratiboa tarteko, eta enbargo-aginduen ez-betetzean edo ondasunen ostentzean laguntzen badute edo hura onartzen badute, zorraren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira enbargatu edo besterendu ahalko ziren ondasunen balioaren zenbatekora bitarte.

IV. KAPITULUA

Babes-jarduna

1. atala. *Xedapen orokorrak*

42. artikulua. *Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-jarduna.*

1. Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-jardunak honako hauek hartuko ditu:

a) Amatasuneko, gaixotasun arrunteko edo profesionaleko eta istripuko –lanekoa izan nahiz ez izan– kasuen osasun-laguntza.

b) Oneratze profesionala, baldin eta beraren jatorria antzematen bada aurreko letran aipatzen diren kasuetako edozeinetan.

c) Prestazio ekonomikoak honako egoera hauetan: aldi baterako ezintasuna; amatasuna; aitasuna; haurdunaldiko arriskua; edoskialdi naturaleko arriskua; minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeen zainketa; ezintasun iraunkor kontributiboa eta baliaezintasun ez-kontributiboa; erretiroa, modalitate kontributiboan eta ez-kontributiboan; langabezia, maila kontributiboan eta asistentzian; jarduera uzteagatik babesa; heriotza eta biziraupena. Halaber, errege-dekretu bidez, erregelamenduetan, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak hala proposatuta, zein gertakari eta egoera berezi ezarri eta horietan emandako prestazioak.

d) Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak, modalitate kontributiboan eta ez-kontributiboan.

e) Desgaitasuna duten pertsonen prestakuntzaren eta errehabilitazioaren arloan eta adineko pertsonentzako laguntzaren arloan ezarri ahal diren gizarte-zerbitzuetako prestazioak, bai eta komenigarritzat jotzen diren gainerako arloetakoak ere.

2. Halaber, aurreko zenbakian jasotako prestazioen osagarri gisa, gizarte-laguntzaren onurak eman ahalko dira.

3. Aurreko zenbakietan jasotako babes-jardunak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren eta araubide berezien balizko luzapenaren esparrua mugatzen du, bai eta prestazio ez-kontributiboena ere.

4. Gizarte Segurantzaren prestazio kontributiboak osatzea, zabaltzea edo aldatzea xede duen izaera publikoko edozein prestazio Gizarte Segurantzaren sistemako atal bat da, eta 2. artikuluan bildutako printzipioak bete beharko ditu.

Aurreko lerrokan aurreikusitakoa ulertuko da ezertan eragotzi gabe autonomia-erkidegoek beretan bizi diren pentsiodunen onerako ezar ditzaketen bestelako laguntzak, kasuan kasuko eskumenez baliatuta ezarritakoak.

43. artikulua. *Borondatezko hobekuntzak.*

1. Gizarte Segurantzaren sistemak 7.1 artikuluan bildutako pertsoneri ematen dien babes-jardunaren modalitate kontributiboa norberaren borondatez hobetu ahalko da Araubide Orokorra eta araubide bereziak erregulatzen dituzten arauetan ezartzen den moduan eta baldintzetan.

2. Borondatezko hobekuntzak ezartzeaz beste salbuespenik gabe, aurreko zenbakian aurreikusitakoari jarraituz, Gizarte Segurantza ezingo da modu kolektiboan kontratatu.

44. artikulua. *Prestazioen ezaugarriak.*

1. Ez Gizarte Segurantzaren prestazioak, ez eta haren gizarte-zerbitzuen eta gizarte-laguntzaren onurak ere, ezingo dira atxiki –2. zenbakian ezarritako kasua kendu gabe–, guztiz nahiz partzialki laga, konpentsatu edo deskontatu, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Ezkontidearen eta seme-alaben aldeko mantenu-betebeharrak betetzearren.
- b) Onuradunak Gizarte Segurantzaren barruan hartutako betebeharrak direnean.

Enbargoerik dagokienez, Prozedura Zibilaren Legean ezarritakoa aplikatuko da.

2. Gizarte Segurantzaren babes-jardunaren ondoriozko hartukizunak direla-eta zergak ordaindu beharko dira zerga bakoitzari buruzko arau erregulatuarekin ezarritako moduan.

3. Ezingo da inongo zerga-tasarik eskatu, ez eta inolako eskubiderik ere, Gizarte Segurantzaren Administrazioako kasuko organismoek eta organismo administratibo, judicial eta beste edozein motatakoek eman beharreko informazio edo ziurtagirietan, 1. zenbakian aipatzen diren prestazio eta onurei dagokienez.

45. artikulua. *Prestazioak direla-eta dauden erantzukizunak.*

1. Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek kudeaketa esleitura duten prestazioen erantzuleak izango dira, baldin eta betetzen badituzte haietarako eskubidea sortzeko lege honetan ezarritako arauetan eta araubide berezietan aplikatzekoak zaizkien arau berezietan eskatzen diren betekizun orokor eta partikularrak.

2. Prestazio kontributiboak direla-eta aurreko zenbakian zehaztutakoez beste entitate edo pertsona batzuei erantzukizunak egozteko, lege honetan eta bera garatzeko edo aplikatzeko xedapenetan edo araubide berezietako arau erregulatuarekin xedatutakoari begiratu beharko zaio.

46. artikulua. *Gertakari arrunten ondoriozko pentsio kontributiboaren eta pentsio ez-kontributiboaren ordainketa.*

1. Gertakari arrunten ondoriozko pentsio kontributiboak, Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten araubideetako edozeinetan, hamalau ordainsaritan ordainduko dira; ordainsari horiek urteko hilabeteetako bakoitzari egokituko zaizkio eta beste biak aparteko ordainsariak izango dira, ekainean eta azaroan sortuko direnak.

2. Halaber, baliaezintasun- eta erretiro-pentsio ez-kontributiboaren ordainketa hamalau ordainsaritan ordainduko dira; ordainsari horiek urteko hilabeteetako bakoitzari egokituko

zaizkio eta beste biak aparteko ordainsariak izango dira, ekainean eta azaroan sortuko direnak.

2. atala. Prestazioetarako eskubidea aitortzea eta zehaztea eta hari eustea

47. artikulua. Kotizazioen ordainketan egunean egoteko betekizuna.

1. Kotizazioak ordaintzeko ardura duten langileei dagokienez, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak aitortzeko, kausatzaileak Gizarte Segurantzaren kotizazioak ordainduta izan beharko ditu, nahiz eta dagokion prestazioa, kotizazioen elkarrekiko zenbaketaren ondorioz, besteren konturako langileen araubide batean onartuta egon.

Horretarako, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia arautzen duen abuztuaren 20ko 2530/1970 Dekretuaren 28.2 artikuluan aurreikusitako ordainketa-gonbidapenerako tresna aplikatuko da, prestazioa eskuratzeko unean interesduna sartuta dagoen Gizarte Segurantzako araubidea edo hura eragin duena edozer dela ere.

2. Baldin eta interesdunak prestazio bat aitortzeko kotizazioen ordainketa egunean duela jotzen bada, zor dituen kuoten ordainketa atzeratu delako, baina ondoren atzerapen horren baldintzak edo epeak betetzen ez baditu, dagoeneko ordainketa ez duela egunean joko da eta, horrenbestez, jasotzen ari den prestazioa berehala etengo da. Hura berriro eskuratzeko Gizarte Segurantzarekin duen zorra osorik ordaindu beharko du. Xede horretarako, 44.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, prestazioa kudeatzen duen entitateak interesdunak sortutako hileko bakoitzetik zor duen kuota egokia kendu ahalko du.

3. Pentsio baterako eskubidea aitortzeko, pentsioaren egitate eragilearen hilari eta haren aurreko bi hilei dagozkien kotizazioak, baldin eta Gizarte Segurantzaren informazio-sistemetan haien sarrera jasota ez badago, sartutakotzat joko dira interesdunak dokumentu bidez frogatu beharrik gabe. Horrelakoetan, entitate kudeatzaileak egunean zeudelakoan aurreko ekitaldian onartutako pentsio guztiak berrikusiko ditu urtero, kotizazio haiek garaiz eta benetan ordaindu dituztela egiaztatzeko. Hura gertatu ezean, pentsioaren ordainketa eten egingo da, atxikitako hilekoak zor dituen kuotak amortizatzerara bideratuko dira, guztiz desagertu arte, eta, hori gertatutakoan, pentsioa ordaintzen jarraituko da berriro.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta langileak eskatzekoa den gutxieneko kotizazio-aldia frogatzen badu, horretarako bertan aipatutako hiru hileko aldia zenbatu gabe.

48. artikulua. Epeak egun bihurtzea.

Gizarte Segurantzaren pentsioak eskuratzeko, bai eta haien zenbatekoa zehazteko, lege honetan urtetan, sei hilekotan, hiruhilekotan edo hilabetetan emandako epeak egunen arabera egokituko dira bidezko diren baliokidetasunak aplikatuz.

49. artikulua. Araubide batean baino gehiagotan aldi berean kotizatu izanaren eragina Gizarte Segurantzaren pentsioei dagokienez.

Hainbat araubidetan kotizazioak frogatu eta horietako batean pentsiorako eskubiderik ez badago, azken horretan jarduera-aniztasuneko araubidean frogatu diren kotizazio-oinarriak pentsioa sortuko duen araubidean gehitu ahalko dira, horren oinarri arautzailearen zehaztapenerako soilik; oinarrien baturak ezingo du une bakoitzean indarrean dagoen gehieneko kotizazioa gainditu.

50. artikulua. Diru-sarreraren zenbaketa, prestazioetarako eskubidea aitortzearen edo hari eustearen ondorioetarako.

Legez edo erregelamenduz agintzen denean diru-sarreraren halako muga bat ez gainditzea lege honen babes-jardunaren esparruan sartutako prestazioetarako –pentsio ez-kontributiboek eta langabezia-prestazioek bestelakoetarako– eskubidea eskuratzeko

edo eskubideari eusteko, halako diru-sarreratzat hartuko dira laneko etekinak, kapitaleko etekinak eta jarduera ekonomikoetatik eta ondare-irabazietatik sortutakoak, pentsioetarako gutxienezkorako osagarriak aitortzeko 59.1 artikuluan zenbatzen diren modu berean.

51. artikulua. *Bizilekua, prestazioen eta gutxienezkorako osagarrien ondorioetarako.*

1. Prestazio ekonomikoen edo gutxienezkorako osagarrien onuradunak entitate kudeatzaile eskudunaren bulegoetara joanarazi ahalko dira, azken horrek erabakitako maiztasunarekin, osagarri horiek eskuratzeko Espainiako egoiliar izan beharra dagoen kasuetan.

2. Espainiako lurraldean bizitzea eskatzen duten Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoetarako eskubideari edo gutxienezkorako osagarriari eusteko, haiek jasotzeko bizilekua Espainiako lurraldean edukitzea eskatzen bada, onuradunak Espainian ohiko bizilekua duela joko da –atzerriko egonaldiak izan arren– baldin eta urte naturalean horiek ez badira laurogeita hamar egun naturaletik gorakoak, edo behar bezala justifikatuta dauden gaixotasun-kausak ekarri badute Espainiako lurraldetik kanpora joatea.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, langabeziagatiko prestazioen eta subsidioen ondorioetarako, haien berariazko araudian ezarritakoa aplikatu beharko da.

3. Espainiako lurraldean bizitzea eskatzen duten osasun-prestazioetarako eskubideari eusteko, prestazio horien onuradunak Espainian ohiko bizilekua duela joko da, atzerriko egonaldiak izan arren, baldin eta urte natural bakoitzean horiek ez badira laurogeita hamar egun naturaletik gorakoak.

52. artikulua. *Kautela-neurriak hartzea.*

1. Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio ekonomikoen onuradunek edo kausatzaileek ez badute betetzen aginduzko deklarazioak, dokumentuak, aurrekariak, egiaztagiriak edo entitate kudeatzailearen esku ez dauden datuak ezarritako epeetan aurkezteko betebeharra, halakoak aurkezteko errekerimendua egin zaienean, betiere agiri horiek prestazioetarako eskubideari eusteko edo gutxienezkorako osagarria jasotzeko aukeran eragina badute, Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek kautelaz eten ahalko dituzte prestazio horien edo osagarriaren ordainketa, harik eta aipatutako onuradunek edo kausatzaileek behar bezala frogatzen duten arte haietarako eskubideari eusteko ezinbestekoak diren lege-betekizunak betetzen dituztela.

2. Halaber, Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio ekonomikoen edo gutxienezkorako osagarriaren onuradunak –halakoez gozatzeko baldintza Espainian bizileku efektiboa edukitzea denean– ez badira agertzen entitate kudeatzaile eskudunak deitzen dituen, prestazioaren edo osagarriaren ordainketa kautelaz eten ahalko da, 51.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Eskatutako informazioa aurkezten bada edo interesduna ezarritako epea iraganda agertzen bada, prestazioa edo, kasua bada, gutxienezkorako osagarria, berrezarri egingo dira, eskubideari eusteko betekizunak betetzen direnean, gehienez ere laurogeita hamar eguneko gehieneko atzeraeraginarekin.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoa ulertuko da ezertan ere kendu gabe abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 47.1.d) artikuluan ezarritakoa.

3. atala. *Prestazio bidegabeen preskripzioa, iraungitzea eta itzulketa*

53. artikulua. *Preskripzioa.*

1. Prestazioak aitortzeko eskubideak bost urteko epean preskribatuko du, kasuan kasuko prestazioaren egitate eragilea gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita; hori, halere, ez da eragozpena izango lege honetan ezartzen diren

salbuespenetarako eta aitorten horren ondorioak kasuko eskaera aurkezten den eguna baino hiru hilabete lehenagotik gertatzeko.

Baldin eta prestazioen eduki ekonomikoa, behin haiek aitortuta, haiek berrikusteko eskaeren karietara ukituta gertatzen bada, zenbateko berriaren ondorio ekonomikoek hiru hilabete gehieneko atzeraeragina izango dute, eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita. Gehieneko atzeraeraginaren arau hau ez da aplikatuko oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko kasuetan, ez eta berrikuspenak 55. artikuluan aipatzen den prestazio bidegabeen itzulketarako betebeharra dakarrenean ere.

2. Preskripzio-epaia eten egingo da Kode Zibilaren 1.973 artikuluan aipatzen diren arrazoi arruntengatik eta, gainera, Gizarte Segurantzaren Administrazioari edo Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari erreklamazioa aurkeztu zaienean, bai eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailentzako kasuari buruzko espedientea izapidetzearen indarrez ere.

3. Usteko errudunaren aurkako akzio judiziala ezarri gero, ekintza hori kriminala nahiz zibila izan, preskripzioa eten egingo da hura izapidetzen den bitartean, eta epea berriz kontatuko da largespen-autoa jakinarazten den egunetik edo epaia irimo bihurtzen den egunetik.

54. artikulua. *Iraungitzea.*

1. Prestazioak oroharreko prezioan eta aldi bakar batean jasotzeko eskubidea urtebetera iraungiko da, interesdunari prestazioa aitortu zaiola behar bezala jakinarazi zaion egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

2. Aldizkako prestazioak direnean, hileko sari bakoitza jasotzeko eskubidea prestazioaren muga-egunetik urtebetera iraungiko da.

55. artikulua. *Prestazio bidegabeen itzulketa.*

1. Gizarte Segurantzaren prestazioak bidegabeki jaso dituzten langileek eta gainerako pertsonak haien zenbatekoa itzuli beharko dute.

2. Egitez edo ez-egitez bidegabeko pertzepzio bat posible egiten lagundu dutenek jasotzaileekin batera subsidiarioki erantzungo dute, salbu eta frogatutako fede ona dagoen kasuetan, aurreko zenbakian ezartzen den itzulketarako betebeharra dela-eta.

3. Bidegabeki jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzeko betebeharrak lau urteren buruan preskribatuko du, haiek kobratu diren egunetik kontatzen hasita, edo haiek itzultzea eskatzeko ekintza baliatu ahal izan zen unetik, alde batera utzita zein den bidegabeko pertzepzio hori eragin zuen arrazoia, horren barne direla entitate kudeatzaileari egotz dakioken oker baten ondoriozko prestazioen berrikuspen kasuak.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ulertuko da ezertan eragotzi gabe legez egokitu daitekeen administrazio-erantzukizuna edo erantzukizun penala.

4. atala. *Errebalorizazioa, pentsioen gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak eta amatasun-osagarria, Gizarte Segurantzari egindako ekarpen demografikoa dela-eta*

1. azpiatala. Xedapen erkideak

56. artikulua. *Pentsio publikotzat hartzea.*

Araubide Orokorraren eta araubide berezien bitartez ordaindutako pentsioak, bai eta Gizarte Segurantzaren pentsio ez-kontributiboak ere, atal honetan ezarritakoaren ondorioetarako, pentsio publikotzat hartuko dira, 1989. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak arautzen dituen abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren indarrez.

2. azpiatala. Pentsio kontributiboak

57. artikulua. *Pentsioen hasierako zenbatekoa mugatzea.*

Gizarte Segurantzak onuradun bakoitzeko emango dituen pentsio kontributiboen hasierako zenbatekoak ezingo du gairitu urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen duen hileroko zenbateko osoa.

58. artikulua. *Errebalorizazioa.*

1. Gizarte Segurantzaren pentsio kontributiboak, gutxieneko pentsioen zenbatekoa barne, urte bakoitzaren hasieran handituko dira, urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitako errebalorizazio-indizearen arabera.

2. Horretarako, erretiro-pentsioen errebalorizazio-indizea honako adierazpen matematiko honi jarraituz zehaztuko da:

$$IR_{t+1} = \bar{g}_{i,t+1} - \bar{g}_{p,t+1} - \bar{g}_{s,t+1} + \alpha \left[\frac{I_{t+1}^* - G_{t+1}^*}{G_{t+1}^*} \right]$$

Non:

IR = erretiro-pentsioen errebalorizazio-indizea, lau hamartarrekin adierazia.

t+1 = errebalorizazioa kalkulatu den urtea.

$\bar{g}_{i,t+1}$ = Gizarte Segurantzaren sistemako diru-sarreraren aldakuntza-tasaren hamaika balioen batezbesteko mugikor aritmetikoa, t+1 balioan zentratua eta bateko hainbestean adierazia.

$\bar{g}_{p,t+1}$ = Gizarte Segurantzaren sistemako pentsio kontributiboen aldakuntza-tasaren hamaika balioen batezbesteko mugikor aritmetikoa, t+1 balioan zentratua eta bateko hainbestean adierazia.

$\bar{g}_{s,t+1}$ = ordezen-efektuaren hamaika balioen batezbesteko mugikor aritmetikoa, t+1 balioan zentratua eta bateko hainbestean adierazia. Ordezpen-efektua errebalorizaziorik egon ez den urte batean, urte horretan sistemaren batez besteko pentsioen urtetik urterako aldaketa da.

I_{t+1}^* = Gizarte Segurantzaren sistemako diru-sarreraren zenbatekoaren hamaika balioen batezbesteko mugikor geometrikoa, t+1 balioan zentratua.

G_{t+1}^* = Gizarte Segurantzaren sistemako gastuen zenbatekoaren hamaika balioen batezbesteko mugikor geometrikoa, t+1 balioan zentratua.

$\alpha = 0,25$ eta $0,33$ arteko balioa hartuko duen parametro bat. Parametroaren balioa bost urtean behin berrikusiko da.

Lortzen den emaitzak ez du inola ere eragingo erretiro-pentsioen urteko gehikuntza ehuneko 0,25 baino baxuagoa izatea, ez eta t urteko abenduaren aurreko urtebeteko aldirian kontsumoko prezioen indizeak izandako portzentaje-aldaketa gehi ehuneko 0,50 baino altuagoa ere.

3. Adierazpen matematikoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da eragiketa ez-finantzarioengatiko sistemaren diru-sarreraren eta gastu agregatuen guztizkoa (Gizarte Segurantzaren Aurrekontuen 1etik 7ra bitarteko kapituluak gastuetan eta 1etik 7ra bitartekoak irabazietan), eta ez dira kontuan hartuko Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari eta Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuari dagozkienak. Errebalorizazio-indizearen kalkuluan erabiltzeko, eta likidatutako kontuei dagokienez, Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailtza Nagusiak aurreko kapituluetatik aldizkako izaera ez duten partidak kenduko ditu.

Hala ere, kontzeptu hauek ez dira sistemaren diru-sarrera eta gastutzat hartuko:

a) Diru-sarreretatik, langile autonomoek jarduera uzteagatiko gizarte-kotizazioak eta prestazio ez-kontributiboak finantzatzeko Estatuak egiten dituen transferentziak, pentsioen gutxienezkorako osagarrien finantzaketa izan ezik.

b) Gastuetatik, langile autonomoek jarduera uzteagatiko prestazioak eta prestazio ez-kontributiboak, pentsioen gutxienerako osagarriak izan ezik.

4. 2. zenbakian t+1-etik t+6-ra arteko urteetako diru-sarrerak eta gastuak kalkulatu ahal izateko, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak Gizarte Segurantzaren Administrazioari horiek kalkulatzeko beharrezkoak diren aldagai makroekonomikoen aurreikuspenak emango dizkio.

5. Urtero argitaratuko da errebalorizazio-indizearen kalkuluan esku hartzen duten aldagaien balioa.

6. Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzak Independentek bere iritzia igorriko du, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzak Independentea eratzeko azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren 23. artikulua xedatutakoaren arabera. Iritzi hori Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ekitaldi bakoitzean aplikatu beharreko pentsioen errebalorizazio-indizea ezartzeko kalkulaturako balioei buruzkoa izango da.

7. Gizarte Segurantzako pentsioen urteko errebalorizazioak ezingo du ekarri ondorioztat pentsioen urteko balio osoa, behin errebalorizazioa aplikatuta, handiagoa izatea Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako zenbatekoa baino, hala badagokio, titularrak jasotako beste pentsio publikoen urteko zenbateko oso eta errebalorizatua gehituta.

59. artikulua. *Gutxienera iristen ez diren pentsioetarako osagarriak.*

1. Gizarte Segurantzaren sistemako pentsio kontributiboen onuradunek –baldin eta laneko, kapitaleko nahiz jarduera ekonomikoetako eta ondare-irabazietako etekinak jasotzen ez badituzte, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan errenta horietarako ezarritako kontzeptuaren arabera, edo, etekinak jasota ere, etekin horien zenbatekoak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero finkatzen duen zenbatekotik beherakoak badira– eskubidea izango dute pentsioen gutxienerako zenbatekora iristeko behar diren osagarriak jasotzeko, baldin eta Espainiako lurraldean bizi badira, legez edo erregelamenduz zehaztutako moduan.

Gutxienerako osagarriak bateraezinak izango dira pentsiodunak aurreko lerrokadan adierazitako etekinak jasotzearekin, aipaturako hartukizun guztien baturak, osatu nahi den pentsioa kenduta, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ekitaldi bakoitzerako finkatzen duen muga gainditzen duenean.

Gizarte Segurantzaren pentsio kontributiboen gutxienerako osagarriak aitortzearen ondorioetarako, pentsiodunak lanetik, jarduera ekonomikoetatik eta ondasun higiezinetatik jasotako etekin osoetatik, haiek legeria fiskalean ezarritako moduan zenbatuta, legeria fiskalaren arabera kengarriak diren gastuak kenduko dira.

2. Osagarri horien zenbatekoak ezingo du inolaz ere gainditu ekitaldi bakoitzean erretiro- edo baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboetarako ezarritako kopurua. Pentsiodunaren ardurapeko ezkontide bat dagoenean, osagarri horien zenbatekoak ezingo du gainditu 364.1.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuta pentsio ez-kontributiboari egokituko litzaiokeen kopurua, pentsiorako eskubidea duten bi onuradun dauden unitate ekonomikoetan.

Zurztasun-pentsioa alarguntasun-pentsioaren zenbatekoan handitzen denean, gutxienerako osagarrien zenbatekoaren mugak, aurreko lerrokadan aipatzen denak, zurztasun-pentsioa handitzea eragiten duen alarguntasun-pentsioari baino ez dio eragingo.

Arreta ematen dieten pertsonen ordaintzeko osagarria aitortua duten baliaezintasun handiko pentsiodunei ez diete eragingo zenbaki honetan ezarritako mugek.

60. artikulua. *Amatasun-osagarria Gizarte Segurantzaren sistemako pentsio kontributiboetan.*

1. Pentsiorako osagarri bat aitortuko zaie, Gizarte Segurantzarentzako ekarpen demografikoarengatik, seme-alaba biologikoak edo adoptatuak izan dituzten emakumeei,

baldin eta Gizarte Segurantzaren edozein sistematako erretiroko, alarguntasuneko edo ezintasun iraunkorreko pentsio kontributiboaren onuradunak badira.

Osagarri horrek, zeinak ondorio guztietarako pentsio publiko kontributiboaren izaera juridikoa izango baitu, aipatutako pentsioen hasierako zenbatekoari portzentaje jakin bat aplikatzearen emaitza den zenbatekoa edukiko du. Portzentaje hori seme-alaben kopuruaren arabera izango da, honako eskala honi jarraituz:

- a) Bi seme-alaba izatekotan: ehuneko 5.
- b) Hiru seme-alaba izatekotan: ehuneko 10.
- c) Lau seme-alaba edo gehiago izatekotan: ehuneko 15.

Osagarrirako eskubidea eta haren zenbatekoa finkatzearen ondorioetarako zenbatuko dira soilik kasuko pentsioaren egitate eragilearen aurretik jaiotako edo adoptatutako seme-alabak.

2. Hasiera batean aitortutako pentsioaren zenbatekoak 57. artikuluan ezarritako muga gainditzen badu, osagarria aplikatu gabe, pentsioaren eta osagarriaren baturak ezingo du muga hori gainditu, esleitutako osagarriaren ehuneko 50 gehituta.

Halaber, aitortutako pentsioaren zenbatekoa 57. artikuluan ezarritako mugara iristen bada, osagarria soilik partzialki aplikatuta, interesdunak eskubidea izango du, gainera, une bakoitzean indarrean den gehieneko muga gainditzen duen osagarri zatiaren ehuneko 50 jasotzeko.

Legez nahiz erregelamenduz, beste arrazoi batzuk tarteko, gehieneko muga gainditzea baimenduta dagoen kasuetan, osagarria kalkulatu da zenbaki honetan adierazitako moduan, pentsioaren hasierako zenbateko gisa hartuz une bakoitzean indarrean den gehieneko mugaren zenbatekoa.

Osatu beharreko pentsioa sortzen bada aseguru-aldiak *pro rata temporis* delakoaren bidez guztizkora eramanez, nazioarteko araudia aplikatuta, osagarria sortutako pentsio teorikoaren gainean kalkulatu da, eta lortutako zenbatekoari kasuko hainbanaketa aplikatu zaio.

3. Hasiera batean sortutako pentsioa urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako gutxieneko kopurura iristen ez den kasuetan, zenbateko hori aitortu egingo da, 59. artikuluan ezarritako aurreikuspenak kontuan hartuta. Zenbateko horri seme-alabagatiko osagarria gehituko zaio. Osagarri hori hasieran kalkulatuutako pentsioari dagokion portzentajea aplikatzearen emaitza izango da.

4. Pentsioaren osagarria ez da aplikatzekoa izango interesdunak bere borondatez erretiroa hartu duen kasuetan, ez eta erretiro partzialeko kasuetan ere; 208. eta 215. artikuluetan aipatzen dira horiek, hurrenez hurren.

Aurrekoa gorabehera, bidezkoa den pentsio-osagarria esleitu da erretiro partzialetik erretiro osoa eskuratzen denean, behin kasu bakoitzari dagokion adina beteta.

5. Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioak batera gertatzen direnean, seme-alabagatiko osagarria aitortuko da soilik onuradunaren pentsioetako batean, honako lehentasun-hurrenkera honen arabera:

1.a Aldekoena den pentsioan.

2.a Erretiro-pentsio bat eta alarguntasun-pentsio bat batera gertatuz gero, osagarria erretiro-pentsioan aplikatu da.

Aitortutako pentsioen baturak 57. artikuluan ezarritako muga gainditzen badu, osagarria aplikatu gabe, pentsioen eta osagarriaren baturak ezingo du muga hori gainditu, esleitutako osagarriaren ehuneko 50 gehituta.

Halaber, aitortutako pentsioen zenbatekoak 57. artikuluan ezarritako mugara iristen bada, osagarria soilik partzialki aplikatuta, interesdunak eskubidea izango du, gainera, une bakoitzean indarrean den gehieneko muga gainditzen duen osagarri zatiaren ehuneko 50 jasotzeko.

Legez nahiz erregelamenduz, beste arrazoi batzuk tarteko, gehieneko muga gainditzea baimenduta dagoen kasuetan, osagarria kalkulatu da zenbaki honetan adierazitako

moduan, batera gertatzen diren pentsioen baturaren hasierako zenbateko gisa hartuz une bakoitzean indarrean den gehieneko mugaren zenbatekoa.

6. Osagarriko eskubidea pentsioen araubide juridikoari lotuko zaio jaiotzari, iraupenari, eteteari, azkentzeari eta, kasua bada, gaurkotzeari dagokienez.

61. artikulua. *Terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioak.*

1. Gizarte Segurantzak aitortzen dituen aparteko pentsioak, terrorismo-ekintzen ondorioz sortutakoak, ez dira lotuta egongo hasierako aitortpenaren eta lege honetan ezarritako pentsioen errealizazioaren mugetara.

2. Aitortzen diren eta Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioen hileroko gutxieneko zenbatekoa une bakoitzean indarrean den ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako hiru izango da.

Kasuan-kasuan egokitu diren pentsioen zenbatekoen eta egiazki ordaintzen direnen arteko aldeak Estatuko aurrekontuen kargura finantzatu dira.

Zenbaki honetan ezarritako ondorioetarako, egitate berak sortutako heriotza eta biziraupenagatiko pentsioak batera zenbatuko dira.

3. azpiatala. Pentsio ez-kontributiboak

62. artikulua. *Errealizazioa.*

Gizarte Segurantzaren pentsio ez-kontributiboak Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean eguneratuko dira, gutxienez ere lege horrek Gizarte Segurantzaren pentsio kontributiboetarako ezartzen duen gehikuntza orokorraren arabera.

5. atala. *Gizarte-zerbitzuak*

63. artikulua. *Xedea.*

Gizarte Segurantzak berariaz babestutako egoerei dagozkien prestazioen osagarri gisa, azken horrek, ministerio-sail egokiak xedatutakoari lotuta eta kasuan kasuko organo eta zerbitzuekin lotuta, bere ekintza legez edo erregelamenduz ezarritako gizarte-zerbitzuen prestazioetara zabalduko du, 42.1.e) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

6. atala. *Gizarte-laguntza*

64. artikulua. *Kontzeptua.*

1. Gizarte Segurantzak, horretarako finkatzen diren funtsen kargura, bere aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonen eta haien mendekoak diren familiartekoei edo parekatuei beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak eman ahalko dizkie, beharrezko egoerei erreparatuta, betiere aurrez demostratuta, urgentiako kasuetan izan ezik, interesdunak ezinbestekoak diren baliabideak falta dituela egoera horiei aurre egin ahal izateko.

Baldintza berdinetan, banantze judizialaren edo dibortzioaren kasuan, gizarte-laguntzako prestazioetarako eskubidea izango dute ezkontzagatik eta seme-alabatasunagatik onuradun izan diren ezkontideak edo ezkontide ohiak eta ondorengoak.

Erregelamenduz finkatuko dira Gizarte Segurantzaren aplikazio-eremuan dauden pertsonen ezkontideari eta seme-alabei gizarte-laguntzako prestazioa emateko baldintzak, izatezko banantze kasuetan.

2. Gizarte-laguntza entitate kudeatzaileek eman ahalko dute xede horretarako kasuko aurrekontuetan ezarritako baliabideen mugarekin, baina emandako zerbitzu edo laguntza ekonomikoek ezingo dituzte hitzartu laguntza ematen den ekitaldi ekonomikoaren ondorengo ekitaldiaren baliabideak.

65. artikulua. *Laguntza asistentzialen edukia.*

Laguntza asistentzialen barruan sartuko dira, besteak beste, fakultatibo jakin batek edo erakunde jakin batean eta salbuespenezko kasuetan egindako tratamendu edo ebakuntza bereziengatik ematen diren laguntzak; protesi-aparatuen ustekabeko haustura baten ondorioz diru-sarrerak galtzeagatik ematen direnak, eta, ez lege honetan, ez araubide bereziei aplikatzekoak zaizkien arau berezietan, araututa ez dauden antzeko beste edozein egoeragatik ematen direnak.

V. KAPITULUA

Gizarte Segurantzaren kudeaketa

1. atala. *Entitate kudeatzaileak*

66. artikulua. *Zerrenda.*

1. Gizarte Segurantzaren kudeaketa eta administrazioa kasuan kasuko ministerio-sailen zuzendaritzapean eta tutoretzapean gauzatuko dituzte ondoren aipatzen diren entitate kudeatzaileek, sinplifikatzeko, arrazionalizatzeko, kostuen ekonomiako, elkartasun finantzarioko zein kutxa-batasuneko, eraginkortasun sozialeko eta deszentralizazioko printzipioei jarraituz:

a) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio ekonomikoak kudeatu eta administratzeko, hurrengo c) letran aipatzen direnak izan ezik.

b) Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionala, osasun-zerbitzuen administrazioarako eta kudeaketarako.

c) Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua, baliaezintasun- eta erretiro-pentsio ez-kontributiboak kudeatzeko, bai eta Gizarte Segurantzaren sistemako prestazioen zerbitzu osagarriak kudeatzeko ere.

2. Entitate kudeatzaileek, zerbitzuen behar den homogeneizatzea eta arrazionalizatzea behar bezala lortze aldera, beren jarduketa koordinatuko dute osasun instalazioen erabilerari dagokionez, haien artean horretarako erabakitzen diren itun edo lankidetzak moduen bitartez.

67. artikulua. *Egitura eta eskumenak.*

1. Gobernuak, tutoretzako ministerio-sailak proposatuta, aurreko artikuluan aipatzen diren entitateen egitura eta eskumenak arautuko ditu.

2. Entitate kudeatzaileek beren jarduera araubide deszentralizatu baten bidez garatuko dute, hainbat lurralde-esparrutan.

3. Entitate kudeatzaileen laguntza-zentroak toki-entitateek kudeatu eta administratu ahalko dituzte.

68. artikulua. *Izaera juridikoa.*

1. Entitate kudeatzaileek zuzenbide publikoko entitateen izaera dute, eta esleituta dauzkaten xedeak betetzeko gaitasun juridikoa daukate.

2. Entitate horien araubide juridikoa izango da Estatuaren Administrazio Orokorraren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

69. artikulua. *Kudeaketan parte hartzea.*

Ahalmena ematen zaio Gobernuari entitate kudeatzaileen kudeaketaren gaineko kontroleko eta zaintzako parte-hartzea erregulatzeko. Erregulazio horrek hasi estatuko

mailatik eta tokiko mailarainokoa izango da, eta bera egiten duten organoetan parte hartuko dute, partaide kopuru berdinekin, sindikatu-erakundeetako, enpresa-erakundeetako eta Administrazio Publikoaren ordezkariak.

70. artikulua. *Nazioarteko harremanak eta zerbitzuak.*

Entitate kudeatzaileak, tutoretzaz arduratzen den ministerio-saila ados dagoela, nazioarteko elkarte eta organismoetako kideak izan ahalko dira, eragiketak itundu ahalko dituzte, zerbitzuen elkarrekikotasuna ezarri ahalko dute antzeko izaera duten atzerriko erakundeekin eta esleitzen zaien neurrian eta irismenarekin parte hartu ahalko dute Gizarte Segurantzaren nazioarteko itunen betearazpenean.

71. artikulua. *Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak kudeatzen dituzten entitateei informazioa ematea.*

1. Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei kasu hauetan eman beharko zaie informazioa:

a) Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren mendeko organismo eskudunek edo, hala behar denean, autonomia-erkidegoetako edo foru-aldundietako organismo eskudunek, urteko ekitaldi bakoitzaren barruan, honako datu hauek emango dizkiete prestazio ekonomikoak kudeatzeaz arduratzen diren Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, entitate horiek hala eskatzean: prestazioen titularren errenta mailari eta gainerako diru-sarrerei buruzko datuak, prestazio horiek jasotzeko eskubidea baldintzatzen duten heinean, bai eta ezkontide onuradunen eta familia-unitateetako beste kideen datuak ere, baldin eta datu horiek kontuan hartu behar badira prestazio horiek aitortzeko, mantentzeko edo zenbatekoa finkatzeko, une oro prestazioak jasotzeko behar diren baldintzak betetzen dituzten eta legez ezarritako zenbatekoan jasotzen dituzten egiaztatzearen.

Halaber, Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek hala eskatzen dutenean, aipatutako organismoek interesdunaren kontu-korrontearen zenbakia emango diete, prestazioa aitortuz gero ordainketa egin ahal izateko.

b) Justizia Ministerioak izendatzen duen organismoak inskripzio eta datuei buruz eskatzen dioten informazioa emango die Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, inskripzio eta datu horiek zerikusia dutenean Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoetarako eskubidea sortzearekin, aldatzearekin, mantentzearekin edo azkentzearekin.

c) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek enpresaburuei datuak eskatzen dizkietenean komunikazioak sistema elektronikoen bidez egin ahal izateko, enpresaburuek datu horiek emango dizkiete, komunikazioak egiteko sistema horiek bermatzen dutenean komunikazio-prozedura bizkortasunez egingo dela enpresetako langileen Gizarte Segurantzaren prestazioen aitortzean eta kontrolatzean.

Langileei buruz emandako datuetan, beti zehaztu beharko dira langilearen izen-abizenak, nortasun-agiri nazionala edo atzerritarraren identifikazio-zenbakia, eta helbidea.

d) Estatistikako Institutu Nazionalak udal-erroldari buruzko helbide-datuak emango dizkie prestazio ekonomikoak kudeatzeaz arduratzen diren Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei, datu horiek lotura izan dezaketenean edozein prozeduratan prestazioetarako eskubidea sortzearekin, aldatzearekin, mantentzearekin edo azkentzearekin; horrez gain, Gizarte Segurantzaren sistemako datu-baseetan dagoen informazioa eguneratzeko datuak ere emango dizkie Estatistikako Institutu Nazionalak.

2. Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak eskatzen dituztenei buruzko datu guztiek ondore guztiak sortuko dituzte, datu horiek entitate kudeatzaileen esku daudenean, eta beste organismo publiko batzuek edo enpresek transmisio telematiko bidez bidali dituztenean, edota datu horiek Gizarte Segurantzaren sistemako datu-base korporatiboetan bateratzen direnean, beste organismo edo enpresa batzuen datu-base korporatiboetara sarbide elektronikoz zuzena izatearen ondorioz. Eskatzaileei buruzko datu horiek, halaber,

aipatutako organismo edo enpresek paper-euskarriko ziurtagiri bidez jakinarazitakoen baliozkotasun berbera izango dute.

Zenbaki honetan eta aurrekoan aipatutako egoeretan Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei informazioa emateko, ez da interesdunaren aurretzako baimena behar.

Zenbaki honetan eta aurrekoan xedatutakoari jarraituz emandako datuak, txostenak eta aurrekariak soil-soilik erabiliko dira Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileei eta zerbitzu erkideei prestazioak kudeatzeko esleitutako eginkizunen esparruan, 77. artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

3. Ezintasun iraunkorra deklaratzeko prozeduretan, Gizarte Segurantzaren kasuko prestazio ekonomikoen ondorioetarako, bai eta aldi baterako ezintasunagatiko prestazioen, zurtasun-prestazioen edo norberaren ardurapeko seme-alabagatiko familia-esleipenen aitorenari edo haiei eusteari dagokienez ere, ulertuko da interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren adostasuna emanda dagoela, osasun-erakundeek txostenak, dokumentazio klinikoak eta gainerako datu medikoak, interesdunak pairatzen dituen lesio eta gaixotasunekin hertsiki lotuta egon eta prozedura ebazteko garrantzitsuak direnak, bidaltzearen ondorioetarako, interesdun horiek kontrakoa berariaz eta idatziz adierazten ez duten bitartean.

Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek, prestazioak kontrolatzeko eta aitortzeko beren eskumenetan dihardutela, eskatu ahalko dute berei bidaltzeko osasun-zerbitzu publikoek, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek eta enpresa laguntzaileek emandako aldi baterako ezintasuneko parte medikoak, haietan jasotako datuak tratatzearen ondorioetarako. Halaber, Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek eta entitate laguntzaileek elkarri eman ahalko dizkiote onuradunei buruzko datuak, haurdunaldiko arriskuagatiko edo edoskialdi naturaleko arriskuagatiko prestazioak aitortzeko eta kontrolatzeko beharrezko direnak.

Osasun-zerbitzu publikoen ikuskatzailetza medikoak Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileen eskuetan dauden datu medikoak bidaltzeko eskatu ahalko du, beren eskumenak betetzeko beharrezkoak direnak.

4. Erregelamendu bidez finkatuko da Gizarte Segurantzaren pentsioen kudeaketaz arduratzen diren entitateei beren eginkizunak betetzeko eskatzen dituzten datuak igortzeko modua.

72. artikulua. *Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroa.*

1. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokio Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroaren kudeaketa eta funtzionamendua. Erregistro hori Gizarte Segurantzaren eratu egongo da, legez eta erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera.

2. Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroak pertsona edo familiei zuzentzen zaizkien gizarte-prestazio publikoak bilduko ditu; hain zuzen ere honako hauek:

a) Estatuko Klase Pasiboen Araubideak ordaindutako pentsioak eta, oro har, Estatuko Gastuen Aurrekontuko 07. ataleko kredituen kargura ordaindutakoak.

b) Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrek eta araubide bereziek ordaindutako pentsioak eta, oro har, Gizarte Segurantzaren sistemako entitate kudeatzaileek eta laguntzaileek ordaindutako beste edozein, baliabide publikoekin finantzatuta dauden neurrian.

c) Gizarte Segurantzaren sistemako entitate kudeatzaileen ordezkari diharduten entitateek ordaindutako pentsioak, ekainaren 23ko 1879/1978 Errege Dekretuak aipatzen dituenak. Errege-dekretu horrek Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko edo araubide berezietako kasuko entitate kudeatzaileen ordezkari gisa diharduten gizarte-aurreikuspeneko entitateei aplikatzekoak zaizkien arauak eman zituen.

d) Gizarte Segurantzaren pentsio ez-kontributiboak.

e) Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funts Bereziak, Indar Armaturen Gizarte Institutuaren eta Mutualitate Judizial Orokorren funts bereziek eta, halaber, kasua bada, mutualitate orokor horiek ordaindutako pentsioak, bai eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Funts Bereziak ordaindutakoak ere.

f) Autonomia-erkidegoetako, toki-korporazioetako edo erakundeetako beretako aurreikuspeneko sistemak edo araubideek ordaindutako pentsioak.

g) Guztiz edo zati batean baliabide publikoekin finantzatzen diren mutualitate, montepio edo gizarte-aurreikuspeneko entitateek ordaindutako pentsioak.

h) Kapitalaren partaidetzaren gehiengoa, zuzenean edo zeharka, Estatuarena, autonomia-erkidegoena, toki-korporazioena edo bataren zein besteen organismo autonomoena duten enpresek edo sozietateek ordaindutako pentsioak, dela beste erakunde batekin –edozein dela ere haren izaera juridikoa– kasuko aseguru-poliza bat eginda ordaindutakoak, dela haien mutualitateek edo aurreikuspen-entitateek ordaindutakoak, betiere prestazioaren kausatzaileen zuzeneko ekarpenak nahikoak ez direnean onuradunentzako prestazioak estaltzeko eta haien finantzaketa baliabide publikoekin osatzen denean, horren barne direla enpresa edo sozietate beraren baliabideak.

i) Estatuko Administrazioak edo autonomia-erkidegoek ordaindutako pentsioak, dela Zergaren eta Aurrezkiaren Aplikazio Sozialerako Funts Nazionaleri buruzko uztailaren 21eko 45/1960 Legearen indarrez, dela Zaharrei eta lanerako ezgaituta dauden gaixo edo elbarriei Gizarte Laguntzarako Funts Nazionalerako laguntzak ematea arautzen duen uztailaren 24ko 2620/1981 Errege Dekretuaren indarrez.

j) Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko subsidio ekonomikoak edo beste pertsona baten laguntzarako subsidioak, Minusbaliatuen Gizarteratzerako apirilaren 7ko 13/1982 Legean aurreikusitakoak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Desgaitasuna duten Pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoaren arabera jasotzen direnak.

k) Emigratzaile espainiarren aldeko zahartzaroko pentsio asistentzialak ezartzen dituen maiatzaren 14ko 728/1993 Errege Dekretuaren eta Atzerrian bizilekua izan eta itzuli diren espainiarren aldeko beharrian arrazoiengatik prestazioa arautzen duen urtarrilaren 11ko 8/2008 Errege Dekretuaren indarrez ordaindutako prestazio ekonomikoak.

l) Berrogeita hamabost urtetik gorako langileen aldeko langabezia-subsidioak, bai eta berrogeita hamabi urtetik gorakoen aldekoa ere, hura jasotzen jarraitzen bada.

m) Gizarte Segurantzak norberaren ardurapean dauden hemezortzi urteko edo gehiagoko seme-alabengatik ordaindutako diru-esleipenak, gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua badute.

n) Zerbitzua kontratatzeko prestazio ekonomikoa, familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa eta laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean araututakoak.

3. Aurreko zenbakian aipatutako prestazioen kudeaketaren arduradun diren entitate, organismo edo enpresek Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eman beharko dizkiote, erregelamenduz ezartzen diren epeetan, gizarte-prestazio ekonomikoen titularren identifikazio-datuak eta, haietarako eskubidearen aitortpena eta eskubideari eustea eragiten edo baldintzatzen duten neurrian, onuradunen, ezkontideen eta familia-unitateetako gainerako kideen identifikazio-datuak, bai eta ordaindutako prestazioen zenbatekoak eta motak eta noiztik aurrerako ondorioak dituzten ere.

4. 2. zenbakian aipatutako gizarte-prestazio publikoen kudeaketaren arduradun diren entitate eta organismoek Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan sartutako datuak kontsultatu ahalko dituzte, haiek kudeatzen dituzten prestazioen aitortpenerako eta mantentzerako beharrezko direnak, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

2. atala. Zerbitzu erkideak

73. artikulua. *Sorrera.*

Gobernuari dagokio, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposatuta, zerbitzu erkideak ezartzea, bai eta haien egituraren eta eskumenen gaineko araupetzea ere.

74. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.*

1. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia nortasun juridiko berekia duen zerbitzu erkide bat da, zeinean, elkartasun finantzarioaren eta kutxa bakarraren printzipioak aplikatuta, finantza-baliabide guztiak batzen baitira, aurrekontuko zein aurrekontuz kanpoko operazioen bitartez. Bere kargura izango du funts, balore eta kredituen zaintza, bai eta arreta orokorrak eta Gizarte Segurantzaren sistemako betebeharren eskubideak eta ordainketak biltzeko zerbitzuen arretak ere.

2. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari 70. artikuluan entitate kudeatzaileetarako ezarritakoa izango zaio aplikatzekoa.

3. atala. *Entitate kudeatzaileetarako eta zerbitzu erkideetarako arau erkideak*

75. artikulua. *Izenaren erreserba.*

Inongo entitate publikok edo pribatuk ezingo du Espainian erabili Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen titulua edo izenak, ez eta haiei hitz batzuk edo gehitzearen ondorioz edo haiek osatzen dituzten hitzak beste modu batera konbinatze hutsaren ondorioz sortutakoak ere. Ezingo dute beren izendapenean jaso «Gizarte Segurantzaren» esapidea, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak berariaz baimendu ezean.

76. artikulua. *Tributu-salbuespenak eta beste onura batzuk.*

1. Entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek Estatuko neurri berean gozatuko dute, kasuan-kasuan legeria fiskal indardunak ezartzen dituen mugekin eta salbuespenekin, zergen erabateko salbuespenaz, horren barne direla notarioen eta erregistroetako eskubide eta lansariak, egiten dituzten egintzengatik edo beren xedeetarako eskuratzen dituzten edo atxikirik dauzkaten ondasunengatik, baldin eta kasuko zergak edo salbuespenak zuzenean erreferentziako organismoen gainekoak badira, zergadunaren legezko kontzeptuan, eta legez ezinezkoa denean zerga-zama beste pertsona batzuei aldatzea.

2. Halaber, postarako eta telegrafiarako frankizia izango dute, Estatuko neurri berean.

3. Artikulu honetan jasotako salbuespenek eta gainerako pribilegioek entitate kudeatzaileak ere ukituko dituzte, 43. artikuluan ezarritako borondatezko neurrien kudeaketan eragiten dutenean.

77. artikulua. *Datuen erreserba.*

1. Bere eginkizunetan diharduela Gizarte Segurantzaren Administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta bakarrik erabili ahal dira Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileei eta zerbitzu erkideei esleitutako xedeetarako. Ezingo zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu, salbu lagapenak helburu hauek baditu:

a) Organo jurisdikzionalak, Fiskaltzak edo Gizarte Segurantzaren Administrazioak delitu publikoak ikertzea edo jazartzea.

b) Zerga-administrazioekin lankidetzan jardutea, beren eskumenen esparruko betebeharrak fiskalak betetzearen ondorioetarako.

c) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren sistemarekin eta Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailetza Nagusiarekin lankidetzan jardutea, ikuskapeneko eta barne-kontrolako eginkizunak direla-eta, edo lagapen-egileaz besteko Gizarte Segurantzaren gainerako entitate kudeatzaileekin eta Gizarte Segurantzaren Administrazioiko gainerako organoekin, estatistika publikoko xedeetarako, funtzio publiko hori arautzen duen legearen adierazitako moduan.

d) Beste edozein administrazio publikorekiko lankidetzan, funts publikoen –eta, horien barnean, Europar Batasunaren funts publikoen– kargurako laguntzak edo diru-laguntzak lortzearen arloko iruzurraren eta Gizarte Segurantzaren sistemako araubideetan

bateraezinak diren prestazioak lortu eta jasotzearen arloko iruzurraren aurkako borrokarako.

e) Legez ezarritako esparruan, ikerketarako parlamentu-batzordeekin lankidetzan aritzea.

f) Adingabeen edo organo jurisdikzionaletan edo Fiskaltzak gaitasuna aldatu dieten pertsonen eskubide eta interesak babestea.

g) Kontuen Epaitegiarekiko lankidetzan, Gizarte Segurantzaren Administrazioaren gaineko fiskalizazio-eginkizunetan diharduenean.

h) Epaille eta auzitegiekiko prozesu batean zeharreko lankidetzan, ebazpen judizial irmoak betearazteko. Informazio eskaera judizialean beharrezkoa izango da ebazpen espresu bat, zeinean, zordunaren ondasun eta eskubideen existentziari buruz jakiteko gainerako bitartekoak edo iturriak agortzeagatik, arrazoituko baita Gizarte Segurantzaren Administrazioetik datuak biltzeko beharra.

2. Gizarte Segurantzaren Administrazioak pertsona fisikoei buruz lortutako gisa guztietako datu, txosten eta aurrekarietan sartzeari, edozein dela ere haien euskarria, diziplinako arau-hauste larritzat hartuko da, sartzen direnak haren zerbitzuko langileak direnean eta berezkoak dituzten eginkizunetaz beste batzuetarako direnean.

3. Datu edo txosten horiek ezagutzen dituzten Gizarte Segurantzaren Administrazioaren zerbitzuko agintariek eta langileek haiek direla-eta isiltasun zorrotza eta osoa gordetzeko eginbeharra izango dute, salbu eta aipatutako delituen kasuan, horietan erruduntasun-testigantza egitera mugatuko baitira edo Fiskaltzari beren ustez delitu izan daitezkeen egintzen azalpena, inguruabarrak barne, igortzera. Egon litezkeen erantzukizun penalak edo zibilak alde batera utzita, isiltasun-eginbeharra urratzea oso diziplina-falta larritzat hartuko da beti.

78. artikulua. *Langileen araubidea.*

1. Gizarte Segurantzaren Administrazioako funtzionarioek honako arau hauetan xedatutakoaren arabera jokatu beharko dute: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legea; Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legea eta aplikatzekoak zaizkien gainerakoak.

2. Gobernuari dagokio, ministro eskudunak proposatuta, zuzendaritza-karguak izendatzea eta kargutik kentzea, zuzendari nagusiaren edo horri parekatutako kategoriarekin.

VI. KAPITULUA

Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzea

1. atala. *Entitate laguntzaileak*

79. artikulua. *Zerrenda.*

1. Gizarte Segurantzaren sistemaren kudeaketarako laguntza Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten mutuek eta enpresek emango dute, kapitulu honetan ezarritakoari jarraituz.

2. Kudeaketaren arloko laguntza elkarte, fundazio eta entitate publiko zein pribatuek ere eman ahalko dute, aurrez erregistro publiko batean izena emanda.

2. atala. *Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak*

1. azpiatala. Xedapen orokorrak

80. artikulua. *Definizioa eta xedea.*

1. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutua dira enpresaburuen elkarte pribatuak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren baimenaren bidez eratutakoak eta haren mendeko erregistro berezian inskribatutakoak, eta Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzea dute helburu, erakunde horren zuzendaritza eta tutoretzapean; irabazi-asmorik gabeak dira, eta elkartuek erantzukizun mankomunatu hartzen dute beren gain, lege honetan ezarritako kasuetan eta irismenarekin.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek, eratutakoan, nortasun juridikoa eskuratzen dute, eta beren helburuak betetzeari begira jarduteko gaitasuna. Berorien jarduketa-eremua Estatuko lurralde osora zabaltzen da.

2. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen xedea da Gizarte Segurantzaren jarduera hauek gauzatzea, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin elkarlanean jardunez:

a) Gizarte Segurantzako laneko istripu eta gaixotasun profesionalen gertakarien babesean sartzen diren prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntzak kudeatzea, errehabilitazioa barne dela, baita babes-jardunak eskaintzen dituen gertakari berorien inguruko prebentzio-jarduerak kudeatzea ere.

b) Gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa kudeatzea.

c) Haurdunaldiko eta edoskialdi naturaleko arriskuengatiko prestazioak kudeatzea.

d) Beren konturako langileen jarduerari uzteagatiko prestazio ekonomikoen kudeaketa, V. tituluaren ezarritako moduan.

e) Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeagatiko prestazioa kudeatzea.

f) Legez ematen zaizkien Gizarte Segurantzaren gainerako jarduerak.

3. Mutuek Gizarte Segurantzaren kudeaketan egiten duten elkarlana ezingo da merkataritza-irabaziak lortzeko eragiketen oinarri izan, eta, elkarlan horretan, ezingo da enpresa elkartuak edo atxikitako langileak erakartzeko jarduerarik egin. Era berean, ezingo da erabili enpresaburu elkartuen aldeko inolako abantailarik emateko, ez eta enpresaburu horiek ordezkatzeko ere, enpresaburu izateagatik dagozkien betebeharretan.

4. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak administrazio-izaerako Estatuko sektore publikoaren parte dira, publikoak baitira betetzen dituzten eginkizunak eta kudeatzen dituzten baliabide ekonomikoak, nahiz eta entitatea, berez, izaera pribatukoa izan.

81. artikulua. *Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak eratzea.*

1. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua bat eratzeko, betekizun hauek bete behar dira:

a) Gutxienez berrogeita hamar enpresaburu biltzea, guztien artean gutxienez hogeita hamar mila langile izatea, eta gertakari profesionalengatik gutxienez hogeita milioi euroko kotizazio-bolumena izatea.

b) Beren jarduera 80. artikuluan adierazitako eginkizunak betetzera mugatzea.

c) Fidantza jartzea, lege hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenek zehazten duten zenbatekoan, beren betebeharrak beteko dituztela bermatzeko.

d) Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren baimena izatea, mutuaren estatutuak aldeztatik onartuta, eta esandako ministerioaren mendeko administrazio-erregistroan inskribatzea.

2. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, egiaztatu ondoren aurreko zenbakiko a), b) eta c) letratan ezarritako betekizunak biltzen direla, eta Estatutuak ordenamendu juridikoarekin bat datozela, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua eratzeko baimena emango du, eta haren mendeko Gizarte Segurantzarekin Elkarlanean Diharduten Mutuen Erregistroan inskribatzeko agindua emango du. Baimen-agindua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da, beraren erregistro-zenbakia adieraziz, eta mutuak une horretatik aurrera izango du nortasun juridikoa.

3. Mutuaren izenean, «Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua» esapidea jasoko da, eta, ondoren, inskribatzean eman dioten zenbakia. Izen hori entitatearen zentro eta bulego guztietan erabili beharko da, baita bere elkartuekin, atxikitakoekin eta langile babestuekin zein hirugarrenekin dituen harremanetan ere.

82. artikulua. *Kudeatutako prestazio eta zerbitzuen berezitasunak.*

1. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen esku utzitako prestazioak eta zerbitzuak sistemaren babes-jardunaren parte dira, eta enpresaburu elkartuen zerbitzura dauden langileen eta atxikitako norberaren konturako langileen alde emango dira, kokaturik dauden Gizarte Segurantzako araubideko erregelekin bat etorritz, eta entitate kudeatzaileek beroriei esleitutako kasuetan ematen dituzten irismen berarekin, hurrengo zenbakietan ezarritako berezitasunekin.

2. Gertakari profesionali dagokienez, mutuen ardura izango da gertakariaren izaera profesionala hasieran zehaztea; dena den, eskumena duen entitate kudeatzaileak aukera izango du, aplikatzekoak diren arauen arabera, izaera hura berrikusteko edo birkalifikatzeko.

Mutuak beren eskumenen esparruan eskubideak aitortzeko, eteteko, indargabetzeko edo azkentzeko emandako egintzak arazoituak izango dira, eta idatziz formalizatuko dira; egintza horiek, eraginkor izan daitezten, interesdunari jakinarazi beharko zaizkio. Enpresaburuari ere jakinaraziko zaizkio, onuradunak lan-harremana mantentzen duenean eta berorretan eraginak dituztenean.

Gertakari profesionalen babesean sartzen diren osasun-prestazioak mutuak kudeatutako bitartekoen eta instalazioen bidez emango dira, beste mutua batzuekin edo osasun administrazio publikoekin egindako hitzarmenen bitartez, bai eta bitarteko pribatuekiko itunen bidez ere, 258. artikuluan eta entitateen funtzionamendua erregulatzeko arauetan ezarritako moduan.

3. Gizarte Segurantzaren babes-jardunaren prebentzio-jarduerak enpresaburu elkartuen, haien mendeko langileen eta atxikitako norberaren konturako langileen aldeko prestazio asistentzialak dira; ez dute eskubide subjektiborik sortzen, eta berorien xedea aurrez esandakoei laguntzea da, Gizarte Segurantzako laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak kontrola ditzaten eta, kasua hala denean, murriztu ditzaten. Hor sartuko dira, orobat, enpresa elkartuei eta langile autonomoei aholkularitza emateko jarduerak, beren lanpostuak eta egiturak egokitu ditzaten istripuak izan dituzten langileak edo lanbidean jatorria duten patologiak dituztenak birkokatu ahal izateko, baita mutuak zuzenean gauzatu beharreko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak ere, Gizarte Segurantzako gertakari profesionalak murriztera bideratuta.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen zuzendaritza- eta tutoretza-organoari dagokio mutua horiek egingo dituzten Gizarte Segurantzaren prebentzio-jardueren aldizkako plangintza egitea, bai eta irizpideak, edukia eta lehentasun-ordena ezartzea, haien garapena zaintzea, eta eraginkortasuna zein efizientzia ebaluatzea ere. Aipatutako zuzendaritza- eta tutoretza-organoa Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren mendeko erakundea da. Laneko arriskuen prebentzioaren arloan exekuzio-eskumen partekatua duten autonomia-erkidegoek, dagokien autonomia estatutuan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, mutuen tutoretza-organoari adierazi ahalko diote beren iritzian eta dagokien lurralde-eremuan zer jarduera garatu behar liratekeen, Gizarte Segurantzaren prebentzio-jardueren plangintzara gehi ditzaten.

4. Gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagokion prestazio ekonomikoaren kudeaketa, enpresaburu elkartuen zerbitzura dauden langileen eta

atxikitako norberaren konturako langileen aldekoa, bat etorriko da 83.1.a) artikulua bigarren lerrokadan, 83.1.b) artikulua lehen lerrokadan eta II. titulua IV. kapitulu jasotako arauetan zein berorien aplikazio- eta garapen-xedapenetan ezarritakoarekin, eta, betiere, kontuan hartuz haiek kokatuta dauden araubide berezi eta sistemetan eta zenbaki honetan aurreikusitako berezitasunak.

a) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei dagokie prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea deklaratzeko, baita eskubide horren ukatzea, etetea, indargabetzea eta azkentzea deklaratzeko ere; hori guztia, osasun-zerbitzu publikoek alta eta baje osasun-kontrola egitea eragotzi gabe, eta lege honetan eta berau garatzeko arauetan parte medikoei aitortutako efektuei eragin gabe.

Aurreko lerrokadan aipatutako eginkizunak betez emandako egintzak arrazoituak izan beharko dira eta idatziz formalizatuko dira; eraginkorrak izan daitezten, onuradunari jakinarazi beharko zaizkio. Enpresaburuari ere jakinaraziko zaizkio, baldin eta onuradunak lan-harremana mantentzen badu.

Bajako parte medikoa jaso ondoren, mutuak egiaztatuko du onuradunak betetzen dituen afiliazio-, alta- eta gabealdi-betekizunak eta kasuan kasuko Gizarte Segurantzako araubidean eskatzen diren gainerakoak, eta subsidioaren zenbatekoa zehaztuko du, prestazioa jasotzeko eskubidearen hasierako deklarazioa eginez.

Subsidioa likidatu eta ordaindu ondorengo bi hilabeteko epean, egiten diren ordainketak behin-behinekoak izango dira; mutuek erregularizatu egin ahalko dituzte behin-behineko ordainketak, eta, esandako bi hilabeteko epea igarotakoan, ordainketa horiek behin betiko bihurtuko dira.

b) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek, parte medikoen eta prozesuan jaulkitako txostenen edukian oinarrituta, eta d) letran ezarritako kontrol- eta jarraipen-jarduketetan edo osasun-laguntzakoetan lortutako informazioa bitarteko dela, irizten diotenean onuradunak ez duela lana egiteko eragozpenik, alta medikorako proposamen arrazoituak formulatu ahalko dituzte beren mendeko sendagileen bitartez, eta Osasun Zerbitzu Publikoetako Ikuskatzailtza Medikoari zuzenduko dizkiote proposamenak. Mutuek aldi berean adieraziko diete eraginpeko langileari eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari, jakinaren gainean egon daitezten, bidali dutela aipatutako alta-proposamena.

Osasun Zerbitzu Publikoetako Ikuskatzailtza Medikoak alta-proposamena jasotzen duen egunaren hurrengotik kontatzen hasita bost egun balioduneko gehieneko epean adierazi beharko die mutuari eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari proposamena onartu duela –eta, beraz, alta emango du– edota ukatu egin duela –kasu horretan, hura justifikatzen duen txosten mediko arrazoitua erantsiko du–. Alta-proposamena onartuz gero, eskubidea azkendu dela jakinaraziko die mutuak langileari eta enpresari, eta ondorioak zer datatik aurrera izango dituen adieraziko die.

Baldin eta Ikuskatzailtza Medikoak beharrezkoa ikusten badu langileari hitzordua jartzea, osasun-azterketa egiteko, azterketa hori aurreko lerrokadan aurreikusitako bost eguneko epearen barruan egingo da, eta ez du etengo berorretan ezarritako betebeharra betetzea. Hala ere, osasun-azterketa egiteko egunean langilea agertzen ez bada, egun horretan bertan adieraziko zaio proposamena egin zuen mutuari langilea agertu ez dela. Mutuak lau eguneko epea izango du langilea azterketara ez joan izana justifikatuta zegoen egiaztatzeko, eta eten egingo du subsidioaren ordainketa, langilea agertu ez zen egunaren hurrengotik aurrerako eraginekin. Langileak ez agertu izana justifikatzen badu, mutuak etenaldia kentzea erabakiko du, eta subsidiorako eskubidea berrezarriko dio; hala ere, ez agertu izana justifikatu gabe dagoela irizten badiu, eskubidea azkentzeko erabakia hartuko du, a) letran ezarritako moduan, eta erabaki hori langileari eta enpresari jakinaraziko die, ondorioak noiztik aurrera izango dituen adierazita; eraginak izaten hasiko da langileari jakinarazten zaion egunaren hurrengotik.

Osasun Zerbitzu Publikoetako Ikuskatzailtza Medikoak ezetsi egiten badu mutuak formulatutako alta-proposamena, edota ez badiu erantzuten ezarritako moduan eta epean, mutuak eskatu ahalko dio alta-agiria emateko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari edo Itsasoko Gizarte Institutuari, 170.1 artikuluan emandako eskumenen arabera. Bi

kasuetan, eskaera ebazteko epea lau egunekoa izango da, eskaera jaso den egunaren hurrengotik zenbatuta.

c) Mutuetako, osasun-zerbitzu publikoko eta entitate kudeatzaileetako medikuen arteko komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, ahal izanez gero, eta esandako medikuek beren eginkizunak betetzen dituzten zentroan jasotzen diren momentutik izango dira baliozko eta eraginkor.

Era berean, mutuek Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari azalduko dizkiote osasun-zerbitzu publikoarekin duten harremanean sortzen diren gorabeherak edo enpresak bere betebeharrak betetzen ez dituenean sorturiko egoera; aipatutako ministerioak, kasua hala bada, dagozkion neurriak hartuko ditu.

Mutuek ezingo dute prestazioa kudeatzeko eginkizuna bitarteko hitzartuen bitartez bete; nolana ere, aukera izango dute, d) letran ezarritako moduan, baimendutako osasun-zentroen zerbitzuak erabiltzeko, eskatzen dituzten proba diagnostikoak edo tratamendu terapeutikoak eta errehabilitaziokoak egiteko.

d) Honako hauek dira prestazio ekonomikoaren kontrol- eta jarraipen-egintzak: beharizan-egoera sortu duten egitateak biltzen direla egiaztatzen zuzendutako egintzak, eskubidearen sorrera edo mantentzea baldintzatzen duten betekizunak egiaztatzen zuzendutako egintzak, eta osasun-azterketak eta berrikuspenak. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek baja medikoaren datatik hasita gauzatu ahalko dituzte egintza horiek, eta, osasun-azterketa egiteko hitzorduei dagokienez, onuraduna justifikaziorik gabe ez agertzea prestazio ekonomikorako eskubidea azkentzeko arrazoia izango da, 174. artikuluan ezarritakoaren arabera, erregelamendu bidez ezartzen den moduan; gainera, 175.3 artikuluan ezarritako kautelazko etetea aplikatu ahalko da.

Halaber, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek proba diagnostikoak eta tratamendu terapeutikoak eta errehabilitaziokoak egin ahalko dituzte, xedapen honetan aurreikusitako prozesuak beharrik gabe luzatzea ekiditeko xedez; horretarako, osasun-zerbitzu publikoko medikuaren baimena eta pazientearen baimen informatua jaso beharko dituzte, aldez aurretik.

Proba eta tratamendu horien emaitzak langilea artatzen duen osasun-zerbitzu publikoko medikuaren eskura jarriko dira, Osasun Sistema Nazionalaren interoperabilitate-zerbitzuen bitartez, pazientearen historia kliniko elektronikora gehi daitezten.

Proba diagnostikoak eta tratamendu terapeutikoak eta errehabilitaziokoak gertakari profesionalek eratorritako laguntza emateko mutuek kudeatzen dituzten laguntza-zentroetan gauzatu dira nagusiki, haien aprobetxamendua posible den tarteetan, jatorria lanbidean duten patologiei laguntzeko bitartekoak erabiliz; era subsidiarioan, gertakari profesionalen esparruan zerbitzuak emateko baimendutako zentro hitzartuetan ere gauzatu ahalko dira aipatutako probak eta tratamenduak, aurreko lerrokadan ezarritakoa betez, eta erregelamendu bidez ezarritako moduan. Aipatutako proba eta tratamendu horiek ez dute gertakari arrunten ondoriozko osasun-laguntzaren prestazioa bereganatzea ekarriko, eta ez dute eragingo azken horretara bideratutako baliabideez zuzkitzea ere.

e) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek hitzarmenak eta akordioak egin ahalko dituzte Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileekin eta osasun-zerbitzu publikoekin, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak aurrez baimena emanda, mutuek kudeatzen dituzten laguntza-zentroetan haiek eskatutako osasun-azterketak, proba diagnostikoak, txostenak, osasun-tratamenduak eta errehabilitaziokoak egiteko, ebakuntza kirurgikoak barne, elkarlaneko eginkizunetarako erabiltzeko tarteak duten neurrian. Baimendutako hitzarmen eta akordioetan, eskainitako zerbitzuen ordainetan mutuari eman beharreko konpentsazio ekonomikoak finkatuko dira, baita ordainketa egiteko modua eta baldintzak ere.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako hitzarmen eta akordioei dagokienez, era subsidiarioan, eta, betiere, kudeatzen dituzten laguntza-zentroek hartarako bide ematen duen aprobetxamendu-tarte bat baldin badute, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek itunak sinatu ahalko dituzte entitate pribatuekin, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak aurrez baimena emanda, eta erregelamenduz ezarritako konpentsazio ekonomikoaren bidez, haiek eskatutako pertsonen aldeko aipatutako probak

eta tratamenduak gauzatzeko; nolanahi ere, ezartzen diren jarduketek ezingo dituzte inola ere zentroen berezko xede diren zerbitzuak kaltetu, ez babestutako langileei eta entitate publikoek bidaltzen dizkietenei zor zaien arreta galarazi, ez eta haientzat guztientzat ezarritako kalitate mailak eskastu ere.

Hitzarmen, akordio eta itunek sorrarazten dituzten kreditu-eskubideak Gizarte Segurantzaren baliabide publikoak dira, eta 84.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

f) Aurreko zenbakietan araututako mekanismoak eta prozedurak alde batera utzi gabe, Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek lankidetzak-akordioak egin ahalko dituzte Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalarekin edota autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuekin, aldi baterako ezintasuna kudeatzean eta kontrolatzean eraginkortasuna hobetzeko xedez.

g) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek beren gain hartuko dituzte –hargatik eragotzi gabe osasun-zerbitzuek edo Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek gerora dirua itzultzeko aukera– Gizarte Segurantzaren sistemako langileen gertakari arrunten ondoriozko laneko baja-prozesuak beharrik gabe luza daitezen saihestearren egindako proba diagnostikoen, tratamenduen eta berreskuratze funtzionaleko prozesuen kostuak, baldin eta erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera egiten diren akordio edo itunetatik eratoritzen badira.

83. artikulua. *Enpresaburu elkartuen eta atxikitako beren konturako langileen aukera-araubidea.*

1. Enpresaburuek eta norberaren konturako langileek, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aurrean dagozkien betebeharrak betetzeko unean (enpresa inskribatzea, afiliatzea eta alta ematea), gertakari profesionalak, gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagokion prestazio ekonomikoa eta jarduera uzteagatiko prestazioa babesteko aukeratu duten entitate kudeatzailea edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua zein den adierazi beharko dute, kokatuta dauden Gizarte Segurantzako araubideko arau erregulatzailerekin bat etorririk, eta geroztiko aldaketan berri emango diote hari. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagokio aipatutako adierazpenak eta berorien legezko eraginak aitortzea, erregelamendu bidez ezarritako moduan, eta ondorengo zenbakietan xedatzen diren berezitasunak alde batera utzi gabe, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua baten aldeko aukera egiten den kasuetan.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua baten aldeko aukera ondoren adierazitako moduan egingo da, eta segidan ezartzen den irismena izango du:

a) Gizarte Segurantzaren laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak babesteko mutua bat aukeratzen duten enpresaburuek elkarte-hitzarmen bat formalizatu beharko dute harekin, eta entitate berean babestu beharko dituzte probintzia berean kokatutako lantokietako langile guztiak; Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginean ematen zaien definizioaren arabera ulertuko dira lantokiak.

Era berean, enpresaburu elkartuek aukeratu ahalko dute mutua berak kudeatzea gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagokion prestazio ekonomikoa, gertakari profesionalen aurrean babestuta dauden langileei dagokienez.

Elkarte-hitzarmenaren bidez formalizatzen da mutuarekin bat egitea; hitzarmenak urtebeteko indarraldia izango du, eta iraupen bereko aldika luzatu ahalko da. Erregelamendu bidez arautuko da hitzarmena formalizatzeko prozedura, bai eta hitzarmenaren edukia eta eraginak ere.

b) Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren aplikazio-eremuan sartzen diren langileek –berorien babes-jardunean sartuko da, borondatez edo nahitaez, aldi baterako ezintasunari dagokion prestazio ekonomikoa– prestazio ekonomiko hori formalizatu beharko dute Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua batekin, eta gauza bera egin beharko dute entitatez aldatzen direnek.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera mutua batera atxikita dauden langile autonomoek, gertakari profesionalak borondatez edo nahitaez estaltzen dituztenean, mutua berarekin formalizatu beharko dute beren babesa. Gertakari profesionalak soilik estaltzen dituztenak ere atxiki beharko dira.

Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartuta dauden norberaren konturako langileek Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzailearekin edota Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua batekin babestu ahalko dituzte gertakari profesionalak. Kotizazioaren hirugarren multzoan sartzen diren langileek gertakari arruntengatiko babesa formalizatu beharko dute Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzailearekin.

Babesa atxikitze-dokumentu baten bidez formalizatuko da, zeinaren indarrez norberaren konturako langilea mutuaren kudeaketa-eremuan sartzen den, haren elkartze-oinarritik kanpo, eta elkartzetik eratoritzen diren eskubideak eta betebeharrak bereganatu gabe. Atxikimenduaren indarraldia urtebetekoa izango da, eta iraupen berdineko aldika luzatu ahalko da. Erregelamendu bidez arautuko da atxikitze-dokumentua formalizatzekeo prozedura, bai eta dokumentu horren edukia eta eraginak ere.

c) Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartzen diren langileek jarduera uzteagatiko kudeaketa formalizatu beharko dute atxikita dauden mutuekin atxikitze-dokumentuari dagokion eranskina sinatuz, elkarlana arautzen duten erregelamendu-arauek ezartzen duten moduan. Bestalde, Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartuta dauden langile autonomoek gertakari profesionalak babesten dizkien entitate kudeatzailearekin edo mutuekin formalizatuko dute esandako babesa.

2. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek formulatzen zaien elkartze- eta atxikitze-proposamen oro onartu beharko dute. Kotizazio sozialak ez ordaintzeak ez ditu betebeharra betetzetik salbuetsiko, eta ez da izango izenpetutako hitzarmena, agiria edo eranskinak indargabetzeko arrazoia.

3. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen esku dauden enpresaburu elkartuei, atxikitako norberaren konturako langileei eta babestutako langileei buruzko informazioa eta datuak, eta, oro har, Gizarte Segurantzaren kudeaketako elkarlan-jarduera betetzean sortzen direnak, erreserbatuak dira eta 77. artikuluan xedatutako araubidearen pean daude; ondorioz, ezingo dira hirugarrenei laga edo komunikatu, esandako artikuluan jasota dauden kasuetan izan ezik.

84. artikulua. *Araubide ekonomiko-finantzarioa.*

1. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen sostengua eta funtzionamendua, eta haien xedeen barruan sartzen diren jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak, atxikita dituzten Gizarte Segurantzaren kuoten bidez finantzatuko dira; finantza-iturri izango dira, orobat, bai baliabide horiekin egindako finantza-inbertsioetik eta bai atxikita dituzten Gizarte Segurantzaren ondasun higigarri eta higiezinen zeinahi titulu besterentzetik eta atxikipena uztetik lortutako etekinak, gehikuntzak, ordainak eta konpentsazioak, eta, oro har, elkarlana gauzatzearen edo bere bitartekoak erabiltzearen kariaz lortutako beste zeinahi diru-sarrera.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak mutuei entregatuko dizkie enpresaburu elkartuek edo atxikitako norberaren konturako langileek laneko istripuengatik eta gaixotasun profesionalengatik Diruzaintza Nagusian sartutako kuotak, gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren kudeaketari dagokion kuota-zatia, langile autonomoen jarduera uzteagatiko kuota eta kudeatzen dituzten gertakari eta prestazioengatik dagozkien gainerako kuotak, alde aurretik kenduta nahitaezko berraseguruagatik eta zerbitzu erkideen kudeaketagatik sistemako entitate publikoei egin beharreko ekarpenak eta, kasua hala denean, legez ezartzen diren kopuruak.

2. Mutuek babestu gabe dauzkaten pertsonen alde emandako prestazio edo zerbitzuen ondorio gisa sortzen diren kreditu-eskubideak mutuei atxikitako Gizarte

Segurantzaren sistemako baliabide publikoak dira, bai eta, babesturik egonik ere, hirugarren bati dagokionean haiek ordaintzea zeinahi titulugatik; halako baliabide publikoak izango dira bidegabeki emandako prestazioengatik sortutako kreditu-eskubideak ere.

Kreditu horien zenbatekoa mutuek likidatuko dute, eta beroriek erreklamatu diote ordaintzeko betebeharra sortu den arau edo hitzarmenean ezarritako moduan eta baldintzetan behartuta dagoen subjektuari, ordainketa lortu arte edo, halakorik ezean, kreditua eskatzekoa izatea gaitzen duen titulu juridikoa lortu arte; horren berri emango diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako prozeduraren arabera kobra dezan.

82.2 artikuluan aurreikusitako zerbitzuengatik diru-sarrerek, mutuaren jardueraren emanean sarturik ez dauden langileei ematen bazaizkie, kreditua sortuko dute zerbitzua ematen duen mutuaren gastuen aurrekontuan, esandako zerbitzuak emateagatik sortutako izaera bereko gastuei dagozkien kontzeptuetan.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, zorra kobratzera zuzendutako prozedura guztietan, baimena eman ahalko du kreditu-eskubideak ordain daitezen eskudiruaz bestelako era batean, eta zehaztuko ditu bai azkenduta geratzen den kredituaren zenbateko likidoa, bai eskubidea azkendu arte aplikatzekoak diren modua eta baldintzak. Subjektu behartua administrazio publiko bat edo izaera bereko entitate bat denean, eta zorren zergatia osasun-laguntza ematea izan bada, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak baimena eman ahalko du ordainketa ondasunak ematearen bitartez egiteko, ezertan eragotzi gabe eskubidea azkendu arte ematen zaizkion gainerako ahalak aplikatzeari.

3. Mutuei ezartzen zaizkien betebeharrak ekonomikoak elkarlana gauzatzera atxikitako baliabide publikoen kargura ordainduko dira; dena den, xede gisa pentsioak dituzten betebeharrak 110.3 artikuluan xedatutakoaren arabera finantzatuko dira.

4. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen administrazio-gastuak dira elkarlanaren administrazio-zerbitzuen sostengutik eta funtzionamendutik eratorritakoak, eta hor sartuko dira pertsonal-gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak, finantza-gastuak eta ondasun inbentariagarrien amortizazioak. Urtean-urtean, ekitaldi bakoitzeko diru-sarrerei erregelamendu bidez ezarriko den eskalatik dagokion ehunekoa aplikatuta ateratzen den zenbatekora mugatu beharko dira.

5. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek tributuo-salbupea izango dute, 76.1 artikuluan entitate kudeatzaileentzat ezarritako moduan.

2. azpiatala. Gobernu- eta partaidetza-organoak

85. artikulua. *Zerrenda.*

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuetako gobernu-organoak Batzar Nagusia, Zuzendaritza Batzordea eta zuzendari kudeatzailea dira.

Partaidetza instituzionaleko organoa Kontrol eta Jarraipen Batzordea da.

Prestazio Berezien Batzordea izeneko organoari dagokio 96.1.b) artikuluan aurreikusitako hautazko gizarte-laguntzaren onurak ematea.

86. artikulua. *Batzar Nagusia.*

1. Batzar Nagusia mutuaren gobernu-organo gorena da, eta honako hauek osatuko dute: enpresaburu elkartu guztiek, erregelamendu bidez ezarritako moduan atxikitako norberaren konturako langileen ordezkariak batek eta mutuaren mende dauden langileen ordezkariak batek. Ez dute boto-eskubiderik izango kotizazio sozialen ordainketan egunean ez dauden enpresaburu elkartuek, ez eta egoera horretan dauden atxikitako norberaren konturako langileen ordezkariak ere.

2. Batzar Nagusia urtean behin bilduko da, ohiko izaeraz, aurrekontuen aurreproiektua eta urteko kontuak onartzeko, eta Zuzendaritza Batzordeak deitzen duen guztietan, izaera bereziaz, erregelamendu bidez deialdirako eta batzarra biltzeko ezartzen diren betekizun guztiak betetzen badira.

3. Batzar Nagusiari dagokio, beti, Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzea eta berritzea, ondare historikoaren zuzkidurei eta aplikazioei buruz informatua izatea, estatutuak erreformatzea, entitatea bat egitea, xurgatzea eta desegitea, likidatzaileak izendatzea, eta Zuzendaritza Batzordeko kideei erantzukizuna eskatzea.

4. Erregelamendu bidez arautuko dira Batzar Nagusiaren deialdia egiteko prozedura eta betekizunak, Batzar Nagusietan akordioak eztabaidatzeko eta hartzeko araubidea, eta, orobat, elkartuek akordioen aurkaratze-akzioak egikartzeko modua, baldin eta akordio horiek legearen edota mutuari aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta jarraibideen aurkakoak badira, edo entitatearen interesa kaltetzen badute, elkartu baten, batzuen edo hirugarrenen mesedetan, edo Gizarte Segurantzaren interesen kontrakoak badira. Aurkaratze-ekintza urtebeteko epean iraungiko da, akordioa hartu zen datatik zenbatuta.

87. artikulua. *Zuzendaritza Batzordea.*

1. Zuzendaritza Batzordea mutuaren zuzeneko gobernuaz arduratzen den kide anitzeko organoa da. Honako hauek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea: enpresaburu elkartuek –hamarretik hogeira bitartean–, horietatik ehuneko hogeita hamar langile gehien dituzten enpresetakoak izango dira, erregelamendu bidez ezartzen diren eskalen arabera erabakita, eta atxikitako norberaren konturako langile batek. Batzar Nagusiak izendatuko ditu horiek guztiak. Zuzendaritza Batzordeko kide izango da aurreko artikuluan aipatutako langileen ordezkaria ere.

Zuzendaritza Batzordeko kide izendatzen direnek Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren berrespena jaso beharko dute, langileen ordezkariak izan ezik, eta kide haien artetik izendatuko da Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria, zeina entitateko lehendakaria izango baita.

2. Zuzendaritza Batzordearen eskumenak dira Batzar Nagusirako deialdia egitea, hark hartzen dituen akordioak betearaztea, aurrekontuen aurreproiektuak eta urteko kontuak formulatzea –Zuzendaritza Batzordeko lehendakariak sinatu beharko ditu–, zuzendari kudeatzaileari erantzukizunak eskatzea, eta ezartzen diren gainerako eginkizunak, Batzar Nagusiari erreserbatutakoak salbu. Erregelamendu bidez arautuko dira Zuzendaritza Batzordearen jarduteko araubidea eta erantzukizunak eskatzeko araubidea.

3. Zuzendaritza Batzordeko lehendakariari dagokio Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua ordezkatzeko, esandako organoaren bilerak deitzea, eta eztabaidak moderatzea.

Ezartzen den kalte-ordain araubideak arautuko ditu Zuzendaritza Batzordeko lehendakariari dagozkionak, eman zaizkion eginkizun espezifikoenatik; kalte-ordainek ezingo dituzte zuzendari kudeatzaileari oro har dagozkion ordainsariak gainditu.

4. Pertsona bati berari ezingo zaio aldi berean Zuzendaritza Batzordeko kargu bat baino gehiago eman, bere buruaren ordezkartzan edo beste enpresa elkartu batzuen ordezkari gisa egon; halaber, ezingo dira Batzordeko kide izan mutuarekin lan- edo zerbitzu-harremana duten pertsonak edo enpresak, langileen ordezkaria salbuetsita.

88. artikulua. *Zuzendari kudeatzailea eta mutuako gainerako langileak.*

1. Zuzendari kudeatzailea mutuaren zuzendaritza exekutiboa gauzatzen du, eta entitatearen helburu nagusiak betetzea eta ohiko zuzendaritza baliatzea dagozkio; nolana ere, kasua hala denean, Zuzendaritza Batzordeak eta lehendakariak emandako irizpideen eta jarraibideen arabera jokatu beharko du.

Zuzendari kudeatzaileak informatuta edukiko du lehendakaria mutuaren kudeaketari buruz, eta, kasua hala denean, hark emandako jarraibideen arabera jokatu du.

Zuzendari kudeatzaileak goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman bereziak arautzen dituen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuak erregulatutako goi-zuzendaritzako kontratua izango du. Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du zuzendari kudeatzailea; dena den, izendapena eta lan-kontratua eraginkor izan daitezen, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren berrespena beharko da.

Ezingo dira zuzendari kudeatzaile izan Administrazio Kontseiluko kide diren edo mutuarekin elkartutako enpresa batean ordaindutako jardueraren batean ari diren pertsonak, baldin eta enpresa horietako kapital sozialaren ehuneko 10eko edo gehiagoko partaidetzaren titular badira edota titulartasuna haien ezkontideari edo seme-alabei badagokie. Zehapen-espeditente baten indarrez beren eginkizunak etenda dituzten pertsonak ere ezingo dira zuzendari kudeatzaile izendatu, harik eta etenaldia azkendu arte.

2. Exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten gainerako langileak zuzendari kudeatzailearen menpe egongo dira, goi-zuzendaritzako kontratuak izango dituzte, eta haiek ere zuzendari kudeatzailearentzat aurreikusitako bateraezintasun-araubidearen eta mugen pean egongo dira.

3. Ordainsarien eraginetarako, eta mutuetan exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten pertsonen gehieneko kopuruak zehazteko, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak taldeka sailkatuko ditu mutuak, beren kuota-bolumenaren, babestutako langile kopuruaren eta kudeaketan erakutsitako efizientziaren arabera.

4. Zuzendari kudeatzailearen eta mutuetan exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten langileen ordainsarrietan, oinarrizkoak eta osagarriak bereizten dira. Ordainsariak enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-sistema arautzen duen martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak talde bakoitzarentzat finkatutako gehieneko mugen pean egongo dira. Era berean, aipatutako martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuan aurreikusitako mugen pean egongo da mutua bakoitzean exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten pertsonen gehieneko kopurua.

Zuzendari kudeatzailearen eta exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten langileen oinarrizko ordainsarrietan sartzen dira berorien nahitaezko gutxieneko ordainsariak; Zuzendaritza Batzordeak finkatuko ditu ordainsari horiek, mutua sailkatuta dagoen taldearen arabera.

Zuzendari kudeatzailearen eta exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten langileen ordainsari osagarrietan, bi kontzeptu sartzen dira: lanpostuari dagokion osagarria eta osagarri aldakorra; mutuako Zuzendaritza Batzordeak finkatuko ditu haien zenbatekoak.

Lanpostuaren osagarria erabakitzeke, honako hauek hartuko dira kontuan: zuzendaritzako kidearen ordainsari-egoera, erreferentzia-merkatuko antzeko lanpostuekin alderatuta; lanpostuaren mende dagoen antolaketa-egitura; postuak antolakundean duen pisu erlatiboa, eta erantzukizun maila.

Osagarri aldakorra hautazkoa izango da, eta, mutuaren Zuzendaritza Batzordeak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak finka ditzakeen irizpideekin bat etorririk, aldeztu aurretik ezarritako helburu batzuen lorpena ordainduko du. Helburu horiek urtekoak izango dira, eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean ari den mutuak jardueren kudeaketan sortutako emaitzetan oinarrituta egon beharko dira.

Gutzizko ordainsaria ezingo da, ezein kasutan, oinarrizko ordainsaria halako bi baino gehiago izan, eta ezein lanpostuk ez du izango abenduaren 26ko 35/2014 Legea (Gizarte Segurantzako laneko istripu eta gaixotasun profesionalen mutuen araubide juridikoari dagokionez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzen duena) indarrean jarri aurretik zeukana baino gutzizko ordainsari handiagorik.

5. Zuzendaritzako kide ez diren langileak Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginean araututako lan-harreman arruntaren pean egongo dira. Mutuako ezein langilek ezingo du zuzendari kudeatzaileak baino gutzizko ordainsari handiagoa jaso. Langile multzoaren ordainsariak, betiere, soldata-masari buruzko xedapenen eta, kasua hala denean, urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen dituen muga edo murrizketen pean egongo dira.

6. Baliabide publikoen kargura, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek ezingo dizkiete beren langileei, lan-harremana azkentzeagatik, harreman hori arautzen duten legezko eta erregelamenduzko xedapenetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte-ordainak eman, edozein eratakoak direla ere esandako erlazioa eta azkentzearen arrazoia.

7. Halaber, mutuek ezingo dute pentsio-planik ezarri beren langileentzat, ez pentsio-konpromisoak eratzen dituzten aseguru kolektiborik, ez eta enpresako gizarte-

aurreikuspeneko planik, Enpleguko eta Gizarteko Segurantzaren Ministerioaren onarpenik gabe. Pentsio-planak, aseguru-kontratuak, enpresako gizarte-aurreikuspeneko planak eta gauzatzen diren aldizkako ekarpenak eta hobariak Estatuko aurrekontu orokorren legeek arlo horretan sektore publikorako ezartzen dituzten muga eta irizpideen pean egongo dira.

89. artikulua. *Kontrol eta Jarraipen Batzordea.*

1. Kontrol eta Jarraipen Batzordea gizarte-eragileen parte-hartze organoa da, eta berari dagokio entitateak elkarlan modalitate guztietan egiten duen kudeaketa ezagutzea eta berari buruz informatzea, Gizarte Segurantzaren printzipioen eta helburuen esparruan modalitate horien garapena hobetzeko neurriak proposatzea, aurrekontuen aurreproiektuari eta urteko kontuei buruzko txostenak egitea, eta mutuak bere helburu sozialaren garapenean mantentzen eta aplikatzen dituen irizpideak ezagutzea.

Lan hori egiteko, Batzordeak auzi, erreklamazio eta errekurtsioei buruzko txostenak jasoko ditu aldizka, baita gainbegiratze-, zuzendaritza- eta tutoretza-organoen errekerimenduenak ere, haien betetzeari buruzko informazioarekin batera. Urtero, hainbat gomendio prestatuko ditu, eta bai Zuzendaritza Batzordeari, bai zuzendaritza- eta tutoretza-organoi bidaliko dizkio.

2. Batzordeak hamabi kide izango ditu gehienez, honako hauek izendatuak: ordezkari handieneko sindikatu- eta enpresa-erakundeek eta langile autonomoen lanbide-elkarteen ordezkariak. Batzordeko lehendakari izango da une horretan Zuzendaritza Batzordeko lehendakari dena.

Ezingo dira Kontrol eta Jarraipen Batzordeko kide izan Zuzendaritza Batzordeko kideak –lehendakaria salbuetsita–, ez eta entitatearentzat lan egiten duten pertsonak ere.

3. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak arautuko ditu Kontrol eta Jarraipen Batzordeen osatura eta jarduteko araubidea, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Batzorde Orokorrek aurrez txostena egin ondoren.

90. artikulua. *Prestazio Berezien Batzordea.*

1. Prestazio Berezien Batzordeak izango du eskumena Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutuak laneko istripuren bat edo gaixotasun profesionalen bat jasan duten eta beharizan-egoera berezian dauden langile babestuen edo atxikitakoen eta haien eskubidedunen alde ezarrita dauzkan gizarte-laguntza erreserbatik eratorritako onurak emateko. Onurak hautazkoak izango dira, eta Gizarte Segurantzaren babes-jardunean sartzen diren estatik independenteak.

2. Batzordea erregelamendu bidez ezartzen den kide kopuruak osatuko du, eta ordezkari kopuru berdinak izango dituzte enpresa elkartuetako langileen ordezkariak, batetik, eta enpresaburu elkartuen ordezkariak, bestetik, azken horiek Zuzendaritza Batzordeak izendatuko dituelarik; era berean, atxikitako langileek ere izango dute ordezkariak. Lehendakaria Batzordeak izendatuko du, bere kideen artean.

91. artikulua. *Gobernu- eta partaidetza-organotako kideen bateraezintasunak eta erantzukizunak.*

1. Ezingo dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua bateko Zuzendaritza Batzordeko, Kontrol eta Jarraipen Batzordeko, ez Prestazio Berezien Batzordeko kide izan beste mutua batean aipatutako organo horietakoren bateko kide diren pertsonak, dela beren buruaren ordezkariak edo enpresa elkartuen edo gizarte-antolakundeen ordezkariak gisa, ez eta beste entitate batean exekuzio-eginkizunak dituztenak ere.

2. Aurreko karguek edo berorien ordezkariak, eta mutuetan exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten pertsonak ezingo dute beren buruarentzat erosi ez saldu entitatearen inolako ondare-aktiborik, ez obrak egiteko kontraturik egin, ez zerbitzuak ematekorik edo hornidurak entregatzekorik ere, finantza-zerbitzu enpresak edo funtsezko hornidurenak salbuetsita –kontratatzeko, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren baimena beharko dute aldez aurretik–, ez eta interes-gatazka biltzen diren kontratuak egin ere.

Ezingo dituzte egintza horiek guztiak gauzatu kargu edo pertsona horiekin ezkontza- edo ahaidetasun-erlazioen bat duten pertsonak, zuzeneko lerroan edo albokoan, odolkidetasunez, adopzioz edo ezkontzaz, laugarren graduraino, ez eta pertsona juridikoez ere, baldin eta aipatutako pertsona, kargu edo ahaideak kapital sozialaren ehuneko 10 edo gehiagoren titular badira, zuzenean edo zeharka, erabakitze-eskubidea inplikatzeko duten eginkizunak betetzen badituzte, edo berorien administrazio- edo gobernu-organotako kide badira.

3. Zuzendaritza Batzordeko, Kontrol eta Jarraipen Batzordeko, eta Prestazio Berezien Batzordeko kide izatea doako zeregina izango da; hala ere, mutuak kalte-ordainak eta konpentsazioak eman ahalko dizkie kide horiei, organoen bileretara joateak sortzen dizkien gastuengatik, erregelamendu bidez ezartzen den moduan, kontuan hartuta Zuzendaritza Batzordeko lehendakariari buruz 87.3 artikuluan ezarritakoa.

4. Zuzendaritza Batzordeko kideak, zuzendari kudeatzailea eta exekuzio-eginkizunak betetzen dituzten pertsonak zuzeneko erantzule izango dira Gizarte Segurantzaren, mutuaren eta enpresaburu elkartuen aurrean, aplikatzekoak diren arau juridikoen, estatutuen edo tutoretza-organoak agindutako jarraibideen kontra egindako egiteen edo ez-egiteen kariaz eragindako kalteengatik, edota karguari lotutako eginbeharrak ez betetzearen ondoriozkoengatik; betiere, doloz edo erru astunez jokatu badute. Egintza propiotzat joko dira dagozkien eginkizun- edo eskumen-esparruetan sartutako egiteak eta ez-egiteak.

Zuzendaritza Batzordeko kideen erantzukizuna solidarioa izango da. Hala ere, salbuetsita egongo dira egintza onartzen edo betetzen esku hartu ez zuten kideak, baldin eta frogatzen badute ez zutela egintza haren berri, edo, haren berri izan arren, kaltea ekiditeko komeni zen guztia egin zutela, edo, gutxienez, berriaz kontra agertu zirela.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek, 100.4 artikuluan araututako erantzukizun mankomunatuaren bidez, zuzenean erantzungo dute egintza kaltegarriengatik, egintza horiek betetzean erru arinez jokatu badute edota zuzeneko erantzulerik ez badago. Halaber, subsidiarioki erantzungo dute zuzeneko erantzuleek nahikoa ondare ez duten kasuetan.

5. Artikulu honetan ezarritako erantzukizunetatik sortzen diren kreditu-eskubideak eta enpresaburu elkartuek beren gain hartzen duten erantzukizun mankomunatuatik sortzen direnak (erantzukizun mankomunatu hori 100.4 artikuluan dago aurreikusita) Gizarte Segurantzaren baliabide publikoak dira, erantzukizuna eragin zuten egitateak gertatu ziren mutuei atxikitakoak.

Zuzendaritza- eta tutoretza-organoari dagokio aurreko zenbakian ezarritako erantzukizunak eta haien xede diren betebeharrak adieraztea, baita berorien zenbateko likidua zehaztea eta ordainketa erreklamatzeko ere, entitateen elkarlana erregulatzen duten arauen arabera, eta hura azkendu arte aplikatu daitezkeen ordainketa-bitartekoak (ondasunak ematea, adibidez), modalitateak, erak, moduak eta baldintzak erabakitzea. Kontuen Auzitegiak egitate horiengatik itzultzeko prozedura hasten duenean, zuzendaritza- eta tutoretza-organoak administrazio-prozedura etetea erabakiko du, harik eta esandako auzitegiak ebazpen irmoa ematen duen arte; ebazpeneko xedapen materialek erabateko eragina izango dute administrazio-prozeduran.

Zuzendaritza- eta tutoretza-organoak erantzukizun horietatik eratorritako kreditu-eskubideak nahitaez biltzeko eskatu ahalko dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari; hartarako, haien likidazio-egintza helaraziko dio, eta ordaintzera behartuta dauden subjektuak zehaztuko dizkio. Lortzen diren zenbatekoak erantzukizuna eskatzea eragin zuten kontuetan sartuko dira, zuzendaritza- eta tutoretza-organoak xedatutako moduan.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, dagozkion zuzendaritza- eta tutoretza-ahalak aplikatuz, ordainketa erreklamatu ahalko du, edota behar diren lege-akzioak egikaritu, elkarlanaren garapena dela bide sortutako erantzukizunak deklaratzeko edo eskatzeko; horrez gain, ezarritako erantzukizunei eragiten dieten lege-prozesuetan agertu ahalko da, eta horietan parte izan.

3. azpiatala. Ondarea eta kontratazioaren araubidea

92. artikulua. *Mutuei atxikitako Gizarte Segurantzaren ondarea.*

1. 19.3 eta 103.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera, 84.1 artikuluan jasotako diru-sarrerak, beroriek inbertitzearen bidez lortutako ondasun higigarriak eta higiezinak, eta, oro har, haiekin zerikusia duten eskubide, akzio eta baliabideak Gizarte Segurantzaren ondarearen parte dira eta mutuei atxikita daude, eman zaizkien Gizarte Segurantzaren funtzioak gara ditzaten, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren zuzendaritza eta tutoretzapean.

2. Mutuek erabakiko dute eman zaizkien eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren higiezinak zeinahi tituluren bidez eskuratzea eta besterentzea; horretarako, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak baimena eman beharko du alde aurretik, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak formalizatuko du egintza, baimendutako moduan. Aipatutako higiezinak Zerbitzu Erkidearen izenean titulatu eta inskribatu dira Jabetza Erregistroan. Eskuratzeak inplizituki eramango du baimendutako mutuari atxikitzea. Halaber, baimena eskatu ahalko dute entitate kudeatzaileei, zerbitzu erkideei edo beste mutua batzuei atxikitako Gizarte Segurantzaren ondareko higiezinak atxiki diezazkieten, baita ukitutakoen atxikipena kentzeko ere; horretarako, interesdunen adostasuna beharko dute, eta ondasunen jabetza jasotzen duenak ekonomikoki konpentsatu beharko du entitate lagatzailea.

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei dagokie atxikitako ondasunak kontserbatzea, erabiltzea, hobetzea eta defendatzea; betiere, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren zuzendaritza eta tutoretzapean. Ondasun higiezienei dagokienez, mutuei egokituko zaie edukitza-akzioak egikaritzea, eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, aldiz, jabetza-akzioa egikaritzea.

3. Ondarearen titulartasun publikoa gorabehera, berorren kudeaketa bakandua eta elkarlanaren jardueretarako ezarritako araubide ekonomiko-finantzarioa kontuan harturik, atxikitako ondarea osatzen duten ondasunak kudeaketaren emaitzen pean egongo dira, eta likidatu egin ahalko dira kudeaketako premiei erantzuteko, prestazioak ordaintzeko edo adierazitako jardueretatik eratorritako beste betebeharrak batzuetarako; nolahi ere, enpresaburu elkartuek erantzukizun mankomunatuak izango dute. Adierazitako ondasunak besterentzetik lortzen den produktua, edo beste mutua edo sistemaren entitate publiko baten aldeko atxikipen-aldaketatik lortzen dena, produktuak jatorri duen mutuan sartuko da.

93. artikulua. *Ondare historikoa.*

1. Honako ondasun hauek osatzen dute mutuen ondare historikoa: mutuen ondarrera 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen gehitutako ondasunek, data horren eta 1975eko abenduaren 31ra arteko aldian gehitutakoek (azken kasu horretan, gehiegizko soberakinen 100eko 20tik datozen ondasunak badira), eta Gizarte Segurantzaren kuotetatik ez datozen baliabideetan jatorria dutenek. Ondare historiko horren jabetza mutuei dagokie, enpresaburu elkarte direnez, ezertan galarazi gabe 98.1 artikuluan aipatzen den tutoretza.

Ondare historiko hori entitatearen helburu sozialari ere hertsiki lotuta dago, eta aipatutako helbururako erabileratik ezingo da Gizarte Segurantzaren ondare bakarrarentzat karga izan daitekeen etekinik edo ondare-gehikuntzarik eratorri. Kontuan izanik ondare hori hertsiki lotuta dagoela mutuak Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzeko helburuekin, sortzen dituen ondasunak eta etekinak –halakorik egonez gero– ezingo dira merkataritza-jarduerak gauzatzera desbideratu.

2. Aurreko zenbakian izaera orokorrez ezarritakoa hala bada ere, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak alde aurretik baimena eman gero, eta erregelamenduz ezarritako modu eta baldintzetan, ondorengo letretan aipatzen diren diru-sarrerak mutuen ondare historikoaren parte izango dira:

a) Mutuek ondasun higiezinak baldin badituzte beren ondare historikoan, eta ondasun horien xedea Gizarte Segurantzarekiko elkarlanari lotutako jarduerak betetzeko osasun- edo administrazio-zentro eta -zerbitzuak haietan kokatzea baldin bada, mutuek kanon edo konpentsazio-kostu bat egotzi ahalko dute emaitzen kontuan, esandako higiezinak erabiltzeagatik.

b) Mutuek hutsik dauden higiezinak baldin badituzte beren ondare historikoaren barruan, eta higiezin horiek, inguruabarrak direla-eta, ezin badira Gizarte Segurantzarekiko elkarlanari lotutako jarduerak betetzeko osasun- edo administrazio-zentro eta -zerbitzuak kokatzeko erabili, baina hirugarrenei alokatzeko modukoak badira, merkatuko prezioetan alokatu ahalko dituzte mutuek higiezin horiek.

c) Mutuek 97.2 artikuluan aurreikusitako pizgarrien parte bat jaso ahalko dute Gizarte Segurantzaren gertakari profesionalak murrizten eraginkortasunez laguntzen duten enpresetatik, bi aldeak aldez aurretik ados jarriz gero. Erregelamendu bidez ezarriko da mutuek pizgarri horietan parte hartzeko izango duten gehieneko muga.

94. artikulua. *Kontratazioa.*

1. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek Administrazio Publiko ez diren botere esleitzaileri aplikatzen zaizkien arauetara egokituko dute beren kontratu-jarduera. Arau horiek azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean eta horren garapen-arauetan daude jasota.

2. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak onartuko ditu kontratazioa zuzenduko duten agiri orokorrak, bai eta erregulazio harmonizatuaren pean ez dauden kontratuak xede dituzten prozedurei aplikatzekoak zaizkien jarraibideak ere; aurrez, txostena egingo du Gizarte Segurantzaren Administrazio Zerbizur Juridikoak.

3. Kontratazio-prozeduretan, publikotasunaren, konkurrentziaren, gardentasunaren, konfidentzialtasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioak bermatuko dira. Prozedura horietan lizitzatzeko aukera izango dute enpresaburu elkartuek eta atxikitako langileek; kasu horretan, baina, ezingo dira kontratazio-organoetako kide izan, ez zuzenean, ez mandatarien bitartez. Ezingo dira kontratazio-organoetako kide izan, halaber, lizitzailearekin ahaidetasun-erlazioen bat duten pertsonak, zuzeneko lerroan edo albokoan, odolkidetasunez edo ezkontzaz, laugarren graduraino, ez eta sozietateek ere, berorietan, zuzenean edo zeharka, kapital sozialaren ehuneko 10 edo gehiagoko partaidetza edo erabakitze-eskubidea inplikatzekoak izan diren eginkizunak betetzen badituzte.

4. Erregelamendu bidez arautuko dira inbertsio errealek edo finantza-inbertsioak dakartzaten eragiketei edota Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen den kontratu-jarduerari aplikatzekoak zaizkien espezialitateak.

4. azpiatala. Kudeaketaren emaitzak

95. artikulua. *Emaitza ekonomikoa eta erreserbak.*

1. Ondarearen emaitza ekonomikoa urtero zehaztuko da, honako kudeaketa-eremu hauetako bakoitzean sartzen diren jarduerari dagozkien sarreraren eta gastuen arteko aldea kalkulatuta:

a) Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen gertakarien kudeaketa, haurdunaldiko edo edoskialdi naturaleko arriskuagatik prestazio ekonomikoarena, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeagatik prestazioaren kudeaketa, eta Gizarte Segurantzaren prebentzio-jarduerena.

b) Gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatik prestazio ekonomikoaren kudeaketa.

c) Norberaren konturako langileek jarduera uzteagatik babesaren kudeaketa; mutuak, arlo horretan, organismo kudeatzaile gisa soilik jardun ahalko du.

Gertakari profesionalen kudeaketaren esparruan, zuzkidura bat eratuko da izapidetze fasean dauden gertakariarentzat; hor sartuko da laneko istripuek eta gaixotasun profesionalak eragindako ezintasun iraunkorrarengatik, heriotzagatik eta biziraupenagatik aurreikusitako aldizkako prestazioen zenbateko zenbatetsiaren berraseguratu gabeko partea, zeinaren aitortza ebatzi gabe dagoen ekitaldia ixteko uanean.

2. 1. zenbakian aipatutako esparruetako bakoitzean Egonkortze Erreserba bat eratuko da, eta urtean lortutako emaitza ekonomiko positiboarekin zuzkituko da; erreserbaren xedea izango da esparru bakoitzean ekitaldi batetik bestera izandako emaitza ekonomikoen artean egon litezkeen desberdintasunak zuzentzea. Erreserben zenbatekoak honako hauek izango dira:

a) Gertakari Profesionalen Egonkortze Erreserbak honako zenbateko hau izango du, gutxienez: 1.a) zenbakian adierazitako gertakari eta prestazioengatik azken hirurtekoan sartutako kuoten urteko batezbestekoaren ehuneko 30, nahi izanez gero ehuneko 45era arte igo daitekeena; azkeneko hori izango da erreserbaren zuzkidurak izan dezakeen maila handiena.

b) Gertakari Arrunten Egonkortze Erreserbak honako zenbateko hau izango du, gutxienez: esandako gertakariengatik ekitaldi ekonomikoan sartutako kuoten ehuneko 5, nahi izanez gero ehuneko 25era arte igo daitekeena; azkeneko hori izango da estaldurak izan dezakeen maila handiena.

c) Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserbak honako zenbateko hau izango du, gutxienez: esandako gertakariengatik ekitaldian zehar sartutako kuoten ehuneko 5, nahi izanez gero kuota horien ehuneko 25era arte igo daitekeena; azkeneko hori izango da estaldurak izan dezakeen maila handiena.

Halaber, mutuek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian sartuko dute Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserba Osagarriaren zuzkidura, babes-sistema horrek nahikotasun finantzarioa izatea bermatzeko helburuarekin. Zenbatekoa bat etorriko da Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserbara bideratutako zenbatekoaren eta emaitza positibo garbiaren arteko aldearekin.

3. 1. zenbakiko a) eta b) letretan aurreikusitako esparruetan lortutako emaitza negatiboak dagokien Egonkortze Erreserba aplikatuta kitatuko dira. Erreserba hori bere gutxieneko estaldura mailaren azpitik geratzen bada, 96.1.b) artikuluan aurreikusitako Erreserba Osagarriaren kargura hornituko da esandako mailara arte.

Aurreko lerrokadan ezarritako eragiketak gauzatu ondoren, gertakari profesionalen kudeaketaren esparruan iraun egiten badu defizitak, edo Berariazko Egonkortze Erreserbaren zuzkidura nahitaezko gutxienekoaren azpitik badago, defizita kitatzeko eta aipatutako nahitaezko gutxieneko mailaraino Erreserba zuzkitzeko erabiliko da Gertakari Arrunten Egonkortze Erreserbaren borondatezko zuzkidurari dagokion zenbatekoa, eta hala ere nahikoa ez balitz, aplikatzekoa izango da, kasua hala denean, 100. artikuluan ezarritakoa.

Gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagokion prestazio ekonomikoaren kudeaketaren esparruari dagokionez, lehen zenbakian aurreikusitako Erreserba Osagarria aplikatu ondoren defizitak iraun egiten duen kasuan, edota Berariazko Erreserbaren zuzkidura bere nahitaezko gutxieneko mailatik beherago badago, defizita kitatzera eta esparru horretako berariazko Egonkortze Erreserba nahitaezko gutxieneko estaldura mailaraino iritsi arte zuzkitzera aplikatuko da Gertakari Profesionalen Egonkortze Erreserba. Azken erreserba hori aplikatu ondoren, esandako erreserba 100.1.a) artikuluan aurreikusitako mailetan kokatzen bada, aplikatzekoak izango dira artikuluan honetan ezarritako neurriak.

Era berean, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zehaztu ahalko du zer baldintzatan baimenduko duen gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagozkion prestazio ekonomikoen kudeaketa finantzatzen duen kuota-zatiari ehuneko gehigarri bat aplikatzea koefiziente orokorraren eskasia finantzarioa frogatzen duten mutuei, egitura-inguruabarretan oinarrituta eta erabakitzen den moduan.

4. Jarduera uzteagatiko prestazioen kudeaketaren emaitza negatiboa mutuetan eraturako berariazko Erreserba aplikatuta kitatuko da, eta, nahikoa ez bada, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eraturako Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserba Osagarria aplikatuko da, harik eta defizita kitatu eta Erreserba haren gutxieneko zuzkidura-mailara heldu arte, erregelamendu bidez ezarritako moduan.

96. artikulua. *Soberakinak.*

1. Gertakari Profesionalen Egonkortze Erreserba zuzkitu ondoren geratzen den soberakina honela aplikatuko da:

a) 95.1.a) artikuluan adierazitako kudeaketa-esparruan lortutako soberakinaren ehuneko 80 ekitaldi bakoitzeko uztailaren 31 baino lehen sartuko da Gizarte Segurantzaren Gertakari Profesionalen Funtzaren kontu berezian; kontu hori Espainiako Bankuan dago irekita, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren izenean, eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren eskura dago.

b) Zenbaki honetako lehen letran adierazitako soberakinaren ehuneko 10 mutuek eratuko duten Erreserba Osagarria zuzkitzeko aplikatuko da. Erreserba horretako baliabideekin, honako hauek ordaindu ahalko dira: administrazio-gastu handiegiak, Gizarte Segurantzaren prestazioak lortzea xede ez duten uzietatik eratorritako prozesu-gastuak, eta administrazio-zehapenak, 95.3 artikuluan ezarritako xedeetarako aplikatzea beharrezkoa ez den kasuan.

Zenbaki honetako lehen letran adierazitako soberakinaren ehuneko beste 10a Gizarte Laguntzako Erreserba zuzkitzeko aplikatuko da. Erreserba horretatik ordainduko dira baimendutako gizarte-laguntzako prestazioak, zeinean sartuko baitira, beste batzuen artean, errehabilitazio- eta suspertze-ekintzak, lanbide-berrorientazioak eta funtsezko bitartekoak eta lanpostuak egokitze laguntza-neurriak, istripua izan duten babespeko langileen alde, bereziki, desgaitasunen bat geratu bazaie, eta, kasua hala bada, haien eskubidedunentzako laguntzak; laguntza horiek, hala ere, Gizarte Segurantzaren babes-jardunean sartzen direnetatik kanpokoak eta osagarriak izango dira. Erregelamendu bidez garatuko da erreserba horien aplikazioen araubidea.

Erreserba Osagarriaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu 95.2.a) artikuluan aipatzen den Gertakari Profesionalen Egonkortze Erreserbaren gehieneko mailaren ehuneko 25en baliokide den zenbatekoa.

2. Erreserba Osagarria eta Gizarte Laguntzako Erreserba ezingo dira aplikatu bidegabeko gastuak ordaintzeko, elkarlanaren barruan sartzen diren prestazio, zerbitzu edo beste kontzeptu batzuetakoak ez direlako, edota mutuetako langileei ordainsariak edo kalte-ordainak emateko, aplikazio-arauetan ezarritakoa baino zenbateko handiagoan; horiek 100.4 artikuluan xedatu bezala ordainduko dira.

3. Gertakari Arrunten Egonkortze Erreserba zuzkitu ondoren geratzen den soberakina Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsean sartuko da.

4. Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserba zuzkitu ondoren geratzen den soberakina Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian sartuko da, Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserba Osagarria zuzkitzeko xedearekin. Erreserba osagarri horren helburua izango da mutuek kudeaketaren esparru horretan izan ditzaketan defizitak kitatzea, beren Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserba aplikatu ondoren, eta erreserba hori nahitaezko gutxieneko mailaraino hornitzea, 95.4 artikuluan xedatutako moduan; hala ere, aplikatzekoak izango dira funtsak gorpuzteari eta berorien xedapen iragankorreki buruzko 97.3 artikuluan ezarritako aurreikuspenak.

97. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Gertakari Profesionalen Funtsa.*

1. Honako hauek osatuko dute Gizarte Segurantzaren Gertakari Profesionalen Funtsa: kontu berezian gordailututako eskudiruak, funtsak inbertitzen diren balore higigarriak eta gainerako ondasun higigarri eta higiezinek, eta, oro har, mutuek sortutako Gizarte Segurantzaren baliabideen soberakina jatorri duten baliabideek, etekinek eta

gehikuntzek. Finantza-aktiboek sortzen dituzten etekinak eta gastuak, bai eta kontu berezikoak ere, hari egotziko zaizkio, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak besterik agintzean salbu.

Funtsa Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren zuzendaritzapean egongo da, eta Gizarte Segurantzaren xedeetara atxikita.

2. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak honako xede hauetarako aplikatu ahalko ditu Gizarte Segurantzaren Gertakari Profesionalen Funtseko baliabideak: mutuei atxikitako laguntza- eta errehabilitazio-zentroak sortu edo berritzeko, ikerketa-jardueretarako, mutuei atxikitako laguntza-zentroetan gauzatu beharreko laneko istripu eta gaixotasun profesionalak eragindako patologietatik suspertzeko teknika eta tratamendu terapeutikoak garatzeko eta berritzeko, bai eta enpresetan Gizarte Segurantzaren gertakari profesionalak murrizten eraginkortasunez lagunduko duten neurriak eta prozesuak hartzera bultzatzeko ere, erregelamendu bidez arautuko den sistema baten bitartez, eta, kasua hala denean, gertakari profesionalen prebentzioarekin eta kontrolarekin lotura duten zerbitzuak emateko. Eskuratzen diren ondasun higigarriak eta higiezinak 92 artikuluan ezarritako araubidearen mende egongo dira.

3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak pertsona juridiko publikoek jaulkitako finantza-aktiboetan gorpuztu ahalko ditu kontu berezian gordailututako funtsak, bai eta beroriek besterendu ere, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zehaztutako kopuru, epe eta gainerako baldintzetan, harik eta adierazitako aplikazioetan erabiltzea xedatzen duen arte.

Halaber, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontu berezian gordailututako funtsak xedatu ahalko ditu, izaera iragankorrez, Gizarte Segurantzaren Sistemaren helburu propioei edota diruzaintzako premia edo desfaseei erantzuteko, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezartzen dituen modu eta baldintzetan, harik eta ministerio horrek adierazi diren xedeetan aplikatu arte.

5. azpiatala. Beste xedapen batzuk

98. artikulua. *Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren eskumenak.*

1. 5. artikuluan ezarritakoarekin bat, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari dagokio Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen gainean zuzendaritza- eta tutoretza-ahalak betetzea; eginkizunak bere esku dituen administrazio-organoaren bidez beteko dira ahal horiek.

2. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei, urtero, kontu-auditoretza egingo zaie, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorreko 168.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik; Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailatza Nagusiak egingo du auditoretza. Halaber, betetze-auditoretza bat egingo da urtero, esandako legearen 169. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek, urtero, Gizarte Segurantzaren kudeaketaren sarrera eta gastuen aurrekontuen aurreproiektuak egingo dituzte, eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministeriora igorriko dituzte, Gizarte Segurantzaren Aurrekontu Proiektuan txerta ditzan. Era berean, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen V. tituluan ezarritako kontabilitate-araubidearen pean egongo dira, Gizarte Segurantzaren sistemako entitateei aplikatzekoa zaien moduan –titulu horrek Estatuko sektore publikoaren kontabilitatea arautzen du–; horrek ez du eragotziko urteko kontuak aurkeztean, 95.1 artikuluan adierazitako jarduera bakoitzeko kudeaketaren ondorio gisa lortutako emaitza ekonomikoaren berri ematea, esandako legean xedatutakora loturik eta organismo eskudunak ezartzen dituen xedapenen arabera. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek urteko kontuen berri eman beharko diote Kontuen Auzitegiari, azaroaren 26ko 47/2003 Legearen V. tituluan aurreikusitako moduan.

4. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen ikuskapena Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzak egingo du, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera; ikuskatzailatza horrek zuzendaritza- eta

tutoretza-organoari azalduko dizkio egindako jarduketan emaitza eta jarduketetan oinarrituz egindako txosten zein proposamenak.

5. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak datuak eta informazioa eskatzean Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei, mutua horiek ematera derrigortuta egongo dira, ministerioak behar bezala ezagutu ditzan elkarlanaren egoera eta mutuek betetzen dituzten eginkizun eta jarduerak, eta nola kudeatzen eta administratzen duten ondare historikoa; mutuek, halaber, zuzendaritza- eta tutoretza-organoak emandako jarraibideak bete beharko dituzte.

6. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, urtero, mutuek kudeaketako elkarlanean eta baimendutako esparruetan ekitaldian zehar egindako jardueri buruzko txosten bat argitaratuko du, guztiek izan dezaten haien berri; txosten horretan, atxikitako baliabide eta bitarteko publikoak, eta berorien kudeaketa zein aplikazioak ere jasoko ditu. Era berean, aurreko zenbakian ezarritakoarekin bat, formulatu zaizkion kexa eta eskaerei buruzko txosten bat argitaratuko du, eta haren esku dauden kudeaketa-esparruetan zer-nolako eragina izan duten adieraziko du.

99. artikulua. *Informazio-eskubidea, kexak eta erreklamazioak.*

1. Enpresaburu elkartuek, haien langileek eta atxikitako norberaren konturako langileek eskubidea izango dute mutuek haiei buruz dauzkaten datuen inguruko informazioa jasotzeko. Halaber, zuzendaritza- eta tutoretza-organora jo ahalko dute, mutuei emandako eginkizunak betetzean hautematen dituzten akatsengatik kexak eta eskakizunak formulatuz; izan ere, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek erreklamazio-liburuak izango dituzte beren administrazio- edo laguntza-zentro guztietan, interesdunaren eskura, aipatutako administrazio-organora eramateko; horrek ez du eragozten, nolahi ere, interesdunek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan jasotako bitartekoak eta erregelamenduz xedatzen direnak erabili ahal izatea.

Mutuak zuzenean erantzungo die, beti, jasotzen dituen kexa eta erreklamazioei, eta zuzendaritza- eta tutoretza-organoari azaldu beharko dizkio bai jasotako kexa eta erreklamazioak, bai horiei emandako erantzunak.

2. Kudeaketan elkarlanaren xede diren Gizarte Segurantzaren prestazio eta zerbitzuekin lotutako erreklamazioak, edo berorretan oinarritzen direnak, kalte-ordain izaera dutenak barne, lan-arloko jurisdikzioaren aurrean bideratuko dira, Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean ezarritakoaren arabera.

100. artikulua. *Kautela-neurriak eta erantzukizun mankomunatuak.*

1. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak 2. zenbakian ezarritako kautela-neurriak hartu ahalko ditu mutua egoera hauetakoren batean dagoenean:

a) Gertakari Profesionalen Egonkortze Erreserba bere gutxieneko zenbatekoaren ehuneko 80a iristen ez denean.

b) Estatuaren Administrazio Orokorrek egindako egiaztapenek erakusten dutenean entitatean desoreka ekonomiko-finantzarioak daudela, eta desoreka horiek arriskuan jartzen dituztenean haren kaudimena edo likidezia, enpresaburu elkartuen, onuradunen eta Gizarte Segurantzaren interesak, edota entitateak bere gain hartutako betebeharrak bete ahal izatea. Era berean, egiaztapen haiek kontabilitatearen edo administrazioaren eskasia edo irregulartasuna erakusten dutenean, mutuaren egiazko egoera ezagutzea eragozten duten moduan.

2. Kautela-neurriak egokiak eta proportzionalak izango dira, egoeraren ezaugarrien arabera. Kautela-neurri hauek hartuko ahalko dira:

a) Entitateari errekeritza hilabeteko epean aurkez dezala epe labur edo ertaineko bideragarritasun-, errehabilitazio- edo saneamendu-plan bat, Zuzendaritza Batzordeak onartua, zeinean finantza-arloko, administrazio-arloko edo beste arlo bateko neurri egokiak

proposatuko baitira, eta emaitzen eta haien eraginen aurreikuspen bat formulatuko baita, betetzerako epeak finkaturik direla, esandako errekerimendua sorrarazi zuen egoera gainditzeko xedearekin, eta, betiere, langile babestuen eskubideak eta Gizarte Segurantzarenak bermatzen direla.

Planaren iraupena inguruabarren arabera zehaztuko da, baina ez da hiru urtetik gorakoa izango; plan horretan, jarduketak gauzatzeko modua eta aldizkakotasuna zehaztuko dira.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak hilabeteko epean onartuko edo ukatuko du proposatutako plana, aurkeztu denetik kontatzen hasita, eta entitateak haren garapenari buruzko informazioa zenbatean behin eman beharko duen finkatuko du.

b) Entitateko gobernu-organoak bilkura batera deitzea, eta bilerako buru izango den eta egoeraren berri emango duen pertsona izendatzea.

c) Entitatearen zuzendaritzako kide guztiak edo batzuk beren eginkizunetan etetea. Halakoetan, entitateak izendatu beharko ditu, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren alde aurreko onarpenarekin, kide haiek behin-behinean ordeztuko dituzten pertsonak. Entitateak izendatzen ez baditu, esandako ministerioak izendatu ahalko ditu.

d) Aztertutako azken ekitaldietan entitatearen garapen ekonomikoan eta haren helburu sozialen betetzean erregistraturiko joera kaltegarriak zuzentzeko neurriak betetzeko agintzea.

e) Entitatean esku hartzea, esandako ministerioak emandako agindu zehatzak ongi betetzen direla egiaztatzeko eta bermatzeko, baldin eta agindu haiek ez betetzeko arriskua badago eta kaltea etor badaiteke, hurbil edo berehala, langile babestuentzat edo Gizarte Segurantzarentzat.

f) Elkarlana uzteko agintzea, oso astuntzat kalifikatutako arau-haustea gertatuz gero, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera.

3. Aurreko zenbakian aurreikusitako kautela-neurriak hartzeko, administrazio-prozedura egokiaren instrukzioa egingo da, entitate interesdunari aurrez entzundua eman ondoren. Neurri horiek Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren akordioz kenduko dira, neurri haiek eragin zituzten arazoak desagertzen direnean.

Kautela-neurriak independenteak dira gertaera horiei legez dagozkien zehapenekiko eta hurrengo zenbakian arautzen den erantzukizun mankomunatuarekiko.

4. Mutuekin elkartutako enpresaburuen erantzukizun mankomunatuak honako betebeharrak izango ditu xede:

a) Gertakari Profesionalen Egonkortze Erreserba gutxieneko estaldura mailaraino hornitzea, erreserba hori gutxieneko zenbatekoaren ehuneko 80ra heltzen ez denean, 95. artikuluan xedatutakoaren arabera Erreserbak aplikatu ondoren, eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak beharrezkoa ikusten duenean entitateak Gizarte Segurantzaren prestazioak era egokian ematea edo bere betebeharrak bete ahal izatea bermatzeko.

b) Bidegabeko gastuak, Gizarte Segurantzaren kudeaketako elkarlanean sartzen diren prestazio, zerbitzu edo beste kontzeptu batzuetakoak ez direlako.

c) Administrazio-gastuetako gehiegikeriak eta ezarritako zehapen ekonomikoak.

d) Mutuaren zerbitzura dauden langileei aplikatzekoa den lan-harremana erregulatzen duten arauetan ezarritakoa baino zenbateko handiagoan emandako ordainsariak edo kalte-ordainak, edo legez ezarritako mugak gainditzen dituztenak.

e) Mutua desegitean geratzen den defizita kitatzea, likidatutako ondareak behin agorturik direla -93. artikuluan aurreikusitako ondarea barne-, nahikoa baliabide ez dagoelako.

f) Mutuak bere gain hartutako betebeharrak, ez dituenean legez ezarritako moduan betetzen.

g) Erantzukizun zuzenaren edo subsidiarioaren indarrez, mutuari emandako betebeharrak, 91.4 artikuluan ezarritakoak.

Erantzukizun mankomunatua luzatuko da enpresaburuak elkartuta egon den denboraldian bere gain hartutako betebeharrak ordaindu arte, edo esandako denbora-tarte horretan gauzatutako eragiketen ondorio direnak ordaindu arte. Elkartea uzten den kasuetan, bertan behera utzi deneko ekitaldia ixten denetik bost urtera preskribatuko du erantzukizunak.

Derramak zehazteko aplikatzen den sistemak enpresaburu elkartuen eskubide eta betebeharren berdintasuna bermatuko du, eta mutuak babestutako gertakariengatik ordaintzea dagozkien Gizarte Segurantzaren kuoten zenbatekoarekiko proportzionala izango da.

Derramak Gizarte Segurantzaren baliabide publikoak dira. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak deklaratu dituzte derramatik eta, oro har, erantzukizun mankomunatua aplikatuz onorioztatzen diren kredituak; ministerio horrek berak finkatuko du kreditu horien zenbateko likidoa, ordainketa erreklamatu du, eta hura azkendu arte aplikatzeak izango diren ordaintzeko modua, bitartekoak, modalitateak eta baldintzak zehaztu ditu, 91.5 artikuluan ezarritako moduan.

5. Halaber, mutuak 93. artikuluan aurreikusitako ondarearen bitartez egin ahalko dio aurre erantzukizun horri. Ondare hori ez bada nahikoa aipatutako erantzukizunari epe laburrean erantzuteko, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak bideragarritasun-plan bat eta/edo geroratze bat baimendu ahalko du, mutuako Batzar Nagusiak proposatuta, erregelamendu bidez ezarritako baldintza eta epeetan, zeinean posible izango baita bermeak eratzea beharrezkoa ez izatea.

101. artikulua. *Desegitea eta likidazioa.*

Honako kasu hauetan, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek utzi egingo diote kudeaketan elkarlanean aritzeari, eta entitatea desegin egingo da:

- a) Aparteko Batzar Nagusian akordio hori hartzean.
- b) Mutuak bat egitean edo xurgatua izatean.
- c) Eratzeko edo funtzionatzeko eskatzen den betekizunen bat faltatzean.
- d) Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak hala erabakitzean, 100.2.a) artikuluan aurreikusitako bideragarritasun-, errehabilitazio- edo saneamendu-plana ez betetzeagatik plan hura onartu zuen ebazpenean ezarritako epearen barruan.
- e) 100.2.f) artikuluan aurreikusitako kasuan.
- f) 93. artikuluan aurreikusitako ondarea ez izatean nahikoa 100.5 artikuluan aurreikusitako erantzukizun mankomunatu osoari aurre egiteko, edo ez betetzean aipatutako artikuluan jasotako bideragarritasun-plana edo geroratzea.

Aurreko kasu horietan, eta erregelamendu bidez arautuko den prozedura betez, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak mutua desegiteko erabakia hartuko du, eta, segidan, likidazio-prozesua hasiko da; prozesu horretako eragiketek eta emaitzak ministerio haren beraren onarpena beharko dute. Geratzen diren soberakinak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian sartuko dira, sistemaren helburuetarako, ondare historikoaren likidaziotik lortzen direnak salbu, horiek estatutuetan ezarritako xedeetarako aplikatuko baitira, mutuaren betebeharrak azkendu ondoren.

Likidazioa onarturik dela, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak entitatea bertan behera uztea erabakiko du, likidazioan dagoen mutua gisa; halaber, erregistroko inskripzioetik ezabatzeko aginduko du, eta *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko du erabakia.

Bat-egite eta xurgatze-kasuetan, ez da hasiko mutua integratuak likidatzeko prozesurik. Bat-egitetik ateratzen den mutua, edo bestea irentsi duena, azkendutako eskubide eta betebeharretan subrogatuko da.

3. atala. Enpresak

102. artikulua. *Enpresen lankidetzak.*

1. Enpresek, banaka hartuta eta beren langileei dagokienez, Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntza eman ahalko dute soilik honako modu hauetakoren batean edo batzuetan:

a) Zuzenean bere gain hartuz laneko istripuaren eta gaixotasun profesionalaren ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagozkion prestazioak eta osasun-laguntzako eta oneratzeko profesionalerako prestazioak, horren barne dela aipatutako egoerari berez dagozkion subsidioak.

b) Zuzenean beren gain hartuz gaixotasun arruntaren edo lanez kanpoko istripuaren ondoriozko aldi baterako ezintasunari dagozkion prestazio ekonomikoak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezartzen dituen baldintzetan.

Lankidetzak modu hori onartzen duten enpresek eskubidea izango dute Gizarte Segurantzaren kuota gutxitzeko, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak horretarako ezartzen duen koefizientea aplikatuz.

c) Beren langileei ordainduz, entitate kudeatzailearen edo behartutako mutuaren kargura, aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoak, bai eta erregelamendu bidez zehatz daitezkeenak ere.

2. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak nahitaez ezarri ahalko du enpresa guztientzat edo ezaugarri jakin batzuk dituztenentzat aurreko c) letran aipatutako prestazioak ordaintzeko orduan laguntzea.

Nahitaezko laguntza horren arabera, enpresak prestazio ekonomikoak ordainduko dizkie langileei, entitate kudeatzaile edo laguntzailearen kontura, eta enpresak ordaindu beharreko gizarte-kotizazioen likidazioan konpentsatuko da haien zenbatekoa. Ezarritako bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabiliz, bajaren parte medikoan nahitaez jaso beharreko datuak komunikatu beharko dizkio enpresak entitate kudeatzaileari, erregelamenduz xedatutako moduan. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak nahitaezko laguntza eten edo ondoriorik gabe utzi ahalko du enpresak ezarritako obligazioak betetzen ez baditu.

3. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zehaztuko du zein baldintzaren pean arautu beharko den artikulua honen aurreko zenbakietan ezarritako lankidetzak.

4. Enpresek Gizarte Segurantzaren kudeaketan duten lankidetzak-modalitatea, 1. zenbakian aipatzen dena, baimendu ahalko zaie xede bakar horretarako eraturako enpresa taldeei, baldin eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zehazten dituen baldintzak betetzen badituzte.

5. 1. zenbakiko a) eta b) letratan eta 4. zenbakian ezarritako lankidetzak-modalitateen araupetzean, prestazioen eta laguntza-bitartekoaren hobekuntzarako interes partikularra harmonizatuko da elkartasun nazionalerako eskakizunekin.

VII. KAPITULUA

Araubide ekonomikoa

1. atala. *Gizarte Segurantzaren ondarea*

103. artikulua. *Ondarea.*

1. Gizarte Segurantzaren kuotak, ondasunak, eskubideak, akzioak eta gainerako baliabideak ondare bakarra dira, Gizarte Segurantzaren xedeei atxikia eta Estatuaren ondareaz bestekoa.

2. Gizarte Segurantzaren ondarea lege honetan eta berau aplikatu eta garatzeko arauetan bilduriko berariazko xedapenen arabera arautuko da, eta, xedapen horietan aurreikusi ez den gutxitirako, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko

33/2003 Legean ezarritakoaren arabera. Lege horretan Ekonomia eta Ogasuneko ordezkariari, Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari eta Ogasuneko Ministerioari egiten diren aipamenak ulertuko da honako hauei eginak direla, hurrenez hurren: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ordezkariari probintzialesi, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren Zuzendaritza Nagusiari eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari.

104. artikulua. *Titulartasuna, atxikipena, administrazioa eta jagoletza.*

1. Gizarte Segurantzaren ondare bakarraren titulartasuna Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagokio. Titulartasun hori, bai eta ondare horren atxikipena, administrazioa eta zaintza ere, lege honetan eta erregelamenduzko gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Nolanahi ere, beste administrazio publiko batzuei edo nortasun juridiko berekia duten zuzenbide publikoko entitateei nahiz haiekin lotutakoak edo mendekoak direnei atxikita edo transferituta ageri diren Gizarte Segurantzaren ondarearen ondasun higiezinak dagokienez, honako eginkizun hauek dagozkie, salbu eta eskualdatzeari buruzko akordioan edo haren ondorioz besterik aurrekusi bada:

- a) Behar diren konponketak egitea haien kontserbazioa lortzeko.
- b) Egokitzat jotzen diren hobekuntza-obra egitea.
- c) Ondasun horien defentsan, Zuzenbidean bidezko diren edukitza-akzioak betetzea.
- d) Berek ordaintzea, subrogazio bidez, ondasun horiei dagozkien zerga-betebeharrak.

Gizarte Segurantzaren ondareko ondasun higiezinak, beste administrazio edo zuzenbide publikoko entitate batzuei atxikiak, salbu eta eskualdatzeari buruzko akordioan edo haren ondorioz besterik ezartzen denean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari itzuliko zaizkio, baldin eta ez badira erabiltzen edo atxiki zenaz beste erabilera bat ematen bazaie, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legean xedatutakoaren arabera. Ondasunak atxiki zitzaizkion administrazioaren edo entitatearen kargura izango dira ondasun horien kontserbazioa eta mantentzea, bai eta haietan eragiten duten zerga-betebeharren ordaintzaren subrogazioa ere, harik eta erabilera-aldaketa edo -falta hori gertatzen den ekitaldi ekonomikoa amaitzen den arte.

2. Gizarte Segurantzaren Administrazioan gordetzen diren inbentario eta agiri ofizialak direla-eta ematen diren ziurtagiriak nahikoa izango dira dagozkien erregistro ofizialetan titulatzeke eta inskribatzeke.

105. artikulua. *Ondasun higiezinak eskuratzea.*

1. Gizarte Segurantzaren higiezinaren kostu bidezko eskuratzea, entitate horren xedeak betetzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari egingo du, lehiaketa publiko bidez, salbu eta, ase beharreko beharrezkoaren berezitasunak edo egin beharreko eskuratzearen urgentzia direla-eta, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zuzeneko eskuratzea baimentzen badu.

2. Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren zuzendari nagusiari dagokio institutu horrek bere xedeak betetzeko behar dituen ondasun higiezinak eskuratzeko kontratuak baimentzea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari aurrez txostena emanda. Beharrezkoa izango da Osasuneko, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko ministroaren baimena, kasuan kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatzen den zenbatekoaren arabera.

3. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak erabakiko du zer prozedura den aplikatzeko Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen kudeaketan laguntzeko xedeak betetzeari atxikitako ondasunak eskuratzeko diren kasuetan.

106. artikulua. *Ondasun higiezinak eta balore-tituluak besterentzea.*

1. Gizarte Segurantzaren ondarean sartutako ondasun higiezinak besterentzeak eskatuko du Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak kasuko baimena ematea, baldin eta ondasunon balioak ez badu gaitzen, peritu-tasazioaren arabera, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legeak ezarritako zenbatekoak; gainerako kasuetan, Gobernuaren baimena beharko da.

Aurreko lerrokan aipatutako ondasunen besterentzea enkante publiko bidez egingo da, salbu eta Ministro Kontseiluak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak proposatuta, zuzeneko besterentzea baimentzen duenean. Zuzeneko besterentze hori Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak baimendu ahalko du, ondasunen balioak Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legean ezarritako balioa gaitzen ez duenean.

2. Balore-tituluen besterentzea, errenta aldakorrekok zein finkokok izan, aurreko zenbakian ezarritako moduan aurrez baimena emanda egingo da. Salbuespen gisa, merkatu ofizialetan negoziatzera onartutako tituluak nahitaez merkatu horietan aitortutako sistemen bitartez besterenduko dira, balore-merkatua arautzen duen indarreko legeriaren arabera, eta haien salmentarako ez da alde aurreko baimenik eskatuko, salmenta hori eskatu denean erregelamendu bidez aitortutako prestazioak ordaindu ahal izateko, eta salmentaren zenbateko gordinak kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak finkatutako zenbatekoa gaitzen ez badu. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari berehala emango zaio titulu horien besterentzeen berri.

107. artikulua. *Ondare higiezinaren errentamendua eta lagapena.*

1. Gizarte Segurantzak ondasun higiezinak errentan hartu nahi dituzenean, lehiaketa publikoa egin beharko da, salbu eta, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren iritziz, komenigarria edo beharrezkoa denean haiek zuzenean ituntzea.

2. Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren zuzendari nagusiari dagokio institutu horrek bere xedeak betetzeko behar dituen ondasun higiezinak errentan hartzeko kontratuak baimentzea. Beharrezkoa izango da Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren titularrak baimena ematea, zenbatekoak kasuan kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatzen den urteko errentaren zenbatekoa gaitzen duenean.

3. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak erabakiko du zer prozedura den aplikatzeko Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen kudeaketan laguntzeko xedeak betetzeari atxikitako ondasunen errentamenduan.

4. Gizarte Segurantzaren ondarekoak diren baina haren xedeak betetzeko beharrezko ez diren ondasun higiezinak, ez bada komenigarri ikusten haiek besterentzea edo ustiatzea, dohainik laga ahalko ditu Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak erabilera publikoko edo Gizarte Segurantzaren intereseko xedeetarako. Horretarako proposamena Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egin beharko du, eta aurrez Estatuaren Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaio.

108. artikulua. *Enbargaezintasuna.*

Gizarte Segurantzaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak enbargaezinak dira. Inongo auzitegi edo administrazio-agintaririk ezin du eman enbargo-probidentziarik ez exekuzio-aginduririk Gizarte Segurantzaren ondareko ondasun eta eskubideen kontra, ez eta haren errenten, fruituen edo produktuen kontra ere. Nolanahi ere, arloari buruz Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 23., 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

*2. atala. Gizarte Segurantzaren baliabideak eta finantza-sistemak*109. artikulua. *Baliabide orokorrak.*

1. Honako hauek osatuko dituzte Gizarte Segurantzaren finantzaketarako baliabideak:

a) Estatuaren ekarpen progresiboak, zeinak modu iraunkorrean ezarriko baitira Aurrekontu Orokorretan, eta arreta berezietarako edo koiunturak eskatuta beharrezko gertatzen direnak.

b) Ordaintzera behartuta dauden pertsonen kuotak.

c) Errekarguen, zehapenen edo antzeko beste batzuen kontzeptuan bildutako kopuruak.

d) Bere ondare-baliabideen fruituak, errentak edo interesak eta beste edozein produktu.

e) Bestelako diru-sarrerak, hargatik eragotzi gabe hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoa.

2. Gizarte Segurantzaren babes-jarduna, modalitate ez-kontributiboan eta unibertsalean, Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuari egindako ekarpenen bitartez finantzatuko da. Hori, halere, ez da eragozpena izango artikuluko beraren 2. zenbakiaren c) letra dela-eta 10.3 artikuluko lehen tartekian ezarritakorako; horretan, halere, salbuespen izango dira Gizarte Segurantzaren osasun-laguntzaren prestazioak eta zerbitzuak, bai eta kudeaketa autonomia-erkidegoei transferituta daukaten gizarte-zerbitzuak ere; izan ere, azken kasu horretan, finantzaketa une bakoitzean indarrean den finantzaketa autonomikoaren sistemaren arabera egingo da.

Prestazio kontributiboak, haien kudeaketatik eratorzen diren gastuak eta afiliazio, bilketa eta kudeaketa ekonomiko-finantzario eta ondarekoaren eginkizunei dagozkien zerbitzuen funtzionamendu-gastuak funtsean aurreko zenbakiko b), c), d) eta e) letretan aipatzen diren baliabideekin egingo dira, bai eta, kasua bada, arreta berezietarako erabakitzen diren Estatuaren ekarpenekin ere.

3. Aurreko zenbakian ezarritako ondorioetarako, honako hau izango da Gizarte Segurantzaren prestazioen izaera:

a) Honako hauek kontributibo izaera dute:

1.a Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoak, hurrengo b) letran aipatutakoak izan ezik.

2.a Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakarien ondoriozko prestazio guztiak.

b) Honako hauek ez-kontributibo izaera dute:

1.a Gizarte Segurantzaren babes-jardunean sartutako prestazioak eta osasun-laguntzako zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuei dagozkienak, salbu eta laneko istripuetatik eta gaixotasun profesionaletatik eratorzen direnean.

2.a Baliaezintasun- eta erretiro-pentsio ez-kontributiboak.

3.a Amatasun-subsidioa, lege honetako 181. artikulutik 182. artikulura bitartekoetan araututakoa.

4.a Gizarte Segurantzako pentsioen gutxienezko osagarriak.

5.a VI. tituluko I. kapituluan araututako familia-prestazioak.

110. artikulua. *Finantza-sistema.*

1. Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten araubide guztien finantza-sistema banaketakoa izango da, horietako bakoitzak babestutako gertakari eta egora guztietarako; hori, halere, ez da eragozpen izango 3. zenbakian ezarritakorako.

2. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian egonkortze-funts bakarra eratuko da Gizarte Segurantzaren sistema osorako; haren xedea izango da diru-sarreraren eta gastuen arteko desbideratzeek sortutako beharrei erantzutea.

3. Laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko edo heriotzagatiko pentsioen arloan, erantzukizuna Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek edo, kasua bada, erantzule deklaraturako enpresek hartu behar dutenean, pentsio horien zenbatekoa kapitalizatu egingo da, eta aipaturako entitateek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian dagozkien kostu-kapitalak eratu beharko dituzte, nork bere erantzukizunaren mugaraino.

Kostu-kapitalizat hartuko da prestazio horien egungo balioa, zeina finkatuko baita pentsio bakoitzaren ezaugarrien arabera eta irizpide tekniko-aktuarial egokienak aplikatuz, halako moduz non lortzen diren zenbatekoek prestazioen estaldura bermatuko baitute ahal den egokiena den hurbilketa mailarekin. Horretarako, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak heriotza-tasen taulak eta aplikatzeokoak diren interes-tasak onartuko ditu.

Halaber, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezarri ahalko du Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek finkatzen diren arrisku onartuak berraseguratu beharko dituztela, nahitaezko berraseguru proportzionaleko araubide baten bitartez eta berraseguru ez-proportzional fakultatibo baten bidez edo emaitzak konpentsatzeko beste edozein sistemaren bidez.

4. Artikulu honetan jasotzen diren arloak 5.2.a) artikuluan aipaturako erregelamenduen bidez arautuko dira.

111. artikulua. *Inbertsioak.*

Erregelamenduzko betebeharrak betetzera berehala bideratu behar ez diren egonkortze-erreserbak halako moldez inbertituko dira non izaera sozialeko xedeak koordinatuko baitira teknikoki beharrezkoa den likidezia-, errentagarritasun- eta segurtasun-maila lortzearekin.

3. atala. *Gizarte Segurantzaren aurrekontua, kontu-hartzailletza eta kontabilitatea*

112. artikulua. *Kontu-hartzailletzari buruzko xedapen orokorra eta arau erregulatzailleak.*

1. Gizarte Segurantzaren aurrekontua, Estatuko Aurrekontu Orokorretan integratua, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren II. tituluan aurreikusitakoaren arabera arautuko da, eta Gizarte Segurantzaren kontabilitatea eta kontu-hartzailletza, hurrenez hurren, lege beraren V. eta VI. tituluetan ezarritakoaren arabera, bai eta, bi kasuetan, atal honetako arauen arabera ere.

2. Aurrekontuaren exekuzio eta kontrol hobe eta eraginkorragoa lortze aldera, Gobernuak, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiak proposatuta eta Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailletza Nagusiaren ekimenez, arauak onartuko ditu azken horrek Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten entitateen kontrola baliatu dezan.

Ospitaleetan eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren gainerako osasun-zentroetan, kontu-hartzailletzaren eginkizunaren ordez Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailletza Nagusiaren kargurako kontrol finantzario iraunkorra ezarri ahalko da.

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiak Gizarte Segurantzaren kontu-hartzailletzei eskuordetu ahalko die kontu-hartzailletza eginkizuna, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak Estatuko Administrazioaren izenean eta kontura egiten dituen egintza guztiei dagokienez.

113. artikulua. *Kreditu-aldaketak, gerakinak eta aurrekontu-eskasiak Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalan.*

1. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa gorabehera, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren gastu-gehikuntza oro, kreditu-

sorkuntzetatik gerta daitekeena izan ezik, Estatuaren ekarpenaren bitartez finantzatu da ekitaldian zehar, ezin bada bere kredituen barneko birbanaketaren bitartez finantzatu, ez eta entitateari atxikitako gerakinaren kargura ere.

2. Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren zuzkiduren aurrekontuan gauzatze txikiagoa izatearen ondoriozko gerakinak eta osasun-laguntza dela-eta aurreikusitako diru-sarrerek gora egiteagatik sortutakoak entitate horren gastuak finantzatzeko erabiliko dira.

3. Baimena ematen zaio Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren titularrari kreditu-gehikuntzen bitartez Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren Aurrekontuan isla ditzan aurrekontu horretan Estatuaren ekarpenak sortzen dituen aldaketen eraginak. Halaber, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren titularrari dagokio entitate horren gerakinaren kargura finantzatzen diren kreditu-aldaketak baimentzea.

114. artikulua. *Eskuratzeen amortizazioa.*

Gizarte Segurantzaren ibilgetua urtero amortizatu beharko da, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak ezartzen dituen mugen barruan eta Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako printzipio eta prozeduren arabera.

115. artikulua. *Urteko auditoretza-plana.*

1. Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiaren auditorien urteko planak bere baitan hartuko du Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailtza Nagusiak egindakoa, zeinean sartuko baitira entitate kudeatzaileak, zerbitzu erkideak eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak, 98.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Gizarte Segurantzaren auditoretza-plana betearazteko, enpresa pribatuen lankidetzak eskatu ahalko da, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailtza Nagusiaren zerbitzuak nahikoak ez badira, eta enpresa pribatu horiek aipatutako zuzendaritza-zentroak finkatzen dituen arau eta jarraibideak bete beharko dituzte; zentro horrek, gainera, egokitzat jotzen dituen kalitate-azterketa eta kontrolak egin ahalko ditu.

2. Enpresa pribatuen lankidetzak biltzeko, beharrezkoa izango da kasuko baimena sartzea Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren bigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen aginduan.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren edo Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren agindu bat beharko da aipatutako lankidetzaren finantzaketa sail bati edo besteari atxikitako Gizarte Segurantzaren entitateen eta zerbitzuen aurrekontuetako kredituen kargura egiten denean.

116. artikulua. *Gizarte Segurantzaren kontuak.*

1. Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten entitateen kontuak osatuko dira eta aurkeztuko dira azaroaren 26ko 47/2003 Legearen V. tituluan ezarritako printzipio eta arauari jarraituz.

2. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrari baimena ematen zaio likidazio batzuk egin ez daitezen xedatzeko edo, hala bada, likidazioak ezeztatu eta kontabilitatean haiei baja emanarazteko, baldin eta ordainarazpenaren eta diru-bilketaren kostuei aurre egiteko modukotzat jotzen eta finkatzen den kopurutik beherako zenbatekoa duten zorrak suertatzen badira.

4. atala. *Gizarte Segurantzaren erreserba-funtsa*

117. artikulua. *Gizarte Segurantzaren erreserba-funtsa eratzea.*

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsa eratuko da, eta haren xedea izango da Gizarte Segurantzaren sistemak etorkizunean, prestazio kontributiboan arloan, izan ditzakeen beharrei aurre egin ahal izatea, lege honetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

118. artikulua. *Funtsaren zuzkidura.*

1. Prestazio kontributiboak eta haiek kudeatzeko beharrezkoak diren gainerako gastuak finantzatzen dituzten diru-sarreraren soberakinak, baldin eta ekitaldi bakoitzaren aurrekontu-kontsignaziotik edo aurrekontu-likidaziotik heldu badira, lehentasunez eta zati handienean Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsa hornitzeko erabiliko dira, Gizarte Segurantzaren sistemaren aukera ekonomikoek eta finantza-egoerak horretarako bidea ematen badute.

2. 96.3 artikuluan xedatuaren arabera, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen Gertakari Arrunten Egonkortze Erreserba zuzkitu ondoren geratzen den soberakina Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsean sartuko da.

119. artikulua. *Aurrekontuko soberakina finkatzea.*

Aurrekontuko soberakina Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio kontributiboak eta haiek kudeatzeko gainerako gastuak finantzatzen dituzten eragiketei dagokiena izango da, eta zehazki, prestazio kontributiboek dagokienez, 109.3.a) artikuluan ezarritako mugaren arabera izango dira, alde batera utzita Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek lortutako emaitza.

Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio kontributiboen arloko gastuengatiko ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-soberakina izango da entitate kudeatzaileen eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eragiketa ez-finantzarioak direla-eta aitortutako kopuru garbiengatiko eskubideen eta betebeharren arteko aldeak osatzen duena, zuhurtasun handieneko irizpideen arabera zuzenketa aplikatuta, erregelamenduz ezartzen den moduan, betiere Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako kontabilitate-printzipio eta -arauak errespetatuta.

120. artikulua. *Funtsa zuzkitzeko eta gauzatzeko erabakia.*

1. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren zuzkidura efektiboak eta funts horren gauzatzeak, sistemaren aukera ekonomikoek eta finantza-egoerak horretarako bidea ematen duten bitartean, Ministro Kontseiluak gutxienez ere ekitaldi ekonomiko bakoitzean behin erabakitakoak izango dira, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren titullarrek baterako proposamena egin ondoren.

2. Erreserba Funtsaren kontura sortzen diren mota guztietako etekinak eta Erreserba Funtsaren zuzkidurak gauzatu direneko finantza-aktiboak automatikoki integratuko dira funtsaren zuzkiduretan.

121. artikulua. *Funtsaren aktiboen erabilera.*

Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren aktiboak erabiliko dira soilik pentsio kontributiboak eta haiek kudeatzeko beharrezkoak diren gainerako gastuak finantzatzeko, eta Gizarte Segurantzaren sistemako eragiketa ez-finantzarioen ondoriozko defizit-egoera egiturazkoetan baizik ez da posible izango. Urte bakoitzean ezingo du izan bi kontzeptuen baturaren ehuneko hiru baino gehiago, eta aurrez Ministro Kontseiluaren baimena beharko du, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren titullarrek baterako proposamena egin ondoren.

122. artikulua. *Funtsaren finantza-kudeaketa.*

Erreserba Funtsa gauzaten deneko baloreak pertsona juridiko publikoek jaulkitako tituluak izango dira.

Erregelamendu bidez finkatuko dira Erreserba Funtsaren zorroa eratuko duten baloreak, haren likidezia mailak, hura osatzen duten finantza-aktiboen besterentze kasuak eta Erreserba Funtsaren kudeaketa finantzarioaren gainerako egintzak.

123. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Kudeaketa Komitea.*

1. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Kudeaketa Komiteari dagozkio Erreserba Funtsaren goi mailako aholkularitza, kontrola eta antolamendua.

2. Komite horretako lehendakaria Gizarte Segurantzako estatu-idazkaria izango da, eta, gainera, honako kide hauek izango ditu:

a) Lehen lehendakariorde bat, zeina Ekonomiako eta Enpresak Babesteko estatu-idazkaria izango baita.

b) Bigarren lehendakariorde bat, zeina Aurrekontuen eta Gastuen estatu-idazkaria izango baita.

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari nagusia.

d) Altxorraren zuzendari nagusia.

e) Gizarte Segurantzaren kontu-hartzaile nagusia.

f) Gizarte Segurantzaren Ordainketak Antolatzeko eta Diruzaintza Nagusiaren Erreserba Funtsa Kudeatzeko zuzendariorde nagusia, zeinak batzordeko idazkari lanak egingo baititu, hitzik eta botorik gabe.

3. Komitearen eginkizunak honako hauek izango dira: funtsaren zorroa osatuko duten baloreak antolatzeko, haiei buruzko aholkularitzarako eta hautapenerako proposamenak egitea; funtsa osatzen duten finantza-aktiboen besterentzea eta finantza-merkatuek gomendatzen dituzten gainerako jarduketak; Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren kudeaketaren goi-kontrola, eta funtsaren bilakaerari buruz Gorte Nagusiei aurkeztu beharreko txostena egitea.

124. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Inbertsioetarako Aholku Batzordea.*

1. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Aholku Batzordearen eginkizuna izango da Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Kudeaketa Komiteari aholkua ematea, funtsaren zorroa osatuko duten baloreak hautatzeko, aktiboak eskuratzeko eta besterentzeko proposamenak egitea, eta funtsaren gainerako finantza-jarduketak egitea.

2. Batzorde horretako lehendakaria Ekonomiako eta Enpresak Babesteko estatu-idazkaria izango da, eta, gainera, honako kide hauek izango ditu:

a) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko zuzendari nagusia.

b) Altxorraren zuzendari nagusia.

c) Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusia.

d) Gizarte Segurantzaren kontu-hartzaile nagusia.

e) Gizarte Segurantzaren Ordainketak Antolatzeko eta Diruzaintza Nagusiaren Erreserba Funtsa Kudeatzeko zuzendariorde nagusia, zeinak batzordeko idazkari lanak egingo baititu, hitzarekin baina botorik gabe.

125. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Jarraipen Batzordea.*

1. Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren bilakaeraz Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtsaren Jarraipen Batzordea arduratuko da.

2. Jarraipen Batzordearen burua Gizarte Segurantzako estatu-idazkaria edo berak izendatzen duen pertsona izango da, eta, gainera, honako kide hauek izango ditu:

a) Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioko hiru ordezkari, Gizarte Segurantzako estatu-idazkariak izendatuak.

b) Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko ordezkari bat.

c) Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioko ordezkari bat.

d) Ezarpen handiena duten sindikatu-erakundeetako lau ordezkari.

e) Ezarpen handiena duten enpresa-erakundeetako lau ordezkari.

f) Gizarte Segurantzaren Ordainketak Antolatzeko eta Diruzaintza Nagusiaren Erreserba Funtsa Kudeatzeko zuzendariorde nagusia, zeina batzordeko idazkaria izango baita, hitzik eta botorik gabe.

3. Jarraipen Batzordea, sei hilabetez behin, Erreserba Funtzaren bilakaeraz eta osaez arduratuko da, eta, horretarako, Kudeaketa Komiteak, Inbertsioetarako Aholku Batzordeak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak alderdi horiei buruzko informazioa emango diote, batzorde horrek bilerak egin aurretik.

126. artikulua. *Aurrekontu-kudeaketako eta -egozpeneko eragiketen izaera.*

Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtseko gauzatzeak, inbertsioak, berrinbertsioak, desinbertsioak eta finantza-aktiboak eskuratu, xedatu eta kudeatzeko gainerako eragiketak, ekitaldi bakoitzari buruzkoak, aurrekontuz kanpoko izaera izango dute, eta behin betiko egotziko zaizkio, ekitaldiko azken egun baliodunean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aurrekontuari, funtsak egun horretan duen ondare-egoeraren arabera; ondorio horretarako, aurrekontu-kredituak egokitu egingo dira.

127. artikulua. *Urteko txostena.*

Gobernuak Gorte Nagusiei urteko txosten bat aurkeztuko die Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtzaren bilakaerari eta osaeari buruz.

Txosten hori Gobernuak bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez igorriko die Gorte Nagusiei, eta honek diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du.

5. atala. *Gizarte Segurantzako kontratazioa*

128. artikulua. *Kontratazioa.*

Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileen eta zerbitzu erkideen kontratazio-araubidea honako hauetan xedatutakoari egokituko zaio: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina –azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua–; Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, eta haiek garatzeko eta osatzeko arauak. Dena den, honako berezitasun hauek aplikatuko dira:

a) Kontratuak egiteko ahalmena entitate kudeatzaileetako eta zerbitzu erkideetako zuzendariari dagokie, baina baimena beharko dute kontratuen kopuruak kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatutako muga gainditzen duenean.

Baimena, entitate eta zerbitzu horiek proposatuta, haien atxikipeneko ministerio-sailen titularrek emango dute, eta, kasua bada, Ministro Kontseiluak berak emango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean finkatutako eskumenen arabera.

b) Entitate kudeatzaileetako eta zerbitzu erkideetako zuzendariak ezingo dute eskuordetu edo deskontzentratu kontratuak egiteko ahalmena, atxikita dauden ministerioaren titularrak aurrez baimenik eman gabe.

c) Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek egiten dituzten obra-proiektuak mendeko diren ministerio-saileko proiektuak gainbegiratzeko bulegoak gainbegiratu beharko ditu, salbu eta bulego berekiak ezarrita badituzte; izan ere, kasu horretan bulego horiek izango dira proiektuak gainbegiratu dituztenak.

d) Estatuko legerian aginduzko eran eskatzen diren txosten juridiko eta teknikoak Gizarte Segurantzaren edo kasuko ministerioen esparruko organo eskudunek egin ahalko dituzte.

VIII. KAPITULUA

Gizarte Segurantzaren arloko prozedurak eta jakinarazpenak

129. artikulua. *Prozedura-arauak.*

1. Prestazioen eta Gizarte Segurantzaren arloko gainerako egintzen izapidetzea, langabezia-babesa barne dela, egintzek diru-bilketaren edo zehapenaren izaerarik ez dutenean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera izango da, hartan horrelako egintzetarako, aurkaratzeari eta ofiziozko berrikuspenari dagokienez, ezarritako berezitasunekin, bai eta kapitulu honetan eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritako berezitasunekin ere.

2. Ordezkarri baten bitartez jarduteko kasuan, ordezkaritza hori Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabilia frogatu beharko da, sinesgarritasunez jasota geratuko dena, edo, bestela, interesduna bera organo administratibo eskudunean bertaratu eta ordezkarria zein den adierazita. Ondorio horietarako, baliodunak izango dira Gizarte Segurantzaren Administrazioak prozedura jakin batzuetarako onartzen dituen ordezkaritza-dokumentu normalizatuak.

3. Interesdunek eskatuta abiatu diren prozeduretan, ebazpena emateko eta jakinarazteko kasuan kasuko prozedurari buruzko arauan ezarritako gehieneko epea iragaten bada ebazpen espresurik eman gabe, eskaera Administrazioaren isiltasunaren ondorioz ezetsi dela joko da.

Aurreko lerrokadan ezarritakorako, salbuespen izango dira enpresak inskribatzeari eta interesdunek eskatuta hasitako langileen afiliazioei, altei zein bajei eta aldaketei buruzko prozedurak, bai eta hitzarmen berezietan buruzkoak ere, zeinetan aurreikusitako epean ebazpen espresurik ez egotearen emaitza izango baita kasuko eskaera Administrazioaren isiltasunaren ondorioz baiestea.

130. artikulua. *Prestazioen arloko prozeduren izapidetze elektronikoa.*

Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 38. eta 39. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ebazpenak modu automatizatuan hartu eta jakinarazi ahalgo dira, bai III. tituluan aurreikusitako langabezia-babesa kudeatzeko prozeduretan, bai lege honetan ezarritako Gizarte Segurantzaren sistemako gainerako prestazioak kudeatzeko prozeduretan, pentsio ez-kontributiboaren kasuan izan ezik.

Horretarako, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren zuzendari nagusiak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusiak edota Itsasoko Gizarte Institutuko zuzendariak, kasuan-kasuan, ebazpen bat emango du; ebazpen horretan, lehenik eta behin, kasuan kasuko prozedura edo prozedurak finkatuko ditu, bai eta organo eskuduna edo eskudunak ere, hauek definitzeko: informazio-sistemaren eta bere iturburu-kodearen zehaztapenak, programazioa, mantentze-lanak, ikuskapena eta kalitate-kontrola, eta, beharrezkoa izanez gero, auditoretza. Era berean, aurkaratzeetarako, organo arduraduntzat zein hartu behar den adieraziko da.

131. artikulua. *Gizarte Segurantzako datuak bitarteko elektronikoen bidez ematea.*

Gizarte Segurantzaren sistemako baliabideen diru-bilketaren kudeaketaren ondorioetarako, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak zehaztu ahalgo du zein kasu eta baldintzetan aurkeztu beharko dituzten enpresek bitarteko elektronikoz Gizarte Segurantzaren esparruko sailkapenari, kotizazioari eta diru-bilketari buruzko jarduketei buruzko datuak, bai eta araudian eskatutako bestelakoak ere.

Era berean, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak zehaztu ahalgo du zein kasu eta baldintzetan aurkeztu beharko dituzten enpresek bitarteko elektronikoz bere zerbitzuko langileen baja- eta alta-agiriak, aldi baterako ezintasuneko prozesuei dagozkienak.

132. artikulua. *Administrazio-egintzak bitarteko elektronikoen bidez jakinaraztea.*

1. Gizarte Segurantzaren esparruko administrazio-egintzen jakinarazpen elektronikoa Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa egingo dira, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak erabakitzen dituen subjektu behartuei dagokienez, bai eta, behartuta egon gabe ere, jakinarazpen mota horren alde egin dutenei dagokienez ere.

Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bitartez jasotzera behartuta ez dauden subjektuei edo jakinarazpen mota horren alde egin ez dutenei jakinarazpena prozedura bakoitzerako berariaz adierazi duten egoitzan egingo zaie eta, halakorik ezean, Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroetan ageri den hartan.

2. RED sistemaren bitartez bide elektronikoz komunikatu behar diren datuetan kausa duten edo haien ondorioz ematen diren administrazio-egintzen jakinarazpenak, transmisio horretarako baimendutakoei egindakoak, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa bitarteko elektronikoez egingo dira nahitaez, eta legezko ondorio guztietarako baliodunak eta lotesleak izango dira datu horiek aipagai dituzten enpresentzat eta subjektu behartuentzat, salbu eta azken horiek adierazi dutenean nahiago dutela egoitza elektronikoko jakinarazpen hori zuzenean berei edo hirugarren bati egin dakiela.

3. Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan ezarritako ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa egindako jakinarazpenak errefusatutzat joko dira jakinarazpenak helburutzat daukan egintza interesdunaren esku jarri dela egiaztatzen denetik hamar egun natural igarota interesduna ez bada jakinarazpenaren edukian sartzen.

4. Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan aurreikusitako kasuetan, jakinarazpena ezin izan denean egin Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa edo interesdunaren egoitzan, aurreko zenbakietan adierazitako moduan, jakinarazpena egingo da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* iragarkia argitaratuz, aipatutako legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria betez.

Aurreko lerrokadan adierazitako kasuetatik kanpo, Gizarte Segurantzaren Administrazioak bere eskumenez baliatuz onartutako iragarkiak, erabakiak, ebazpenak eta komunikazioak, bai eta Administrazio horren interes orokorreko bestelako informazioak ere, Gizarte Segurantzaren iragarki-taulan argitaratuko dira. Taula hori Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa dago, eta Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak kudeatzen du. Argitalpen hori osagarria izango da arau batek agindutakoaren arabera beste baliabide batean argitaratu beharrekoak diren egintzei dagokienez.

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren agindu bidez zehaztutako moduan egingo dira argitalpenak taula horretan.

IX. KAPITULUA

Gizarte Segurantzaren arloko ikuskatzeak, arau-hausteak eta zehapenak

133. artikulua. *Ikuskatzaitzaren eskumenak.*

1. Gizarte Segurantzaren arloko ikuskatzea Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren bitartez egingo da, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitza Sistema Antolatzen duen uztailaren 21eko 23/2015 Legearen, lege honen eta bat datozen arauetan esleituta dauzkan eginkizunak eta eskumenak garatuz.

2. Berariaz, honako hauek egokituko zaizkio Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzari:

a) Lege honetatik eratorritzen diren betebeharrak betetzen direla zaintzea, eta, bereziki, iruzurrei eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeari eta biltzeari dagokionez gertatzen den berankortasuna zaintzea.

b) Kudeaketan laguntzaile diren entitateen kudeaketa, funtzionamendua eta aplikatzekoa zaien legeria betetzeari dagokiona.

c) Laguntza teknikoa ematea Gizarte Segurantzako entitate eta organismoei, eskatzen zaienean.

3. Transkribatutako eskumenak aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritako ahalmen eta prozeduren arabera baliatuko dira.

4. Lege honetan ikuskapenaren arloa dela-eta ezarritakoa ez zaie aplikatuko Estatuko Funtzionario Zibilen, Indar Armatuena eta Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Funtzionarioen araubide bereziei, Gobernuak besterik erabakitzen ez duen bitartean.

134. artikulua. *Ikuskatzailetzarekiko lankidetzak*.

Entitate kudeatzaile eta laguntzaileek eta Gizarte Segurantzako zerbitzu erkideek beren lankidetzak emango diote Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari, azken horrek lege honetan ezarritako enpresaburu eta langileen betebeharrak betetzeari dagokionez esleituta daukan zaintzari begira.

135. artikulua. *Arau-haustea eta zehapenak*.

1. Arau-hausteen eta zehapenen arloan, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean xedatutakoa bete beharko da.

2. Prestazioen entitate kudeatzaileek langileei eta prestazioen onuradunei ezartzen dizkieten zehapenei buruzko ebazpenen aurka, Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, gizarte-arloko jurisdikzio-organotan errekurtsioa aurkeztu ahalko da, aurrez entitate kudeatzaile eskudunean erreklamazioa aurkeztuta, Gizarte-arloko Jurisdikzioa Arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 71. artikuluan ezarritako moduan.

II. TITULUA

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorra

I. KAPITULUA

Aplikazio-eremua

136. artikulua. *Hedadura*.

1. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren aplikazio-eremuan nahitaez sartuta egongo dira lege honen 7.1.a) artikuluan ageri diren besteren konturako langileak eta haiekin parekatutakoak, salbu eta daukaten jardura dela-eta Gizarte Segurantzako araubide bereziren baten aplikazio-eremuan sartu behar direnean.

2. Lege honen ondorioetarako, honako hauek berariaz deklaratzeko dira aurreko zenbakian aipatutakoen barruan:

a) Etxeko Langileentzako Sistema Berezia eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezia sartutako langileak, bai eta 11. artikuluan aipatzen diren eta Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako dauden gainerako sistema berezietan sartutakoak ere.

b) Besteren konturako langileak eta kapital-sozietateetako bazkide langileak, nahiz eta dagokien administrazio-organoko kideak izan, baldin eta kargu horretan aritzeak berekin ez badakar sozietatearen zuzendaritza- eta kudeaketa-eginkizunak betetzea, edo sozietatearen kontrola ez badute, 305.2.b) artikuluan ezarritako moduan.

c) Besteren konturako langileekin parekatuak, kapital-sozietateetako kontseilariak eta administratzaileak, baldin eta sozietate horien kontrola ez badute 305.2.b) artikuluan ezarritako moduan, beren kargua betetzeak berekin badakar sozietatearen zuzendaritza-

eta kudeaketa-eginkizunak betetzea, horrengatik edo sozietatearen konturako langile izateagatik ordainsariak jasota.

Kontseilari eta administratzaile horiek langabezia-babesetik eta Soldatak Bermatzeko Funtsetik kanpo geratuko dira.

d) Lan-sozietateetako bazkide langileak, baldin eta kapital sozialean duten partaidetza Lan Sozietateei eta Partaidetzako Sozietateei buruzko urriaren 14ko 44/2015 Legearen 1.2.b) artikuluan ezarritakoari egokitzen bazaio eta nahiz eta haien administrazio-organoko kide izan, baldin eta kargu horretan aritzeak berekin ez badakar sozietatearen zuzendaritza- eta kudeaketa-eginkizunak betetzea, edo sozietatearen kontrola ez badute, 305.2.e) artikuluan ezarritako moduan.

e) Besteren konturako langileekin parekaturik, lan-sozietateetako bazkide langileak, zeinak, haien administratzaile diren aldetik, sozietatearen zuzendaritza- eta kudeaketa-lanak egiten baitituzte, horrengatik edo aldi berean lan-sozietatearekin goi-zuzendaritzako izaera bereziko lan-harreman baten bitartez lotuta daudelako ordainsariak jasota, baldin eta sozietatearen kontrola ez badute 305.2.e) artikuluan ezarritako moduan.

Bazkide langile horiek langabezia-babesetik eta Soldatak Bermatzeko Funtsetik kanpo geratuko dira, salbu eta lan-sozietatearen bazkideen kopurua hogeita bostetik gorakoa ez denean.

f) Notarioritza, jabetzaren erregistro eta gainerako bulego eta antzeko zentroyen zerbitzuan kontratatutako langileak.

g) Bananak manipulatu, paketatu, ontziratatu eta merkaturatzeko eragiketarako egiten dituzten langileak, bai lan horiek produktua ekoizten den tokian bertan egiten direnean, bai hartatik kanpo egiten direnean, norberaren ustiatzeagatik produkturak nahiz hirugarrenen ustiatzeagatik heldutakoak izan, lan horiek banaka egin nahiz elkarte edo talde motaren baten bitartez elkarren artean egin, mota guztietako kooperatibak barne.

h) Gizarte ongintzako entitateetan edo erakundeetan ordainpeko zerbitzuak ematen dituzten pertsonak.

i) Elizaren entitate edo erakundeen establezimendu edo egoitzetan ordainpeko zerbitzuak ematen dituzten laiko edo sekularrak. Elizaren hierarkia eskudunarekiko akordio berezi bat eginda arautuko da Elizaren organismo edo egoitzei ordainpeko zerbitzuak ematen dizkieten langile laiko eta sekularren egoera, haien egiteko nagusia kultuan zuzenean laguntzea denean.

j) Partikularren zerbitzuko turismo-ibilgailuen gidariak.

k) Administrazio publikoetako eta haiekin lotutako nahiz haien mendeko entitate eta organismoetako langile zibil ez-funtzionarioak, non eta lege bereziren baten indarrez gizarte-aurreikuspeneko nahitaezko beste araubide batean ez dauden.

l) Administrazio publikoen eta haiekin lotutako nahiz haien mendeko entitate eta organismoen zerbitzuko langile funtzionarioak, baita praktika-aldietan daudenak ere, non eta ez dauden Estatuko Klase Pasiboaren Araubidean edo beste araubideren batean, lege bereziren baten indarrez.

m) Hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen langile funtzionarioak, hartan ezarritako moduan.

n) Autonomia-erkidegoei transferitutako Estatuko funtzionarioak, destinoko autonomia-erkidegoaren berezko kidego edo eskaletan beren borondatez sartu direnak edo sartzan direnak, edozein dela ere sartzeko sistema.

ñ) Administrazio publikoetako eta haiekin lotutako edo haien mendeko entitate eta organismoetako goi-kargudunak, funtzionario publikoaren izaera ez dutenak.

o) Toki-korporazioetako kideak eta foru-lurralde historikoetako batzar nagusietako, Kanariar Uharteetako kabildoetako eta Balear Uharteetako kontseiluetako kideak, beren karguetan arduraldi eksklusiboan nahiz partzialean dihardutenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 74. eta 75. artikuluetan ezarritakoa salbuetsita.

p) Sindikatu Askatasunaren abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren babesean eratutako sindikatu-erakundeak ordezkatzan dituzten kargudunak, sindikatuaren

zuzendaritza-eginkizunak arduraldi eskusiboan zein partzialean betetzen dituztenak, ordainsari bat jasota.

q) Beren jarduera dela-eta 1. zenbakian ezarritako parekatzea errege-dekretu bidez jasotzen dutenak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposatuta.

137. artikulua. *Bazter utzitakoak.*

Honako lan hauek ez dute biderik emango Araubide Orokorrean sartzeko:

a) Lagunarteko, borondate oneko edo auzolaneko zerbitzu deitzen direnen bidez noizbehinka egiten direnak.

b) Gizarte Segurantzako araubide berezietako batean sartzeko bidea ematen dutenak.

c) Unibertsitateko irakasle emerituek egiten dituztenak, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hogeita bigarren xedapen gehigarriko 2. zenbakian aurreikusitakoaren arabera, bai eta Osasun Zerbitzuetako Estatutupeko Langileen Esparru Estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren babesean izendatutako osasun-arloko langile lizentziadun emerituek egiten dituztenak ere.

II. KAPITULUA

Enpresen inskripzioa eta afiliazioari, kotizazioari eta diru-bilketari buruzko arauak

1. atala. Enpresen inskripzioa eta langileen afiliazioa

138. artikulua. *Enpresen inskripzioa.*

1. Enpresaburuek, beren jarduerak hasteko alde aurreko ezinbesteko betekizun gisa, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean inskribatzea eskatuko dute, eta adieraziko dute beren zerbitzuko langileentzat zein entitate kudeatzaile eta, kasua bada, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen zein mutua aukeratu duten gertakari profesionalak babesteko eta, hala badagokio, gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunerako prestazio ekonomikoa babesteko.

Enpresaburuek inskripzioa eskatzean eman zituzten datuetan gertatutako aldaketak azaldu beharko dituzte; bereziki, aipatutako gertakarien estaldura bere gain hartuko duen entitatearen aldaketa.

2. Inskripzioa Gizarte Segurantzaren Administrazioaren kasuko organismoan egingo da, enpresaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren edo nortasunik gabeko entitatearen izenean.

3. Lege honen ondorioetarako, enpresaburutzat hartuko da, nahiz eta bere jarduerak irabazi-asmorik ez izan, pertsona fisiko edo juridiko edo nortasunik gabeko entitate oro, publiko zein pribatu, zeinaren kontura lan egiten baitute 136. artikuluan sartutako pertsonak.

139. artikulua. *Afiliazioa, altak eta bajak.*

1. Enpresaburuak behartuta daude beren zerbitzura sartzan diren langileak Gizarte Segurantzaren sisteman afiliatzeko eskatzera, sarrera hori jakinaraztera eta, kasua bada, langile horiek enpresa utzi dutela jakinaraztera, Araubide Orokorrean alta edo baja eman dakien, hurrenez hurren.

2. Enpresaburuak aurreko zenbakian ezartzen zaizkion betebeharrak betetzen ez baditu, langileak Gizarte Segurantzaren Administrazioeko organismo eskudunean zuzenean eskatu ahalko du afiliazioa, alta edo baja. Organismo horrek, halaber, ofizioz egin ahalko ditu egintza horiek, lege honen 16.4 artikuluan aipatutako kasuetan.

3. Araubide Orokorreko altarako eta bajarako eskubidea onartzea erregelamenduz ezartzen den Gizarte Segurantzaren Administrazioeko organismoari egokituko zaio.

4. Legezko xedapen espresu baten bidez kontrakoa adierazi ezean, araubide orokor horretako langilearen alta-egoerak baldintzatu egingo du berari titulu honetako arauak aplikatzea.

140. artikulua. *Prozedura eta epeak.*

1. Aurreko artikuluetan ezarritako betebeharren betetzea, formari, epeei eta prozedurari dagokienez, erregelamenduz ezarritakoari egokituko zaio.

2. Enpresaburuak edo langileak epez kanpo ondoz ondo eskatutako afiliazioak eta altek ez dute inolako atzeraeraginik izango. Egintza horiek ofizioz egiten direnean, haien denbora-eraginkortasuna eta ondorio gisa gertatzen diren erantzukizunak lege honetan eta hura aplikatu eta garatzeko xedapenetan ezarritakoak izango dira.

2. atala. *Kotizazioa*

1. azpiatala. *Xedapen orokorrak*

141. artikulua. *Behartuta dauden subjektuak.*

1. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrari kotizatzeko betebeharra izango dute haren aplikazio-eremuan sartzen diren langileak eta parekatuak eta zein enpresabururen kontura lan egiten duten, enpresaburu horiek.

2. Kotizazioak bi ekarpen bilduko ditu:

- a) Enpresaburuena, eta
- b) langileena.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko gertakarien kotizazio osoa enpresaburuen kargura izango da osorik.

142. artikulua. *Subjektu erantzuleak.*

1. Enpresaburua da kotizatzeko betebeharra eta bere ekarpenak eta langileenak osotara ordaintzeko betebeharra betetzearen subjektu erantzulea.

Halaber, modu solidarioan, subsidiarioki edo *mortis causa* erantzungo dute 18. artikuluan eta 168.1 eta 168.2 artikuluetan aipatzen diren pertsonak edo nortasunik gabeko entitateek.

Ustiategiaren, industriaren edo negozioaren titulartasunaren oinordetzagatiko erantzukizun solidarioa, aipatutako 168. artikuluan ezartzen dena, oinordetzaren egitatearen aurretik sortutako zor guztietara zabalduko da. Oinordetza hori existitzen dela joko da lan-sozietate bat denean ustiategiarekin, industriarekin edo negozioarekin jarraitzen duena, aurreko enpresaburuaren kontura lan egiten zuten langileek osatua izan ala ez.

Baldin eta enpresaburua desegindako edo likidatutako sozietate edo entitate bat bada, hark Gizarte Segurantzarekin dituen kotizazio-betebehar burutu gabeak bazkideei edo kapitaleko partaideei transmitituko zaizkie, eta horiek solidarioki hartuko dute erantzukizun hori, esleitu zaien likidazio kuotaren balioa muga dutela.

2. Enpresaburuak bere langileei deskontatu egingo die, lansariak ordaintzerakoan, bakoitzari kotizaziotzat tokatzen zaion ekarpena. Deskontua une horretan egiten ez badu, ezingo du gero egin, eta guztiz bere kargura sartu beharko du kuoten guztizkoa.

Ordainsari horien ordainketaren ziurtagiritan, enpresaburuak langileei informazioa eman beharko die Gizarte Segurantzako kotizazioaren guztizko kopuruari buruz, eta adierazi, 141.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kotizazioaren zein zati dagokion enpresaburuaren ekarpenari eta zein langileenari, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

3. Deskontu hori egin eta epearen barruan langileei dagokien kuotaren zatia ordaindu ez duen enpresaburuak erantzukizuna izango du haien aurrean eta Gizarte Segurantzaren

Administrazioko ukitutako organismoen aurrean, ezertan ere kendu gabe bidezko izan daitezkeen erantzukizun penala eta administrazio-erantzukizuna.

143. artikulua. *Itunen deuseztasuna.*

Deuseza izango da itun oro, banakakoa zein kolektiboa, haren bidez langileak bere gain hartzen baldin badu enpresaburuaren kargura den prima edo kuotaren zatia guztiz edo partzialki ordaintzeko betebeharra.

Halaber, guztiz deuseza izango da 147. artikuluan finkatutako kotizazio-oinarriak aldarazi nahi dituen itun oro.

144. artikulua. *Kotizatzekeo betebeharraren iraupena.*

1. Kotizatzekeo betebeharra lan-prestazioa –probaldia barne– hasten den unean sortuko da. Gizarte Segurantzaren Administrazioako organismo eskudunari langilea afiliatzeko edo alta emateko eskaera hutsak eragin bera izango du.

2. Kotizatzekeo betebeharrari eutsi egingo zaio langilea Araubide Orokorrean alta emanda dagoen edo zerbitzuak ematen dituen aldi guztian, nahiz eta horiek izaera etena izan. Betebehar horrek iraun egingo du, halaber, izaera publikoko betebeharrak edo sindikatu-ordezkaritzako karguak betetzen ari diren langileentzat, egoera horrek lanean eszedentzian egotea ez dakarren bitartean.

3. Betebehar hori azkenduko da soilik Araubide Orokorrean baja emateko behar bezalako eskaera eginda Gizarte Segurantzaren Administrazioako organismo eskudunari. Hala eta guztiz ere, komunikazio horrek ez du kotizatzekeo betebeharra azkenduko, lanaren prestazioak jarraitzen badu.

4. Kotizatzekeo betebeharrari eutsiko zaio aldi baterako ezintasun-egoeran –horren arrazoia edozein dela–, amatasun-egoeran, aitatasun-egoeran, haurdunaldiko arrisku-egoeran eta edoskialdi naturaleko arrisku-egoeran, bai eta 166. artikuluan ezarritako gainerako egoeretan ere, hala ezartzen denean erregelamendu bidez.

5. Kotizatzekeo betebeharra eten egingo da grebak eta patronalaren itxierak iraun bitartean.

6. Laneko istripuen edo gaixotasun profesionalen gertakariengatik kotizatzekeo betebeharra existituko da nahiz eta enpresak, lege honetan ezarritakoa urratuz, langileen babesa, edo langileen zati baten babesa, ezarri gabe eduki gertakari horiei dagokienez. Kasu horretan, zor diren primak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren alde sortuko dira.

145. artikulua. *Kotizazio-tasa.*

1. Kotizazio-tasa bakarra izango da Araubide Orokor honen babes-esparru osorako. Haren ezarpena eta banaketa, kotizatzekeo behartuta dauden enpresaburuaren eta langilearen kasuko ekarpenak zehazteari begira, Estatuko Aurrekontu Orokorren kasuko legean egingo dira.

2. Kotizazio-tasa murriztu egingo da, 155.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztutako babes-jardunean jasota ez dauden egoerei eta gertakari dagokien portzentajeetan, edo portzentajeetan, bai besteren konturako langileekin parekatzen direnentzat, bai legez edo erregelamenduz ezarritako beste kasu batzuentzat.

146. artikulua. *Laneko istripuengatik eta gaixotasunen profesionalengatik kotizazioa.*

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakari dagokien kotizazioa jarduera ekonomiko, okupazio edo egoera bakoitzerako legez finkatutako primei buruzko tarifan ezarritako kotizazio-tasak aplikatuz egingo da. Kotizazio-tasa horiek kalkulatzeko, prestazioen eta prebentzio- eta errehabilitazio-zerbitzuen eskakizunen kostua hartuko dira kontuan.

2. Era berean, gaixotasun profesionalak direla-eta arriskuak dituzten enpresentzat, tasa gehigarriak ezarri ahalko dira laneko istripuen kotizazioa dela-eta, industriaren edo lan

motaren arriskuaren arabera eta erabilitako prebentzio-bitartekoen eraginkortasunaren arabera.

3. Aurreko zenbakietan aipatzen diren kotizazio-tasen zenbatekoa murriztu ahalko da prebentziorako bitarteko eraginkorrak erabiltzeagatik nabarmentzen diren enpresen kasuan. Halaber, zenbateko hori handitu ahalko da segurtasunaren eta lan-osasunaren arloko betebeharrak betetzen ez dituzten enpresen kasuan. Zenbaki honetan aurreikusitako murrizketak eta igoerak ezingo dira izan kotizazio-tasen ehuneko 10etik gorakoak, nahiz eta igoera ehuneko 20koa ere izan ahalko den aipatutako betebeharrak behin eta berriz urratzen diren kasuetan.

147. artikulua. *Kotizazio-oinarria.*

1. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren babes-jardunak biltzen dituen gertakari eta egoera guztietarako –laneko istripua eta gaixotasun profesionala barne–, hau izango da kotizazio-oinarria: langileak edo parekoak hileroko jasotzeko eskubidea duen guztizko ordainsaria –bere forma edo izena edozein dela ere, eskudirutan zein gauzatan jaso– edota besteren kontura egiten duen lanagatik benetan jasotzen duena, hori handiago izanez gero.

Hilabete bat baino epemuga handiagoa duten hartukizunak urteko hamabi hilabeteetan zehar hainbanatuko dira.

Sortutako eta gozatu gabeko urteko oporrei dagozkien hartukizunak, lan-harremana amaitzean ordaintzen direnak, kontratua baliogabetzen den hileko kotizazioaren osagarri likidatuko eta kotizatuko dira. Likidazioa eta kotizazio osagarria opor-egunen araberakoak izango dira, nahiz eta hurrengo hilerako iritsi edo horietan beste lan-harreman bat hasi. Ez da hainbanaketarik egingo, eta, egokia izanez gero, ukituak gertatzen diren hiletako gehieneko kotizazioa aplikatuko da.

Hala ere, aurreko lerrokan adierazitakoa alde batera utziko da, eta kotizazio-arau orokorrak aplikatuko dira, erregelamenduz zehazten den moduan, lege bidez edo lege bat betearaziz ezartzen denean langilearen ordainsariak, soldatarekin batera, sortutako oporrei dagozkien zati proportzionala jaso behar duela.

2. Kotizazio-oinarrian kontzeptu hauek soilik ez dira zenbatuko:

a) Bere lana ohiko languneaz bestelako toki batean egitearren lekuz aldatu behar duen langilearen lekualdatze-gastuak ordaintzeko dirua, garraiobide publikoak erabiltzen dituenean, baldin eta gastu horien zenbatekoa justifikatzen bada faktura baten edo dokumentu baliokide baten bidez.

b) Bere lana ohiko languneaz bestelako toki batean egitearren lekuz aldatu behar duen langilearen lekualdatze-gastuak ordaintzeko dirua, gastu horiek aurreko zenbakian jaso ez badira. Orobat, langilearen ohiko lanlekuaz eta bizilekuaz bestelako udalerriri batean egindako mantenu- eta egonaldi-gastu normalak ordaintzeko dirua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estatu-araudi erregulatuak aurreikusten duen zenbatekoan eta irismenarekin.

c) Heriotzagatiko kalte-ordainak eta lekualdaketei, etetei eta kaleratzei dagozkienak.

Heriotzagatiko kalte-ordainak eta lekualdaketei eta etetei dagozkienak kotizaziotik salbuetsita egongo dira aplikatu beharreko sektore-arauan edo hitzarmen kolektiboan aurreikusitako gehieneko zenbatekora arte.

Langilea kaleratze edo kargugabetzetik eratorritako kalte-ordainak salbuetsita egongo dira, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginean, berau garatzeko araudian edo, hala badagokio, epaiak betearaztea erregulatu duen araudian nahitaez ezarritako zenbatekoan; nolana ere, ezin da horrelakotzat hartu hitzarmen, itun edo kontratuaren bidez ezarritakoa.

Lan-kontratua adiskidetze-ekitaldiaren aurretik azkentzen bada, salbuetsita egongo dira kaleratzeagatiko kalte-ordainak; betiere, berau bidegabetzat joz gero eman beharrekoak baino handiagoak ez badira, eta elkarrekin adostutako azkentze bat ez bada sustatutako bajen plan edo sistema kolektiboen barruan.

Aurreko lerrokadetan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, kaleratze kolektiboen ondoriozko kaleratze edo kargugabetzeetan, baldin eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri izapidetuta badaude edo testu bategin horren 52.c) artikuluan aurreikusitako kausengatik gertatu badira, salbuetsita geldituko da Estatutu horretan bidegabeko kaleratzearen kasuan nahitaez ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia; betiere adierazitako bi kasu horiek kausa ekonomiko, tekniko eta antolaketakoengatik edo ezinbesteko kausengatik gertatzen badira.

d) Gizarte Segurantzaren prestazioak, enpresek aldi baterako ezintasunarengatik ematen dituzten prestazioen hobekuntzak eta enpresen zerbitzura dauden langileak eguneratu, gaitu eta birziklitzeko egiten diren ikaskuntza-gastuak ordaintzera zuzendutako dirua, baldin eta ikasketa horiek beharrezkoak badira langileen jarduera horretarako edo lanpostuen ezaugarri horietarako.

e) Aparteko orduak, salbu eta Gizarte Segurantzaren laneko istripuengatik eta gaixotasun profesionalengatik kotizatzeak badira.

3. Enpresaburuek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarik jakinarazi beharko diote, likidazio-aldi bakoitzean, langileei ordaindutako ordainsari-kontzeptu guztien zenbatekoa, kontuan hartu gabe Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriari sartu diren ala ez, eta oinarri bakarrak aplikatzen badira ere.

4. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak aparteko orduen kopurua ezarri ahal du, dela modu orokorrean, dela lanaldia luzatzea ohikoa duten lan-sektoreen arabera; hori guztia, 2.e) zenbakian xedatutakoa gorabehera.

148. artikulua. *Kotizazio-oinarriaren gehieneko eta gutxieneko mugak.*

1. Kotizazio-oinarriaren gehieneko muga, zeina bakarra izango baita araubide honetan jasotako jarduera, lanbide-kategoria eta gertakari guztietarako, urte bakoitzean Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoa izango da.

2. Hartara, ezarritako kotizazio-oinarriaren gehieneko muga enplegu-aniztasuneko kasuetan ere aplikatu beharko da. Lege honen ondorioetarako, enplegu-aniztasuna izango da langileak bi enpresatan edo gehiagotan lan egitea, Araubide Orokor honen aplikazio-eremuan sartzeko modukoak diren jardueretan.

3. Kotizazio-oinarriaren gutxieneko muga 19.2 artikuluan ezarritako zenbatekoa izango da.

4. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak lan egindako egun eta orduen arabera egokituko ditu lanbide-kategoriaren multzo bakoitzerako finkatutako gutxieneko mugak eta gutxieneko oinarriak, legezko xedapen baten bitartez egunen edo orduen araberrako kotizazioa berariaz ezartzen den kasuetarako.

149. artikulua. *Aparteko orduen kotizazio gehigarria.*

Aparteko orduen kontzeptuarengatik langileek jasotzen dituzten ordainsariek, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioetarako kotizazioa zein den ere, lotuta egongo da enpresaburuek eta langileek kotizazio gehigarri bat ordaindu behar izatearekin, kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako tasen araberrakoa.

Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 35.2 artikuluan ezarritako laurogei orduko gehieneko muga gainditzen duten egiturazko aparteko orduengatik kotizazio gehigarria Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aparteko orduetarako ezarritako kotizazio-tasa orokorra aplikatuz egingo da.

150. artikulua. *Normalizazioa.*

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak atal honetan ezarritakoaren arabera aplikatzeak diren kotizazio-oinarrien normalizazioa ezarriko du.

2. azpiatala. Kasu berezietako kotizazioa

151. artikulua. *Iraupen laburreko kontratuetako kotizazioa.*

Zazpi egun baino iraupen efektibo laburragoko aldi baterako kontratuetan, enpresak Gizarte Segurantzari gertakari arruntengatik ordaintzen dion kuota ehuneko 36 igoko da. Gehikuntza hori ez zaie aplikatuko behin-behineko kontratuei, ez eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Araubide Berezian sartuta dauden langileei ere.

152. artikulua. *Hirurogeita bost urterekin edo gehiagorekin kotizatzea.*

1. Enpresaburuek eta langileek ez diote Gizarte Segurantzari kotizaziorik ordaindu beharko gertakari arruntengatik –halakoen ondoriozko aldi baterako ezintasun kasuetan izan ezik–, lan-kontratu mugagabeak dituzten besteren konturako langileak direla-eta, ez eta kooperatibetako bazkide langileak edo lan-bazkideak direla-eta, baldin eta honako kasu hauetakoren batean badaude:

a) Hirurogeita bost urteko adina eta hogeita hemezortzi urte eta sei hilabeteko kotizazioa.

b) Hirurogeita zazpi urteko adina eta hogeita hamazazpi urteko kotizazioa.

Aipatutako kasu guztietan, kotizazio-urteak zenbatzearen ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko aparteko ordainsarien zati proportzionalak.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den adina betetzerakoan langileak kotizatu gabe badu kasu bakoitzean eskatutako urte kopurua, aplikatzekoa izango da artikuluko honetan ezarritako salbuespena, kasu bakoitzerako eskatzen diren kotizazio-urteak frogatzen diren egunetik aurrera.

3. Artikulu honetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko beren zerbitzuak administrazio publikoetan edo Estatuaren Administrazio Orokorraren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen III. tituluan araututako organismo publikoetan ematen dituzten langileen kotizazioei.

4. Artikulu honetan ezarritako kotizazioaren salbuespenak langabeziagatik ekarpenak eta Soldatak Bermatzeko Funtsaren eta lanbide-heziketaren ekarpenak ere hartuko ditu.

153. artikulua. *Erretiroa eta lana bateragarri diren kasuetako kotizazioa.*

Erretiro-pentsioarekin bateragarria den besteren konturako lan bat egiten den bitartean, 214. artikuluan ezarritako moduan, enpresaburuek eta langileek Araubide Orokorrean kotizatuko dute soilik aldi baterako ezintasunarengatik eta gertakari profesionalengatik, araubide horri buruzko araudian ezarritakoaren arabera; halere, elkartasuneko kotizazio berezi bat ordaindu beharko dute, gertakari arruntengatik kotizazio-oinarriaren ehuneko 8koa, baina kotizazio hori ez da kontuan hartuko prestazioen ondorioetarako, eta haien artean banatuko da: enpresaburuak ehuneko 6 ordainduko du eta langileak ehuneko 2.

3. atala. *Diru-bilketa*154. artikulua. *Arau orokorrak.*

1. Lege honetako I. tituluko III. kapituluaren xedatutakoaren ondorioetarako, enpresaburuak eta, kasua bada, 18. eta 168.1 eta 168.2 artikuluetan aipatutako pertsonak izango dira Araubide Orokor honen kuota guztiak ordaindu beharko dituztenak, lege honetan eta berau aplikatu eta garatzeko arauetan ezarritako tokian eta moduan.

2. Kotizatzeako betebeharra betetzeko erantzukizuna duten subjektuei 30. eta 31. artikuluetan ezarritako errekarquak eta berandutze-interesa egotziko zaizkie.

3. Kuotak erregelamenduzko epetik kanpo ordainduz gero, kuota horiek sortu ziren datan indarrean zen kotizazio-tasaren arabera ordainduko dira.

III. KAPITULUA

Babes-jardunaren alderdi erkideak

155. artikulua. *Babes-jardunaren irismena.*

1. Araubide Orokorren babes-jarduna 42. artikuluan ezarritakoa izango da, jarduera uzteagatiko babesa eta prestazio ez-kontributiboak kenduta.

Prestazioak eta onurak titulu honetan eta bera garatzeko erregelamenduzko xedapenetan ezartzen diren baldintzetan emango dira.

2. 136.2.q) artikuluan aipatzen den besteren konturako langileen parekatzearen kasuan, parekatze hori xedatzen duen arauak berak zehaztuko du emandako babesaren irismena.

156. artikulua. *Laneko istripua zer den.*

1. Laneko istripuztat jotzen da besteren kontura egiten duen lana dela-eta edo lan horren ondorioz langileak jasaten duen edozein gorputz-lesio.

2. Hauek izango dira laneko istripuak:

a) Langileak lanlekura joatean edo handik itzultzean izaten duen istripua.

b) Langileak izaera sindikaleko hautetsi-karguan jardutean edo horren ondorioz izaten duen istripua, eta kargu horien berezko zereginak betetzen diren tokira joan edo handik itzultzean izaten duena.

c) Langileak, enpresaburuak agindutakoa betetzeko edo berez enpresaren funtzionamendurako interesgarria izan daitekeela uste duelako, egiten dituen lanetan edo horien ondorioz izaten duen istripua, nahiz eta lan horiek bere lanbide-taldekoak ez izan.

d) Salbamendu-egintzetan eta antzeko beste batzuetan gertatzen zaizkion istripuak, lanari lotuta badaude betiere.

e) Langileak bere lana betetzeagatik harrapatzen duen baina hurrengo artikuluan sartzen ez den gaixotasuna, baldin eta frogatzen bada gaixotasun hori soilik lanaren ondorioz harrapatu duela.

f) Langileak aurretik jasan dituen gaixotasunak edo akatsak, baldin eta istripuaren ondoriozko lesioagatik larriagotzen badira.

g) Gaixotasun interkurrenteen ondorioz izaera, iraupena, larritasuna edo senda-eguna aldatzen zaien istripu-ondorioak; istripuak berak ekarritako prozesu patologikoak eragindako konplikazioak; edo gaixoa sendatzeko jarri den ingurune berrian hartutako gaixotasunetatik sortu diren ondorioak.

3. Besterik frogatu ezean, laneko istripuztat joko dira langileak lan-denboran eta lantokian jasaten dituen lesioak.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, honako hauek ez dira laneko istripuztat hartuko:

a) Lanaz aparteko ezinbesteen ondoriozkoak; halakotzat jotzen da, bere jitea dela-eta, istripua gertatzean egiten ari zen lanarekin batere harremanik ez duena.

Inolaz ere ez dira lanaz aparteko ezinbestetzat hartuko intsolazioa, tximista eta antzeko beste natura-fenomeno batzuk.

b) Istripua izan duen langilearen doloari edo zuhurtziagabekeria ausartegiari zor zaizkionak.

5. Honako hauek ez dira istripu bat laneko istripuztat jotzeko oztopo izango:

a) Zuhurtziagabekeria profesionala, lan bat normalean egitearen eta horrek ematen duen konfiantzaren ondorioa denean.

b) Enpresaburuaren, istripua izan duenaren lankide baten edo beste pertsona baten erruduntasun zibila edo erruduntasun kriminala, lanarekin batere zerikusirik ez duenean izan ezik.

157. artikulua. *Gaixotasun profesionala zer den.*

Gaixotasun profesionaltzat hartuko da besteren kontura egindako lanaren ondorioz hartutakoa, aplikatzekoak eta lege honen garapenekoak diren xedapenen bitartez onartzen den koadroan zehazten diren jardueretan, baldin eta gaixotasun profesional bakoitzerako koadro horretan aipatzen diren elementu edo substantzien eraginez sortu bada.

Xedapen horietan zehaztuko da zein prozedura bete beharko den koadro horretan gehitu beharrekotzat jotzen diren gaixotasun profesional berriak sartzeko. Prozedura horrek, kasu guztietan, nahitaezko izapide gisa, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren txostena jasoko du.

158. artikulua. *Lanez kanpoko istripuak eta gaixotasun arruntak zer diren.*

1. Lanez kanpoko istriputzat hartuko da 156. artikuluaaren arabera laneko istriputzat jotzen ez dena.

2. Joko da gaixotasun arrunt direla ez laneko istripu ez gaixotasun profesionaltzat jotzen ez diren osasunaren gorabeherak, 156. artikuluko 2.e), f) eta g) letretan eta 157. artikuluan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

159. artikulua. *Gainerako gertakariak zer diren.*

Gainerako gertakarien legezko kontzeptua izango da haietako bakoitza kontuan hartuta emandako prestazioetarako eskubidea onartzeko eskatzen diren baldintzetatik ondorioztatzen dena.

160. artikulua. *Arrisku katastrofikoak.*

Inolaz ere ez dira Araubide Orokorren babespekotzat joko beren legeria bereziaren babesean katastrofikotzat jotako arriskuak.

IV. KAPITULUA

Prestazioen arloko arau orokorrak

161. artikulua. *Prestazioen zenbatekoa.*

1. Prestazio ekonomikoen zenbatekoa ez bada lege honetan zehazten, legea garatzeko arauetan finkatuko da.

2. Pentsioen eta gainerako prestazioen zenbatekoa, haien kopurua oinarri arautzaile baten arabera kalkulatzeko bada, horietako bakoitzarentzat aipatzen diren aldietan kotizatu diren oinarrien guztizkoaren arabera finkatuko da.

149. artikuluan aipatzen den aparteko lanorduengatikotiazio osagarria ez da zenbatuko prestazioen oinarri arautzailea ezartze aldera.

Nolanahi ere, prestazio bakoitzaren oinarri arautzaileak ezingo du gainditu 148. artikuluan kotizazio-oinarri bakoitzerako ezarritako gehieneko muga.

3. Enplegu-aniztasuna dagoenean, lan egindako enpresetan kotizatzerakoan hartutako oinarrien baturaren arabera ezarriko da prestazioen oinarri arautzailea, eta horrela zehaztutako oinarri arautzaileari aurreko zenbakian aipatzen den gehieneko muga aplikatuko zaio.

4. Gertakari arruntengatikotiazioak ordaindu ez diren jarduera-aldiei dagokienez, 152. artikuluan ezarritako moduan, kotizaziotik kanpo utzitako prestazioen oinarri arautzailea zehaztearen ondorioetarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzean kotizaziotik salbuetsitako hileko ordainketei dagozkien kotizazio-oinarriak ezingo dira hau baino handiagoak izan: aurreko urte naturaleko kotizazio-oinarrien batezbestekoari adierazi den azken urteko kontsumoko prezioen indizearen batez besteko aldakuntzaren portzentaje ezaguna gehitu eta horri bi puntu portzentual erantsita ateratzen den emaitza.

162. artikulua. *Prestazioen ezaugarriak.*

1. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren prestazioek 44. artikuluan oro har ezarritako ezaugarriak izango dituzte.

2. Enpresaburuek beren kargura ordaindu behar dituzten prestazioak, 167.2 artikuluan eta 173.1 artikuluko bigarren lerrokadan adierazitakoaren arabera, edo kudeaketan laguntzeagatik ordaindu behar dituztenak, eta, kasua bada, likidazio-araubidean Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek ordaindu behar dituztenak, kreditu pribilegiatutzat hartuko dira, eta, hori dela-eta, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 32. artikuluan ezarritako araubidea izango dute.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa 164. artikulua aipatzen duen prestazioen errekaruari ere aplikatuko zaio.

163. artikulua. *Pentsioen bateraezintasuna.*

1. Araubide orokor honen pentsioak elkarrekin bateraezinak izango dira onuradun berarengan metatzen direnean, legez edo erregelamenduz berariaz kontrakoa xedatzen ez bada. Bateraezintasun kasuan, bi pentsio edo gehiagorako eskubidea duenak horietako bat hautatuko du.

2. Aurreko zenbakian ezarritako bateraezintasun-araubidea aplikatzekoa izango zaio, halaber, 196.2 artikuluan aurreikusitako oroharreko kalte-ordainari, ezintasun iraunkorragatiko pentsioa ordeztzen duen prestazioa den aldetik, ezintasun osoaren graduan.

164. artikulua. *Laneko istripuen edo gaixotasun profesionalen ondoriozko prestazio ekonomikoen errekarua.*

1. Laneko istripu batean edo gaixotasun profesional batean kausa duten prestazio ekonomiko guztiak ehuneko 30etik ehuneko 50era bitarte gehituko dira, faltaren larritasunaren arabera, lesioa arauzko babes bitartekorik ez duten edo horiek erabileraz kanpo edo egoera txarrean dituzten lan-ekipamenduekin edo instalazio, zentro edo lantokietan gertatzen denean, edo laneko segurtasun- edo osasun-neurri orokorrak edo bereziak bete ez direnean, edo lan bakoitzerako egokitasun pertsonaleko neurriak (lanaren ezaugarriak eta langilearen adina, sexua eta gainerako baldintzak tarteko) zaindu ez direnean.

2. Aurreko zenbakian ezarritako errekarua ordaintzeko erantzukizuna zuzenean enpresaburu arau-hauslearena izango da, eta ezingo da hura dela-eta inongo aseguru-ekin. Zuzenbidez guztiz deuseza izango da hura estaltzeko, konpentsatzeko edo eskualdatzeko egindako itun edo kontratu oro.

3. Artikulu honek arautzen duen erantzukizuna independentea eta bateragarria da arau-haustetik erator daitezkeen era guztietako erantzukizunekin, baita erantzukizun penalararekin ere.

165. artikulua. *Prestazioetarako eskubidearen baldintzak.*

1. Araubide Orokorreko prestazioetarako eskubidea sortzeko, haren aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonak, prestazio bakoitza eskuratzeko eskatzen diren betekizun partikularrez gainera, araubide horretan afiliatuta eta alta emanda, edo altarekin parekatutako egoeran, egon behar dute babestutako gertakaria edo egoera gertatzen denean, legezko xedapen espresu baten bidez kontrakoa adierazi ezean.

2. Aitorpena edo zenbatekoa, gainera, kotizazio-aldi batzuk betetzeko baldintza pean daukaten prestazioen kasuan, ondorio horietarako zenbatu ahalko dira soilik egiazki egindako kotizazioak edo lege honetan edo bera garatzeko erregelamenduzko xedapenetan haiekin berariaz parekatutakoak.

3. Aldi baterako ezintasun-egoerari, amatasun-egoerari, aitatasun-egoerari, haurdunaldiko arrisku-egoerari edo edoskialdi naturaleko arrisku-egoerari dagozkien

kuotak zenbatu egingo dira prestazioak jasotzeko eskubidea izateko alde zuzenetik egin beharreko kotizazio-aldiari begira.

4. Ez da kotizazioaren aurreko aldirik eskatuko istripu baten ondoriozko prestazioetarako eskubidea izateko, istripu hori lanekoa izan ala ez, edo gaixotasun profesionalaren ondoriozko prestazioetarako eskubidea izateko, legezko xedapen espresu baten bidez kontrakoa adierazi ezean.

5. Langileen Estatuari buruzko Legearen testu bateginaren 48.10 artikulua genero-indarkeriako kasuetarako aipatzen duen etenaldia, lanpostuaren erreserbarekin, benetan kotizatutako aldirik joko da, Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko prestazioen ondorioetarako, prestazio horiek sortzen direnean erretiroaren, ezintasun iraunkorraren, heriotza eta biziraupenaren, amatasunaren, langabeziaren eta minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzearen ondorioz.

6. Lan-kontratua azkendu ondoren irauten duen amatasun- edo aitatasun-aldia, edo langabezia-prestazioa jaso bitartean hasten den amatasun- edo aitatasun-aldia benetan kotizatutako aldirik joko da, erretiroaren, ezintasun iraunkorraren, heriotza eta biziraupenaren, amatasunaren eta aitatasunaren eta minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzearen ondorioz Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko prestazioak jasotzeko.

166. artikulua. *Altarekin parekatutako egoerak.*

1. 165.1 artikuluan aipatutako ondorioetarako, legezko erabateko langabezia-egoera altarekin parekatutakoa izango da, langileak gertakari horren ondoriozko prestazioa jaso bitartean.

2. Halaber, altarekin parekatutako egoera izango da, kotizazioari eutsita, haurdunaldiko arriskuaren eta edoskialdi naturaleko arriskuaren ziozko subsidioen kasuan izan ezik, langileak duen egoera urteko opor ordainduak iraun bitartean, langile horrek ez duenean oporrik izan lan-kontratua amaitu aurretik.

3. Nahitaezko eszedentziaren, enpresak lurralde nazionaletik kanpo eramatearen eta Gizarte Segurantzaren Administrazioarekiko hitzarmen bereziaren kasuak, bai eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak aipatzen dituen gainerako kasuak ere, alta-egoerarekin parekatu ahalko dira, gertakari jakin batzuetarako, erregelamenduz finkatzen diren irismenarekin eta baldintzekin.

4. Araubide Orokor honen aplikazio-eremuan bildutako langileak zuzenbide osoz hartuko dira alta-egoeran baleude bezala laneko istripuen, gaixotasun profesionalen eta langabeziaren ondorioetarako, nahiz eta enpresaburuak bere betebeharrak bete gabe eduki. Arau bera aplikatuko da gaixotasun arruntaren, amatasunaren eta lanez kanpoko istripuaren ondoriozko osasun-laguntzaren ondorio hutsetarako.

5. Gobernuak, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak proposatuta eta behar diren finantza-baliabideak finkatu ondoren, aurreko zenbakian aipatzen den altaren presuntzioa zabaldu ahalko die titulu honetan araututako gainerako gertakarietako bati edo batzuei.

6. Aurreko bi zenbakietan ezarritakoak ez du ezertan eragotziko enpresaburuek Araubide Orokorrean beren langileen alta eskatzeko betebeharra, 139. artikuluan xedatuari jarraituz, ez eta hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera bidezko den enpresa-erantzukizuna ere.

7. Grebak eta patronalaren itxierak iraun bitartean, langilea alta bereziko egoeran egongo da Gizarte Segurantzaren.

167. artikulua. *Prestazioak direla-eta dauden erantzukizunak.*

1. Prestazio bat jasotzeko eskubidea 165. artikuluan aipatutako baldintzak betetzearen ondorioz sortu denean, kasuko erantzukizuna egotziko zaie, bakoitzari dagozkion eskumenen arabera, entitate kudeatzaileei, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei edo kudeaketan laguntzen duten enpresaburuei, edo, hala badagokie, zerbitzu erkideei.

2. Afiliazioaren, alden eta bajen arloko betebeharrak eta kotizazioaren arloko betebeharrak ez betetzeak berekin ekarriko du erantzukizuna eskatzea, prestazioen ordainketari dagokionez, egozpen-kasuak eta haien irismena finkatu ondoren eta egozpen hori eraginkor egiteko prozedura arautu ondoren.

3. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, entitate kudeatzaileek, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek edo, kasua bada, zerbitzu erkideek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, prestazioak ordainduko dizkiete onuradunei, zenbaki horretan bildu diren kasuetan, erregelamenduz hala ezartzen bada, eta, horrenbestez, onuradun horien eskubide eta akzioetan subrogatuko dira. Aipatutako ordainketa bidezkoa izango da baita enpresak desagertu direnean ere, edo, beren izaera berezia dela-eta premiamentu-probidentziaren xede ezin izan daitezkeenetan. Halaber, aipatutako entitate, mutua eta zerbitzuek beren gain hartuko dute prestazioen ordainketa, enpresaburuak ordainketa horri dagokionez daukaten erantzukizunaren irismena arintzen den neurrian.

Prestazioen aurrerapenak ezingo du inoiz gaintitu egitate eragilearen unean indarrean den ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren zenbatekoa halako bi eta erdi, edo, kasua bada, ordainketa aurreraturako behar den kostu-kapitalaren zenbatekoa, entitate kudeatzaileek, mutuek edo zerbitzuek adierazitako mugarekin. Nolanahi ere, prestazioen edo mutuek edo haien erantzule deklaraturako enpresek haiek ordaintzeko kostu-kapitalaren zenbatekoaren kalkuluak kapitalizazio-interesa eta aseguratze-faltarengatik ezarritako errenergua jasoko ditu, baina kanpo utziko du lanean segurtasun- eta osasun-neurriak falta izateagatik errenergua, 164. artikuluan aipatzen dena.

Onuradunen eskubide eta akzioetan subrogatzearen ondorioz entitate, mutua edo zerbitzuei –administrazio-ebazpen baten bidez edo ebazpen judizial baten bidez prestazioen erantzule deklaraturako enpresaburuaren aurrean edo berme-eginkizuna duten Gizarte Segurantzaren entitateen aurrean– dagozkien eskubide eta akzioak erantzule subsidiarioaren aurka egikaritu ahalko dira, soilik enpresaburu horren kaudimengabeziaren behin-behineko edo behin betiko deklarazio administratibo edo judizialaren ondoren.

Zenbaki honetan ezarritakoaren indarrez entitate kudeatzaileak, mutuak eta, kasua bada, zerbitzu erkideak onuradunen eskubide eta akzioetan subrogatzen direnean, haiek enpresaburuaren aurrean baliatu ahalko dute subrogazioaren eskubidearen eta akzioaren eraginkortasunerako jarraitu den administrazio-bide auzibide bera.

4. Entitate kudeatzaile eskudunari egokituko zaio, administrazio-bidean, prestazioak direla-eta erantzukizuna deklaratzeko, prestazioa edozein dela ere, bai eta, kasua bada, hura aurreratu behar duen edo kasuko kostu-kapitala eratu behar duen entitatea deklaratzeko ere.

168. artikulua. *Prestazioak direla-eta dauden erantzukizunen kasu bereziak.*

1. Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 42. artikuluan enpresaburu kontratatzailearen jarduerari berari dagozkion obren eta zerbitzuen kontratei eta azpikontratei buruz ezarritakoa ezertan kendu gabe, enpresaburu bat prestazio baten ordainketaren erantzule, guztiz edo zati batean, deklaratu denean, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, kasuko obra edo industria kontratatuta badago, haren jabeak erantzun beharko du enpresaburuaren betebeharrarengatik, baldin eta azken hori kaudimengabe deklaritzen bada.

Horrelako erantzukizun subsidiariorik ez da egongo kontratatutako obra etxebizitza baten titularrak bere etxebizitzarako kontrata ditzakeen konponketei buruzkoa denean soilik.

2. Ustiategiaren, industriaren edo negozioaren titulartasunaren oinordetza kasuetan, eskuratzailerak aurrekoarekin edo haren jaraunsleekin solidarioki erantzungo du oinordetza horren aurretik sortutako prestazioen ordainketa dela-eta. Erantzukizun bera ezartzen da enpresaburu lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen artean, eskulanaren aldi baterako lagapen kasuetan, nahiz eta adiskidetasunezkoa edo irabazi-asmorik gabekoa izan,

ezertan kendu gabe Aldi Baterako Lan Enpresak Arautzen dituen ekainaren 1eko 14/1994 Legearen 16.3 artikuluan ezarritakoa.

Erregelamendu bidez arautuko da Gizarte Segurantzaren Administrazioak noiz eman ditzakeen eskuratzailentzako erantzukizun-ezaren bermea dakarten ziurtagiriak.

3. Prestazioaren sorburua norbaiten –enpresaburua barne– erantzukizun kriminala edo zibila dakarren egitatezko kasuren bat izan bada, entitate kudeatzaileak, zerbitzu erkideak edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutuak, behin gainerako baldintzak beteta, prestazioa ordainduko du, aipatutako erantzukizunak ezertan eragotzi gabe. Halako kasuetan, langileak edo haren eskubidedunek ustez erantzukizun kriminala edo zibila dutenen kalte-ordainak eskatu ahalko dituzte.

Langileek edo kausadunek egikaritzen dituzten akzioak alde batera utzita, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoak eta, kasua bada, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek eskubidea izango dute hirugarren erantzuleari, edo, kasua bada, legez edo kontratu bidez haren betebeharretan subrogatu denari, ordaindutako osasun-prestazioen kostua erreklamatzeko. Eskubide bera izango du, kasua bada, osasun-laguntzaren kudeaketan laguntzen duen enpresaburuak, lege honetan ezarritakoaren arabera.

Aurreko lerrokadak aipatzen duen ordainerako eskubidea egikaritzeko, hartan aipatzen den entitate kudeatzaileak eta, kasua bada, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek edo enpresaburuak ahalmen osoa izango dute kalte-ordaina eraginkor egiteko jarraitutako prozedura penalean edo zibilean zuzenean pertsonatzeko, bai eta hura zuzenean sustatzeko ere, eta hirugarren kaltetun gisa hartuko dira Zigor Kodearen 113. artikulua ondo ondo etarako.

V. KAPITULUA

Aldi baterako ezintasuna

169. artikulua. *Kontzeptua.*

1. Honako hauek hartuko dira aldi baterako ezintasuna berekin dakarten egoeratzat:

a) Gaixotasun arrunt edo profesional bati eta istripuari, lanekoa izan ala ez, zor zaizkionak, langileak Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza jasotzen duen eta lanerako ezinduta dagoen bitartean. Gehieneko iraupena hirurehun eta hirurogeita bost egunekoa izango da, eta beste ehun eta laurogei egunez luzatu ahalko da uste bada egun horietan langileari, sendatu delako, alta medikoa eman dakiokela.

b) Gaixotasun profesionalagatiko behaketa-aldiak, zeinetan preskribatzen baita langilea bajaran egotea, gehienez ere sei hilabetez. Epe hori beste sei hilabetez luzatu ahalko da gaixotasuna aztertzeko eta diagnostikatzeko beharrezkotzat jotzen denean.

2. Aurreko zenbakiko a) letran aipatzen den aldi baterako ezintasunaren gehieneko iraupenaren eta, hala badagokio, luzapenaren ondorio etarako, berrerotze- eta behaketa-aldiak ere zenbatuko dira.

Prozesu berean berrerortzea gertatu dela joko da patologia beragatik edo antzeko batengatik beste baja mediko bat izan duenean aurrekoaren ondorio-dataren osteko ehun eta laurogei egun naturaleko epearen barruan.

170. artikulua. *Aldi baterako ezintasuneko prozesuen gaineko eskumenak.*

1. Aldi baterako ezintasuneko prozesuetako hirurehun eta hirurogeita bost eguneko epea bete arte, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak –entitate horri atxikitako ikuskatzaile medikoen bitartez– Gizarte Segurantzaren Osasun Zerbitzuen Ikuskatzailetzak, edo kasuko osasun-zerbitzu publikoaren organo baliokideak, dauzkan eskumen berak baliatuko ditu, ondorio guztietarako alta medikoa emateko.

Alta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ematen duenean, bera izango da eskudun bakarra, bere ikuskatzaile medikoen bitartez, patologia berak edo antzeko beste

batek sortutako beste baja mediko bat emateko, aipatutako alta medikoa eman eta hurrengo ehun eta laurogei egunetan.

2. Aurreko zenbakian aipatutako hirurehun eta hirurogeita bost eguneko epea agortutakoan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak soilik izango du eskumena – langilearen ezintasun iraunkorra ebaluatzeko, kalifikatzeko eta berrikusteko organo eskudunen bitartez– berriazko luzapena aitortzeko, gehienez ere ehun eta laurogei egun gehiagoz, edota ezintasun iraunkorreko espedientea has dadila erabakitzeko, edota alta medikoa emateko, interesduna sendatu egin delako edo, justifikaziorik gabe, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak deitutako osasun-azterketetara joan ez delako. Era berean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala izango da eskudun bakarra beste baja mediko bat emateko aldi baterako ezintasun-egoeran, patologia beraren edo antzeko beste baten ondorioz gertatzen bada, aipatutako alta medikoa eman eta hurrengo ehun eta laurogei egunetan.

Aurreko lerrokadan adierazitakoaren arabera Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak alta medikoa emateko hartutako erabakiaren aurrean, interesdunak bere desadostasuna adierazi ahalko dio osasun-zerbitzu medikoko ikuskatzailetzari, lau egun naturaleko gehieneko epearen barruan. Ikuskatzailetza hori ados ez badago entitate kudeatzailearen irizpidearekin, sei egun naturaleko gehieneko epean proposatu ahalko dio bere erabakia berrazter dezan, desadostasunaren arrazoiak eta funtsa zehaztuta.

Ikuskatzailetza medikoak entitate kudeatzailearen erabakia berrestearen alde egiten badu, edo ebazpena eman eta hurrengo hamaika egun naturaletan ezer adierazten ez badu, alta medikoak erabateko ondorioak hartuko ditu. Alta medikoaren egunetik hark erabateko ondorioak hartzen dituen egunera iragaten den aldian joko da aldi baterako ezintasuna luzatu egin dela.

Baldin eta aipatutako zazpi egun naturaleko gehieneko epean ikuskatzailetza medikoak adierazten badu ez dagoela ados entitate kudeatzailearen ebazpenarekin, azken horrek berriaz iritzia eman beharko du hurrengo zazpi egun naturaletan, eta interesdunari ebazpena jakinarazi beharko dio; ebazpen hori ikuskatzailetza medikoari ere emango zaio ezagutzera. Baldin eta entitate kudeatzaileak, egindako proposamenari jarraituz, alta medikoa berraztertzen badu, interesdunari aldi baterako ezintasun-egoeraren luzapena aitortuko zaio ondorio guztietarako. Aitzitik, entitate kudeatzaileak bere erabakia berresten badu –eta, horretarako, oinarri hartu dituen proba osagarriak aurkeztuko ditu–, aldi baterako ezintasun-egoera luzatuko da soilik azken ebazpenaren egunera arte.

3. Artikulu honen erregelamendu bidezko garapenean arautuko da nola egingo diren bertan ezarritako komunikazioak, bai eta hartzen diren erabakiak enpresei, haietan eragina dutenean, ezagutarazteko betebeharra ere.

4. Halaber, erregelamendu bidez arautuko da zein administrazio-prozedura erabiliko den Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, interesdunak eskatuta, berrius ditzan aldi baterako ezintasuneko prozesuetan entitate laguntzaileek ematen dituzten altak.

5. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako alta medikoak aurkaratzeko prozesuek Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legeren 71. eta 140. artikuluetan ezarritakoa bete beharko dute.

171. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

Aldi baterako ezintasuna sor dezaketen egoeretako prestazio ekonomikoa oinarri arautzailearen ehuneko hainbeste den subsidio bat izango da. Subsidio hori lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako moduan finkatu eta ordainduko da.

172. artikulua. *Onuradunak.*

Aldi baterako ezintasunagatiko subsidioaren onuradun izango dira Araubide Orokorrean eta 169. artikuluan ezarritako egoeretatik edozeinetan dauden pertsonak, baldin eta, 165.1 artikuluan eskatutako baldintza orokorra betetzeaz gainera, kotizazioko hurrengo gutxieneko aldiak frogatzen badituzte:

- a) Gaixotasun arruntaren kasuan, ehun eta laurogei egun egitate eragilearen aurreaurreko bost urteetan.
- b) Istripuaren kasuan (lanekoa zein lanez kanpokoa) edo gaixotasun profesionalaren kasuan, ez da aurretiko kotizazio-aldirik eskatuko.

173. artikulua. *Subsidiorako eskubidearen sorrera eta iraupena.*

1. Gaixotasun profesionalagatik edo laneko istripuagatik, subsidioa ordainduko da lanean baja sortu eta hurrengo egunetik, eta baja-eguneko soldata osoa enpresaburuak ordaindu behar du.

Gaixotasun arrunta edo lanez kanpoko istripua gertatuz gero, subsidioa laneko bajaren laugarren egunetik aurrera ordainduko da, baina bajaren laugarren egunetik hamabosgarren egunera, biak barne, subsidioa enpresaburuaren kargura izango da.

2. Subsidioa ordainduko da onuraduna aldi baterako ezintasun-egoeran dagoen bitartean, 169. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Grebak eta patronalaren itxierak iraun bitartean, langileak ez du aldi baterako ezintasunagatik ematen den prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik izango.

174. artikulua. *Subsidiorako eskubidea azkentzea.*

1. Subsidiorako eskubidea egoera hauetan azkenduko da: baja medikotik bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko gehieneko epea igaro denean; langileari ohiko lana egitea ahalbidetzen dion sendatze edo hobekuntzagatik alta medikoa jaso duenean; ezintasun iraunkorra deklaratu edo deklaratu gabe langileari alta eman diotenean; erretiro-pentsioa aitortzean; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalako edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutuako sendagileek ezarritako azterketa eta araketa deialdietara justifikatu gabe ez joatean; edo hiltzean.

Subsidioaren iraupena zehazteko orduan, prozesu bereko berrerortze-aldiak hartuko dira kontuan.

Baldin eta, aldi baterako ezintasuneko subsidioaren iraupeneko bostehun eta berrogeita bost egun naturalak igaro aurretik ezintasun iraunkorreko espediente bat hasita, ezintasun iraunkorragatiko prestaziorako eskubidea ukatzen bada, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak baino ez du eskumenik izango patologia beragatik edo antzeko bategatik beste baja mediko bat emateko, ukatzeko ebazpenaren osteko ehun eta laurogei egun naturaleko epearen barruan, langilearen ezintasun iraunkorreko egoera aztertze, kalifikatzeko eta berrikusteko eskudun diren organoen bitartez. Horrelakoetan, aldi baterako ezintasuneko prozesuari berrekingo zaio bostehun eta berrogeita bost eguneko epea bete arte, gehienez.

2. Subsidiorako eskubidea aurreko zenbakian finkatutako bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko aldia amaitu delako azkentzen denean, ezinduaren egoera aztertuko da ezinbestean, gehienez hiru hilabeteko epean, dagokion ezintasun iraunkorreko graduako kalifikazioa jaso dezan.

Nolanahi ere, osatzeko edo langilearen egoera hobetzeko itzaropena dela-eta langileak tratamendua jarraitu beharra duenean, ondoren lanera itzultzeko asmoz, eta horregatik, aipatutako kalifikazioa geroratzea komeni denean, behar den denboran geroratu ahalko da, baina sekula ez da gaudituko zazpiehun eta hogeita hamar egun naturaleko epea (aldi baterako ezintasuneko egunak gehi haren ondorioak luzatzearenak, alegia).

Zenbaki honetan aurreikusitako aldietan –hiru hilabetekoan eta kalifikazioa geroratzekean– ez da kotizatzeke betebeharririk egongo.

3. Bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epea igaro delako aldi baterako ezintasunaren prestaziorako eskubidea azkentzen denean, ezintasun iraunkorra deklaratu edo ez, ehun eta laurogei egun naturaletik gorako aldiaren ondoren baino ezingo da sortu aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikorik patologia beragatik edo antzeko bategatik; epe hori ezintasun iraunkorraren ebazpenetik aurrera zenbatuta.

Eskubide berri hori sortuko da, baldin eta langileak eskatutako betekizunak betetzen baditu medikuaren baja berriaren egunean, gaixotasun arruntak edo profesionalak edo

istripuak, lanekoa izan edo ez, eragindako aldi baterako ezintasuneko subsidioaren onuraduna izateko. Ondorio horietarako, gaixotasun arruntaren ondoriozko aldi baterako ezintasuneko subsidioa eskuratzeko behar den kotizazio-aldia frogatzeko orduan, ezintasun iraunkorraren ebazpenetik aurrera egindako kotizazioak bakarrik hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, nahiz eta patologia bera edo antzekoa izan, eta ezintasun iraunkorretik oraindik ehun eta laurogei egun natural igaro ez direnean, aldi baterako ezintasunaren beste prozesu bati ekin ahalko zaio, behin bakarrik, baldin eta, langilearen ezintasun iraunkorreko egoera ebaluatzeko, kalifikatzeko eta berrikusteko eskudun organoen bitartez, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak uste badu langileak lan-gaitasuna berreskura dezakeela. Hartarako, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak baja xedatuko du aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren ondorio hutsetarako.

4. Prozesuaren hirurehun eta hirurogeita bost egunetara iritsi aurretik ezintasun iraunkorreko proposamena duen alta medikoa emateak aldi baterako ezintasuna azkenduko du.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ezintasun iraunkorreko espediente bat hastea erabakitzen badu hirurehun eta hirurogeita bost eguneko epea amaitu ondoren, aipatutako epe hori betetzeko datan azkenduko da aldi baterako ezintasuneko egoera. Baldin eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, 170.2 artikuluan xedatutako eskumenak erabiliz, aldi baterako ezintasuneko egoera espresuki luzatzea erabakitzen badu, eta horren barruan ezintasun iraunkorreko espediente bat hasten badu, berau hastea erabakitzen duen ebazpenaren datan azkenduko da aldi baterako ezintasuneko egoera.

5. Aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, aldi baterako ezintasunaren ondorio ekonomikoak luzatzeko egoeran egongo da langilea, harik eta ezintasun iraunkorra kalifikatzen den arte, azkentzea honako arrazoi hauek eragiten badute: ezintasun iraunkorreko proposamena duen alta medikoak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ezintasun iraunkorreko espedientea hasteko erabakia hartzeak edo bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epea amaitzeak.

Aurreko lerrokadan aipatutako kasuetan, ezintasun iraunkorreko prestazio ekonomikoaren ondorioak berau aitortzen duen entitate kudeatzailearen ebazpen-datatik aurrera hasiko dira, betiere berau geroagokoa ez bada aldi baterako ezintasunaren ondorioak luzatzeko kontzeptuan langilea jasotzen ari zena baino; horrelakoetan, ondorioak aldi baterako ezintasuna azkendu ondoko egunera eramango dira atzera.

Baldin eta aldi baterako ezintasuna azkentzen bada bere bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epea amaitu aurretik, horren ondoren ezintasun iraunkorreko deklaraziorik egin gabe, langileak kotizatu beharko du oraindik lan-harremana amaitu arte, edo bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epe hori bukatu arte, ondoren egiten bada ezintasun iraunkorrik ez dagoelako deklarazioa.

175. artikulua. *Subsidiorako eskubidea galtzea edo etetea.*

1. Aldi baterako ezintasunagatiko subsidiorako eskubidea ukatu, baliogabetu edo eten egin daiteke:

- a) Baldin eta onuradunak iruzurra egin badu prestazio hori lortu edo iraunarazteko.
- b) Onuradunak bere kontura edo besteren kontura lan egiten badu.

2. Subsidiorako eskubidea eten daiteke, orobat, inongo arrazoirik gabe onuradunak agindu zaion tratamenduari uko egiten badio edo tratamendua uzten badu.

3. Onuraduna ez bada agertzen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuetako sendagileek egindako edozer deialditara, kautelaz etengo da eskubidea, ez-agertze horren zergatia justifikatuta dagoen edo ez dagoen egiaztatzeke. Eskubidea eteteko prozedura eta horren ondorioak erregelamenduz arautuko dira.

176. artikulua. *Behaketa-aldiak eta betebeharrak bereziak gaixotasun profesionalaren kasuan.*

1. 169.1.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, behaketa-aldizat hartuko da gaixotasun profesionalaren azterketa medikoa egiteko behar den denbora, behin betiko diagnostikoa geroratzeko beharra dagoenean.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa ulertuko da ezertan eragotzi gabe Araubide Orokorren edo enpresaburuaren kargura ezarrita dauden edo ezar daitezkeen betebeharrak, gaixotasun profesional baten ondorioz langile baten lanpostua lekualdatzea, enpresan baja ematea edo antzeko beste neurri batzuk erabakitzen direnean.

VI. KAPITULUA

Amatasuna

1. atala. Kasu orokorra

177. artikulua. *Babestutako egoerak.*

Atal honetan ezarritako amatasun-prestazioaren ondorioetarako, babestutako egoerak izango dira amatasuna, adopzioa, adopzio-helburuko zaintza eta familia-harrera –Kode Zibilarekin edo autonomia-erkidegoetan familia-harrera arautu duten lege zibilekin bat etorri– betiere, azken kasu horretan, iraupena urtebetekoa baino laburragoa ez bada, halako egoeren ondorioz izaten diren atsedendiek iraun bitartean, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 48. artikuluko 4., 5. eta 6. zenbakietan eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 49.a) eta b) artikuluetan ezarritakoaren arabera.

178. artikulua. *Onuradunak.*

1. Amatasun-subsidioaren onuradun izango dira Araubide Orokorrean sartutako pertsonak, sexua gorabehera, aurreko artikuluan aipatutako atsedenaldirik dituztenean, betiere, 165.1 artikuluko eskatutako baldintza orokorra eta erregelamendu bidez ezarritako gainerako baldintzak betetzeaz gain, gutxieneko kotizazio-aldi hauek frogatzen badituzte:

a) Langileak hogeita bat urte baino gutxiago baditu erditzea gertatzen denean edo harreraren nahiz adopzio-helburuko zaintzaren erabaki administratiboa ematen den egunean, edo adopzioa eratu duen ebazpen judiziala ematen denean, ez da behar gutxieneko kotizazio-aldirik.

b) Langileak hogeita bat eta hogeita sei urte bitarteko adina badu erditzea gertatzen denean edo harreraren edo adopzio-helburuko zaintzaren erabaki administratiboa zein judiziala hartzen denean, edo adopzioa eratu duen ebazpen judiziala ematen denean, gutxieneko kotizazio-aldia laurogeita hamar egunekoa izan beharko da, atsedenaldirik hasi aurreko zazpi urteetan. Betekizun hori gauzatzat joko da, baldin eta, ordezkoko aukera gisa, langileak frogatzen badu bere lan-bizitzan ehun eta laurogei egun kotizatu dituela, azken data horren aurretik.

c) Langileak hogeita sei urte beteak baditu erditzea gertatzen denean edo harreraren edo adopzio-helburuko zaintzaren erabaki administratiboa zein judiziala hartzen denean, edo adopzioa eratu duen ebazpen judiziala ematen denean, gutxieneko kotizazio-aldia ehun eta laurogei egunekoa izan beharko da, atsedenaldirik hasi aurreko zazpi urteetan. Betekizun hori gauzatzat joko da, baldin eta, ordezkoko aukera gisa, langileak frogatzen badu bere lan-bizitzan hirurehun eta hirurogei egun kotizatu dituela, azken data horren aurretik.

2. Erditzea gertatzen denean, eta ama biologikoari dagokionez bakarrik, aurreko zenbakian aipatutako adina izango da interesdunak duena atsedenaldirik ekiten; erditze-unea hartuko da erreferentziatzat kasu bakoitzean gutxieneko kotizazio-aldia egiaztatzeko.

3. Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 48.5 artikulua bigarren lerrokadan eta Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurrii buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak 49.b) artikulua zazpigarren lerrokadan ezarritako nazioarteko adopzio kasuei dagokienez, 1. zenbakian jasotako adina izango da interesdunek dutena atsedenaldiri ekiteko unean; ebazpenaren data hartuko da erreferentzia gisa, kasu bakoitzean gutxieneko kotizazio-aldia egiaztatzeko.

179. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

1. Amatasunagatiko prestazio ekonomikoa izango da kasuan kasuko oinarri arautzailearen ehuneko 100eko subsidioa. Ondore horietarako, oinarri arautzailea izango da gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestazioarentzat ezarritakoa.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak subsidioa behin-behineko ebazpen batez aitortu ahalko du, sistemako datu-base korporatiboetan gertakari arruntengatiko azken kotizazio-oinarria kontuan hartuta, datu-base horietan amatasun-atsedenaldia edo -baimena hasi aurreko hilabeteari dagokion gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarria.

Geroztik egiaztatzen bada atsedenaldira edo baimena hasi aurreko hilabeteko gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarria behin-behineko ebazpenean erabilitakoaz bestelakoa dela, birkalkulatu egingo da prestazioa eta behin betiko ebazpena emango da. Oinarria aldatu ez bada, behin-behineko ebazpena behin betiko bihurtuko da hura eman eta hiru hilabeteko epean.

180. artikulua. *Amatasun-subsidiorako eskubidea galtzea edo etetea.*

Amatasun-subsidioa ukatu, deuseztatu edo eten ahalko da, onuradunak iruzurrez jardun duenean, prestazio hori lortu edo horri eusteko, bai eta atsedenaldira iraun bitartean beregainen edo inorentzat lan egin duenean ere.

2. atala. Kasu berezia

181. artikulua. *Onuradunak.*

Amatasuna dela-eta atal honetan jasotako subsidioaren onuradun izango dira araubide orokor honetan sartuta dauden emakumeak, baldin eta, erditzea gertatzen denean, aurreko atalean amatasun-prestazioa izateko ezarri diren betekizun guztiak gauzatzen badituzte, 178. artikulua gutxieneko kotizazio-aldiaren inguruan ezarritakoa izan ezik.

182. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

1. Atal honetan araututako amatasunagatiko prestazio ekonomikoa ez-kontributibotzat hartuko da 109. artikulua ondorioetarako.

2. Prestazioaren zenbatekoa izango da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) ehuneko 100, une bakoitzean indarrean den adierazlea aintzat hartuta, salbu eta 179. artikulua edo 248. artikulua arabera kalkulaturako oinarri arautzailea txikiagoa denean; azken kasu horretan oinarri arautzaile hori hartuko da kontuan.

3. Prestazioak berrogeita bi egun natural iraungo du, erditzea gertatzen denetik; eskubide hori ukatu, deuseztatu edo eten ahalko da, 180. artikuluan ezarritako arrazoi berberengatik.

Iraupen hori 14 egun naturalez luzatuko da honako kasu hauetan:

a) Familia ugari batean, edo kasuko jaiotza tarteko izaera hori hartzen duen familia batean, seme-alaba bat jaiotzea, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean xedatuari jarraituz.

b) Guraso bakarreko familia batean seme-alaba bat jaiotzea; guraso bakarreko familiazat hartuko da guraso bakarra eta harekin batera bizi diren seme-alabak, euskarri ekonomiko bakarra guraso hori bada.

c) Erditze anizkoitza, ulertuta halako bat dagoela bi seme-alaba edo gehiago jaiotzen direnean.

d) Amaren edo seme-alabaren desgaitasuna, gutxienez ehuneko 65eko graduan.

Iraupena behin luzatuko da. Ez da egun gehiagorik gehituko aipatutako baldintza horietatik bi edo gehiago gertatzen direla-eta.

VII. KAPITULUA

Aitatasuna

183. artikulua. *Babestutako egoera.*

Aitatasun-prestazioaren ondorioetarako, babestutako egoerak izango dira semea edo alaba jaiotzea, adopzioa, adopzio-helburuko zaintza eta familia-harrera, Kode Zibilarekin edo autonomia-erkidegoetan hori arautzen duten lege zibilekin bat etorritik, betiere azken kasu horretan iraupena urtebetekoa baino laburragoa ez denean, halako egoeren ondorioz izaten ari den etete-aldiak irauten duen bitartean, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginak, 48.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz, edo Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 49.c) artikuluan ezarritakoaren arabera kasu berdinetan izaten ari den baimenak irauten duen bitartean.

184. artikulua. *Onuradunak.*

Aitatasun-subsidioaren onuradun izango dira araubide orokor honetan sartuta dauden pertsonak, aurreko artikuluan aipatutako etete-aldiak dituztenean, betiere, 165.1 artikuluan galdatutako baldintza orokorra betetzeaz gain, frogatzen badute, gutxienez ehun eta laurogei egun kotizatu dituztela, etete hori hasi aurreko zazpi urteetan, edo, ordezkari aukera gisa, hirurehun eta hirurogei egun euren lan-bizitzan zehar, aipatu dataren aurretik, eta erregelamendu bidez ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituztela.

185. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

Aitatasunagatiko prestazio ekonomikoa subsidioa izango da; subsidio hori zehaztuko da 179. artikuluan amatasun-prestazioari begira ezarritakoaren arabera, eta ukatu, deuseztatu edo eten ahalko da amatasun-prestaziorako ezarri arazo berberengatik.

VIII. KAPITULUA

Hurdunaldiko arriskua

186. artikulua. *Babestutako egoera.*

Hurdunaldiko arriskuagatiko prestazio ekonomikoari dagokionez, babestutako egoera izango da lan-kontratuaren etete-aldia, emakume langileak bere lanpostua aldatu behar duenean bere egoerarekin bateragarria den beste lanpostu batengatik, Lan Arriskuaren Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak 26.3 artikuluan ezarritakoaren arabera lanpostu-aldaketa hori teknikoki nahiz objektiboki ezin denean egin, edo justifikatutako arrazoen ondorioz ezin denean gauzatu.

Hurdunaldiko arrisku-egoeraren prestazioa gertakari profesionalen ondoriozko prestaziotzat hartuko da.

187. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

1. Haurdunaldiko arriskuagatiko prestazio ekonomikoa aitortuko zaio emakume langileari, lege honetan gertakari profesionalen ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoari begira ezarritako moduan eta baldintzetan, baina hurrengo zenbakietan ezarritako berezitasunekin.

2. Prestazio ekonomikoa sortuko da lan-kontratua etenda geratzen den egunean, eta amaituko da amatasunaren ondorioz kontratua eten baino egun bat lehenago edo emakume langilea aurreko lanpostuan edo bere egoerarekin bateragarria den beste batean berriro lanean hasten den egunaren bezperan.

3. Prestazio ekonomikoa izango da kasuan kasuko oinarri arautzailearen ehuneko 100eko subsidio bat. Ondore horietarako, oinarri arautzailea izango da gertakari profesionalen ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestazioarentzat ezarritakoa.

4. Entitate kudeatzaileak edo Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutuak kudeatu eta ordainduko du haurdunaldiko arriskuagatiko prestazio ekonomikoa, kontuan hartuta enpresak zein entitaterekin egin duen hitzarmena lanbide-arriskuak estaltzeko.

IX. KAPITULUA

Edoskialdi naturaleko arriskua

188. artikulua. *Babestutako egoera.*

Edoskialdi naturaleko arriskuaren ondoriozko prestazio ekonomikoari dagokionez, babestutako egoera izango da lan-kontratuaren etete-aldia, emakume langileak bere lanpostua aldatu behar duenean bere egoerarekin bateragarria den beste lanpostu batengatik –Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak 26.4 artikuluan ezarritakoaren arabera–, eta lanpostu-aldaketa hori teknikoki nahiz objektiboki ezin denean egin, edo justifikatutako arrazoen ondorioz ezin denean galdatu.

189. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

Edoskialdi naturaleko arriskuaren ondoriozko prestazio ekonomikoa aitortuko zaio emakume langileari, lege honetan haurdunaldiko arriskuagatiko prestazio ekonomikoari begira ezarritako modu eta baldintzetan, eta azkenduko da semeak edo alabak bederatzi hilabete egiten dituen, salbu eta onuraduna lehenago hasi denean berriro lanean, bere lanpostuan edo bere egoerarekin bateragarria den beste batean, eta, kasu horretan, lanean berriro hasi aurreko egunean azkenduko da.

X. KAPITULUA

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea

190. artikulua. *Babestutako egoera.*

Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko prestazio ekonomikoaren ondorioetarako, egoera babestutzat joko da gurasoek, adoptatzaileek, adopzioaren helburua duten zaintzaileek edo familia-harrera iraunkorra egiten dutenek gutxienez ere ehuneko 50eko lanaldi-murrizketa hartzea, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 37.6 artikulua hiru gutarren lerrokadan ezarritakoaren arabera, biek lan egiten dutenean, minbizia (tumore gaiztoak, melanomak eta kartzinomak) edo iraupen luzeko ospitaleratzea eskatzen duen beste edozein gaixotasun larri duten beren ardurapeko adingabeak zuzenean eta modu jarraitu eta iraunkorrean zaintzeko, ospitaleratzearen eta gaixotasunaren aurkako tratamendu jarraituaren aldiak.

Adingabeak minbizia edo beste gaixotasun larriren bat edukitzeari buruzko egiaztagiria, bai eta ospitaleratzearen eta tratamendua hartzearen beharrari buruzkoa eta horrek iraun bitarteko zaintzari buruzkoa ere, aurreko zenbakian aipatutako moduan, osasun-zerbitzu

publikoaren edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren osasun-organo administratiboaren txostenaren bitartez egingo dira.

Erregelamenduz zehaztuko da zein gaixotasun joko diren larrizat, kapitulu honetan ezarritako prestazio ekonomikoa aitortzearen ondorioetarako.

191. artikulua. *Onuradunak.*

1. Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeen zaintzarako prestazio ekonomikorako eskubidea izateko, gutxieneko betekizun batzuk eskatuko dira, VI. kapituluko 1. atalean araututako amatasun-prestaziorako ezarritako modu eta baldintza berdinekin.

2. Bi gurasoek, bi adoptatzaileek, adopzioaren helburua duten bi zaintzaileek edo adingabeak familian modu iraunkorrean hartu dituzten biek onuradun izateko baldintzak betetzen badituzte, prestazioa jasotzeko eskubidea horietako bati bakarrik aitortu ahalko zaio.

3. Kapitulu honetan bildutako aurreikuspenak ez zaizkie funtzionario publikoei aplikatuko; izan ere, azken horiek arau izango dute Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 49.e) artikuluan eta bera garatzeko araudian ezarritakoa.

192. artikulua. *Prestazio ekonomikoa.*

1. Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeagatiko prestazio ekonomikoa gertakari profesionalen ondoriozko aldi baterako ezintasunaren prestaziorako ezarritako oinarri arautzailearen ehuneko 100 den subsidioa izango da, betiere lanaldian duten murrizketaren proportzioan.

2. Prestazio hori azkenduko da, aurretik osasun-zerbitzu publikoak edo kasuko autonomia-erkidegoaren osasun-organo administratiboak txostena emanda, onuradunaren seme-alabaren edo harreraren duen adingabearen edo adopzio-helburuko zaintzan duen adingabearen zuzeneko arreta jarraitu eta iraunkorraren beharra amaitzen denean edo adingabeak 18 urte betetzen dituenean.

3. Prestazio ekonomikoaren kudeaketa eta ordainketa Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutuari edo, kasua bada, enpresak arrisku profesionalen estaldura itundua duen entitate kudeatzaileari egokituko zaie.

XI. KAPITULUA

Ezintasun iraunkor kontributiboa

193. artikulua. *Kontzeptua.*

1. Langilearen egoera hau hartuko da ezintasun iraunkor kontributibotzat: langileak agindutako tratamendua jarraitu ondoren, murrizketa anatomiko edo funtzional larriak erakusten ditu, objektiboki eta ziur aski behin betikoak izan daitezkeenak eta lan-gaitasuna murrizten edo baliogabetzen diotenak. Kalifikazio horretarako ez da traba izango ezinduak lan-gaitasuna berreskuratzeko aukera izatea, baldin eta aukera hori medikoki ziurra ez bada, edo oso epe luzerakoa bada.

Interesduna Gizarte Segurantzara inskribatu zen egunean egondako murrizketa anatomiko edo funtzionalek ez dute ezintasun iraunkorraren kalifikazioa eragotziko kasu hauetan: desgaitasuna duten pertsonak direnean eta, inskribatu ondoren, murrizketa horiek larritu egin direnean eta, berez edo lesio edo patologia berriengatik, interesdunak inskribatzeko unean zeukan lan-gaitasuna murriztu edo ezabatu denean.

2. Ezintasun iraunkorrak aldi baterako ezintasun-egoeraren ondorio izan behar du, aldi baterako ezintasunari dagokion babesik ez duten pertsonen kasuan izan ezik, arrazoia hauetako bat bada: halako babesik jasotzen ez duen eta 166. artikuluan ezarritakoaren arabera altarekin parekatutako egoera batean izatea; besteren konturako langileekin parekatzen diren kasuetan egoera hori bera gertatzen delako, 155.2 artikuluan

ezarritakoaren arabera; edo ezintasun iraunkorra altan egon gabe lortu delako, 195.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

194. artikulua. *Ezintasun iraunkorraren graduak.*

1. Ezintasun iraunkorra, edozein dela ere bera eragiten duen arrazoa, interesdunaren lan-gaitasunaren murrizketa-portzentajearen arabera sailkatuko da. Portzentaje hori honako gradu hauen arabera baloratuko da, erregelamenduz onartzen den gaixotasunen zerrendaren arabera:

- a) Ezintasun iraunkor partziala.
- b) Ezintasun iraunkor osoa.
- c) Ezintasun iraunkor absolutua.
- d) Baliaezintasun handia.

2. Ezintasun iraunkorraren kalifikazioa, dagokion gradukoa, erregelamenduz ezartzen den lan-gaitasunaren murrizketa-portzentajearen arabera ezarriko da.

Ezintasun-gradua finkatzearen ondorioetarako, kontuan hartuko da lan-gaitasunaren murrizketak zenbateko eragina duen interesduna ezintasun iraunkorraren egitate eragilea gertatu baino lehen aritzen zen lanbidean edo hura sailkatuta zegoen lanbide-taldean jarduteko.

3. Gaixotasunen zerrenda, haien balorazioa –lan-gaitasunaren murrizketaren ondorioetarako– eta ezintasun-graduen zehaztapena, bai eta haien arteko bateraezintasun-araubidea ere, erregelamendu bidez garatuko ditu Gobernuak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Kontseilu Nagusiak txostena eman ondoren.

195. artikulua. *Onuradunak.*

1. Ezintasun iraunkorragatiko prestazioetarako eskubidea izango dute egoera horretan deklaritzen diren eta Araubide Orokorrean dauden pertsonak, zeinek, 165.1 artikuluan eskatzen den baldintza orokorra betetzeaz gainera, artikuluan honen 2. eta 3. zenbakietan finkatzen den gutxieneko kotizazio-aldia bete duten, salbu eta hura istripu baten ondoriozkoa, lanekoa izan ala ez, edo gaixotasun profesional baten ondoriozkoa bada; izan ere, kasu horietan ez da eskatuko aurrez inongo kotizazio-aldirik edukitzea.

Ez da gertakari arruntan ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko prestazioetarako eskubidea aitortuko onuradunak, egitate eragilearen datan, 205.1.a) artikuluan ezarritako adina duenean eta Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro-pentsioa lortzeko betekizunak betetzen dituztenean.

2. Ezintasun iraunkor partzialaren kasuan, eskatzekoa izango den gutxieneko kotizazio-aldia mila eta zortziehun egunekoa izango da; egun horiek ezintasun iraunkorra ekarri duen aldi baterako ezintasuna azkendu deneko egunaren aurreko hamar urteetakoak izan beharko dute.

Gobernuak, errege-dekretu bidez, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak proposatuta, aipatutako prestaziorako zenbaki honetan eskatzen den kotizazio-aldia aldatu ahalko du.

3. Ezintasun iraunkorragatiko pensioen kasuan, honako hau izango da eskatuko den gutxieneko kotizazio-aldia:

a) Subjektu kausatzaileak hogeita hamaika urte baino gutxiago baditu, hemezortzi urte bete zituen egunetik pensioaren egitate eragilea gertatu arte iragan den denboraren herena.

a) Subjektu kausatzaileak hogeita hamaika urte beteak baditu, hogeita urte bete zituen egunetik pensioaren egitate eragilea gertatu arte iragan den denboraren laurdena; nolana ere, gutxieneko aldia bost urtekoa izango da. Kasu horretan, eskatzekoa den kotizazio-aldiaren bostenak, gutxienez ere, egitate eragilearen aurreko hamar urteetakoak izan beharko du.

Ezintasun iraunkorragatiko pentsiora alta-egoera batetik edo altarekin parekatutako egoera batetik iritsiz gero, kotizatzeke betebeharrik izan gabe, hamar urteko aldia, zeinean sartu behar baita gutxienez ere eskatzekoa den kotizazio-aldiaren bosten bat, atzera kontatuko da, kotizatzeke betebeharra amaitu zen egunetik hasita.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren kasuetan, eta pentsioaren oinarri arautzailea finkatzeari dagokionez, 197. artikulua 1. 2. eta 4. zenbakietan xedatutakoa aplikatuko da, hurrenez hurren.

4. 1. zenbakian ezarritakoa gorabehera, ezintasun iraunkorragatiko pentsioak, gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren graduetan, sortu ahalko dira egitate eragilea gertatu den unean interesdunak altan edo altarekin parekatutako egoeran ez badaude ere.

Kasu horietan, eskatzekoa den gutxieneko kotizazio-aldia, nolahi ere, hamabost urtekoa izango da, aldi hori 3.b) zenbakiaren azken tartekian aurreikusitako moduan banatuta.

5. Aurreko zenbakian aipatzen diren kasuetan Araubide Orokorrean eta Gizarte Segurantzaren sistemako beste araubideren batean pentsioa sortzeko, beharrezkoa da araubideetako bakoitzean frogatu diren kotizazioak gutxienez hamabost urtean gainezartzea.

196. artikulua. *Prestazio ekonomikoak.*

1. Ezintasun iraunkor partzialari dagokion prestazio ekonomikoa oroharreko kopuru bat izango da.

2. Ezintasun iraunkor osoari dagokion prestazio ekonomikoa biziarteko pentsio bat izango da, eta pentsio hori, kasu berezietan, oroharreko kalte-ordain batez ordeztu ahalko da, onuradunak hirurogei urte baino gutxiago baldin baditu.

Ezintasun iraunkor osoaren deklarazioa dutenek aurreko lerrokadan ezarritako pentsioa jasoko dute, erregelamenduz ezartzen den portzentajea gehituta, baldin eta duten adinarengatik, prestakuntza orokor edo espezializaturik ez izateagatik eta bizilekuarekin lotutako inguruabar sozial eta lanekoengatik uste baldin bada zailtasuna izango dutela aurreko ohiko jardueraz bestelako batean enplegua lortzeko.

Gaixotasun arrunten ondoriozko ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioaren zenbatekoa ezingo da izan une bakoitzean indarrean den hemezortzi urtetik gorakoentzako gutxieneko kotizazio-oinarria baino ehuneko 55 baino gutxiago, urteko kopuruan.

3. Ezintasun iraunkor absolutuari dagokion prestazio ekonomikoa biziarteko pentsio bat izango da.

4. Baldin eta langilea baliaezintasun handikotzat kalifikatzen bada, biziarteko pentsio baterako eskubidea izango du, aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera, eta haren zenbatekoa osagarri batekin handituko da, baliaezintasuna duenak bera artatzen duen pertsonari ordaindu ahal diezaion. Osagarri horren zenbatekoa izango da egitate eragilearen unean indarrean zen gutxieneko kotizazio-oinarriari ehuneko 45 gehitzearen emaitza, gehi langilearen azken kotizazio-oinarriaren ehuneko 30, ezintasun iraunkorreko egoera eragin duen gertakariari dagokiona. Aipatutako osagarria ezingo da inoiz ere izan langileak, osagarria kenduta, jasotako pentsioaren ehuneko 45 baino txikiagoa.

5. Langileak, hirurogeita zazpi urte edo gehiagorekin, gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioa lortzen duenean (erretiro-pentsiorako eskubidea onartzeko betekizunak betetzen ez dituelako), ezintasun iraunkorragatiko pentsioaren zenbatekoa izango da kasuko oinarri arautzaileari une bakoitzean erretiro-pentsioa eskuratzeko ezarritako dagoen gutxieneko kotizazio-aldiari dagokion portzentajea aplikatzearen emaitza. Ezintasun iraunkorra gaixotasun arrunt baten ondorio denean, oinarri arautzailetzat hartuko da soilik 197. artikulua 1. zenbakiaren a) letran ezarritakoa aplikatzearen emaitza.

6. Artikulu honek aipatzen dituen prestazioak lege hau garatzeko arauetan zehazten diren zenbatekoan eta baldintzetan ordainduko dira.

197. artikulua. *Gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen oinarri arautzailea.*

1. Gaixotasun arrunt baten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen oinarri arautzailea finkatzeko, honako arau hauei jarraituko zaie:

a) Zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 96 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 112.

Oinarri horien zenbaketa erregela hauen arabera egingo da; horien amaieran ageri den formula da horien adierazpen matematikoa:

1.a Egitate eragilearen aurreko hogeita lau hilei dagozkien oinarriak beren balio nominalen zenbatuko dira.

2.a Gainerako kotizazio-oinarriak eguneratu egingo dira, dagozkien hiletatik hasi eta aurreko erregelari aipatzen den oinarri ez-eguneragarrien aldia hasten den hilaren aurrekora bitartean kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaeraren arabera.

$$B_r = \frac{\sum_{i=1}^{24} B_i + \sum_{i=25}^{96} B_i \frac{I_{25}}{I_i}}{112}$$

Non:

B_r = oinarri arautzailea.

B_i = egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko i. hilaren kotizazio-oinarria.

I_i = egitate eragilearen aurreko hilaren i. hilaren kontsumoko prezioen indize orokorra.

$i = 1, 2, \dots, 96.$

b) Aurreko arauari jarraituz lortutako emaitzari kotizazio-urteen arabera dagokion ehunekoa aplikatuko zaio, 210.1 artikuluan adierazitako eskalaren arabera; ondorio horietarako, kotizatutzat joko dira interesdunari, egitate eragilearen unean, une bakoitzean indarrean den erretiro-adinera iristeko gelditzen zaizkion urteak. Interesduna ez bada hamabost urtez kotizatzerira iritsi, ehuneko 50 aplikatuko zaio.

Ateratzen den zenbatekoa hartuko da pentsio-oinarritzat, eta aitorturiko ezintasun-graduarentzat ezarrita dagoen ehunekoa aplikatuko zaio pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko.

2. Zortzi urtetik beherako gutxieneko kotizazio-aldia eskatzen den kasuetan, oinarri arautzailea aurreko zenbakian ezarritakoaren antzeko modu batean kalkulatu da, baina hileko kotizazio-oinarrien kopurutzat hartuko da eskatzekoa den gutxieneko aldiko hilabete kopurua, hil-zatiak kontatu gabe eta, nolahi ere, egitate eragilea gertatu den hilabetearen aurrekoa baino lehenagoko hogeita lau hilabetei dagozkien oinarriak eguneratu gabe.

3. 195.4 artikuluan aipatutako lanez kanpoko istripuaren ondoriozko ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioei dagokienez, haien oinarri arautzailea kalkulatzeko, artikulua honen 1.a) zenbakian ezarritako arauak aplikatuko dira.

4. Oinarria kalkulatzeko aintzat hartu beharreko aldiak kotizatzeke betebeharririk gabeko hilabeteak badaude, lehenengo berrogeita zortzi hiletako ordainketak une bakoitzean dauden oinarrietatik txikienarekin osatuko dira, eta gainerako hiletako ordainketak, berriz, aipaturiko gutxieneko oinarriaren ehuneko 50ekin.

Oinarria kalkulatzeko aintzat hartu beharreko hilabeteren batean parte baterako bakarrik baldin badago kotizatzeke betebeharra, aurreko lerrokadan aipatutako irizpideari jarraituko zaio kotizatzeke betebeharririk ez den hilabete-parteari dagokionez; betiere, lehenbiziko aldiari dagokion kotizazio-oinarria ez bada adierazitako hileko gutxieneko

oinarriaren zenbatekora iristen. Kasu horretan, txertatzeak azkeneko zenbatekoari ere eragingo dio.

198. artikulua. *Ezintasun iraunkorragatiko prestazio ekonomikoak jasotzearekin bateragarri direnak.*

1. Ezintasun iraunkor osoko kasuan, biziarteko pentsioa bateragarria izango da langileak enpresa berean edo beste batzuetan jaso dezakeen soldatarekin, baldin eta betetzen dituen eginkizunak bat ez badatoz ezintasun iraunkor osoa eragin zutenekin.

Era berean, 196.2 artikuluko bigarren lerrokadan ezarritako gehikuntza jasotzea eta norberaren edo besteren konturako lanak egitea bateraezina direla ezarri ahalko da, lan horiek Gizarte Segurantzaren sistemako aplikazio-eremuak sartutakoak badira.

2. Ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren kasuko biziarteko pentsioek ez dute galaraziko ezinduak bere egoerarekin bateratu ditzakeen beste jarduera batzuetan aritzea, irabazizkoak nahiz irabazi-asmorik gabekoak izan, ez badiote bere langaitasunari aldaketarik sortzen azterketari dagokionez.

3. Ezintasun iraunkor absolutuagatiko eta baliaezintasun handiagatiko pentsioa jasotzea, erretiro-pentsioa eskuratzeko adinetik aurrera, bateraezina izango da pentsiodunak bere kontura edo besteren kontura lan bat egitearekin, baldin eta horrek berekin badakar Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean sartzea, 213.1 artikuluan modalitate kontributiboko erretiro-pentsiorako araututako modu eta baldintza berdinetan.

199. artikulua. *Gaixotasun profesionalen ondoriozko ezintasun iraunkorrari buruzko arau berezia.*

Gaixotasun profesionaleri dagokienez, lege hau garatzeko xedapenek kapitulu honetako arauak egokituko dizute gertakari horren berezitasun eta ezaugarri berezien arabera.

200. artikulua. *Kalifikazioa eta berrikuspena.*

1. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari dagokio, erregelamenduz ezartzen diren organo guztien bitartez eta prozedurako fase guztietan, ezintasun iraunkorraren egoera deklaratzeko, kapitulu honek aipatzen dituen prestazio ekonomikoak aitortzearen ondorioetarako.

2. Edozein gradutako ezintasun iraunkorragatiko prestazioetarako eskubidea aitortzen duten ebazpen guztietan (hasierakoa edo berrikuspenekoa), edo lehenago aitortutako gradua berresten dutenetan, nahitaez adieraziko da zein egunetik aurrera eska daitekeen lanbiderako ezgaitzen duen egoera larritu edo hobetu izanagatiko berrikuspena (betiere onuradunak erretiro-pentsioa hartzeko eskubiderako 205.1.a) artikuluan ezarritako gutxieneko adina bete ez badu). Epe hori loteslea izango da berrikuspena susta dezaketen subjektu guztientzat.

Aurrekoa gorabehera, ezintasun iraunkorragatiko pentsioduna edozein lan egiten ari baldin bada, bere kontura nahiz besteren kontura, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, ofizios nahiz interesdunak eskatuta, berrikuspena sustatu ahalko du, ebazpenean zehaztutako epea igaro den ala ez kontuan hartu gabe.

Diagnostiko okerrean oinarritutako berrikuspenak edozein unetan egin ahalko dira, interesdunak zenbaki honetako lehen lerrokadan aipatzen den adina bete ez badu.

3. Lege hau garatzen duten xedapenek berrikuspen-prozedura eta langileari aitortutako prestazio ekonomikoen aldaketa eta eraldaketa arautuko dituzte, bai eta aldaketa horien ondorioz entitate kudeatzaile edo laguntzaileei eta prestazio horiek beren kargura dituzten zerbitzu erkideei dagozkien aldaketen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak ere.

Lanbiderako ezintasun-egoeran hobera egitearen ondorioz egindako berrikuspenak direla-eta, bidezko denean partzialki edo guztiz itzultzea Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek edo horren diru-sarreraren erantzule deklaraturako

enpresek eratu duten kostu-kapitaletatik kontsumitu gabeko zatia, diru-sarrera hori ez da bidegabeko diru-sarreratzat hartuko, lege honen 26. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. zenbakietan aurreikusitakoaren ondorioetarako; hori, halere, ez da eragozpena izango Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 24. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko.

4. Ezintasun iraunkorratikoko pentsioei, haien onuradunak hirurogeita zazpi urte betetzen dituztenean, erretiro-pentsio deituko zaie. Izendapen berri horrek ez du inongo aldaketarik ekarriko, ordura arte jasotako prestazioaren baldintzei dagokienez.

XII. KAPITULUA

Ezintasunik sortzen ez duten lesio iraunkorrak

201. artikulua. *Baremoaren arabera kalte-ordainak.*

Laneko istripuek edo gaixotasun profesionalek eragindako behin betiko lesio, mutilazio edo deformazioen kasuan, aurreko kapituluaren ezarritakoaren arabera ezintasun iraunkorra izatera iritsi ez arren langilearen osotasun fisikoa gutxitzen edo aldatzen badute eta lege hau garatzeko xedapenei erantsitako baremoan jasota badaude, ezintasun iraunkorratikoko prestazioak ordaintzera behartuta dagoen entitateak kalte-ordaina emango die, aldi bakar batean, baremo horretan finkatutako oroharreko zenbatekoan; hori guztia, halere, ez da eragozpen izango langileak enpresaren zerbitzuan jarraitzeko duen eskubiderako.

202. artikulua. *Onuradunak.*

Aurreko artikuluan aipatzen diren kalte-ordainen onuradun izango dira Araubide Orokor honetan sartuta dauden langileak, baldin eta 165.1 artikuluan eskatutako baldintza orokorra biltzen badute eta alta medikoa eman bazaie.

203. artikulua. *Ezintasun iraunkorratikoko prestazioekin bateraezin direnak.*

Kapitulu honetan araututako lesio, mutilazio eta deformazioengatik bidezkoak diren oroharreko kalte-ordainak ezin bateratuko dira ezintasun iraunkorretarako ezarritako prestazio ekonomikoekin, salbu eta lesio, mutilazio eta deformazio horiek inolako loturarik ez dutenean ezintasun iraunkorra eta haren gradua deklaratzeko kontuan hartu diren gertaerekin.

XIII. KAPITULUA

Erretiroa, modalitate kontributiboan

204. artikulua. *Kontzeptua.*

Erretiroa dela-eta ezarritako prestazio ekonomikoa, modalitate kontributiboan, bakarra izango da onuradunarentzat, eta biziarteko pentsio bat izango da, zeina erregelamenduz ezarritako baldintzetan, zenbatekoan eta moduan aitortuko baitzaio, ezarritako adinera iritsita onuradunak besteren konturako lana uzten duenean edo utzi duenean.

205. artikulua. *Onuradunak.*

1. Kapitulu honetan araututako erretiro-pentsiorako eskubidea izango dute Araubide Orokorrean bildutako pertsonak, baldin eta 165.1 artikuluan jasotako baldintza orokorraz gain, honako baldintza hauek ere betetzen badituzte:

a) Hirurogeita zazpi urte beteta izatea, edo hirurogeita bost urte beteta izatea hogeita hemezortzi urte eta sei hilabete kotizatu direla frogatzen denean, kontuan hartu gabe aparteko ordainsariei dagokien zati proportzionala.

Kotizazio-aldiak zenbatzeko, urte eta hilabete osoak hartuko dira bakarrik; haien zatiak ez dira aldi osoekin parekatuko.

b) Hamabost urteko gutxieneko kotizazio-aldia beteta izatea; horietatik, gutxienez ere bi urtek eskubidea sortu aurreko hamabost urteetakoak izan beharko dute. Kotizatutako urteak zenbatzearen ondorioetarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainsariei dagokien zati proportzionala.

Erretiro-pentsiora alta-egoera batetik edo altarekin parekatutako egoera batetik iritsiz gero, kotizatzeke betebeharririk izan gabe, aurreko lerrokadan aipatzen den bi urteko aldiak kotizatzeke betebeharra amaitu zen egunaren aurreko hamabost urteen barruan egon beharko du.

Aurreko lerrokadan aipatzen diren kasuetan, eta pentsioaren oinarri arautzailea finkatzeari dagokionez, 209.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

2. Halaber, erretiro-pentsiorako eskubidea izango dute aldi baterako ezintasunaren ondorio ekonomikoak luzatzearen egoeran suertatu eta 1. zenbakian aipatzen diren baldintzak betetzen dituztenek.

3. 1. zenbakiko lehen lerrokadan xedatutakoa gorabehera, erretiro-pentsioa sortu ahalko da, interesdunak egitate eragilearen unean altan edo altarekin parekatutako egoeran ez badaude ere, aipatutako 1. zenbakian jasotako adin- eta kotizazio-betekizunak betetzen diren guztietan.

Aurreko lerrokadan ezarritako kasuan, Araubide Orokorrean eta Gizarte Segurantzaren sistemako beste araubide batean edo batzuetan pentsioa sortzeko, beharrezkoa izango da horietako bakoitzean frogatutako kotizazioak gutxienez ere hamabost urtez elkarrekin gainezartzea.

206. artikulua. *Jardueraren ondoriozko edo desgaitasun kasuko erretiro aurreratua.*

1. 205.1.a) artikuluan aipatzen den erretiro-pentsioa eskuratzeko gutxieneko adina errege-dekretu bidez beheratu ahalko da, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak proposatuta, bereziki gogor, toxiko, arriskutsu edo osasungaitzak diren lanei dagozkien lanbide-taldeetan edo -jardueretan, baldin eta haietan gaixotasun- edo heriotza-indize handiak badaude, betiere ukitutako langileek frogatzen dutenean dagozkien lanbidean edo lanean aritu direla ezartzen den jarduera-denboran.

Ondorio horietarako, erregelamenduz ezarriko da erretiro-adina beheratzeko bete beharreko prozedura orokorra, zeinean sartuko baita aurrez azterlanak egitea sektoreko istripu-tasei buruz eta lan-baldintzen gogortasunari, arriskugarritasunari eta toxikotasunari buruz, langileen lanerako ezintasuneko prozesuetan daukaten eraginari buruz eta jarduera garatzeko eskatzen diren beharkizun fisikoei buruz.

Erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak ezartzea bidezkoa izango da soilik lan-baldintzak aldatzeko aukerarik ez dagoenean, eta berekin ekarriko du kotizazioan behar diren doikuntzak egitea oreka finantzarioa bermatzeko.

2. Era berean, 205.1.a) artikuluan aipatzen den erretiro-pentsioa eskuratzeko gutxieneko adina beheratu ahalko da gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua duten pertsonen kasuan, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren titularrak proposatuta adostutako errege-dekretuan jasotako moduan, edo gutxienez ehuneko 45eko desgaitasun-gradua dagoenean, baldin eta, azkeneko kasu horretan, erregelamenduz zehaztutako desgaitasunak badira eta ebidentzia batzuk badaude erakusten dutenak desgaitasun horiek bizi-itxaropena modu orokorrean eta nabarmenean murrizten dutela.

3. Adinaren koefiziente murriztaileak aplikatzeak inolaz ere ez du berekin ekarriko interesdunak erretiro-pentsioa eskuratu ahal izatea berrogeita hamabi urte baino gutxiagorekin.

Erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak ez dira inoiz ere kontuan hartuko erretiro partziala, 210.2 artikuluan ezarritako onurak eta erretiro aurreratuko beste edozein modalitate eskuratzeko eskatzen den adina egiaztatzearen ondorioetarako.

207. artikulua. *Langileari egoztekoa ez zaion arrazoi batengatiko erretiro aurreratua.*

1. Langilearen borondate askeari egotzi ezin zaion kausa batengatik lana uztearen ondoriozko erretiro aurreratua eskuratzeak honako betekizun hauek betetzea eskatzen du:

a) 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera kasuan-kasuan aplikatu beharreko adina baino gehienez lau urte gutxiago beteta izatea; horretarako ez dira aplikatuko aurreko artikuluan aipatutako koefiziente murriztaileak.

b) Enpleguko bulegoetan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea gutxienez erretiroa eskatu den eguna baino sei hilabete lehenagotik.

c) Gutxienez 33 urtez benetan kotizatu izana frogatzea; ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainketengatik zati proportzionala. Horren ondorio hutsetarako, nahitaezko soldadutzaren edo ordezkotzaren aldian bakarrik zenbatuko da, gehienez urtebete.

d) Lan-harremanarekin jarraitzea eragozten duen enpresa-berregituraketaren ondorioz uztea lana. Horretarako, lan-kontratua azkentzeko kausa hauek emango dute erretiro aurreratuaren modalitate horretarako eskubidea:

1.a Kaleratze kolektiboa, ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko kausengatik, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikuluari jarraituz.

2.a Kaleratze objektiboa, ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko kausengatik, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 52.c) artikuluari jarraituz.

3.a Kontratua azkentzea ebazpen judizialaren bidez, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen 64. artikuluari jarraituz.

4.a Enpresaburu indibidualaren heriotza, erretiroa edo ezintasuna, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, edo kontratatzailearen nortasun juridikoa azkentzea.

5.a Lan-kontratua ezinbesteko kausa batek eraginda azkentzea, kausa hori Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51.7 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatuta badu lan-agintaritzak.

Erretiro aurreratuaren modalitate hori eskuratzeko, 1. eta 2. kausetan jasotako kasuetan, langileak frogatu beharko du lan-kontratua azkentzearen ondorioz dagokion kalte-ordaina jaso duela edo kalte-ordain hori erreklamatzeko nahiz azkentze-erabakiaren aurka egiteko demanda judiziala jarria duela.

Kalte-ordaina jaso duela frogatzeko, jasotako banku-transferentziaren dokumentua edo egiaztagiriko baliokideak aurkeztuko ditu langileak.

Emakume bati genero-indarkeriaren biktima izateagatik lan-harremana azkentzen bazaio, emakume horrek modalitate honetan erretiro aurreratua hartzeko eskubidea izango du.

2. Artikulu honetan aipatutako erretiro aurreratua hartzen denean, pentsioa murriztu egingo da; hala, murrizketa hori kalkulatzeko, 205.1.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuz kasuan-kasuan ateratzen den erretirorako legezko adina betetzeko, egitate eragilearen unean langileari geratzen zaion hiruhileko edo hiruhileko-zati bakoitzeko honako koefiziente hauek aplikatuko dira frogatutako kotizazio-aldiaren arabera:

1.a Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 1,875eko koefizientea, hogeita hemezortzi urte eta sei hilabete baino kotizazio-aldi txikiagoa frogatzen denean.

2.a Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 1,750eko koefizientea, gutxienez hogeita hemezortzi urte eta sei hilabeteko eta gehienez berrogeita bat urte eta sei hilabeteko kotizazio-aldia frogatzen denean.

3.a Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 1,625eko koefizientea, gutxienez berrogeita bat urte eta sei hilabeteko eta gehienez berrogeita lau urte eta sei hilabeteko kotizazio-aldia frogatzen denean.

4.a Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 1,500eko koefizientea, gutxienez berrogeita lau urte eta sei hilabeteko kotizazio-aldia frogatzen denean.

Erretiroa hartzeko legezko adin hori zehazteko ondorio hutsetarako, halakotzat hartuko da langileari legokiokeena baldin eta egitate eragilearen datatik hasi eta 205.1.a) artikuluan ezarritakoa dela-eta kasuan-kasuan aplikatu beharreko erretirorako legezko adina bete arteko aldian kotizatu izan balu.

Kotizazio-aldiak zenbatzeko garaian aldi osoak hartuko dira bakarrik; aldi baten zatiak ez dira aldi osoekin parekatuko.

208. artikulua. *Erretiro aurreratua, interesdunaren borondatez.*

1. Interesdunak erretiro aurreratua bere borondatez eskuratzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera kasuan-kasuan aplikatu beharreko adina baino gehienez bi urte gutxiago beteta izatea; ondorio horietarako, ez dira aplikatuko 206. artikuluan aipatutako koefiziente murriztaileak.

b) Gutxienez hogeita hamabost urtez benetan kotizatu izana frogatzea; ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainketengatiko zati proportzionala. Horren ondorio hutsetarako, nahitaezko soldadutzaren edo ordezeko gizarte-zerbitzuaren aldia bakarrik zenbatuko da, gehienez urtebete.

c) Erretiro modalitate horren betekizun orokorrak eta espezifikoak frogatuta, hirurogeita bost urte betetzean familia-egoeragatik interesdunari legokiokeen gutxieneko pentsioaren zenbatekoa baino handiagoa izango da eskuratu beharreko pentsioaren zenbatekoa. Hala gertatu ezean, ez da erretiro aurreratuko formula hori erabiltzerik izango.

2. Artikulu honetan aipatutako erretiro aurreratua hartzen denean, pentsioa murriztu egingo da; hala, murrizketa hori kalkulatzeko, 205.1.a) artikuluan ezarritakoa aplikatuzetik kasuan-kasuan ateratzen den erretirorako legezko adina betetzeko, egitate eragilearen unean langileari geratzen zaion hiruhileko edo hiruhileko-zati bakoitzeko honako koefiziente hauek aplikatuko dira frogatutako kotizazio-aldiaren arabera:

a) Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 2ko koefizientea, hogeita hemezortzi urte eta sei hilabete baino kotizazio-aldi txikiagoa frogatzen denean.

b) Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 1,875eko koefizientea, gutxienez hogeita hemezortzi urte eta sei hilabeteko eta gehienez berrogeita bat urte eta sei hilabeteko kotizazio-aldia frogatzen denean.

c) Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 1,750eko koefizientea, gutxienez berrogeita bat urte eta sei hilabeteko eta gehienez berrogeita lau urte eta sei hilabeteko kotizazio-aldia frogatzen denean.

d) Hiruhileko bakoitzeko ehuneko 1,625eko koefizientea, gutxienez berrogeita lau urte eta sei hilabeteko kotizazio-aldia frogatzen denean.

Erretiroa hartzeko legezko adin hori zehazteko ondorio hutsetarako, halakotzat hartuko da langileari legokiokeena baldin eta egitate eragilearen datatik hasi eta 205.1.a) artikuluan ezarritakoa dela-eta kasuan-kasuan aplikatu beharreko erretirorako legezko adina bete arteko aldian kotizatu izan balu.

Kotizazio-aldiak zenbatzeko garaian aldi osoak hartuko dira bakarrik; aldi baten zatiak ez dira aldi osoekin parekatuko.

209. artikulua. *Erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea.*

1. Erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilabetearen aurreko hirurehun hilabetean interesdunak izandako kotizazio-oinarriak zati hirurehun eta berrogeita hamar; betiere, honako hau hartu beharko da kontuan:

a) Aipatutako kotizazio-oinarrien zenbaketa erregela hauen arabera egingo da, eta letra honen amaieran ageri den formula da horien adierazpen matematikoa:

1.a Egitate eragilearen aurreko hogeita lau hilei dagozkien oinarriak beren balio nominalen zenbatuko dira.

2.a Gainerako oinarriak eguneratu egingo dira, dagozkien hiletik hasi eta aurreko erregelari aipatzen den aldia hasten den hilaren aurrekora bitartean kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaeraren arabera.

$$B_r = \frac{\sum_{i=1}^{24} B_i + \sum_{i=25}^{300} B_i \frac{I_{25}}{I_i}}{350}$$

Non:

B_r = oinarri arautzailea.

B_i = egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko i . hilaren kotizazio-oinarria.

I_i = egitate eragilearen aurreko hilaren i . hilaren kontsumoko prezioen indize orokorra.

$i = 1, 2, \dots, 300$

b) Oinarria kalkulatzeari begira aintzat hartu beharreko aldiak kotizatzeko betebeharrak gabeko hilabeteak badaude, lehenengo berrogeita zortzi hileko ordainketak une bakoitzean dauden oinarri guztietan txikienarekin txertatuko dira, eta gainerako hileko ordainketak, berriz, aipaturiko gutxieneko oinarriaren ehuneko 50ekin.

Oinarria kalkulatzeko aintzat hartu beharreko hilabeteren batean parte baterako bakarrik baldin badago kotizatzeko betebeharra, aurreko lerrokadan aipatutako irizpideari jarraituko zaio kotizatzeko betebeharrak ez den hilabete-parteari dagokionez; betiere, lehenbiziko aldiari dagokion kotizazio-oinarria ez bada adierazitako hileko gutxieneko oinarriaren zenbatekora iristen. Kasu horretan, txertatzeak azkeneko zenbatekoari ere eragingo dio.

2. 161.2 artikuluan erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea finkatzeko ezarritakoa gorabehera, azken bi urteetan izandako kotizazio-oinarrien gehikuntzak ezingo dira zenbatu, aplikatu behar den hitzarmen kolektiboan zehazten den edo kasuan kasuko sektorean gertatu den urte batetik besterako soldaten batez besteko hazkundera baino hazkunde handiagoaren ondorio badira.

3. Aurreko zenbakian ezarritako arau orokorretik salbuesten dira antzinatasunari eta lanbide-kategoriaren erregelamenduzko igorei buruzko legezko xedapenetan eta hitzarmen kolektiboetan jasotako arauen aplikazio zorrotzaren ondorio diren soldata-igoerak.

Halaber, salbuetsi egingo dira, aurreko lerrokadan ezarritako moduan, oro har ezarritako eta legezko xedapenetan edo hitzarmen kolektiboetan araututako beste edozein ordainsari-kontzeptutatik eratorritako soldata-igoerak.

Hala eta guztiz ere, aipatutako arau orokorra aplikatu egingo da atal honetan aipatzen diren soldata-igoerak gertatzen direnean soilik enpresaren alde bakarreko erabakiaren ondorioz, dauzkan antolaketa-ahalmenen indarrez.

4. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, inoiz ere ez dira zenbatuko 2. zenbakian ezarritako mugatik gorakoak diren soldata-igoerak, baldin eta eskusiboki edo funtsean hitzartu badira erretirotik hurbil dagoen adin jakin bat betetzearen arabera.

5. Enplegu-aniztasuneko egoeretan erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzearen ondorioetarako, enpresa guztiei kotizatzeko aplikatu diren oinarriak zenbatuko dira, baina oinarri horien baturak ezingo du gainditu une bakoitzean indarrean den gehieneko kotizazio-muga.

210. artikulua. *Pentsioaren zenbatekoa.*

1. Erretiro-pentsioaren zenbatekoa oinarri arautzaileari –aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatua– honako portzentaje hauek aplikatuta zehaztuko da:

- a) Kotizatutako lehenengo hamabost urteengatik, ehuneko 50.
- b) Hamaseigarren urtetik aurrera, kotizatutako hilabete gehigarri bakoitzagatik, batetik berrehun eta berrogeita zortzi bitarteko hilabeteak kontuan hartuta, ehuneko 0,19 gehituko da, eta berrehun eta berrogeita zortzigarren hilabetea gainditzen duen hilabete bakoitzeko, ehuneko 0,18 gehituko da. Oinarri arautzaileari aplikagarria zaion portzentajeak ez du ehuneko 100a gaindituko, hurrengo zenbakiak adierazten duen kasuan izan ezik.

Ezarritako zenbatekoari une bakoitzean dagokion jasangarritasun-faktorea aplikatuko zaio, hurrengo artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Erretiro-pentsioa eskuratzen bada 205.1.a) artikuluan ezarritakoa kasu bakoitzean aplikatzearen ondorioz ateratzen denetik gorakoa den adin batean, adin hori betetzean 205.1.b) artikuluan ezarritako gutxieneko kotizazio-aldia lortu bada, interesdunari portzentaje gehigarri bat aitortuko zaio adin hori bete zuen egunetik pentsioaren egitate eragilea gertatu zen egunera arte kotizatutako urte oso bakoitzeko. Horren zenbatekoa, adierazitako lehen datara arte egiaztatutako kotizazio-urteen arabera izango da, betiere honako eskala honi jarraituz:

- a) Kotizatutako hogeita bost urtera arte, ehuneko 2.
- b) Kotizatutako hogeita bost eta hogeita hamazazpi urtera arte, ehuneko 2,75.
- c) Kotizatutako hogeita hamazazpi urtetik aurrera, ehuneko 4.

1. zenbakian ezarritakoaren arabera interesdunari modu orokorrean dagokion portzentajeari aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera lortutako portzentaje gehigarri gehituko zaio, eta hortik ateratzen den portzentajea oinarri arautzaileari aplikatuko zaio pentsioaren zenbatekoa zehazteko, eta horrek ezingo du gainditu, inola ere, 57. artikuluan ezarritako muga.

Portzentaje gehigarri aplikatu gabe edo bakarrik zati batean aplikatuta, aitortutako pentsioaren zenbatekoa aipatutako mugara iristen bada, interesdunak urtero diru kopuru bat ere jasotzeko eskubidea izango du. Zenbat den jakiteko, une bakoitzean indarrean den muga horren zenbatekoari portzentaje osagarria aplikatuko zaio, hau da, pentsioaren zenbatekoa zehazteko –goitik hurbilen den unitatera biribilduta– erabili ez den portzentaje osagarria, hain zuzen ere. Kopuru hori amaitutako hilabete bakoitzeko ordainduko da, hamalau ordainsaritan, eta horien zenbatekoaren gehi interesdunak aitortuta izan ditzakeen pentsio edo pentsioen baturak, urteko konputuan, ezingo du gainditu une bakoitzean indarrean den kotizazio-oinarriaren gehieneko muga, hori ere urteko konputuan.

Zenbaki honetan ezarritako onura ez da aplikatuko erretiro partzialaren kasuetan, ez eta 213.1 artikuluan bigarren lerrokadan aipatzen den erretiro malguaren kasuan ere.

3. Erretiro-pentsio baten zenbatekoa zehazteko adinagatik koefiziente murriztaileak aplikatu beharko balira egitate eragilearen unean, kotizazio-hilabeteengatik egokia den ehunekoa arautzen duen oinarriari aplikatzen zaionean ateratzen den pentsioaren zenbatekoaren gainean aplikatuko dira haiek. Koefiziente murriztaile horiek aplikatuta lortzen den pentsioaren zenbatekoa ez da handiagoa izango pentsioaren gehieneko muga aurrerapeneko hiruhileko edo hiruhileko-zati bakoitzeko ehuneko 0,50 murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa baino.

4. Aurreko zenbakiak aipatzen duen ehuneko 0,50eko koefizientea ez zaie aplikatuko erretiro aurreratuen kasuei, 206. artikuluan ezarritakoaren arabera, bereziki gogor, toxiko, arriskutsu edo osasungaitzak diren lanei dagozkien lanbide-taldeen edo -jardueren kasuei edo desgaitasuna duten pertsonen kasuei.

211. artikulua. *Erretiro-pentsioaren jasangarritasun-faktorea.*

1. Jasangarritasun-faktorea Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro-pentsioen zenbatekoa pentsiodunen bizi-itxaropenaren bilakaeraren arabera automatikoki kalkulatzeko tresna da. 4. zenbakian ezarritako formularen bitartez egingo da hori, eta egoera antzekoetan baina erretiroa denbora-une ezberdinetan hartzen dutenen zenbatekoa doituko da.

2. Jasangarritasun-faktorea behin bakarrik aplikatuko da erretiro-pentsioen hasierako zenbatekoa zehazteko.

3. Jasangarritasun-faktorea kalkulatzeko, honako elementu hauek hartuko dira kontuan:

a) Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro-pentsiodunen heriotza-etaulak, Gizarte Segurantzaren Administrazioak berak egindakoak.

b) Hirurogeita zazpi urteko adina hartuko da erreferentzia modura.

4. Jasangarritasun-faktorearen formulazio matematikoa hau da:

$$FS_t = FS_{t-1} * e_{67}^*$$

Non:

FS = jasangarritasun-faktorea.

$FS_{2018} = 1$.

t = faktorea aplikatzen den urtea, 2019tik aurrerako balioak hartuko ditu.

e_{67}^* = bost urtean behin kalkulatzeko den balio honek hirurogeita zazpi urte izatean dagoen bizi-itxaropenaren urtetik urterako aldakuntza irudikatzen du, bost urtean behin. Berau kalkulatzeko, Gizarte Segurantzaren sistemaren erretiro-pentsiodunen heriotza-etaulak hartuko dira kontuan.

e_{67}^* elementua kalkulatzeko formula honako hau izango da bost urteko aldi bakoitzean:

2019tik 2023ra bitartean, biak barne, jasangarritasun-faktorea kalkulatzeko, e_{67-k}^* balio hau hartuko du:

$$\left[\frac{e_{67}^{2012}}{e_{67}^{2017}} \right]^{\frac{1}{5}},$$

non zenbakitzailea 2012an hirurogeita zazpi urterekin zegoen bizi-itxaropena izango den eta izendatzailea 2017an hirurogeita zazpi urterekin izango den bizi-itxaropena.

2024tik 2028ra bitartean, biak barne, jasangarritasun-faktorea kalkulatzeko, e_{67-k}^* balio hau hartuko du:

$$\left[\frac{e_{67}^{2017}}{e_{67}^{2022}} \right]^{\frac{1}{5}},$$

non zenbakitzailea 2017an hirurogeita zazpi urterekin egongo den bizi-itxaropena izango den eta izendatzailea, berriz, 2022an hirurogeita zazpi urterekin izango den bizi-itxaropena.

Eta horrela gainerakoak.

Jasangarritasun-faktorea aplikatzeko, lehenengo lau hamartarrak erabiliko dira.

5. Bost urtean behin, bizi-itxaropenaren urtetik urterako aldakuntza berrikusiko da, jasangarritasun-faktorearen balioa kalkulatzeko kontuan har dadin.

6. Jasangarritasun-faktorea aplikatuko da ezertan eragotzi gabe interesdunak gutxienez osagarriak jasotzeko izan lezakeen eskubidea, kasuan kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean horri buruz ezarritakoaren arabera.

7. Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzak Independentek bere iritzia igorriko du, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzak Independentek Eratzeko azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren 23. artikulua xedatutakoaren arabera. Iritzi hori Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak jasangarritasun-faktorea ezartzeko kalkulaturako balioei buruzkoa izango da.

8. Jasangarritasun-faktorea erabateko gardentasunez aplikatuko da; horretarako, bizi-itxaropenaren jarraipen sistematikoa argitaratuko da. Era berean, hasierako pentsioa aitortzerakoan, pentsiodunari azalduko zaio jasangarritasun-faktoreak horren kalkuluan duen eragina.

212. artikulua. *Preskribaezintasuna.*

Erretiro-pentsioa aitortzeko eskubidea preskribaezina da; halere, alta-egoerako erretiro kasuetan, aitorten horrek eskaera aurkezten den data baino hiru hilabete lehenagotik izango ditu ondorioak.

213. artikulua. *Bateraezintasunak.*

1. Erretiro-pentsioaz gozatzea bateraezina izango da pentsiodunak lana egitearekin, legez edo erregelamenduz zehazten diren salbuespenekin eta moduan.

Aurrekoa gorabehera, erretiroa hartzen duten pertsonen bateragarri egin ahalko dute pentsioa jasotzea eta lanaldi partzialeko lan bat egitea, erregelamenduz ezartzen den moduan. Egoera horrek irauten duen bitartean, pentsioa murriztuko da pentsiodunaren lanaldiari, parekagarria den lanaldi osoko langile batenarekin alderatuta, aplikagarri zaion murrizketarekin alderantzizko proportzioan.

2. Administrazio Publikoetako Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 1.1 artikulua bigarren lerrokadan mugaturako sektore publikoko lanpostu bat betetzea eta modalitate kontributiboko erretiro-pentsio bat jasotzea bateraezina izango dira.

Lanpostu horretan aritzen den denbora guztian eten egingo da aipaturako pentsioa, baina haren errebalorizazioa galarazi gabe.

Zenbaki honetan aipatzen den bateraezintasuna ez zaie aplikatuko 137.c) artikuluan aipatzen diren unibertsitateko irakasle emerituei, ez eta osasun-arloko langile lizentziadun emerituei ere.

3. Erretiro-pentsioa, modalitate kontributiboan, jasotzea ez da bateragarria izango, ezta ere, Estatuko Administrazio Orokorreko Goi Karguan Aritzea Arautzen duen maiatzaren 30eko 3/2015 Legearen 1. artikuluan aipatzen diren goi-karguak betetzearekin.

4. Erretiro-pentsioa jasotzea bateragarria izango da norberaren konturako lanak egitearekin, baldin eta horien urteko guztizko diru-sarrerek ez badute gaintzen lanbide arteko gutxieneko soldata, urteko konputuan. Jarduera ekonomiko horiek egiten dituztenek ez dute Gizarte Segurantzaren prestazioengatik kotizatzeke betebeharra izango.

Aurreko lerrokadan zehazturako jarduerak, zeinengatik ez baita kotizatzen, ez dute eskubide berririk sortuko Gizarte Segurantzaren prestazioak direla-eta.

214. artikulua. *Erretiro-pentsioa eta zahartze aktiboa.*

1. 213. artikuluan xedaturakoa ezertan eragotzi gabe, erretiro-pentsioa –modalitate kontributiboan– jasotzearekin batera, besteren konturako edo norberaren konturako edozer lan egin ahalko du pentsiodunak, betiere honako hauei jarraituz:

a) Pentsioa eskuratzeko, aurretik kasuan-kasuan aplikagarria den adina beteta izan beharko da, 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, horretarako, ez da onartuko interesdunari aplikatu ahal zaizkion hobariei edo erretiro-adinaren aurrerapenei atxikitako erretirorik.

b) Eragindako pentsioaren zenbatekoa zehazteko oinarri arautzaileari aplikatu beharreko portzentajea ehuneko 100era iritsi behar da.

c) Lan bateragarria lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa izango da.

2. Lanarekin bateragarria den erretiro-pentsioaren zenbatekoa hasierako onarpenean ateratako zenbatekoaren ehuneko 50 izango da, egoki bada pentsio publikoaren gehieneko muga aplikatu ondoren, edo lanarekiko bateragarritasuna hasten denean jasotzen ari denarena, gutxienez osagarria, edozelan ere, kontuan hartu gabe, pentsiodunak egiten duen lanaldia edo jarduera edozein dela ere.

Pentsio osoaren balioa errebalorizatuko da Gizarte Segurantzaren sistemaren pentsioetarako ezarritako moduan. Nolanahi ere, lan bateragarriarekin jarraitzen den bitartean, pentsioaren zenbatekoa, metatutako errebalorizazioak gehituta, ehuneko 50 murriztuko da.

3. Gutxienezko pentsioa baino txikiagoetarako osagarriak jasotzeko eskubiderik ez du izango pentsiodunak pentsioa eta lana bateratzen dituen aldian.

4. Onuraduna pentsioduntzat hartuko da ondorio guztietarako.

5. Besteren konturako lan-harremana bukatu edo norberaren konturako jarduera utzi ondoren, osorik eskuratuko da berriro erretiro-pentsioa.

6. Enpresek, baldin eta zerbitzuen prestazioa eta erretiro-pentsioa artikuluan honetan xedatutakoaren arabera bateragarri egiten badituzte, ez dute kontratuak bidegabe azkentzeko erabakirik hartu behar izan bateragarritasun horren aurreko sei hilabeteetan. Mugak eragina izango du soilik azkentzeak ukitutako lanbide-talde bereko lanpostuak betetzeari begira.

Pentsioaren eta lanaren arteko bateragarritasuna hasitakoan, horren aurretik bertan zuen enplegu mailari eutsi beharko dio enpresak erretiro-pentsiodunaren lan-kontratuak iraun bitartean. Horretarako, bateragarritasunaren aurretiko laurogeita hamar eguneko aldian enpresan alta emanda dauden langileen eguneko batezbestekoa hartuko da erreferentzia gisa, honela kalkulaturik: hasi aurretiko laurogeita hamar egunetan enpresan alta emanda zeuden langileen batura zati laurogeita hamar egitean ateratzen den zatidura gisa.

Lanpostua atxikitzeko aipatutako betebeharrak ez dira urratuko lan-kontratu arrazoio objektiboengatik edo diziplinazko kaleratzeengatik azkendu denean, eta bata zein bestea bidezko aitortzen direnean, edota langileak dimisioa aurkeztean, hiltzean, erretiroa hartzean edo ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia izatean, hitzartutako epea amaitzean, edota kontratuaren xede den obra edo zerbitzua burutzean.

7. Artikulu honetan araututakoa aplikatuko da ezertan eragotzi gabe legez edo erregelamenduz ezarritako pentsioaren eta lanaren arteko beste edozein bateragarritasun modalitatetarako aurreikusitako araubide juridikoa.

Artikulu honetan ezarritakoak ez dira aplikatuko Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 1.1 artikuluan bigarren lerrokadan mugatutako sektore publikoko lanpostu edo goi-kargu bat betetzen bada; halako lanpostuak betetzea eta erretiro-pentsio bat jasotzea bateraezinak izango dira.

215. artikulua. *Erretiro partziala.*

1. 205.1.a) artikuluan aipatutako adina beteak duten eta erretiro-pentsiorako eskubidea eskuratzeko betekizunak betetzen dituzten langileek, betiere haien lanaldia ehuneko 25 gutxienez eta ehuneko 50 gehienez murrizten badute, erretiro partziala hartu ahalko dute aldi berean txanda-kontratu bat egin beharrik gabe. Adierazitako ehuneko horiek parekarria den lanaldi osoko langile baten lanaldiari dagozkio.

2. Halaber, baldin eta aldi berean txanda-kontratu bat egiten bada Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 12.7 artikuluan aurreikusitako moduan, lanaldi osoko langileek erretiro partziala hartu ahalko dute betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Egitate eragilearen datan hirurogeita bost urte beteak izatea, edo hirurogeita hiru urte, hogeita hamahiru urtez eta sei hilabetez kotizatu dela egiaztatzen denean; ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko interesdunari aplikatzekoak izan daitezkeen hobariak edo erretiro-adinaren aurreratzeak.

b) Enpresan gutxienez sei urteko antzintasuna frogatzea erretiro partzialeko dataren aurretik. Horretarako, aurreko enpresan –baldin eta enpresa-oinordetza gertatu bada Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan xedatutako moduan– edo talde bereko enpresetan frogatutako antzintasuna zenbatuko da.

c) Lanaldiaren murrizketa gutxienez ehuneko 25ekoa eta gehienez ehuneko 50ekoa izatea, edo ehuneko 75ekoa txanda hartzen duen langileari lanaldi osoko kontratua egiten badiote kontratu mugagabe batekin, betiere gainerako betekizunak frogatzen badira. Adierazitako ehuneko horiek parekagarria den lanaldi osoko langile baten lanaldiari dagozkio.

d) Hogeita hamahiru urteko kotizazio-aldia frogatzea erretiro partzialaren egitate eragilearen egunean, horretarako, aparteko ordainketengatik egokia den zati proportzionala kontuan hartu gabe. Horren ondorio hutsetarako, nahitaezko soldadutzaren edo ordezeko gizarte-zerbitzuaren aldia bakarrik zenbatuko da, gehienez urtebete.

Gutxienez ehuneko 33ko desgaitasun-gradua duten pertsoneri dagokienez, hogeita bost urtekoa izango da eskatutako kotizazio-aldia.

e) Txanda hartzen duen langilearen eta erretiro partziala hartzen duenaren kotizazio-oinarriak bat etortzea; hala, txanda hartzen duen langileari dagokiona ez da txikiagoa izango erretiro partzialeko pentsioa arautzen duen oinarri-aldiaren azken sei hilabetei dagozkien kotizazio-oinarrien batezbestekoaren ehuneko 65 baino.

f) Erretiro partzial baten ondorioz egiten diren txanda-kontratuek, gutxienez, ordeztutako langileari 205.1 a) artikuluan aipatutako erretiro-adinera iristeko geratzen zaion denbora iraungo dute.

Txanda-kontratua mugagabea eta lanaldi osokoa denean –c) letrak aipatutako kasuetan, alegia–, ordeztutako langileari 205.1.a) artikuluan aipatutako erretiro-adinera iristeko geratzen zaion denborari bi urte gehituta ateratzen den denbora iraungo du kontratuak gutxienez. Kontratua adierazitako gutxienera iritsi aurretik azkentzen bada, enpresaburuak beste kontratu bat egin beharko du azkendutakoaren baldintza berekin, geratzen den denbora iraungo duena. Enpresaburuak artikuluan honetan txanda-kontratuaren arloan ezarritako baldintzak bete ezean, berak itzuli beharko du pentsiodunak denbora partzian jaso duen pentsioa.

g) Erretiro partziala jasotzen den aldian, c) letrak aipatutako lanaldiaren murrizketari kalte egin gabe, langileak lanaldi osoan jarraitu izan balu legokiokkeen kotizazio-oinarriatik kotizatuko dute enpresak eta langileak.

3. Bi kasu horietan, erretiro partzialeko pentsioa eskuratzea bateragarria izango da lanaldi partzialeko lanpostu batekin.

4. Erretiro partzialaren araubide juridikoa, aurreko zenbakietan aipatzen dena, erregelamenduz ezartzen dena izango da.

5. Kooperatibetako langile-bazkideek edo lan-bazkideek artikuluan honetan araututako erretiro partziala hartu ahalko dute, 14. artikuluan xedatutako moduan besteren konturako langileekin parekatuta baitaude, baldin eta lanaldia eta eskubide ekonomikoak murrizten badituzte Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 12.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eta artikuluan honen 2. zenbakian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, betiere kooperatibak iraupen mugatuko bazkide batekin edo langabe batekin hitzartzen duenean, langile-bazkide edo lan-bazkide gisa, erretiro partziala hartzen duen bazkideak bete gabe utzitako lanaldia egitea, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 12.7 artikuluan txanda-kontratua bat egiteko ezarritako baldintza berekin eta artikuluan honetan aurreikusitakoaren arabera.

XIV. KAPITULUA

Heriotza eta biziraupena216. artikulua. *Prestazioak.*

1. Heriotza kasuan, arrazoia edozein dela ere, eskatzekoak diren betekizunak betetzen direnean, honako prestazio hauetako bat edo batzuk aitortuko dira, kasuan-kasuan:

- a) Heriotza-sorospena.
- b) Biziarteko alarguntasun-pentsioa.
- c) Aldi baterako alarguntasun-prestazioa.
- d) Zurztasun-pentsioa.
- e) Biziarteko pensioa, edo, hala badagokio, familiartekoen aldeko aldi baterako subsidioa.

2. Laneko istripuz edo gaixotasun profesionalaz hilez gero, oroharreko kalte-ordaina ere aitortuko da.

217. artikulua. *Subjektu kausatzaileak.*

1. Honako hauek sortu ahalko dute aurreko artikuluan zerrendatutako prestazioetarako eskubidea:

- a) Araubide Orokorrean egonik, 165.1 artikuluan eskatzen den baldintza orokorra betetzen duten pertsonak.
- b) Aldi baterako ezintasunaren, haurdunaldiko arriskuaren, amatasunaren, aitatasunaren edo edoskialdi naturaleko arriskuaren ziozko subsidioak jasotzen dituztenek, baldin eta kasu bakoitzean ezarritako kotizazio-aldia betetzen badute.
- c) Erretiroko eta ezintasun iraunkorreko pensio kontributiboen titularrak.

2. Laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondorioz hildakotzat hartuko dira, zuzenbidean, gertakari horiek direla-eta ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handiaren izaera aitortuta dutenak.

Aurreko lerrokadan aipatutako kasua ematen ez bada, frogatu egin beharko da heriotza laneko istripuaren edo gaixotasun profesionalaren ondorioz gertatu dela. Laneko istripuaren kasuan, froga hori onartuko da soilik heriotza istripua gertatu den egunetik hurrengo bost urteetan gertatzen bada. Gaixotasun profesionalaren kasuan, froga hori onartu egingo da, edozein dela ere iragan den denbora.

3. Istripu baten ondorioz, lanekoa izan ala ez izan, desagertu diren langileen kasuan, halako inguruabarretan desagertu ere non hil egin direla pentsa baitaiteke, baldin eta haien berri izan ez bada istripuaren biharamunetik laurogeita hamar egunetan zehar, heriotza eta biziraupenagatiko prestazioak sortu ahalko dira, heriotza-sorospena izan ezik. Prestazioek istripuaren datatik aurrera izango dituzte ondorio ekonomikoak, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan.

218. artikulua. *Heriotza-sorospena.*

Kausatzailea hilez gero, hileta-gastuak egin dituenak eskubidea izango du gastu horiei aurre egiteko heriotza-sorospena berehala jasotzeko. Kontrako frogarik ez badago, joko da gastuak honako hauek ordaindu dituztela, aipatzen den hurrenkeran: bizirik dirauen ezkontideak, izatezko bikote batetik bizirik dirauenak –221. artikuluan araututakoaren arabera–, hildakoarekin bizi ohi ziren seme-alabek eta ahaideek.

219. artikulua. *Bizirik dagoen ezkontidearen alarguntasun-pentsioa.*

1. Alarguntasun-pentsiorako eskubidea izango du, biziarteko izaeraz, salbu eta legez edo erregelamenduz eskubide hori azkentzeko ezarritako arrazoietakoa bat gertatzen bada, 217.1 artikuluan aipatzen den pertsonetako baten bizirik dirauen ezkontideak; horretarako, subjektu kausatzaileak, hil zen egunean, altan edo altarekin parekatutako egoeran egon behar zuen, eta bostehun eguneko kotizazio-aldia betea izan, pentsioaren egitate eragilearen egunaren aurreko bost urteetan. Erretiro-pentsioa alta-egoera baten edo altarekin parekatutako egoera baten ondorioz sortuz gero, kotizatzeko betebeharririk izan gabe, bostehun eguneko kotizazio-aldiak kotizatzeko betebeharra amaitu zen dataren aurreko bost urteen barruan egon beharko du. Nolanahi ere, heriotzaren arrazoa istripu bat (lanekoa zein lanez kanpokoa) edo gaixotasun profesional bat izan bada, ez da aurretiko kotizazio-aldirik eskatuko.

Halaber, bizirik geratu den ezkontideak alarguntasun-pentsiorako eskubidea izango du nahiz eta kausatzailea, heriotzaren datan, altan edo altarekin parekatutako egoeran ez egon, baldin eta kausatzaile horrek gutxienez ere hamabost urteko kotizazio-aldia osatu baldin badu.

2. Kausatzailearen heriotza gaixotasun arrunt baten ondorio den kasu berezietan, zeinetan gaixotasun hori ez den gertatu ezkontza-lotura eta gero, eskatuko da, gainera, ezkontza egin izana gutxienez ere heriotzaren data baino urtebete lehenago, edo, bestela, ezkontideek elkarrekin seme-alabak izatea. Ezkontza-loturaren iraupen hori ez da eskatuko ezkontza egiteko egunean egiaztatzen bada bizirik geratu den ezkontidea kausatzailearekin aldi batez bizi izan dela, 221.2 artikuluan ezarritako moduan, eta aldi hori eta ezkontuta bizi izandako aldia batuta, bi urteko aldia gainditzen bada.

220. artikulua. *Alarguntasun-pentsioa, banantzea, dibortzioa edo ezkontza-deuseztasuna dagoen kasuetan.*

1. Banantze- edo dibortzio-kasuetan, alarguntasun-pentsioa jasotzeko eskubidea izango du 219. artikuluan kasu bakoitzerako eskatutako betekizunak betetzen dituen ezkontide legitimoak edo ezkontide legitimo izan denak; betiere, azken kasu horretan, bizirik geratu den ezkontidea berriro ezkondu ez bada edo izatezko bikotea osatu ez badu, hurrengo artikuluan adierazitako moduan.

Orobat, judizialki dibortziazatutako edo banandutako pertsonak Kode Zibilaren 97. artikuluan aipatutako konpentsazio-pentsioaren jasotzaile ere izan beharko dira, eta kausatzailea hil ondoren azkenduko da hori. Alarguntasun-pentsioaren zenbatekoa konpentsazio-pentsioari dagokiona baino handiagoa bada, hura gutxituko da azken horren zenbatekora iritsi arte.

Dena den, alarguntasun-pentsiorako eskubidea izango dute, konpentsazio-pentsioaren jasotzaile izan ez arren, banantze judizialaren edo epai irmo bidezko dibortzioaren unean edota erantzukizun penala heriotzagatik azkendu delako auzia artxibatzen denean genero-indarkeriaren biktima zirela egiazta dezaketen emakumeek; epairik ezean, haien alde emandako babes-aginduaren bidez edo genero-indarkeriaren biktima izatearen zantzuak daudela adierazten duen Fiskaltzaren txostenaren bidez, bai eta Zuzenbidean onartzen den beste edozein frogabideren bidez ere.

2. Baldin eta, dibortzioa egon denean, pentsiorako eskubidea duten hainbat onuradun aldi berean badaude, pentsioaren zenbatekoa haietako bakoitza kausatzailearekin bizi izan den denboraren araberako proportzioan aitortuko da; nolahi ere, ehuneko 40 bermatuko da bizirik dirauen ezkontidearen alde edo, hala behar denean, ezkontidea ez bada ere, hiltzeko unean kausatzailearekin bizi zenaren alde, betiere alarguntasun-pentsioaren onuraduna bada hurrengo artikuluan aipatutako moduan.

3. Ezkontza-deuseztasuna dagoenean, alarguntasun-pentsiorako eskubidea izango du Kode Zibilaren 98. artikulua aipatzen duen kalte-ordainerako eskubidea aitortu zaion bizirauleak, baldin eta berriz ezkondu ez bada edo izatezko bikotea osatu ez badu, hurrengo artikuluan ezarritako moduan. Pentsio hori kausatzailearekin bizi izandako denboraren araberako zenbateko proportzionalan aitortuko da, ezertan eragotzi gabe

aurreko zenbakian onuradun bat baino gehiago dagoenerako aurreikusitakoa aplikatuta egon daitezkeen mugak.

221. artikulua. *Izatezko bikoteen alarguntasun-pentsioa.*

1. 219. artikuluan ezarritako alta- eta kotizazio-betekizunak betez gero, alarguntasun-pentsiorako eskubidea izango du, halaber, heriotzaren unean kausatzailearekin lotuta dagoenak, izatezko bikote bat osatuz, baldin eta frogatzen badu aurreko urte naturalean izan dituen diru-sarrerak ez direla iritsi bere diru-sarreraren eta aldi horretan bertan kausatzaileak izandako diru-sarreraren baturaren ehuneko 50era. Portzentaje hori ehuneko 25ekoa izango da elkarrekin izandako seme-alabak badaude, zurtzasun-pentsioa jasotzeko eskubidea dutenak.

Halere, alarguntasun-pentsioa jasotzeko eskubidea aitortuko da, orobat, bizirik geratu denaren diru-sarrerak txikiagoak badira egitate eragilearen unean indarrean den lanbide arteko gutxieneko soldata 1,5 bider baino. Aurreko betekizun hori bete beharko da bai prestazioaren egitate eragilea gertatzen den unean, bai hura jasotzen den bitartean ere. Aipatutako muga indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa halako 0,5 handituko da, bizirik gelditu den ezkontidearekin bizi den seme-alaba bakoitzeko, hau da, elkarrekin izandako eta zurtzasun-pentsioa jasotzeko eskubidea duen seme-alaba bakoitzeko.

Laneko eta kapitaleko etekinak eta ondare izaerako etekinak diru-sarreratzat hartuko dira, 59. artikuluan ezarritako pentsioen gutxienerako osagarriak aitortzeko zenbatzen diren moduan.

2. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, izatezko bikotetzat hartuko da ezkontzakoaren antzeko afektu-harremanean eratutakoa, hura eratzen dutenek, ezkondu ezinik ez dutelarik, ez badute beste inorekin ezkontza-loturarik eta errolda-agiri egokiaren bidez frogatzen badute bizikidetzaren egonkor eta agerikoa zutela kausatzailea hil aurreko bost urteko epe batean, gutxienez, etenik gabe.

Izatezko bikotea osatu izana egiaztatzeko, bikoteak bizilekua duen tokiko autonomia-erkidegoan edo udalean hartarako berariaz den erregistroren batean inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, edota bikotea eratu izana jasotzen duen dokumentu publiko bat. Bai aipatutako inskripzioa, bai kasuko dokumentu publikoa kausatzailearen heriotzaren eguna baino bi urte lehenagotik eginak izan beharko dira, gutxienez.

222. artikulua. *Aldi baterako alarguntasun-prestazioa.*

Bizirik geratu den ezkontideak ezin duenean alarguntasun-pentsiorako eskubidea eskuratu, ezin duelako frogatu kausatzailearekin urtebetez ezkondata egon dela edo, bestela, ez duelako elkarrekin seme-alabarik izan, baldin eta 219. artikuluan aipatutako gainerako betekizunak betetzen baditu, aldi baterako prestaziorako eskubidea izango du bi urtez, legokiokeen alarguntasun-pentsioaren zenbateko berekoa.

223. artikulua. *Alarguntasun-prestazioen bateragarritasuna eta azkentzea.*

1. Alarguntasun-pentsioa bateragarria izango da edozein lan-errentarekin, 221. artikuluan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe.

Alarguntasun-pentsioa, 219.1 artikuluaaren bigarren lerrokadako moduan sortua, bateraezina izango da beste alarguntasun-pentsio bat aitortzearekin, Gizarte Segurantzako edozein araubidetan, salbu eta araubideetako bakoitzean egiaztatutako kotizazioak gainezartzen badira gutxienez ere hamabost urtez.

2. Alarguntasun-pentsiorako eskubidea, kasu guztietan, azkendu egingo da onuraduna ezkontzen denean edo izatezko bikote bat osatzen duenean 221. artikuluan araututako moduan; hori, halere, ez da eragozpena izango erregelamendu bidez ezarritako salbuespenetarako.

3. Artikulu honetan ezarritakoa aldi baterako alarguntasun-prestaziorari aplikatuko zaio.

224. artikulua. *Zurztasun-pentsioa.*

1. Zurztasun-pentsioa jasotzeko eskubidea izango dute, berdintasunean, kausatzailearen seme-alaba guztiek, seme-alabatasunaren izaera edozein dela ere, baldin eta kausatzailea hiltzen denean hogeita bat urte baino gutxiago badituzte edo lanerako ezinduta badaude, eta kausatzailea altan edo altarekin parekatutako egoeran baldin bazegoen edo pentsioduna bazen 217.1.c) artikuluan ezarritako moduan.

Zurztasun-pentsioei aplikatzekoa izango zaie, halaber, 219.1 artikuluaaren bigarren lerrokadan ezarritakoa.

2. Zurztasun-pentsioaren onuradun izan ahalko da, baldin eta kausatzailearen heriotzaren egunean hogeita bost urte baino gutxiago baldin baditu, besteren kontura edo bere kontura irabazizko lanik egiten ez duen kausatzailearen seme-alaba, edo, lan hori eginda ere, hartatik lortzen dituen diru-sarrerak, urteko konputuan, txikiagoak badira lanbide arteko gutxieneko soldatarako indarrean den zenbatekoa baino, orduan ere urteko konputuan.

Umezurtza ikasketak egiten ari bada eta ikasturtean zehar hogeita bost urte betetzen baditu, zurztasun-pentsioa jasotzen jarraituko du hurrengo ikasturtea hasi ondorengo hilaren lehenengo egunera arte.

3. Zurztasun-pentsioa onuradunak bere ardurapean dituenari ordainduko zaio, erregelamenduz ezartzen denari jarraituz.

225. artikulua. *Zurztasun-pentsioaren bateragarritasuna.*

1. Aurreko artikuluaaren 2. zenbakian ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, zurztasun-pentsioa bateragarria izango da kausatzailearen ezkontide denaren edo izan denaren, edo umezurtzaren beraren, edozein lan-errentarekin, bai eta, kasua bada, hark jasotzen duen alarguntasun-pentsioarekin ere.

Zurztasun-pentsioei aplikatzekoa izango zaie alarguntasun-pentsioak direla-eta 223.1 artikuluaaren bigarren lerrokadan ezarritakoa.

2. Lanerako ezinduta dauden eta zurztasun-pentsioa jasotzeko eskubidea duten umezurtzek, ezintasun bera dela-eta Gizarte Segurantzaren beste pentsio bat jasotzen dutenean, bataren zein bestearen alde egin ahalko dute. Umezurtza lanerako ezgaituztat deklaratu denean hemezortzi urte bete baino lehenago, jasotzen zuen zurztasun-pentsioa bateragarria izango da hemezortzi urte bete ondoren sor dezakeen ezintasun iraunkorragatiko pentsioarekin –baldin eta zurztasun-pentsioa sortzea eragin zutenez bestelako lesio batzuen ondoriozkoa bada–, edo, kasua bada, bere kontura nahiz besteren kontura egiten duen lanarengatik sor dezakeen erretiro-pentsioarekin.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira onuradun berengan aitak eta amak sortutako zurztasun-pentsioak biltzearen eraginak.

226. artikulua. *Familiartekoen aldeko prestazioak.*

1. Lege hau garatzeko arauak zehaztuko dute zein beste familiartekok edo parekatuk izango duen kausatzailea hiltzearen ondoriozko pentsiorako edo subsidiarako eskubidea –bakoitzerako finkatzen den zenbatekoaren arabera–; horretarako, haietako bakoitzarentzat ezartzen diren baldintzak bete behar dituzte eta kausatzailearekiko duten mendekotasun ekonomikoa frogatu.

Familiartekoen aldeko prestazioei aplikatzekoa izango zaie 219.1 artikuluaaren bigarren lerrokadan ezarritakoa.

2. Nolanahi ere, pentsiorako eskubidea aitortuko zaie erretiroko eta ezintasun iraunkorreko pentsio kontributiboen onuradunen seme-alabei edo anai-arrebei, baldin eta, erregelamenduz ezartzen den moduan, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Kausatzailearekin eta haren ardurapean bizi izatea.
- b) Berrogeita bost urtetik gorakoak izatea, eta ezkongabeak, dibortziatuak edo alargunak.
- c) Denbora luzean kausatzailea zaindu duela egiaztatzea.

d) Bizitzeko baliabide berekirik ez izatea.

3. Heriotza eta biziraupenagatiko aldi baterako subsidioen iraupena lege hau garatzeko arauetan zehaztuko da.

4. Prestazio hauen ondorioetarako, legez bananduta daudenek, beren aurrekoei edo ondorengoei dagokienez, beren ezkontza deseginda egotekotan izango lituzketen eskubide berak izango dituzte.

5. Familiartekoen aldeko pentsioei aplikatzekoa izango zaie alarguntasun-pentsioak direla-eta 223.1 artikulua berridazten lehen aldian ezarritakoa.

227. artikulua. *Oroharreko kalte-ordain berezia.*

1. Heriotza laneko istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz gertatzen bada, bizirik gelditu den ezkontideak edo izatezko bikotetik bizirik gelditu den kideak –221. artikuluan araututakoaren arabera–, eta umezurtzek eskubidea izango dute oroharreko kalte-ordaina hartzeko; kalte-ordain horren zenbateko uniformea lege hau garatzeko arauetan zehaztuko da.

Banantze-, dibortzio- edo deuseztasun-kasuetan 220. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, kasua bada.

2. Heriotza eta biziraupenagatiko pentsiorako eskubidea duen beste familiartekorik ez dagoenean, hildako langilearen kargu bizi zen aitak edo amak artikulua honetako 1. zenbakian ezartzen den kalte-ordaina jasoko du, baldin eta haren heriotza dela-eta aurreko artikuluan aipatzen diren prestazioetarako eskubidea ez bada.

228. artikulua. *Gertakari arrunten ondoriozko heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen oinarri arautzailea.*

Gertakari arrunten ondoriozko prestazioen kasuan oinarri arautzailea kalkulatzeko, egitate eragilearen aurreko hilabetearen aurretik erregelamenduz ezarritako aldian kotizaziorako erabili diren oinarri guztien batura konputatuko da.

229. artikulua. *Pentsioen zenbatekoaren muga.*

1. Heriotza eta biziraupenagatiko pentsioen zenbatekoen baturak ezingo du gainditu kasuan kasuko oinarri arautzailearen zenbatekoa, 161.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kausatzaileak egindako kotizazioei begiratuta. Muga hori aplikatuko zaio adierazitako zenbatekoen hasierako zehaztapenari, baina ez du eraginik izango ondoren bidezko diren pentsioen aldizkako errebalorizazioetan, 58. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Artikulu honetan ezarritako mugaren ondorioetarako, zurtasun-pentsioek lehentasuna izango dute beste familiarteko batzuen aldeko pentsioen aurretik. Halaber, azken prestazio horiei dagokienez, honako lehentasun-hurrenkera hau ezartzen da:

1.a Kausatzailearen bilobak eta anai-arrebak, hemezortzi urtetik beherakoak badira edo, hemezortzi urtetik gorakoak izanik, ezinduta badaude.

2.a Kausatzailearen aita eta ama.

3.a Kausatzailearen aitona eta amona.

4.a Erretiroko edo ezintasun iraunkorreko pentsio kontributiboaren titularraren seme-alabak eta anai-arrebak, berrogeita bost urtetik gorakoak izan eta ezarritako gainerako betekizunak betetzen dituztenak.

3. Artikulu honetan orokorrean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, ezarritako muga gainditu ahalko da hainbat zurtasun-pentsio alarguntasun-pentsio batekin batera gertatzen direnean, azken hori kalkulatzeko oinarri arautzaileari aplikatzekoa zaion portzentajea ehuneko 70ekoa denean. Hala eta guztiz ere, inoiz ezingo da gertatu zurtasun-pentsioen baturak oinarri arautzailearen ehuneko 48 gainditzea.

230. artikulua. *Preskribaezintasuna.*

Heriotza eta biziraupenagatiko prestazioak aitortzeko eskubidea, heriotza-sorospena alde batera utzita, preskribaezina izango da; hori, halere, ez da eragozpena izango aitorpen horren ondorioak gerta daitezten eskaera aurkezten deneko dataren aurreko hiru hilabeteetatik aurrera.

231. artikulua. *Heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen onuradun izateko eragozpena.*

1. Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, ezingo da izan egokitu dakizkiokeen heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen onuradun giza hilketaren doloizko delitua egiteagatik epai irmoz kondenatua izan dena, delitu horren forma edozein izanik ere, biktima prestazioaren subjektu kausatzailea denean.

2. Entitate kudeatzaileak berrikusi ahalko du, bere kabuz eta edozein unetan, aipatutako kasuan epai irmoz kondenatua izan denari heriotza eta biziraupenagatiko prestaziorako eskubidea aitortu dion ebazpena, eta hark itzuli egin beharko ditu, kasua bada, kontzeptu hori dela-eta jaso dituen zenbatekoak.

Ofizioz berrikusteko ahalak, zeina aurreko lerrokadan aipatzen baita, ez du eperik izango, baina jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzeko betebeharrak 55.3 artikuluan ezarritako epean preskribatuko du. Nolanahi ere, betebehar horren preskripzioa eten egingo da ebazpen judizial bat dagoenean, zeinetan jasotzen baita arrazoizko zantzuak daudela subjektu ikertua giza hilketaren doloizko delituaren erantzule dela uste izateko, bai eta prozesu penala eta kasuan kasuko errekurtsioak izapidetzen direnean ere.

Artikulu honetan aipatzen den prestazioaren aitortpena berrikusteko prozedura hasteari buruzko akordioan erabakiko da, aurrez egin ez bada, prestazioa jasotzearen kautelazko etetea, harik eta prozedura horri amaiera ematen dion ebazpen irmoa ematen den arte.

232. artikulua. *Heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen ordainketaren kautelazko etetea, kasu jakin batzuetan.*

1. Entitate kudeatzaileak kautelaz etengo du heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen ordainketa, kasuan-kasuan aitortu direnak, ebazpen judizial bat badagoenean, zeinetan jasotzen baita arrazoizko zantzuak daudela subjektu ikertua giza hilketaren doloizko delituaren erantzule dela uste izateko, delitu horren forma edozein izanik ere, baldin eta biktima prestazioaren subjektu kausatzailea bada. Etete horrek ondorioak izango ditu inguruabar horren berri eman eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera.

Entitate kudeatzaileak, heriotza eta biziraupenagatiko prestazioa aitortzeko prozedura izapidetu baino lehen edo hura izapidetzen ari den bitartean, jakiten badu eskatzailearen aurkako ebazpen judizial bat dagoela, zeinetan jasotzen baita delitu hori egitearen ondoriozko kriminaltasunaren arrazoizko zantzuak daudela, bidezkoa izango da hura aitortzea, baldin eta horretarako gainerako betekizunak betetzen badira, eta haren ordainketa kautelaz etengo da ondorio ekonomikoak eduki beharko zituen egunetik aurrera.

Aurreko bi lerroketan aipatutako kasuetan, kautelazko eteteari eutsi egingo zaio epai irmoa edo prozedura penalarri amaiera ematen dion edo onuradunaren erruduntasun eza erabakitzen duen beste ebazpen irmo bat eman arte.

Baldin eta prestazioaren onuraduna, azkenean, epai irmoz kondenatzen baldin bada aipatutako delitua egiteagatik, bidezkoa izango da aitortpena berrikustea eta, kasua bada, jasotako prestazioak itzultzea, 231. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Onuradunaren erruduntasun eza deklaritzen duen absoluzio-epaia edo ebazpen judizial irmoa dagoenean, etendako prestazioaren ordainketa berreskuratuko da, etetea erabaki izan ez balitz bidezko izango ziren ondorioekin, behin deskontatuta, kasua bada, 3. zenbakian xedatutakoaren arabera, elikagaien betebeharraren kontzeptuan ordaindutako kopuruak.

2. Hala eta guztiz ere, lehen auzialdian absoluzio-epaia baldin badago eta haren aurka errekurtsioa aurkezten bada, kautelazko etetea kenduko da errekurtsioa epai irmoz

ebazten den arte. Kasu horretan, baldin eta errekurtsio horretan emandako epai irmoa ere absoluziokoa bada, onuradunari ordaindu beharko zaizkio kautelazko etetea erabaki zenetik hura kendu arte jaso ez zituen prestazioak, kasua bada hirugarrenei elikagaien betebeharra dela-eta ordaindutako kopuruak deskontatuta, 3. zenbakian xedatutakoaren arabera. Aitzitik, errekurtsioa dela-eta emandako epai irmoa kondenakoa bada, prestazioaren aitortpena berrikusiko da, eta kondenatuak jasotako prestazioak itzuli beharko ditu, artikulua honen 1. zenbakian adierazitakoari jarraituz, etetea kenduta egon zen aldian jasotakoak barne.

3. Alarguntasun-pentsio baten ordainketaren eteteak irauten duen bitartean, hura artikulua honetan ezarritakoaren arabera erabaki bada, haren kargura ordaindu ahalko dira, pensio horren onuradunari kontzeptu hori dela-eta legokiokkeen zenbatekoaren mugaraino, delituaren biktimak sortutako zurtasun-pentsioaren edo familiartekoen aldeko pensioaren titularren aldekoak diren elikagai-betebeharrak, baldin eta titular horiek 233. artikulua aipatzen dituen gehikuntzen onuradun izan behar badute, azkenean kondena-epai irmoa ematen bada. Zurtasun-pentsioa edo familiartekoen aldeko pensioa jasotzen dutenetako bakoitzak elikagaien kontzeptuan jaso beharreko kopuruak ezingo du gainditu une bakoitzean gehikuntza hori dela-eta egokituko litzaiokkeen zenbatekoa.

233. artikulua. *Zurtasun-pentsioen eta familiartekoen aldeko pensioen gehikuntza, kasu jakin batzuetan.*

1. 231. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, giza hilketaren dolozko delitu bat egiteagatik epai irmoz kondenatuta dagoenak, delitu horren forma edozein izanik ere, ezin duenean alarguntasun-pentsioaren onuradun-izaera eskuratu edo hura galdu duenean, haren seme-alabek, delituaren biktimak sortutako zurtasun-pentsioaren titular direnek, eskubidea izango dute erabateko zurtasun kasuetarako erregelamenduz ezarritako gehikuntza jasotzeko.

Familiartekoen aldeko pensioaren titular direnek, kasu berdinetan, erregelamenduz ezarritako gehikuntzaren onuradun izan ahalko dute, baldin eta biktimak sortutako heriotza eta biziraupenagatikako pensiorako eskubidea duen beste pertsonarik ez badago.

2. Aipatutako gehikuntzaren ondorio ekonomikoek atzera egingo dute zurtasun-pentsioaren edo familiartekoen aldeko pensioaren hasierako aitortpenaren ondorio-datara, baldin eta epai irmoz kondenatua izan denari aurrez alarguntasun-pentsioa aitortu ez bazaio. Bestela, ondorio ekonomikoak alarguntasun-pentsioaren ordainketa eten den egunetik aurrera hasiko dira –entitate kudeatzaileak, 231. artikuluan ezarritakoari jarraituz, prestazioaren aitortpena berrikustearen ondoriozko etetea–, edo, hala badagokio, 232. artikuluan jasotako kautelazko etetearen egunetik aurrera.

Nolanahi ere, zurtasun-pentsioaren edo familiartekoen aldeko pensioaren gehikuntzaren ordainketa, kondenatuak alarguntasun-pentsioa jasoko zuen aldiei dagokiena, egin ahalko da soilik haren itzulketa egiten denean, eta entitate kudeatzailea, itzulketarik gertatzen ez bada, ez da pentsiodunari zurtasun-pentsioa edo familiartekoen aldeko pensioa jasotzen duenari aipatutako gehikuntza ordaintzearen ez erantzule subsidiarioa, ez erantzule solidarioa izango, eta ez du gehikuntza hori aurreratzeke betebeharririk izango.

Zurtasun-pentsioaren edo familiartekoen aldeko pensioaren gehikuntza-kontzeptuan behar diren kopuruetatik deskontatu egingo da, kasua bada, elikagaiak direla-eta etendako alarguntasun-pentsioaren kargura onuradunak hartutako kopurua, 232. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

234. artikulua. *Zurtasun-pentsioen ordainketa, kasu jakin batzuetan.*

Baldin eta giza hilketaren dolozko delitu batengatik, delitu horren forma edozein izanik ere, epai irmoz kondenatu duten pertsona baten seme-alabak, 231. artikuluan aipatutako moduan, adingabeak edo gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonak izaki, biktimak sortutako zurtasun-pentsioaren onuradun badira, pensio hori ezingo zaio ordaindu kondenatutako pertsonari.

Nolanahi ere, entitate kudeatzaileak Fiskaltzari jakinaraziko dio bai zurtasun-pentsioa dagoela, bai aita edo ama giza hilketaren doloizko delitu baten erantzule dela uste izateko arrazoizko zantzuak jasotzen dituen ebazpen judiziala dagoela; hartara, Kode Zibilaren 158. artikuluan xedatutakoa betez, kasua bada, behar diren neurriak hartzeko eskatuko du, zurtasun-pentsioa ordaindu behar zaion pertsona fisikoari edo adingabearen zein gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsonaren tutoretzako erakundeari dagokionez. Egoera prozesal horren karietara neurri horiek hartuta, entitate kudeatzaileak, bidezkoa denean, Fiskaltzari emango dio ezagutzera prozesuari amaiera ematen dion ebazpena eta erabaki den ebazpen judiziala irmoa den ala ez.

XV. KAPITULUA

Familia babestea

235. artikulua. *Erditzeagatiko kotizazio-aldi parekatuak.*

Erretiroko eta ezintasun iraunkorreko pentsio kontributiboen ondorioetarako, zenbatuko dira, pentsioa eskatu duen emakume langilearen mesedetan, kotizatutako ehun eta hamabi egun osorik, seme edo alaba bakarraz erditzeagatik, eta, erditze anizkoitzaren kasuan, hamalau egun gehiago, bigarren seme edo alabatik aurrera, bigarrena barnean dela, seme edo alaba bakoitzeko, salbu eta erditzeko unean langilea edo funtzionarioa izateagatik, hamasei asteetan zehar oso-osoan kotizatu denean, edo, erditze anizkoitza izanez gero, behar den denboran.

236. artikulua. *Seme-alabak edo adingabeak zaintzeagatiko onurak.*

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, kotizatutako alditzat joko da ondorio guztietarako, salbu eta eskatutako gutxieneko kotizazio-aldia betetzeko, lan-harremana azkendu delako edo langabezia-prestazioak kobratzeari utzi zaiolako kotizazioa eten deneko aldia, inguruabar horiek gertatu direnean jaiotzaren aurreko bederatzii hilabeteetatik hasi –edo adingabe baten adopzioaren edo harrera iraunkorraren aurreko hiru hilabeteetatik hasi– eta egoera horren ondotiko seigarren urtera bitartean.

Kotizatutakotzat zenbatuko den aldia gehienez ere berrehun eta hirurogeita hamar egunekoa izango da seme-alaba bakoitzeko edo adoptatu nahiz harreran hartutako adingabe bakoitzeko, eta inoiz ere ezingo da izan kotizazioaren egiazko etetea baino luzeagoa.

Onura hori gurasoetatik bakar bati aitortuko zaio. Gurasoen artean desadostasunik badago, amari emango zaio eskubidea.

2. Nolanahi ere, artikulua honetan ezarritako onuren aplikazioak ezingo du eragin seme-alabaren edo adingabearen zainketa-aldia, kotizatutako alditzat hartu dena, onuradun bakoitzeko bost urte baino gehiagokoa izatea. Muga hori berdin aplikatuko da aipatutako onurak 237.1 artikuluan jasotakoan aldi berean gertatzen direnean.

237. artikulua. *Familia-prestazioa, modalitate kontributiboan.*

1. Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 46.3 artikuluekin bat etorriz, seme edo alaba bakoitza zaintzeagatik edo harrera iraunkorrean edo adopzio-helburuko zaintzan hartutako adingabe bakoitza zaintzeagatik, langileek hartzen duten hiru urte arteko eszedentzia-aldia benetan kotizatutako alditzat joko da, Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzeko, erretiroari, ezintasun iraunkorrari, heriotza eta biziraupenari, amatasunari eta aitasunari dagokienez.

2. Modu berean, benetan kotizatutako alditzat joko da, aurreko zenbakian aipaturiko prestazioen ondoreetarako, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 46.3 artikuluekin bat etorriz, langileek beste familiarteko batzuk –bigarren gradurainoko odolkideak edo ezkontza-ahaideak– zaintzeagatik hartzen duten eszedentzia-aldiaren lehenengo urtea, familiarteko horiek euren kontura baliatzeko gaitasunik ez dutenean,

adinarengatik, istripuarengatik, gaixotasunarengatik zein desgaitasunarengatik, eta ordaindutako jarduerarik egiten ez dutenean.

3. Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 37.6 artikulua lehen lerrokadan adingabea zaintzeagatik lanaldia murrizteko ezarritako aldiaren lehenengo bi urteetan egindako kotizazioen zenbaketari gehikuntza bat egingo zaio. Gehikuntza horren zenbatekoa langilea lanaldi-murrizketarik egin gabe egon izan balitz egokituko litzaiokeen zenbatekoaren ehuneko 100 bitartekoa izango da, 1. zenbakian aipatutako prestazioen ondorioetarako. Gehikuntza hori lehenengo urtean bakarrik gauzatuko da, aipatutako artikulua bigarren lerrokadan lanaldi-murrizketen inguruan jaso diren kasuetarako.

Orobat, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 37.6 artikulua hirugarren lerrokadan ezarritakoaren arabera lanaldia murrizten den aldietan egindako kotizazioen zenbaketari gehikuntza bat egingo zaio. Gehikuntza horren zenbatekoa langilea lanaldi-murrizketarik egin gabe egon izan balitz egokituko litzaiokeen zenbatekoaren ehuneko 100 bitartekoa izango da, honako prestazio hauen ondorioetarako: erretiroarena, ezintasun iraunkorarena, heriotza eta biziraupenarena, amatasunarena, aitatasunarena, haurdunaldiko arriskuarena, edoskialdi naturaleko arriskuarena eta aldi baterako ezintasunarena.

4. 1 eta 2. zenbakietan aipaturiko eszedentzia-egoeren aurretik lanaldi-murrizketa egon bada Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 37.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, kasuan kasuko eszedentzia-aldiak kotizatutakotzat jotzeari dagokionez, zenbatu egingo dira lanaldi-murrizketak iraun bitartean egindako kotizazioak, aintzat hartuta murrizketarik izan gabe lanaldiak eragingo lituzkeen kotizazioen ehuneko 100 arteko gehikuntza.

XVI. KAPITULUA

Araubide Orokorren xedapen erkideak

1. atala. Araubide Orokorren babes-jardunaren borondatezko hobekuntzak

238. artikulua. Babes-jardunaren hobekuntzak.

1. Araubide Orokor honen babes-jardunaren borondatezko hobekuntzak honako hauen bitartez egin ahalko dira:

- Prestazioen zuzeneko hobekuntza.
- Kotizazio-tasa gehigarriak ezartzea.

2. Enpresek borondatezko hobekuntzak emateko, atal honetan ezarritakoa eta bera aplikatu eta garatzeko arauetan ezarritakoa bete beharko dute hobekuntza horiek.

239. artikulua. Prestazioen zuzeneko hobekuntza.

Enpresek zuzenean hobetu ahalko dituzte Araubide Orokorren prestazioak, guztiz beren kargura ordainduta. Aparteko kasuetan, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak aurrez onartuta, langileen kargurako ekarpen ekonomiko bat ezarri ahalko da, baldin eta langile horiei ahalmena ematen bazaie banaka eta beren borondatez atxikitzeo enpresaburuek baldintza horrekin emandako hobekuntzei.

Artikulu honetan aipatzen diren hobekuntzen ezarpena enpresaburuentzat borondatezkoa bada ere, haien babesean langile batek aldizkako prestazio baten hobekuntzarako eskubidea sortu duenean, eskubide hori ezingo da deuseztatu edo gutxitu, ez bada eskubide horren aitopena arautzen duten arauen arabera.

240. artikulua. Zuzeneko hobekuntza kudeatzeko moduak.

1. Enpresek, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, aurreko artikuluan aipatzen diren prestazioak hobetu ahalko dituzte, beren kabuz edo honako hauen bitartez:

Gizarte Segurantzaren Administrazioa, lan-fundazioak, montepioak eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak eta mota guztietako aseguru-entitateak.

2. Beren helburuak betetzeko legez eraturako lan-fundazioek, aplikatzekoak diren arauetan ezartzen denaren arabera, ematen zaien zerga-tratamendua eta gainerako salbuespenak izango dituzte.

241. artikulua. *Kotizazio-tasa gehigarriak ezartzeagatiko hobekuntza.*

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak, interesdunek eskatuta, kotizazio gehigarriak onartu ahalko ditu. Kotizazio gehigarri horiek egingo dira 145. artikuluan aipatzen den kotizazio-tasa handituz, pentsioak edo jada sortutako eta haren kargura finantzaturako aldizkako bestelako prestazioak errealizatzeko nahiz etorkizunekoak hobetzeko.

2. atala. *Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko xedapenak Araubide Orokorrean*

242. artikulua. *Laneko istripuen arloko ez-betetzeak.*

Enpresek ez badituzte betetzen segurtasun- eta osasun-arauak betetzen ez dituzten lanak gerazteari buruz Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak emandako aginduak eta lan-arloko agintariak emandako ebazpenak, ez-betetze hori, gerta daitezkeen laneko istripuei dagokionez, parekatu egingo da ukitutako langileen gertakari horretarako babesa formalizatu gabe izatearekin, ezertan eragotzi gabe gerta daitezkeen beste edozein erantzukizun edo zehapen.

243. artikulua. *Gaixotasun profesionalerako berariazko arauak.*

1. Gaixotasun profesionalen arriskua duten lanpostuak bete behar dituzten enpresa guztiek lanpostu horiek bete behar dituzten langileei azterketa mediko bat egin beharko diete, hartu aurretik, eta gaixotasun mota bakoitzerako ezarritako aldizkako azterketak egin beharko dizkiete; hain zuzen ere, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak horretarako onartzen dituen arauetan ezarritakoak.

2. Azterketak enpresaren kargura izango dira, eta nahitaezkoak izango dira langilearentzat. Enpresak langileei, kasua bada, joan-etorrietako gastuak eta arrazoi hori tarteko jaso ez duen soldata guztia ordainduko dizkie.

3. Aipatutako enpresek ezingo dituzte kontratatu azterketa medikoan kasuan kasuko lanpostuak betetzeko gai kalifikatu ez diren langileak. Debeku bera ezartzen da langilea bere lanpostuan jarraitzeari dagokionez, ondoz ondoko azterketetan gai-deklarazioari eusten ez zaionean.

4. Legegintzako errege-dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenek zehaztuko dute zein kasu berezitan, lan-kontratazioaren eskakizunak tarteko, eman daitezkeen epe bat azterketa medikoa lana hasi ondoren, berehala, egiteko.

244. artikulua. *Azterketa medikoak falta izatearen erantzukizunak.*

1. Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileek eta laguntzaileek aurreko artikuluan aipatzen den alde aurretiko azterketa medikoaren ziurtagiriaren berri izan beharra daukate, nahitaez, gaixotasun profesionalak izateko berariazko arriskua duten enpresetako langileen laneko istripuagatiko edo gaixotasun profesionalagatiko babesa beren kargura hartu baino lehen, eta egoki den dokumentazioan jaso beharko dute betebeharrak hori bete dutela. Halaber, aipatutako entitateek aldizkako azterketa medikoen emaitzak ezagutu beharko dituzte.

2. Enpresak alde aurretiko azterketak edo aldizkako azterketak egiteko betebeharrak betetzen ez badu, bera izango da kasu horietan gaixotasun profesional batetik erator daitezkeen prestazio guztien zuzeneko erantzule, bai enpresa Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua bati lotuta dagoenean, bai gertakari hori entitate kudeatzaile batean babestuta duenean.

3. Mutuek 1. zenbakian ezarritakoa betetzen ez badute, honako erantzukizun hauek izango dituzte:

a) 97. artikulua aipatzen duen Gizarte Segurantzaren Gertakari Profesionalen Funtsean ordaindu behar izatea jasotako primen zenbatekoa, zenbateko horren ehuneko 100era irits daitekeen errekarguarekin.

b) Arestian finkatutako xedearekin, enpresaren kargurako erantzukizunen balioak den zenbateko bat ordaindu behar izatea, artikulua honetako aurreko zenbakian aipatzen diren kasuetan. Erantzukizun horien artean, 164. artikuluan xedatutakoaren arabera bidezkoak direnak daude.

c) Berrerortze kasuan, kudeaketan elkarrekin jarduteko baimena deuseztatzea.

d) Lege honetan eta bera aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera bidezko izan daitekeen beste edozein erantzukizun.

XVII. KAPITULUA

Araubide Orokorreko langile jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien xedapenak

1. atala. Lanaldi partzialean kontratatutako langileak

245. artikulua. *Gizarte-babesa.*

1. Lanaldi partzialeko lan-kontratuaren ondoriozko gizarte-babesa lanaldi partzialeko langile lanaldi osoko langilearekin parekatzeko printzipioaren arabera izango da eta, berariaz, kapitulu honetan eta 269.2 eta 270.1 artikuluetan langabezia-babesa dela-eta ezarritakoaren arabera.

2. Atal honetan jasotako arauak lanaldi partzialeko edo erreleboko lanaldi partzialeko kontratua eta aldizkako kontratu finkoa duten langileei aplikatzekoak izango zaizkie, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 12. eta 16. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, baldin eta Araubide Orokorren aplikazio-eremuan sartzen badira; horren barnean izango dira Etxeko Langileentzako Sistema Berezian dauden lanaldi partzialeko langileak edo aldizkako langile finkoak.

246. artikulua. *Kotizazioa.*

1. Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria eta haren kuoten aldi berean biltzen diren ekarpenetarako oinarria hilabetekoa izango da beti, eta lan egindako orduak direla-eta egiazki jasotako ordainsariek osatutakoa izango da, ordu horiek arruntak nahiz osagarriak izan.

2. Horrela zehaztutako kotizazio-oinarria ezingo da izan erregelamenduz zehazten diren kopuruak baino txikiagoa.

3. Ordu osagarriek ordu arrunten oinarri eta tasa beren arabera kotizatuko dute Gizarte Segurantzaren.

247. artikulua. *Kotizazio-aldien zenbaketa.*

Erretiroari, ezintasun iraunkorrari, heriotzari zein biziraupenari, aldi baterako ezintasunari eta amatasunari zein aitatasunari dagozkion prestazioak jasotzeko eskubidea izateko behar diren kotizazio-aldiak egiaztatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Kontuan hartuko dira langile lanaldi partzialeko kontratu batekin altan egondako epeak, epe horietako bakoitzean lanaldiaren iraupena edozein izanda ere.

Horretarako, partzialtasunaren koefizientea aplikatuko zaio lanaldi partzialeko kontratuarekin altan egondako epeari, eta horren emaitza izango da epe bakoitzean egiaz kotizatutzat jotzen diren egunen kopurua. Partzialtasun-koefizientea izango da parekagarria den langile batek lanaldi osoan egiten duen lanaldiaren aldean lanaldi partzialean egiten duen lanaldiaren ehuneko.

Horrela ateratzen diren egunen kopuruari lanaldi osoan kotizatutako egunak gehituko zaizkio, hala balegokio, eta horrela ateratzen den emaitza izango da prestazioak eskuratu ahal izateko zenbatu ahal diren kotizazio-egun egiaztatuen guztirako kopurua.

b) Behin kotizatutako egun egiaztatuen kopurua horrela zehazturik, guztirako partzialtasun-koefizientea kalkulatu da, eta ehuneko horrek adieraziko du zein den lan egindako egun kotizatutzat egiaztatuen kopurua –a) letran adierazitakoaren arabera– langileak lan-bizitza osoan zehar altan egindako guztirako egunen artetik. Lanerako aldi baterako ezintasunagatiko subsidioaz den bezainbatean, guztirako partzialtasun-koefizientea azken bost urteen gainean kalkulatu da. Amatasun- eta aitatasun-subsidioaz ari garenean, guztirako partzialtasun-koefizientea azken zazpi urteen gainean kalkulatu da, edo, hala balegokio, lan-bizitza osoaren gainean.

c) Lanaldi partzialeko langileei prestazio ekonomikoetarako eskatuko zaien gutxieneko kotizazio-aldia, prestazioek halakorik ezarrita dutenean, honako hau izango da: kasu guztietarako ezarrita dagoen epeari b) letran aipatzen den guztirako partzialtasun-koefizientea aplikatuz ateratzen den emaitza.

Dena delako prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintzatuz ezartzen bada gutxieneko kotizazio-aldiaren zati bat edo osoa epe jakin baten barruan bete dadila, guztirako partzialtasun-koefizientea aplikatu da dena delako kotizazio-aldia finkatzeko. Eskatzen den epe hori dena delako prestaziorako orokortasunez ezarritako denborartean sartuta egon beharko da.

248. artikulua. *Prestazio ekonomikoen zenbatekoa.*

1. Prestazio ekonomikoen oinarri arautzailea zehazteko, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Erretiro-prestazioen eta ezintasun iraunkorragatiko prestazioen oinarri arautzailea erregela orokorraren arabera kalkulatu da.

b) Amatasun- eta aitatasun-prestazioen eguneroko oinarri arautzailea honako zatiketa hau egitearen emaitza izango da: egitate eragilea gertatu aurreko urtean zehar enpresan egiaztatutako kotizazio-oinarrien batura zati hirurehun eta hirurogeita bost.

Hala eta guztiz ere, amatasun- eta aitatasun-prestazioak behin-behineko ebazpen batez aitortu ahalko dira, 179.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

c) Aldi baterako ezintasunagatiko prestazioaren eguneroko oinarri arautzailea honako zatiketa hau egitearen emaitza izango da: azkeneko lan-alta gertatu zenetik izan diren lanaldi partzialeko kotizazio-oinarrien batura –gehienez ere egitate eragilearen egunaren aurreko hiru hilabeteak kontatuta– zati epe horretako egun naturalak.

Prestazio ekonomikoa interesduna aldi baterako ezintasun-egoeran dagoen egun natural guztietan ordainduko da.

2. Erretiro-pentsioak eta gaixotasun arrunt baten ondoriozko ezintasun iraunkorrekoak kalkulatzearen ondorioetarako, kotizatze betebeharririk egon ez den aldiak integratzeko, une bakoitzean aplikatzekoak diren kotizazio-oinarrietatik gutxienekoa erabiliko da; hain zuzen ere, azken beltzean kontratatutako orduen kopuruari dagokiona.

3. Erretiro-pentsioen eta gaixotasun arruntaren ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pensioen zenbatekoa finkatze aldera, 247. artikulua a) letraren bigarren lerrokadan ezarritakotik ondorioztatzen diren kotizazio-egunen kopurua 1,5 koefizientea aplikatuz gehituko da, eta horrela ateratzen den egun kopurua ezin da izan lanaldi partzialeko altako epea baino handiagoa.

Dena delako oinarri arautzaileari aplikatu zaion portzentajea 210.1 artikuluan aipatzen den eskala orokorraren arabera ezarriko da, honako salbuespen honekin:

Baldin eta interesdunak hamabost urte baino kotizazio-aldi laburragoa egiaztatzen badu, lanaldi osoko egunak eta lanaldi partzialeko egunak –1,5 koefizientea aplikatu ondoren– batuta ateratzen den emaitza aintzat harturik, oinarri arautzaileari aplikatu zaion ehuneko honako hau izango da: hamabost urteko aldian langileak egiaztatutako kotizazio-aldiak dakarren ehuneko 50i aplikatuz ateratzen den emaitza.

2.atala. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratatutako langileak.

249. artikulua. *Babes-jarduna.*

1. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratatutako langileari Gizarte Segurantzak emango dion babesak gertakari, egoera babesgarri eta laguntza guztiak hartuko ditu, baita langabezia ere.

Langabezia-babesari dagokionez, aplikatzekoa izango da III. tituluan ezarritakoa, 290. artikuluan ezarritako berezitasunekin.

2. Lantegi-eskolen, lanbide-etxeen eta enplegu tailerren programetan ikasle langileekin izenpetutako prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen kasuan, Gizarte Segurantzaren babes-jardunak, modalitate horretan kontratatutako gainerako langileekin alderatuta, gertakari, egoera babesgarri eta prestazio berak bilduko ditu, langabezia izan ezik.

XVIII. KAPITULUA

Etxeko Langileentzako eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako sistema bereziak

1. atala. Etxeko Langileentzako Sistema Berezia

250. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Etxeko Langileentzako Sistema Berezi horretan sartuta gelditzen dira Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 2.1.b) artikuluan aipatzen den lan-harreman berezia duten langileak.

Sistema berezi horretatik kanpo gelditzen dira etxearen titularrek zuzenean kontratatu beharrean, enpresek kontratatzen dituzten etxeko zerbitzuak ematen dituzten langileak Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

2. Sistema berezi horren araubide juridikoa II. tituluan eta haren aplikazio- eta garapen-arauetan ezarritakoa izango da, haietan ezartzen diren berezitasunekin.

251. artikulua. *Babes-jarduna.*

Etxeko Langileentzako Sistema Berezian sartutako langileek eskubidea izango dute Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzeko Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako modu eta baldintzetan, honako berezitasun hauekin:

a) Aldi baterako ezintasunagatiko subsidioa, gaixotasun arruntaren edo lanez kanpoko istripuaren kasuan, lanean bajaran emandako bederatzigarren egunetik aurrera ordainduko da, eta enplegatzaileak ordaindu beharko dio prestazioa langileari aipatutako bajako laugarren egunetik zortzigarrenean, biak barne.

b) Sistema berezi honetan dauden langileek sortutako aldi baterako ezintasunagatiko subsidioaren ordainketa zuzenean egingo du haren kudeaketa dagokion entitateak, eta ez da bidezkoa izango haren ordainketa eskuordetua egitea.

c) Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko gertakari profesionalak direla-eta, ez da erantzukizunen araubidea aplikatuko, 167. artikuluan araututako prestazioei dagokienez.

d) Etxeko Langileentzako Sistema Berezian babes-jardunak ez du langabeziari dagokiona jasoko.

2. atala. *Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezia*

252. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartuko dira nekazaritza-ustiategietan nekazaritza-lanak egiten dituzten pertsonak, berez nekazaritzakoak, basozaintzakoak edo abeltzaintzakoak diren lanak nahiz haien osagarri edo lagungarri direnak egiten dituztenak, bai eta erregelamendu bidez ezartzen den moduan pertsona horien zerbitzuak jasotzen dituzten enpresaburuak ere.

Hala eta guztiz ere, ez dira nekazaritza-lantzat hartuko banana manipulatu, paketatu, ontziratu eta merkaturatzeko lanak, 136.2.g) artikuluan aipatuak, nahiz eta enpresaburu berarentzako beste langile batzuk zerbitzuak ematen aritu –produktua zuzenean lortzen, biltegiatzen eta produktua bera egokitzeko eta pilatzeko lekuetara garraiatzen–; eta hori guztia hala izango da ezertan eragotzi gabe bananaren salmenta dela-eta Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 2.1 artikulua azken lerroak dioena.

2. Sistema berezi horren araubide juridikoa II. tituluaren eta haren aplikazio- eta garapen-arauetan ezarritakoa izango da, haietan ezartzen diren berezitasunekin.

253. artikulua. *Sisteman sartzeko arauak.*

1. Araubide Orokorrean ezarritako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartzea araubide horretan alta ematearen ondorioz eta alta emateko une berean gertatuko da, eta berekin ekarriko du kotizatze betebeharra, bai nekazaritza-lanetako jarduera-aldietan, bai lan horietako jarduerarik gabeko aldietan ere, Araubide Orokorrean alta emanda, eta hurrengo ataletan ezarritakoaren arabera.

Aurreko lerrokadan adierazitako ondorioetarako, hilabete naturalaren barruan jarduerarik gabeko aldiak izan direla joko da epealdi horretako lanaldi errealean kopurua txikiagoa denean hilabete horretan langilea sistema berezian altan egon den egun naturalen ehuneko 76,67 baino.

Aurreko lerrokadan aipatutakoa kendu gabe, hilabete natural baten barruan ez da jarduerarik gabeko aldirik egongo langile batek, aldi horretan, enpresaburu berarentzat, gutxienez ere astean bost lanaldi erreal egiten baditu, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoa betez.

2. Jarduerarik gabeko aldietan sistema berezian jasota egoteko, beharrezkoa izango da langileak, gutxienez, 30 lanaldi erreal eginak izatea hirurehun eta hirurogeita bost eguneko aldi jarraitu batean, bai eta sistema berezi horretara sartzeko espresuki eskatzea ere lanaldi horietako azkena egin ondoko hiru hilabete naturalen barruan.

Aurreko lerrokadan adierazitako betekizunak beteta, sistema berezian sartzeko eta nekazaritza-lanetako jarduerarik gabeko aldietako kotizatzeak ondorioak izango dituzte sartzeko eskaera aurkeztu ondoko hilaren lehen egunetik aurrera.

3. Aurreko zenbakietan ezarritako ondorioetarako, langileak aipatutako aldi egindako lanaldi erreal guztiak zenbatuko dira, horren barne direla enpresaburu desberdinentzat egun berean emandakoak.

2. zenbakian ezarritako betekizuna betetzearen ondorioetarako, honako hauek parekatuko dira lanaldi errealekin: langileak gertakari profesionalak, amatasuna, aitasuna, haurdunaldiko arriskua eta edoskialdi naturaleko arriskuak direla-eta aldi baterako ezintasun-egoeretan dauden garaia, sistema berezi horretako jarduera-aldi batetik eratortzen direnak; sistema berezi horretan maila kontributiboko langabezia-prestazioak jasotzeko aldiak; eta haiek Gizarte Segurantzako araubideren batean altan dauden egunak, nekazaritzaren arloko enplegua sustatzeko programen ondorioz.

4. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezitik kanpo uztea, jarduerarik gabeko aldietan, eta, ondorioz, Araubide Orokorreko baja, honela gertatu ahalko dira:

a) Langileak eskatuta. Kasu horretan, kanpo uztearen ondorioak eskaera Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian aurkeztu eta hurrengo hilaren lehenengo egunean gertatuko dira.

b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ofizioz, honako kasu hauetan:

1.a Langileak ez dituen gutxienez 30 lanaldi betetzen hirurehun eta hirurogeita bost eguneko aldi jarraitu batean, aurreko aldia amaitu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Kanpo uztearen ondorioak, kasu horretan, hura erabakitzen duen ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera izango dira.

2.a Hurrenez hurreneko bi hilabeteetako jarduerarik gabeko aldiei dagozkien kuotak ez ordaintzeagatik.

Kanpo uztearen ondorioak, kasu horretan, bigarren hileko kuota ordaindu gabe utzi eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera izango dira, salbu eta, langilea, data horretan, aldi baterako ezintasuneko, amatasuneko, aitatasuneko, haurdunaldiko arriskuko edo edoskialdi naturaleko arriskuko egoeran badago; izan ere, kasu horretan, ondorio horiek kasuko prestazio ekonomikoa jasotzeari utzi eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera izango dira, aurrez behar diren kuotak ordaindu ez badira.

Zenbaki honetan aipatzen den kanpo-uzteak ez du eragotziko, nekazaritza-lanetan jarduera-aldi gehiago izanez gero, langileak sistema berezian sarturik geratzea zerbitzuak ematen dituzten egunetan, Araubide Orokorreko ondoriozko altekin eta bajekin, eta aldi horiengatik dagokien kotizazioarekin.

5. Jarduerarik gabeko aldietan sistema berezi horretatik kanpo uztearen arrazoia aurreko zenbakian aipatutakoetako bat izan bada, bidezkoa izango da hartan berriz sartzeari, besteren konturako nekazaritzako langileek honako betekizun hauek betetzen dituztenean:

a) Gutxienez ere hogeita hamar lanaldi erreal egitea, jarduerarik gabeko aldiengatik berrituz kotizatzen hasteak ondorioak izaten dituen egunaren aurreko hirurehun eta hirurogeita bost eguneko aldi jarraituan.

Betekizun hori ez da eskatuko langileak sistema berezian berriz sartzeko eskatzen duenean hartatik kanpo bere borondatez geratu ondoren, Gizarte Segurantzako edozein araubidetan altan egotea ekarri duen beste jarduera batean aritzeagatik edo altarekin parekatutako egoera batean egoteagatik, zeina zenbakarria izan baita 256. artikuluan aipatzen den babes-jardunean bildutako prestazioetatik edozein eskuratzeko. Horretarako, eskaera aurkeztu beharko da aipatutako jarduerako bajak ondorioak dituen egunetik edo lehenago aipatutako egoera parekatua azkendu den egunetik aurrerako hiru hilabeteen barruan.

b) Jarduerarik gabeko aldiei dagozkien kuoten ordainketan egunean egotea.

Sistema berezian berriz sartzeari ondorioak, jarduerarik gabeko aldietako kotizazioaren ondorioetarako, honako hauetan gertatuko dira:

1.a Kanpo-uztea langilearen borondatez gertatzen denean, langileak berriz sartzeko eskaera aurkeztu eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera.

Langileak, beste jarduera batengatik alta-egoeran edo altarekin parekatutako egoera batean egotetik heldu bada eta aipatutako hiru hilabete horietan zehar berriz sartzeari eskatzen badu, aukera izango du horren ondorioak gerta daitezkeen beste jarduera horrengatik bajaren ondorioen egunetik hasita edo parekatutako egoera hori azkentzen den egunetik hasita, edo, bestela, eskaera aurkeztu eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik.

2.a Kanpo-uztea ofizioz gertatzen denean, eskatutako lanaldi errealean gutxienekoa egiteari buruzko betekizuna ez betetzeagatik, betekizun hori bete eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik.

3.a Kanpo-uztea ofizioz gertatzen denean, jarduerarik gabeko aldiei dagokien kotizazioa ez ordaintzeagatik, berriz sartzeko eskaera aurkeztu eta hurrengo hilaren

lehenengo egunetik, salbu eta langileak aukeratzen duenean ondorio horiek izatea zor dituen kuotak ordaindu dituen hilaren lehenengo egunetik aurrerakoak.

254. artikulua. *Afiliazioa, altak, bajak eta datu-aldaketak.*

Besteren konturako nekazaritzako langileen afiliazioa eta altak, bajak eta datu-aldaketak 139. eta 140. artikuluetan eta haien aplikazio- eta garapen-xedapenetan ezarritako moduan, epeetan eta baldintzetan izapidetuko dira.

Aurreko lerrokan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, baldin eta behin-behineko langileak edo aldizkako langile finkoak kontratatzen badira beren zerbitzu-prestazioan hasten diren egun berean, alta-eskaerak egun horretako hamabiak arte aurkeztu ahalko dira, lanaldi hori hasi aurretik formalizatzerik izan ez den kasuetan. Hala eta guztiz ere, lanaldia hamabiak baino lehenago amaitzen bada, alta-eskaerak lanaldi hori amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

255. artikulua. *Kotizazioa.*

1. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian dauden langileei eta langile horiek zerbitzua ematen dieten enpresaburuari dagokien kotizazioa Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko xedatutakoari egokituko zaio, hurrengo zenbakietan ezarritako berezitasunekin.

2. Nekazaritza-lanetako jarduera-aldietan zehar, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Enpresaburua izango da kotizatzeke betebeharra betetzearen subjektu erantzulea, 142. artikuluan ezarritako moduan, eta, halaber, jakinarazi beharko ditu bere langileek egindako lanaldi errealak, erregelamenduz zehazten den epean.

b) Kotizazioa egin ahalko da, enpresaburuak aukeratzen duenari jarraituz, eguneko oinarrien arabera, egindako lanaldi errealak kontuan hartuz, edo hileko oinarrien arabera. Aukerarik egin ezean, hileko kotizazio-oinarrien modalitatea aplikatuko da.

Hileko kotizazio-oinarrien modalitatea nahitaezkoa izango da kontratu mugagabea duten besteren konturako nekazaritzako langileentzat, horien artean sartu gabe zerbitzuak aldizkako modu finkoan ematen dituztenak; izan ere, horientzat aukerakoa izango da.

c) Gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak 147. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira.

Kotizazioa eguneko oinarrien arabera egiten denean, ulertuko da aurreko letran aipatutakoa egindako lanaldi erreal bakoitzari dagokiola, eta ezingo da izan ekitaldi bakoitzean Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen duen eguneko gutxieneko kotizazio-oinarria baino txikiagoa.

d) Gertakari arruntak direla-eta aplikatzekeak diren kotizazio-tasak ekitaldi bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoak izango dira, eta gertakari profesionalak direla-eta aplikatzekeak, berriz, jarduera ekonomiko, okupazio edo egoera bakoitzerako lege ezarritako primen tarifen ezarritakoak.

e) Langabeziagatiko, Soldatak Bermatzeko Funtsagatiko eta lanbide-heziketagatiko kotizazioa gertakari profesionaletarako kotizazio-oinarriaren arabera egingo da.

Kontzeptu horiengatiko kotizaziorako aplikatzekeak diren kotizazio-tasak honako hauek izango dira:

1.a Langabezia-gertakarirako, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ekitaldi bakoitzean finkatutakoak.

2.a Soldatak Bermatzeko Funtsaren kotizaziorako, ehuneko 0,10; zenbateko hori enpresaren kontura izango da guztiz.

3.a Lanbide-heziketagatiko kotizaziorako, ehuneko 0,18. Ehuneko horretatik, ehuneko 0,15 enpresaburuaren kontura izango da eta ehuneko 0,03, berriz, langilearen kontura.

3. Nekazaritza-lanetako jarduerarik gabeko aldietan zehar, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Langilea bera izango da kotizatze betebeharra betetzearen eta kasuko kuotak ordaintzearen erantzulea.

b) Kotizazioa hileroko egingo da, eta ekitaldi bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean zehaztutako formula baten arabera kalkulatu da.

c) Aplikatzekoa den kotizazio-oinarria une bakoitzean indarrean den gutxieneko oinarria izango da, gertakari arruntei dagokiena; hain zuzen ere, Araubide Orokorreko taldeen eskalako 7. taldekoa.

d) Aplikatzekoa den kotizazio-tasa ehuneko 11,50 izango da.

4. Jarduera-aldietako aldi baterako ezintasuneko, amatasuneko, aitasuneko, haurdunaldiko arriskuko nahiz edoskialdi naturaleko arriskuko egoeretan, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Enpresaburuak bere kargurako ekarpenak ordaindu beharko ditu soilik.

Langilearen kargurako ekarpenak aipatutako egoerei dagozkien prestazioen zuzeneko ordainketa egiten duen entitateak ordainduko ditu.

b) Kontratu mugagabea duten nekazaritzako langileen kasuan, aipatutako egoeretako kotizazioa Araubide Orokorreko arau orokorren arabera egingo da.

c) Aldi baterako kontratua eta aldizkako kontratu finkoa duten nekazaritzako langileen kasuan, b) letran ezarritakoa aplikatuko da kontratatutako egunetan zerbitzua ematerik izan ez dutenean, lehen adierazitako egoeretako batean egotearen ondorioz.

Zerbitzua ematea aurreikusi ez den egunei dagokienez, langileek jarduerarik gabeko aldiei dagokien kotizazioa ordaindu beharko dute, amatasun- eta aitasun-subsidioak jasotzen dituztenean izan ezik, horiek benetan kotizatutako alditzat hartuko baitira honako prestazio hauei dagokienez: erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza eta biziraupena.

5. Sistema berezi honetan ez da aplikatuko enpresaburuaren ekarpenaren gehikuntza, gertakari arruntengatik kuotari egitekoa dena eta 151. artikuluan zazpi egunetik beherako iraupen efektiboa duten aldi baterako kontratueterako ezartzen dena.

256. artikulua. *Babes-jarduna.*

1. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezia sartutako langileek eskubidea izango dute Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzeko Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako modu eta baldintzetan, hurrengo zenbakietan aipatzen diren berezitasunekin.

2. Kasuko prestazio ekonomikoak aitortzeko, beharrezkoa izango da langileak egunean egotea jarduerarik gabeko aldiei dagozkien kotizazioen ordainketan, haiek ordaintzearen arduradun diren aldetik.

3. Jarduerarik gabeko aldietan, sistema bereziaren babes-jardunak gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorra, heriotza eta biziraupena, amatasuna eta aitasuna direla-eta jasotzen diren prestazioak bilduko ditu, bai eta erretiroko prestazioak ere.

4. 207. eta 208. artikuluetan ezarritako erretiro aurreratuaren modalitateak eskuratzeko eta artikulua horretan haietarako ezarritako benetako kotizazioaren gutxieneko aldiaren betekizuna frogatzeko, beharrezkoa izango da kotizatutako azken hamar urteetatik gutxienez sei sistema berezi horretako benetako jarduera-adiak izatea. Ondorio horietarako, sistema berezi horretako maila kontributiboko langabezia-prestazioak jaso diren aldiak zenbatuko dira.

5. Gaixotasun arrunt baten ondorio den aldi baterako ezintasuneko egoeran zehar, eta erregelamenduz ezarrita dagoen moduan, subsidioaren oinarri arautzailearen zenbatekoa ezingo da izan baja medikoa baino lehenagoko azken hamabi hilabeteetan egiazki lan egindako egunei dagokien kotizazio-oinarriaren hileko batezbestekoa baino handiagoa.

6. Sistema berezian dauden langileek sortutako aldi baterako ezintasunagatik prestazio ekonomikoa zuzenean ordainduko du hura kudeatzen duen entitateak, eta ez da bidezkoa izango haren ordainketa eskuordetua egitea, salbu eta langile horiek langabezia-

prestazio kontributiboa jasotzen ari izan eta aldi baterako ezintasuneko egoerara pasatzen diren kasuetan, 283.2 artikuluan aipatzen denari jarraituz.

7. Besteren konturako nekazaritzako langileek sortutako gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen eta erretiro-pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko, sistema berezi horretan kotizatutako aldiei dagokienez, kontuan hartuko dira soilik egiazki kotizatutako aldiak, eta ez da aplikatzekoa izango 197.4 eta 209.1.b) artikuluetan ezarritakoa.

8. Langabezia-babesari dagokionez, aplikatzekoa izango da III. tituluan ezarritakoa, titulu horretako V. kapituluko 1. atalean ezarritako berezitasunekin.

XIX. KAPITULUA

Kudeaketa

257. artikulua. *Kudeaketa, eta kudeaketan laguntzea.*

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren kudeaketa, bai eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek eta enpresek kudeaketarako ematen duten laguntza ere, I. tituluko V. eta VI. kapituluetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

258. artikulua. *Administrazio- eta osasun-zerbitzuak emateko itunak.*

Beren eginkizunak hobeki betetzeko, Gizarte Segurantzaren Administrazio- eta osasun-zerbitzuak emateko erantzuleen eskumenen arabera, erantzule publiko zein pribatuekin itunak egin ahalko dituzte administrazio- eta osasun-zerbitzuak edo oneratze profesionaleko zerbitzuak emate hutserako.

Horretarako egiten diren itunak ministerio-sail eskudunek onartu beharko dituzte, eta haietan ezartzen den konpentsazio ekonomikoa emateko, ezingo da Araubide Orokor honetako kuoten portzentaje bat eman, ez eta, inolaz ere, organismo horiei esleitutako kudeaketa-eginkizuna ordeztu ere.

XX. KAPITULUA

Finantza-arabidea

259. artikulua. *Finantza-sistema.*

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren finantza-sistema 110. artikuluan ezarritakoa izango da, laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak direla-eta hurrengo artikuluan ezartzen diren berezitasunekin.

260. artikulua. *Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen arloko berariazko arauak.*

1. Gizarte Segurantzarekin elkarrekin diharduten mutuek eta, kasua bada, enpresa erantzuleek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian eratu dute, beren erantzukizunaren mugaraino, pentsioen kostu-kapitalaren egungo balioa; hain zuzen ere, laneko istripuak edo gaixotasun profesionalak direla-eta sortzen diren ezintasun iraunkorrenegatiko edo heriotzagatiko pentsioena. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak heriotza-tasen taulak eta aipatutako balioak zehazteko aplikatzekoak diren interes-tasak onartuko ditu.

2. Artikulu honetan aipatzen den laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen babesa dela-eta, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezarri ahalko du Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian berraseguratu behar izatea hartutako arriskuak direla-eta zehazten den portzentajea; nolana ere, portzentaje hori ezingo da izan ehuneko 10etik beherakoa, ez eta ehuneko 30etik gorakoa ere. Ondorio horietarako, nahitaezko berrasegurugatikoa babesean sartuko dira soilik babestutako beren langileak direla-eta beren gain hartzen

dituzten ezintasun iraunkorraren arriskutik eta heriotzaren eta biziraupenaren arriskutik eratortzen diren aldizkako prestazioak. Zerbitzu erkide horri egokituko zaio, konpentsazio gisa, gertakari horiek direla-eta elkartutako enpresek ordaindu dituzten kuoten portzentajea, zeina Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zehaztuko baitu. Berraseguru hori ez da zabalduko Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek aurreratutako prestazioetara; halere, mutua horiek eskubidea izango dute, bai prestazio horien erantzule den enpresaburuaren aurrean berreskatzeko, bai, enpresaburua kaudimengabea dela deklaratu gero, berme-eginkizuna duten Gizarte Segurantzaren entitateek prestazio horiek osotara itzul diezazkieten eskatzeko.

Gehiegizko galerei dagokienez, aurreko lerrokadaren arabera berraseguratu ez badira, mutuek behar diren gordailuak eratuko dituzte edo, aukeran, aurrekoen osagarriak diren berraseguruak itunduko dituzte, ezartzen diren baldintzetan.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak erabaki ahalko du atal honetan ezarritako betebeharren ordeztasun, laneko istripuengatik eta gaixotasun profesionalengatik babesaren kudeaketaren emaitzak konpentsatzeko beste sistema bat aplikatzea.

3. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek edo, kasua bada, prestazioen erantzule diren enpresek, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia sartu beharko dituzte kapitalak, halako kopuruan sartu ere non hogeita bost urtez aldi baterako egiazko errenta bat eratuko baita, laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondorio berehalakoez edo gerokoez hiltzen diren eta pentsiorako eskubidea duen familiartekorik uzten ez duten langileen soldataren ehuneko 30ekoa.

XXI. KAPITULUA

Sistemaren arau orokorren aplikazioa

261. artikulua. *Zuzenbide ordeztalea.*

Titulu honetan berriaz ezarri ez denerako, I. tituluan eta hura aplikatzeko eta garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoari jarraituko zaio.

III. TITULUA

Langabezia-babesa

I. KAPITULUA

Arau orokorrak

262. artikulua. *Babesaren xedea.*

1. Titulu honen helburua da lan egiteko ahala eta nahia izanik enplegua galtzen duten langileen edo kontratua eten zaien edo lanaldi arrunta murriztu zaien langileen langabezia-gertakariagatik babesa arautzea, 267. artikuluan ezarritako moduan.

2. Langabezia erabatekoa izango da langileak egiten zuen jarduera behin-behinean edo behin betiko uzten duenean, eta, ondorioz, soldatarik gabe gelditzen denean.

Ondorio horietarako, langabezia erabatekoa dela ulertuko da langileak egun osoko bere jarduerari guztiz uzten dionean, elkarren segidako egunak izan nahiz ez izan, gutxienez lanegun arrunt batez, kontratua aldi baterako eten delako edo lanaldia aldi baterako murriztu delako, betiere halakoak enpresaburuak erabaki dituen Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoari jarraituz edo konkurtso-prozedura baten barruan hartutako ebazpen judizial baten ondorioz.

3. Langabezia partziala izango da langileari aldi baterako murrizten bazaio eguneroko ohiko lanaldia, gutxienez ehuneko 10 eta gehienez ehuneko 70, betiere hein bereko murrizketa izaten badu soldatan.

Ondorio horietarako, eguneroko ohiko lanaldiaren aldi baterako murrizketatzat hartuko da Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 47. artikuluan zehaztutakoaren babesean edo konkurtso-prozedura baten barruan emandako ebazpen judizialaren ondorioz enpresaburuak erabakitzen duena; horren barnean ez dira sartzen, ordea, behin betiko lanaldi-murrizketak eta lan-kontratuari gelditzen zaion denbora guztirako lanaldi-murrizketak.

263. artikulua. *Babes-mailak.*

1. Langabezia-babesa maila kontributiboan eta asistentzian egituratzen da. Bi maila horiek publikoak eta nahitaezkoak dira.

2. Maila kontributiboak helburu du aurreko enplegua galtzearen ondorioz edo kontratua etetearen ondorioz edo lanaldia murriztearen ondorioz jaso ez diren soldata-errentak ordeztzeko prestazioak ematea.

3. Maila asistentzialak, zeina aurrekoaren osagarria baita, bermatzen du 274. artikuluan bildutako kasuetako batean dauden langile langabeen babesa.

264. artikulua. *Babestutako pertsonak.*

1. Langabezia-babesean honako hauek egongo dira sartuta, gertakari horrengatik kotizatzea aurreikusita badute:

a) Besteren konturako langileak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta daudenak.

b) Gertakari hori babesten duten Gizarte Segurantzako araubide berezietan sartuta dauden besteren konturako langileak, erregelamendu bidez ezartzen diren berezitasunekin.

c) Espainiara itzultzen diren langile emigratzaileak eta espetxetik ateratzen direnak, titulu honetan ezarritako baldintzetan.

d) Behin-behineko funtzionarioak, behin-behineko langileak eta administrazio publikoen zerbitzura administrazio-zuzenbideko araubidean behinola kontratatutako langileak.

e) Toki-korporazioetako kideak eta foru-lurralde historikoetako batzar nagusietako kideak, Kanariar Uharteetako kabiloetako eta Balear Uharteetako kontseiluetako kideak, eta Sindikatu Askatasunaren abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoaren babesean eratutako sindikatu-erakundeak ordezkaten dituzten kargudunak izanik sindikatuko zuzendaritza-eginkizunak betetzen dituztenak, baldin eta horiek guztiak aipatutako karguetan arduraldi eskusiboan edo partzian ari badira eta horrengatik ordainsari bat jasotzen badute, titulu honetan besteren konturako langileentzat ezarritako baldintzetan.

f) Administrazio publikoetan arduraldi eskusiboan ari diren goi-kargudunak, horrengatik ordainsariak jasotzen badituzte eta funtzionario publiko ez badira, titulu honetan besteren konturako langileentzat ezarritako baldintzetan, salbu eta ordainsariak, kalte-ordainak edo bestelako konpentsazio-prestazioren bat jasotzeko eskubidea badute kargu-uzteagatik.

2. Aurreko zenbakiko e) eta f) letretan aipatzen diren pertsonak nahitaez kotizatu beharko dute langabezia-gertakariarengatik, eta gauza bera egin beharko dute pertsona horiek beren karguak betetzen dituzten toki-korporazioek, foru-lurralde historikoetako batzar nagusiek, Kanariar Uharteetako kabiloek, Balear Uharteetako kontseiluek, administrazio publikoek eta sindikatu-erakundeek ere, eta aplikatzekoak izango zaizkie, hurrenez hurren, langileentzat eta enpresaburuentzat ezarritako betebeharrak eta eskubideak.

Zenbaki honetan aipatzen diren kasuetan, langabeziaren kotizazio-tasa izango da une bakoitzean oro har lanaldi osoko edo partzialeko iraupen jakineko kontratazio baterako ezartzen dena.

3. Gobernuak langabezia-gertakariaren estaldura beste kolektibo batzuetara zabaltzeko ahalko du.

265. artikulua. *Babes-jarduna.*

1. Langabezia-babesak honako prestazio hauek hartuko ditu:

a) Maila kontributiboan:

1.a Erabateko langabeziako edo langabezia partzialeko prestazioa.

2.a Kasuan kasuko enpresaren Gizarte Segurantzako kotizazioen ekarpenaren ordainketa, langabezia-prestazioak jasotzen diren bitartean, 273.2 artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

b) Maila asistentzialean:

1.a Langabezia-subsidioa.

2.a Kasua bada, Gizarte Segurantzako erretiro-gertakariagatiko kotizazioaren ordainketa, langabezia-subsidioa jasotzen den bitartean, 280. artikuluan ezarritako kasuetan.

3.a Osasun-laguntzako prestazioetarako eta, kasua bada, familia-prestazioetarako eskubidea, Gizarte Segurantzako araubideren batean sartutako langileen baldintza berdinetan.

2. Babes-jardunak, halaber, prestakuntzako, sakontzeko, orientazioko, lanbide-birmoldaketarako eta laneratzeko ekintza berariazkoak bilduko ditu, langabezia dauden langileen aldekoak, bai eta enplegu egonkorra sustatzea helburu duten gainerakoak ere. Hori guztia ez da eragozpena izango, kasua bada, Estatuaren Administrazio Orokorra edo kasuan kasuko administrazio autonomikoak enplegu-politika aktiboak kudeatzeko dauzkan eskumenetarako, aplikatzekoa den araudiari jarraituz.

3. Europako Esparru Ekonomikoko kide diren herrialdeetatik datozen langileek, edo langabezia-babeserako hitzarmena eginda duten herrialdeetatik datozenek, langabezia-prestazioak jasoko dituzte Europar Batasuneko arauetan edo kasuko hitzarmenetan aurreikusitako moduan.

II. KAPITULUA

Maila kontributiboa

266. artikulua. *Prestazioetarako eskubidea sortzeko betekizunak.*

Langabezia-prestazioak jasotzeko eskubidea izateko, 264. artikuluan bildutako pertsonak honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Gizarte Segurantzaren afiliatuta egotea eta alta-egoeran edo altarekin parekatutako egoeran egotea, legez edo erregelamendu bidez zehaztutako kasuetan.

b) 269.1 artikuluan adierazitako gutxieneko kotizazio-aldia estalita edukitzea legezko langabezia-egoeraren aurreko edo kotizatzeko betebeharra amaitu aurreko sei urteen barruan.

Legezko langabezia-egoera gertatzen denean lanaldi partzialeko kontratu bat edo batzuk edukiz gero, prestazioa eskuratzeko betekizuna betetzeko helburu soilarekin, kontuan hartuko dira bakar-bakarrik enplegua galdu den lanetako edo kontratua eten den nahiz lanaldi arrunta murriztu den lanetako kotizazio-aldiak.

c) Legezko langabezia-egoeran egotea eta enplegua aktiboki bilatzeko eta enplegu egokia onartzeko prest daudela frogatzea, 300. artikuluan aipatzen den jarduera-konpromisoa sinatuz.

d) Erretiro-pentsio kontributiborako eskubidea sortzeko kasu bakoitzean eskatzen den adin arrunta beteta ez izatea, salbu eta langileak horretarako eskatzen den kotizazio-aldia frogatuta ez duenean edo kontratua eteteko edo lanaldia murrizteko kasuak direnean.

e) Eskumena duen enplegu-zerbitzu publikoan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

267. artikulua. *Legezko langabezia-egoera.*

1. Legezko langabezia-egoeran izango dira honako kasu hauetako batean diren langileak:

a) Lan-harremana azkentzen denean:

1.a Enpresaburuak Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51. artikuluan ezarritakoarekin bat erabakitako kaleratze kolektiboaren ondorioz, edota konkurtso-prozedura baten barruan hartutako ebazpen judizial baten ondorioz.

2.a Enpresaburu indibidualaren heriotzak, erretiroak edo ezintasunak lan-kontratua azkentzea dakarrenean.

3.a Kaleratzearen ondorioz.

Lan Arloko Jurisdikzioa Arazten duen Legearen 111.1.b) artikuluan ezarritako kasuan, langilearen kaleratzea bidegabeta dela deklaratzeko duen epaiaren aurkako errekurtsioa izapidetzen ari den bitartean langilea nahigabeko legezko langabezia-egoeran dagoela joko da, langabezia-prestazioak jasotzeko eskubidearekin, titulu honetan eskatutako betekizunak betetzen diren guztietan, lege honetako 269. edo 277.2 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera dagokion iraupenarekin, kotizaziopeko jarduera-aldi egiaztatuen arabera.

4.a Arrazoi objektiboak direla-eta kontratua azkentzearen ondorioz.

5.a Langileak kontratua alde bakarrez suntsiarazteagatik, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 40., 41.3, 49.1.m) eta 50. artikuluek ezarritako kasuetan.

6.a Hitzartutako denbora amaitzeagatik edo kontratuaren xede den obra edo zerbitzua egiteagatik, arrazoi horiek ez direnean heldu langilearen salaketaren ondorioz.

Lan Arloko Jurisdikzioa Arazten duen Legearen 147. artikuluan ezarritako kasuan, eta hartan aipatutakoa ezertan eragotzi gabe, joko da langileak aurreko lerrokadan aipatutako legezko langabezia-egoeran daudela aldi baterako azken kontratua amaitu zaienean, eta entitate kudeatzaileak langabezia-prestazioak aitortuko dizkie eskatzen diren gainerako betekizunak betetzen badituzte.

7.a Probaldian lan-harremana eteteagatik, enpresaburuak hala eskatuta, aurreko lan-harremana azkendu bada zenbaki honetan jasotako kasuetako batengatik edo azkentze hori gertatu denetik hiru hilabeteko epea iragan bada.

b) Kontratua eteten denean:

1.a Enpresaburuak hala erabaki duelako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoarekin bat, edota konkurtso-prozedura baten barruan hartutako ebazpen judizial baten ondorioz; kasu batean zein bestean, lege honen 262.2 artikuluan ezarritako moduan.

2.a Genero-indarkeriaren biktima diren langileek erabakita, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 45.1.n) artikuluan xedatutakoaren babesean.

c) Eguneroko lanaldi arrunta aldi baterako murrizten denean, enpresaburuak hala erabaki duelako Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoarekin bat, edota konkurtso-prozedura baten barruan hartutako ebazpen judizial baten ondorioz; kasu batean zein bestean, lege honen 262.3 artikuluan ezarritako moduan.

d) Aldizkako langile finkoen produkzio-jarduerarik gabeko aldietan, langile horien artean bilduz data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finkoak eta aldizkakoak egiten dituztenak.

Lege honen III. tituluaren eta bera garatzeko araudian aldizkako langile finkoei buruz egiten diren aipamenek data jakin batzuetan errepikatzen diren lan finko eta aldizkakoak egiten dituzten langileak ere hartzen dituzte.

e) Langileak Espainiara itzultzen direnean atzerriko herrialdean duten lan-harremana azkentzen zaielako, baldin eta herrialde horretan langabezia-prestazioa jasotzen ez badute eta Espainiatik atera baino lehen behar adinako kotizazioa egin zutela frogatzen badute.

f) 264.1 artikuluko e) eta f) letretan ezarritako kasuetan, kasuko karguetan nahigabeko kargu-uzte behin betiko bat gertatzen denean edo, karguari ertsuta ere, nahi gabe eta behin betiko arduraldi eskusiboa edo partziala galtzen denean.

2. Langileak ez dira legezko langabezia-egoeran egongo honelakoetan:

a) Lana beren borondatez utzi dutenean, 1.a) 5 puntuan ezarritako kasuan izan ezik.
b) 1. zenbakian aurreikusitako egoeretakoa batean egonda ere, ez dutenean frogatzen enplegua aktiboki bilatzeko eta enplegu egokia onartzeko prest daudela, jarduera-konpromisoaren bitartez.

c) Kaleratzea epai irmoz bidegabea edo deuseza dela deklaratu eta enplegatzaileak lanera berriz sartzeko data adierazi ondoren, langileak eskubide hori egikaritzen ez duenean edo, kasua bada, Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 279. artikuluan ezarritako akzioak baliatzen ez direnean.

d) Lanpostura berriz sartzeko eskatu ez dutenean, indarreko legerian ezarritako kasu eta epeetan.

3. Jarraian aipatzen diren kasuetan, honela egiaztatuko da legezko langabezia-egoera:

a) Artikulu honetako 1.a) 1. puntuan, 1.b) 1. puntuan eta 1.c) letran jasotako legezko langabezia-egoerak, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51. eta 47. artikuluetan hurrenez hurren ezarritakoaren babesean gertatzen direnak, modu hauetako baten bitartez frogatuko dira:

1.a Enpresaburuak langileari idatzizko komunikazioa eginez, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51. edo 47. artikuluetan ezarritako moduan. Enpresaren ziurtagirian, legezko langabezia-egoeraren arrazoa jaso beharko da, bai eta ondorioak sortzen hasiko den eguna ere. Ziurtagiri horrek langabezia-egoera egiaztatzeko balio izango du. Legezko langabezia-egoera ondorioak sortzen hasiko den egunak, enpresaren ziurtagirian jasotakoak, bat etorri beharko du enpresaburuak lan-agintaritzari kaleratze kolektiboa, kontratu-etetea edo lanaldi-murrizketa egiteko erabakia jakinarazten dion datarekin, edo horren ostekoa izan beharko du. Kaleratze kolektiboetarako dagokienez, errespetatu egingo da Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51.4 artikuluan zehaztutako epea.

2.a Administrazio-adiskidetzaren aktaren bidez, adiskidetze judizialaren aktaren bidez, edo behin betiko ebazpen judizialaren bidez.

Aurreko bi kasuetan, legezko langabezia-egoera egiaztatzeko, beharrezkoa da lan-agintaritzak langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateari egindako komunikazioa; hain zuzen ere, enpresaburuak Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 51. edo 47. artikuluetan ezarritakoarekin bat hartutako erabakiari buruzkoa. Komunikazioan honako hauek azaldu behar dira: enpresaburuak zer egunetan adierazi dion bere erabakia lan-agintaritzari, legezko langabezia-egoeraren arrazoiak, kaltetutako langileak, langabezia erabatekoa edo partziala den, eta, erabatekoa bada, behin-behinekoa edo behin betikoa den. Behin-behinekoa bada, lanaldi-etetearen edo murrizketaren epea adierazi behar da, eta partziala bada, berriz, murrizketaren ordu kopurua eta eguneroko lanaldi arruntaren aldean murrizketa horren ehunekoa zein den.

b) Artikulu honen 1.a)5. puntuan eta 1.b)2. puntuan jasotako legezko langabezia-egoera –Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 49.1.m) eta 45.1.n) artikuluetako kasuak direnean, hurrenez hurren– lan-harremana azkentzearen edo aldi baterako etetearen gainean enpresaburuak egindako idatzizko komunikazioaren bidez egiaztatuko da; komunikazio hori joango da biktimaren aldeko babes-aginduekin batera edo, halakorik izan ezean, Fiskaltzak emandako txostenarekin batera, zeinak genero-indarkeriaren biktima izatearen inguruko zantzuak daudela jaso beharko baitu.

c) Artikulu honetako 1.f) zenbakian ezarritako legezko langabezia-egoera toki-korporazioaren, foru-lurralde historikoko batzar nagusiaren, uharteko kabildoaren, uharteko

kontseiluaren edo administrazio publiko nahiz sindikatuaren organo eskudunaren ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da, eta horrekin batera kargugabetutako titularraren deklarazioa aurkeztuko da, non adieraziko baita ez dagoela nahitaezko eszedentziako egoeran, ez eta lanpostura berriz itzultzea bideratzen dion beste edozeinetan ere.

268. artikulua. *Prestazioetarako eskubidea eskatzea, sortzea eta iraunaraztea.*

1. 266. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonak entitate kudeatzaile eskudunari eskatu beharko diote onar dezala legezko langabezia-egoera gertatuz gero sortuko den prestazioetarako eskubidea, betiere hurrengo hamabost eguneko epearen barruan egiten bada prestaziorako eskaria. Eskaria egiteko baldintza izango da enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea. Era berean, eskaria egiten den egunean, 300. artikulua aipatzen duen jarduera-konpromisoa sinatu beharko da.

Enplegu-eskatzaille gisa izena emanda jarraitu beharko da prestazio-aldiak irauten duen denbora guztian, prestazioa jasotzen jarraitzeko ezinbesteko betekizuna baita; gainera, prestazioaren ordainketa eten egingo da, baldintza hori bete ezean, 271. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. 266. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituztela frogatu bai baina eskaera 1. zenbakian aipatzen den hamabost eguneko epea iraganda aurkezten dutenek, eskubidea izango dute prestazioa aitortu dakien eskaeraren datatik aurrera, eta eskaera garaiz eta forman aurkeztu izan balute eskubidea sortuko zen egunetik eskaera egiazki egin den egunera bitarte dauden prestazio-egunak galduko dituzte.

3. Urteko ordaindutako oporrei dagokien aldia ez bada baliatu lan-harremana amaitu baino lehen, edo aldizkako langile finkoen sasoiko edo kanpainako jarduera amaitu baino lehen, legezko langabezia-egoera eta prestazioetarako eskubidea sortzea garai hori iragan denean gertatuko da, baldin eta prestazio-eskubide hori eskatzen bada garai hori amaitu ondorengo hamabost eguneko epearen barruan.

Aipatutako garaia, ondorio horietarako, enpresa-ziurtagirian jasoko da.

4. Kaleratzearen edo lan-harremana azkentzearen kasuan, enpresaburuak harreman hori amaitzeko hartutako erabakia legezko langabezia-egoeraren kausatzat hartuko da, bere horretan eta aurkaratu beharrik izan gabe. Kaleratzearen edo azkentzearen kontrako akzioa baliatzeko ez du prestazioa jasotzeko eskubidea sortzea eragotziko.

5. Kaleratze-prozeduretan edo lan-kontratua azkentzeko prozeduretan emandako ebazpenen kasuan:

a) Kaleratzea bidegabetzat jotzen denean, eta kalte-ordaina hautatzen denean, langileak langabezia-prestazioak jasotzen jarraituko du, eta, jasotzen ari ez bada, jasotzen hasiko da, lana amaitzen duen egunetik aurrera, 1. zenbakian ezarritakoa betetzen bada. Horretarako hasiera-data adiskidetze-aktarena edo kalte-ordainaren hautua jasotzen duen pribidentiarena izango da, edo, ebazpen judizialik izan bada, azken horrena.

b) Langilea berrartzen denean, kontziliazio bidez nahiz epai irmoz, nahiz eta hori ez gertatu Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen 284. artikuluan aipatzen den kasuan, langabezia-prestazioen kontzeptuan langileak hartutako kopuruak bidegabekotzat joko dira, langileari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

Kasu horretan, entitate kudeatzaileak langabezia-prestazioak ordaintzeari utziko dio eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari erreklamatu dizkio prestazioak jaso bitartean egindako kotizazioak. Enpresaburuak entitate kudeatzaileari ordaindu beharko dizkio langileak jasotako kopuruak, eta egokituko ziren jaso gabeko soldatetatik kenduko ditu, betiere soldata horien batura muga gisa hartuz.

Aurreko lerrokadetan xedatutakoaren ondorioetarako, 295.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da enpresaburuak zuzenean ordainketaren erantzulea den prestazioak itzultzeari dagokionez, bai eta langilearen erreklamazioari dagokionez ere, baldin eta prestazioaren zenbatekoak soldatarena gainditu badu.

c) Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen 281.2 eta 286.1 artikuluek aipatzen dituzten kasuetan, baldin eta langilea ez bada prestazioak jasotzen ari, haiek jasotzen hasiko da lan-harremana azkendu dela deklaritzen den unetik aurrera.

Bi kasuetan, zenbaki honen a) letran lan-harremana azkendu arte jasotako prestazioei buruz ezarritakoari begiratuko zaio.

6. Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategineko 56. artikulua aipatzen dituen kasuetan, enpresaburuak langilearen alta eta baja premiatu beharko ditu eta Gizarte Segurantzari kotizatu beharko dio izapidetzen ari diren soldatei dagokien aldian; betiere, aldi hori ondorio guztietarako kotizaziopeko jarduera-alditzat joko da.

Aurreko zenbakiko b) letran aipatzen den kasuetan, enpresaburuak Gizarte Segurantzari alta ematea premiatu beharko du kaleratzearen edo azkentzearen hasierako datatik aurrerako ondorioekin, eta aldi horrengatik kotizatu beharko du; betiere, aldi hori ondorio guztietarako kotizaziopeko jarduera-alditzat joko da.

269. artikulua. *Langabezia-prestazioaren iraupena.*

1. Langabezia-prestazioaren iraupena legeko langabezia-egoeraren aurreko sei urteetan izandako kotizaziopeko jarduera-aldien arabera izango da, edo kotizatzeko betebeharra amaitu zen unearan arabera, honako eskala honi jarraituz:

Kotizazio-aldia (egunetan)	Prestazio-aldia (egunetan)
360 eta 539 bitarte	120
540 eta 719 bitarte	180
720 eta 899 bitarte	240
900 eta 1.079 bitarte	300
1.080 eta 1.259 bitarte	360
1.260 eta 1.439 bitarte	420
1.440 eta 1.619 bitarte	480
1.620 eta 1.799 bitarte	540
1.800 eta 1.979 bitarte	600
1.980 eta 2.159 bitarte	660
2.160tik gora	720

Gobernuak eskala hori aldatu ahalko du aurrez Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Kontseilu Nagusiak txostena emanda, betiere langabezia-tasaren eta finantzaketa-araubidearen aukeren arabera.

2. Aurreko zenbakiak aipatutako kotizaziopeko jarduera-aldia zehazteko, kontuan hartuko dira aurretiazko eskubide bat aitortzeko zenbatu gabeko kotizazio guztiak, maila kontributibokoak nahiz asistentzialekoak. Hala ere, ez da aurretiazko eskubidetzat hartuko, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 45.1.n) artikulua arabera lan-harremanak eteteagatik aitortzen dena.

Aurreko zenbakian aipatzen diren aldietan lanaldi partzialeko lanak egin badira, kotizazio-aldiak zehazteko erregelamendu bidezko garapeneko araudian zehaztutakoari begiratu beharko zaio.

Ez dira zenbatuko prestazioa ordaindu bitartean entitate kudeatzaileak edo, hala denean, enpresak egiten dituen kotizazioak, salbu eta prestazio hori jasotzen denean Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 45.1.n) artikulua arabera lan-harremanak eteteagatik, lege honen 165.5 artikulua ezarri bezala.

3. Prestaziorako eskubidea azkentzen denean titularrak hamabi hilabeteko edo gehiagoko iraupena duen lan bat egiteagatik, titular horrek, beste prestazio bat aitortzen bazaio, aukeratu ahalko du edo hasierako eskubidea berriz ireki, gelditzen zaion aldirako edo dagozkion oinarri eta tasen arabera, edo egindako kotizazio berriekin sortutako prestazioa jaso. Langileak aurreko prestazioaren hautua egiten baldin badu, aukeratu ez duen prestazioa sortu zuten kotizazioak ezingo dira zenbatu geroko eskubide bat aitortzeko, maila kontributibokoa nahiz asistentzialekoa.

4. Oporrei dagokien aldia, 268.3 artikuluan aipatzen dena, kotizazio-alditzat zenbatuko da artikuluko honetakoa 1. zenbakian eta 277.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta aldi horretan zehar joko da langilea altarekin parekatutako egoeran dagoela, 166.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

5. 262.3 artikulua aipatutako langabezia partzialaren kasuan, orduka baliatuko dira sortutako prestazioak, ez egunka. Xede horretarako, kontsumitutako portzentajea enpresaburuak erabakitako lanaldi-murrizketaren baliokidea izango da, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoaren babesean edota konkurtso-prozedura baten barruan hartutako ebazpen judizial baten ondorioz.

270. artikulua. *Langabezia-prestazioaren zenbatekoa.*

1. Langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea gertakari hori dela-eta aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen den aldiko azkeneko ehun eta laurogei egunetan kotizatu den oinarriaren batezbestekoa izango da.

Langabezia-prestazioaren oinarri arautzailearen kalkulutik kanpo utziko da aparteko orduengatik jasotako ordainsaria, alde batera utzita ordainsari hori 19. artikuluan finkatutako gertakari horrengatik kotizazio-oinarrian sartuta dagoen. Kalkulu horren ondorioetarako, ordainsari horiek ez dira sartuko enpresa-ziurtagirian ere.

Lanaldi partzialeko lanak egin badira, langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko aldiak zehazteko erregelamendu bidezko garapeneko araudian zehaztutakoari begiratu beharko zaio.

2. Prestazioaren zenbatekoa finkatuko da oinarri arautzaileari honako portzentaje hauek gehituz: ehuneko 70 lehenengo ehun eta laurogei egunetan zehar, eta ehuneko 50 ehun eta laurogeita batgarren egunetik aurrera.

3. Langabezia-prestazioaren gehieneko zenbatekoa ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 175 izango da; nolana ere, langileak ardurapeko seme-alaba bat edo gehiago baditu, zenbatekoa adierazle horren ehuneko 200 edo ehuneko 225 izango da, hurrenez hurren.

Langabezia-prestazioaren gutxieneko zenbatekoa eragin anitzeko errenten adierazle publikoaren ehuneko 107 edo ehuneko 80 izango da, langileak ardurapeko seme-alabarik duen edo ez duen.

Lanaldi partzialeko edo lanaldi osoko enplegua galtzeagatik langabeziari dagokionez, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa hartuko da kontuan aurreko lerroketan jasotako prestazioaren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak zehazteko orduan; azken hori kalkulatzeko, bestalde, 1. zenbakian aipatutako azken 180 egunen aldi lan egindako orduen batezbestekoa erabiliko da; horrela bada, aldi horretan denbora partzial edo osoko enplegu bakoitzean emandako egunetik haztatuko da batezbesteko hori.

Zenbaki honetan ezarritako ondorioetarako, kontuan hartuko da eskubidea sortzen denean indarrean dagoen hileko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa, seiren bat gehituta.

4. Langileak lanaldi partzialeko bi kontratu dituenetan eta horietako bat galtzen duenean, langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea gertakari hori dela-eta bi lanetan 269.1 artikuluan aipatzen den aldiko ehun eta laurogei egunetan kotizatutako oinarrien batezbestekoa izango da, eta aurreko zenbakian aipatzen diren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak finkatuko dira ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa kontuan hartuta, betiere bi lanetan lan egindako orduetako erreparatuta.

5. Langabezia partzialeko prestazioa, aurreko zenbakietan aipatutako arauak aplikatuta, lanaldi-murrizketaren proportzioan zehaztuko da.

6. Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 37. artikuluko 5., 6. eta 8. zenbakietan lanaldia murrizteari dagokionez ezarritako kasuetan, oinarri arautzailea kalkulatzeko, kotizazio-oinarriak zenbatuko dira, aintzat hartuta murrizketarik izan gabe lanaldi osoak edo partzialak eragingo lituzkeen zenbatekoen ehuneko 100 arteko gehikuntza.

Legezko langabezia-egoera gertatzen bada, lanaldi-murrizketaren ondorioz langilea aipatu egoeretan dela, aurreko zenbakietako gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak

zehaztuko dira ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa kontuan hartuta, lanaldia murriztu aurretik lan egindako orduen arabera.

271. artikulua. *Eskubidea etetea.*

1. Entitate kudeatzaileak langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea honako kasu hauetan etengo du:

a) Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera arau-hauste arin eta larriengatik zigorra ezartzean bidezkoa den aldian zehar.

Aurreko letran aipatutako aldia amaiturik prestazioen onuradunak ez badu izena eman enplegu-eskatzaile gisa, prestazioari berrekiteko, entitate kudeatzaileara joan beharko du izen-ematea frogatzera.

b) Amatasuneko edo aitatasuneko egoeran zehar, 284. artikuluan ezarritako moduan.

c) Eskubidearen titularra askatasunez gabetzea dakarren kondena betetzen ari den bitartean. Eskubidea ez da etengo baldin eta titularrak familia-erantzukizunak baditu eta lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako inolako familia-errentarik ez badu.

d) Eskubidearen titularrak hamabi hilabete baino iraupen laburragoko lanen bat egiten duen bitartean besteren konturako araubidean, edo hirurogei hilabete baino iraupen laburragoko lanen bat egiten duen bitartean norberaren konturako araubidean, baldin eta norberaren konturako langileen kasuan alta hartzen bada Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian.

e) Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen 297. artikulua aipatzen dituen kasuetan, langileak zerbitzuak ematen jarraitzen duen bitartean edo enpresaburuaren borondatez zerbitzu horiek ematen ez dituen bitartean artikulua horretan araututako moduan, errekurtsioa izapidetzen ari den garaian. Behin betiko ebazpena dagoenean, 268.5 artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da.

f) Onuradunak bizilekua atzerrira aldatzen duenean adierazten badu lana bilatzeko edo lana egitera joateko dela, edo lanbide-hobekuntza egitera edo nazioarteko lankidetzan aritzera joateko dela, eta hamabi hilabete jarraitu baino epe motzago baterako bada, betiere alde aurretik hala adierazi bada eta entitate kudeatzaileak baimena eman badu; hori, ordea, ez da eragozpen izango Europar Batasuneko arauetan prestazioak esportatzeari buruz ezarritakoa aplikatzeko.

g) Urtean gehienez laurogeita hamar egun naturalez, segidan edo aldizka, atzerrira egonaldia egitera joateko kasuetan, betiere irteteko asmoa adierazi bada alde aurretik, eta entitate kudeatzaileak baimena eman badu.

Ez da egonaldizat ez eta bizileku-aldaketatzat joko atzerrira ateratzea urte bakoitzean behin eta hamabost egun baino gutxiagorako, hargatik eragotzi gabe 299 artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

2. Prestaziorako eskubidea eteteak berekin ekarriko du haren ordainketa etetea, eta ez du eraginik izango hura jasotzeko aldian, salbu eta 1.a) zenbakian ezarritako kasuan; izan ere, kasu horretan, prestazioa jasotzeko aldia murriztu egingo da gertatutako eteteak irauten duen denbora berean.

3. Langabezia-prestazioen onuradunek ez badute betetzen eskatutako dokumentuak ezarritako epeetan aurkezteko betebeharra, betiere dokumentu horiek prestazioetarako eskubideari eusteko ezinbestekoak badira, prebentzio-neurriak hartu ahalko ditu entitate kudeatzaileak, hala behar bada; horrela bada, prestazio horiek ordaintzea eten ahalko du, harik eta onuradunek eskubideari eusteko ezarritako legezko betekizunak betetzen dituztela frogatu arte haren aurrean; hori egin ondoren berrekingo zaio prestazioari.

Era berean, entitate kudeatzaileak eten egingo du prestazioen ordainketa, baldin eta onuraduna enplegu-zerbitzu publikoan izena eman gabe badago (hau da, izena eman gabe dagoen aldi horietako ordainketa), eta berriz hasiko da ordaintzen hark berriz ere izena ematen duenetik aurrera, betiere entitate kudeatzailearen aurrera agertzen bada

izena eman duela frogatzera, non eta arau honetan edo beste batean aurreikusitako kausengatik prestazioa eteten edo azkenarazten ez duen.

4. Langabezia-prestazioa edo -subsidioa honela berrabiatuko da:

a) Entitate kudeatzaileak ofizioz berrabiatuko du, 1. zenbakiko a) letran jasotako kasuetan, baldin eta eskubideari dagokion aldia agortuta ez badago eta langilea enplegu-eskatzaile moduan izen emanda ageri bada.

b) Interesdunak eskatuta, 1. zenbakiko b), c), d), e), f) eta g) letretan jasotako kasuetan, baldin eta egiaztatzen bada: amaitu dela etetea eragin duen kausa; hala badagokio, kausa horrek legezko langabezia-egoera dakarrela edo enplegu-eskatzaile gisa izena eman dela, norberaren konturako langileen kasuan; edo, hala badagokio, artean ere betetzen direla errentarik ez izateko edo familia-erantzukizunak izateko betekizuna. Artikuluko 1. zenbakiko d) letrak adierazten duen egoeran, norberaren konturako langileak alta hartzen duenean Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian, langabezia-prestazioa berriz has daiteke norberaren konturako lana hirurogei hilabetekoa baino laburragoa bada.

Langabezia-prestazioaren edo -subsidioaren etetea hasi eta hogeita lau hilabete ondoren hura berriro eskatzen duten norberaren konturako langileek egiaztatu beharko dute norberaren konturako jarduera amaitzearen arrazoia honako hauetako bat izan dela: arrazoi ekonomikoak, teknikoak, ekoizpenekoak edo antolakuntzakoak, etetea ekarri duen ezinbesteko kausa, administrazio-lizentziaren galera, genero-indarkeria, dibortzioa edo banantzea, sozietate bateko kontseilari- edo administrari-kargutik nahi gabe kentzea edo sozietate horri zerbitzuak emateari uztea, eta ekonomikoki mendekoa den langile autonomoak eta bezeroak sinatutako kontratua azkentzea; hori guztia, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan.

Bere konturako lanari utzi ondoren langileak jarduera hori uzteagatiko babeserako eskubidea badu, aukeratu ahalko du edo hura jaso, edo etendako langabezia-babeserako eskubidea berriz ireki. Langileak aurreko prestazioaren hautua egiten baldin badu, aukeratu ez duen prestazioa sortu zuten kotizazioak ezingo dira zenbatu geroko eskubide bat aitortzeko.

Eteteko arrazoia amaitzen denean sortuko da prestazioari berrekiteko eskubidea, amaitu eta ondorengo hamabost egunetan eskatzen bada; eskaera hori egiteko, izena eman beharko da enplegu-eskatzaile moduan, lehenago eman ez bada. Orobat, berraktibatutzat joko da eskaera egiten den datan 300. artikuluan adierazten den jarduerakonpromisoa. Hala ere, ez da berraktibatuko entitate kudeatzaileak beste konpromiso bat izenpetzea eskatzen duen kasuetan.

Adierazitako epea iraganda aurkezten bada eskaera, 268.2 eta 276.1 artikuluetan ezarritako ondorioak gertatuko dira.

Urteko opor ordainduei dagokien denbora hartu gabe izanez gero, 268.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

272. artikulua. *Eskubidea azkentzea.*

1. Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea honako kasu hauetan azkenduko da:

a) Prestazioaren iraupen-epea agortu denean.

b) Zehapenen bat ezarri denean, Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritako moduan.

c) Besteren kontura hamabi hileko edo iraupen luzeagoko lanen bat egiten denean, hargatik eragotzi gabe 269.3 artikuluan ezarritakoa, edo norberaren konturako lanen bat egitea hirurogei hilabetez edo gehiagoz norberaren konturako langileak hasierako alta hartzen badu Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian.

d) Eskubidearen titularrak erretirorako adin arrunta betetzen duenean, 266.d) artikuluan ezarritako salbuespenekin.

e) Erretiro-pentsioa edo ezintasun iraunkorragatiko pentsioa jasotzen hasten denean, azken kasu horretan ezintasun iraunkor osoko, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko graduetan. Hala eta guztiz ere, kasu hauetan, onuradunak aldekoena zaion prestazioaren alde egin ahalko du.

f) Atzerriko egonaldia edo bizilekua atzerrira aldatzea, non eta ez diren 271.1 artikulua f) eta g) letretan jasotako etete-kausak.

g) Langileak bere borondatez eskubideari uko egitea.

2. Entitate kudeatzaileek langabezia-prestazioak jasotzen dituztenei eskatu ahal dizkien lankidetzaren sozialeko lanek ez dute berekin ekarriko langabearen eta lan horiek ematen direneko entitatearen artean lan-harremanik egotea, eta langileak langabezia-prestazioa edo -subsidioa jasotzeko eskubideari eutsiko dio.

Entitate kudeatzaileak sustatuko du administrazio publikoekin eta irabazi-asmorik gabeko entitateekin itunak egitea, eta horietan erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, identifikatuko dira lankidetzaren sozialeko lan horiek zein diren. Nolanahi ere, lan horiek ondorengo betekizunak bete beharko dituzte:

a) Gizartearentzat baliagarriak izatea eta erkidegoari onura ekartzea.

b) Aldi baterakoak izatea.

c) Bat etortzea langabezia dagoen langilearen gaitasun fisiko eta prestakuntzakoekin.

d) Ez dute ekarriko langilea ohiko bizilekua aldatu behar izatea.

273. artikulua. *Langabezia-egoerak irauten duen bitarteko kotizazioa.*

1. Langabezia-prestazioa jasotzen den aldian zehar, entitate kudeatzaileak Gizarte Segurantzako kotizazioak ordainduko ditu, enpresaren ekarpena bere egingo du eta prestazioaren zenbatekotik langabeziari dagokion ekarpena deskontatuko du, baita 270.3 artikuluan aipatzen diren kasuetan ere.

2. Lanaldia murrizten den edo kontratua eteten den kasuetan, enpresak dagokion ekarpena ordainduko du, eta entitate kudeatzaileak soilik langilearen ekarpena ordaindu beharko du, behin aurreko zenbakian aipatzen den deskontua eginda.

3. Lan-harremana azkendu denean, Gizarte Segurantzako kotizazioak ez ditu jasoko langabeziari, laneko istripuei eta gaixotasun profesionalei, Soldadak Bermatzeko Funtzari eta lanbide-heziketari dagozkion kuotak.

III. KAPITULUA

Maila asistentziala

274. artikulua. *Langabezia-subsidioaren onuradunak.*

1. Subsidioaren onuradunak izango dira hilabete epe batez enplegu-eskatzaile bezala izena emanda egon direnak enplegu-eskaintza egoki bati ezezkorik eman gabe edo sustapeneko, prestakuntzako edo birmoldatze profesionaleko ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe, arrazoi justifikatuetan izan ezik, baldin eta hurrengo artikuluan ezarritako moduan errentarik ez badute. Betiere, honako egoera hauetako batean egon beharko dute:

a) Langabezia-prestazioa agortuta beharko dute eta familia-erantzukizunak izan beharko dituzte.

b) Langabezia-prestazioa agortua beharko dute, familia-erantzukizunik izan gabe, eta prestazioa agortzen den egunean berrogeita bost urtetik gorakoak izan beharko dute.

c) Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren herrialdeetatik etorritako langile emigratzaile espainiarrak izatea, baldin eta herrialde horiekin langabezia-babesari buruzko hitzarmenik ez badago eta frogatzen badute Espainiatik azkeneko aldiz atera zirenetik

azken sei urteetan gutxienez hamabi hilabetez lan egin dutela, eta langabezia-prestaziorako eskubiderik ez badute.

d) Guztiz gai edo ezintasun iraunkor partzialeko graduak ezindutzat deklaratu izana, ezintasun iraunkor osoko, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko graduetak ezintasun-egoeran hobetzera egin izanari buruzko berrikuspen-espeditente baten ondorioz.

2. Halaber, subsidioaren onuradun izango dira espexetik atera direnak, baldin eta aurreko zenbakiko lehen lerrokadan ezarritako betekizunak betetzen badituzte eta langabezia-prestaziorako eskubidea ez badute; betiere, askatasun-gabetzeak sei hilabetetik gorakoa izan beharko du.

Ulertuko da egoera horretan daudela barneratze-zentro batetik askatu dituzten adingabeak, baldin eta zentro horretan delitu gisa tipifikatutako egitateen ondorioz egon badira; betiere, aipatutako denboraz askatasunez gabetuta egoteaz gainera, askatzeko unean hamasei urtetik gorakoak izan beharko dute.

Halaber, egoera horren barruan sartuko dira droga-mendekotasunetik desohitzeko tratamendu bat burutu duten pertsonak, baldin eta tratamendu horrek sei hilabete baino gehiago iraun badu eta askatasunez gabetzeko zeukaten zigorra barkatu bazaie Zigor Kodearen 87. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Espexetik ateratzen direnek, Zigor Kodearen 36.2 artikuluen a), b), c) edo d) lerrokadetan ezarritako delituengatik zigortu badituzte, zenbaki honetan eta hurrengoan ezarritako langabezia-subsidioa lortu ahalko dute soilik espex-administrazioaren ziurtagiri egokiarekin frogatzen dutenean honako baldintza hauek betetzen dituztela:

a) Zigor Kodearen 36.2 artikuluen a) edo b) letretan jasotako delituengatik zigortuta dauden eta espexetik atera direnen kasuan, Espexeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorren 72.6 artikuluan eskatutako betekizunak bete dituztela.

b) Zigor Kodearen 36.2 artikuluen c) edo d) letretan jasotako delituengatik zigortuta dauden eta espexetik atera direnen kasuan, delituaren ondoriozko erantzukizun zibila kitatu dutela, ondorio horietarako kaltea konpontzeko eta kalte materialen eta moralen ordaina emateko egiaz ikusitako portaera aintzat hartuta, eta delituaren biktimei barkatzeko berriazko eskaera egin dietela.

3. 1. zenbakiko lehen lerrokadan aipatzen diren betekizunak, itxarote-denborari buruzkoa izan ezik, betetzen dituzten langabeek, legezko langabezia-egoeran baldin badaude eta prestazio kontributiborako eskubidea ez badute, gutxieneko kotizazio-aldia ez betetzeagatik, subsidioa lortu ahalko dute, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Gutxienez hiru hilabetez kotizatu izana eta familia-erantzukizunak izatea.

b) Gutxienez sei hilabetez kotizatu izana, familia-erantzukizunik izan gabe ere.

4. Subsidioa eskuratu ahalko dute berrogeita hamabost urtetik gorako langileek, familia-erantzukizunik ez badute ere, baldin eta aurreko zenbakietan jasotako kasuetan badaude, langabeziagatik sei urtez gutxienez kotizatu badute lan-bizitzan zehar, eta frogatzen badute eskubidea egiteko unean, adina izan ezik, gainerako betekizun guztiak ere betetzen dituztela Gizarte Segurantzaren sistemaren edozein erretiro-pentsio kontributibo mota eskuratzeko.

Subsidioa eskuratzeko, langileak berrogeita hamabost urte beteta izan beharko ditu langabezia-prestazioa edo -subsidioa bukatzen den egunean; edo adin hori beteta izan beharko du aurreko zenbakietan jasotako kasuetako subsidio bat eskuratzeko edo, bestela, berau jasotzen duen bitartean bete behar du.

275. artikulua. *Inskripzioa, errenta-gabezia eta familia-erantzukizunak.*

1. Aurreko artikuluan ezarritako subsidio-modalitate guztietan, baldintza izango da enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea eta hala jarraitzea, 266.e) eta 268.1 artikuluetan ezarritako baldintzen arabera.

2. Aurreko artikuluan eskatutako errenta-gabeziaren betekizuna bete dela ulertuko da eskatzaileak edo onuradunak inolako errentarik ez duenean –hilabetea zenbatuta– lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 egiten duenik, horretatik kenduta aparteko bi soldatei dagokien zati proportzionala.

274.4 artikuluan ezarritako berrogeita hamabost urtetik gorako langileentzako subsidioaren kasuan, eskatzaileak, artikulua honetan ezarritakoaren arabera, errentarik ez badu, baina ezkontidea badu edo hogeita sei urtetik beherako seme-alabarik baldin badu, edota adineko ezindua nahiz harreran hartutako adingabeak baditu, errenta-gabeziaren betekizuna betetzat emateko, beharrezkoa izango da familia-unitate horretako kide guztien, eskatzailea barne, errenten batura zati kide kopurua egitean, emaitza lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 baino handiagoa ez izatea, bi aparteko ordainsariren zati proportzionala kanpo utzita.

3. Aurreko artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, familia-erantzukizuntzat hartuko da ezkontidea, hogeita sei urtetik beherako seme-alabak edo adin horretatik gorako seme-alaba ezindua edo harreran hartutako adingabeak norberaren ardurapean edukitzea, baldin eta horrela eraturako familia-batasun osoaren errenta, eskatzailea barne dela, zati hura osatzen duten kideen kopurua egitearen emaitza lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75era iristen ez bada, bi aparteko ordainsariren zati proportzionala kanpo utzita.

Ezkontidea, seme-alabak edo harreran hartutako adingabeak ez dira norberaren ardurapekotzat hartuko, baldin eta, bi aparteko ordainsariren zati proportzionala kenduta, lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75etik gorako errentak badituzte.

4. Errenta-gabeziaren betekizuna eta, kasua bada, familia-erantzukizunen betekizuna zehaztearen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira errenta edo sarrera konputagarritzat: lanaren, kapital higigarriaren edo higiezinaren, jarduera ekonomikoen eta prestazio erakoien ondoriozko edozer ondasun, eskubide edo etekin, norberaren ardurapeko seme-alabengatiko Gizarte Segurantzaren esleipenak eta Gizarte Segurantzaren Administrazioarekiko hitzarmen berezia finantzatzera zuzendutako kuoten zenbatekoa izan ezik. Halaber, errentatzat ere hartuko dira ondarezko irabaziak edo gainbalioak, bai eta ondarearen zenbateko ekonomikotik ondoriozta daitezkeen etekinak ere; horien balioari diruaren gainean indarrean dagoen legezko interes-tasaren ehuneko 100 aplikatuko zaio; salbuetsita egongo dira langilea bizi den etxebizitza eta errentak zenbatu direneko ondasunak, betiere, araudian ezarritakoaren arabera.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, lan-kontratua azkentzeagatik kasu bakoitzean egokia den legezko kalte-ordainaren zenbatekoa ez da errentatzat hartuko. Hori guztia kalte-ordain hori ordainketa bakarrean edo aldizka jasotzen den alde batera utzita.

Errentak etekin oso edo gordinagatik zenbatuko dira. Enpresa-, lanbide-, nekazaritza-, abeltzaintza- eta arte-jarduerengatik sortutako etekina, berriz, diru-sarreraren eta horiek lortzeko behar diren gastuen arteko aldeagatik zenbatuko da.

Entitate kudeatzaileak errenten aitortpena eskatu ahalko dio langileari horiek egiaztatzeko, bai eta, hala badagokio, aurkeztutako zerga-aitorpenen kopia emateko ere.

5. Errenta-gabeziaren eta, kasua bada, familia-erantzukizunen betekizunak gertatu beharko dira egitate eragilearen unean, eta, gainera, subsidioa eskatzearen unean, bai eta haren luzapenak edo berrabiatzeak eskatzeko unean eta aurreko artikuluan ezarritako subsidio-modalitate guztiak jasotzen diren bitartean ere.

Betekizunak betetzen ez badira, langileak subsidiorako eskubidearen aitortpena lortu ahalko du soilik berriz ere aurreko artikuluan aipatutako egoeretako batean dagoenean eta eskatutako betekizunak betetzen dituztenean, salbu eta egitate eragilearen datatik urtebeteko epearen barruan frogatzen bada errenta-gabeziaren betekizuna edo, kasua bada, familia-erantzukizunen betekizuna betetzen direla; izan ere, halakoetan langileak dagokion subsidioa lortu ahalko du eskaera egiten duen egunetik aurrera, iraupenean murrizketarik pairatu gabe.

Ondorio horietarako, egitate eragilearen datatzat hartuko da hilabeteko itzarote-epaia betetzen denekoa edo legezko langabezia-egoera gertatzen denekoa; edo sei hileko eskubidea agortzen denekoa; edo, bestela, etetearen arrazoia amaitzen denekoa.

276. artikulua. *Subsidiorako eskubidea sortzea eta luzatzea.*

1. Langabezia-subsidiorako eskubidea sortzen da 274.1 artikuluan ezarritako hilabeteko epea bete eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hilabeteko itzarote-eperearen barruan hamabi hiletik beherako iraupena duen lan bat onartzeak ez du eraginik izango subsidioa lortzeko eskubidean; izan ere, eten egingo da hura amaitzen den arte.

274.3 artikuluan ezarritako subsidio-kasuan, eskubidea sortuko da legezko langabezia-egoeraren egunaren biharamunetik aurrera, salbu eta 268.3 artikuluan ezarritakoa aplikatzekoa denean.

Horretarako, beharrezkoa izango da kasu guztietan subsidioa eska dadila aurrez aipatutako daten ondorengo hamabost egunetan, eta eskaera egiteko datan izenpetu dadila 300. artikuluan aipatzen den jarduera-konpromisoa. Baldin eta eskaera aurkezten bada aipatutako epea iraganda, eskubidea sortuko da eskaeraren egunaren biharamunetik hasita, eta haren iraupena beheratuko da eskaera garaiz eta forman egin izan balitz eskubidea sortuko zen egunetik hasi eta egiazki eskaera egin den egunera arte iragan diren egunen arabera.

2. Subsidioa 277. artikuluan aurreikusitako gehieneko iraupenera bitarte luzatzearen ondorioetarako, hura sei hilabetez jasotzea sortzen den bakoitzean, onuradunek luzapen-eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta, horrekin batera, luzapena eskuratzeko betekizunei eusteari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte. Eskaera hori aurkeztu beharko da sei hileko eskubidearen aldia agortzen den egunaren biharamunetik hasi eta sortutako azken hileko ordainketa-aldiaren muga-egunaren ondorengo hamabost egunak iragan bitarte dagoen epean.

Subsidioaren iraupena luzatu egingo da sei hileko eskubidearen aldia agortzen den egunaren biharamunetik aurrera, baldin eta ezarritako epean eskatzen bada. Bestela, luzapenerako eskubideak eragina izango du hura eskatzen den egunaren biharamunetik aurrera, eta haren iraupena beheratuko da 1. zenbakiko azken lerrokadan jasotako moduan.

3. 274.4 artikuluan ezarritako berrogeita hamabost urtetik aurrerako langileentzako subsidioa jasotzen jarraitzeko, onuradunek beren errenten aitortpena eta behar diren egiaztagiria aurkeztu beharko dizkiote entitate kudeatzaileari.

Aitorpen hori eskubidea sortu den egunetik edo azken berrabiatzearen egunetik hamabi hilabete iragaten diren bakoitzean aurkeztu beharko da, aipatutako aldia bete eta hurrengo hamabost eguneko epean.

Aitorpena aipatutako epean aurkezten ez bada, subsidioaren ordainketa eta Gizarte Segurantzako kotizazioa eten egingo dira.

Aitorpena aipatutako epetik kanpo aurkezteak berekin ekarriko du, kasua bada, eskubidearen sortzapena berrabiatzea, aitorpen hori aurkezten den egunetik aurrerako ondorioekin.

277. artikulua. *Subsidioaren iraupena.*

1. 274. artikuluan 1. eta 2. zenbakietan jasotako kasuetan, langabezia-subsidioaren iraupena sei hilabetekoa izango da, zeina sei hileko alditan luzatu ahalko baita, harik eta hemezortzi hileko gehieneko aldia osatzen den arte, honako kasu hauetan izan ezik:

a) 274.1.a) artikuluan sartzen diren langabeak, langabezia-prestazioa agortzeko egunean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1.a Berrogeita bost urtetik gorakoak izatea eta langabezia-prestazioetarako gutxienez ehun eta hogeitaz eguneko eskubidea agortuta izatea. Kasu horretan, subsidioa gehienez ere hogeita lau hilabete bitarte luzatuko da.

2.a Berrogeita bost urtetik gorakoak izatea eta langabezia-prestazioetarako gutxienez ehun eta laurogei eguneko eskubidea agortuta izatea. Kasu horretan, subsidioa gehienez ere hogeita hamar hilabete bitarte luzatuko da.

3.a Berrogeita bost urtetik beherakoak izatea eta langabezia-prestazioetarako gutxienez ehun eta laurogei eguneko eskubidea agortuta izatea. Kasu horretan, subsidioa gehienez ere hogeita lau hilabete bitarte luzatuko da.

b) 274.1.b) artikuluan sartzen diren langabeak. Kasu horretan, subsidioaren iraupena sei hilabetekoa izango da, eta luzaezina izango da.

2. 274.3 artikuluan ezarritako kasuan, honako hau izango da subsidioaren iraupena:

a) Langileak familia-erantzukizunak baditu:

Kotizazio-aldia	Subsidioaren iraupena
3 hilabeteko kotizazioa	3 hilabete
4 hilabeteko kotizazioa	4 hilabete
5 hilabeteko kotizazioa	5 hilabete
6 hilabeteko edo gehiagoko kotizazioa	21 hilabete

Baldin eta subsidioak hogeita bat hileko iraupena badu, sei hileko aldia aitortuko da, eta aldi hori gehieneko iraupena agortu bitarte luzatu ahalko da.

b) Langileak familia-erantzukizunik ez badu eta gutxienez ere sei hilez kotizatu baldin badu, subsidioaren iraupena sei hilekoa izango da, eta luzaezina izango da.

Bi kasuetan, subsidioa sortzeko balio izan zuten kotizazioak ezingo dira kontuan hartu etorkizunean maila kontributiboko prestaziorako eskubidea aitortzeko.

3. 274.4 artikuluan aurreikusitako kasuan, subsidioak langilea erretiro-pentsio kontributiboa –edozein modalitatetan– eskuratzeko adinera iristen den arte iraungo du, gehienez.

4. Subsidioaren iraupena, 274. artikuluko 1.a), 1.b) eta 3. zenbakietan ezarritako egoeretan dauden aldizkako langile finkoen kasuan, eskaera aurkeztu aurreko urtean kotizatutako hilen kopuruaren baliokidea izango da.

Langile horiei ez zaie aplikatuko, baldintza horri eusten dioten bitartean, 274.4 artikuluan berrogeita hamabost urtetik gorakoentzat ezarritako langabezia-subsidioa.

5. Gobernuak, aurrez Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Kontseilu Nagusiak txostena emanda, langabezia-subsidioaren iraupena aldatu ahalko du langabezia-tasaren eta finantzaketa-araubidearen aukeren arabera.

278. artikulua. *Subsidioaren zenbatekoa.*

1. Langabezia-subsidioaren zenbatekoa une bakoitzean indarrean den hileko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 80 izango da. Lanaldi partzialeko lana galtzeak eragindako langabeziari dagokionez, zenbateko hori aldeztetik lan egindako orduen arabera jasoko da 274. artikuluan 1.a), 1.b), 3. eta 4. zenbakietan aurreikusitako kasuetan.

2. Gobernuak, aurrez Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Kontseilu Nagusiak txostena emanda, langabezia-subsidioaren zenbatekoa aldatu ahalko du langabezia-tasaren eta finantzaketa-araubidearen aukeren arabera.

279. artikulua. *Subsidiorako eskubidea etetea eta azkentzea.*

1. 271. eta 272. artikuluetan etetei eta azkentzei buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio langabezia-subsidioari.

2. Halaber, subsidioa hamabi hilez beherako aldi batez etengo da 275. artikuluan ezarritako errentak gaintzeagatik, bai eta hamabi hilez beherako aldi batez familia-erantzukizunen baldintza ez betetzeagatik ere, baldin eta baldintza hori beharrezkoa izan bada eskubidea onartzeko. Etete horren ondoren, langileak subsidioa hartzeari berrekin ahalko dio, baldin eta errenta-gabeziaren betekizuna eta, kasua bada, familia-

erantzukizunen betekizuna betetzen dituela frogatzen badu, 275. artikuluan ezarritako moduan.

3. Subsidioa azkenduko da baldin eta langileak ezarri diren errentak gainditzen baditu edo familia-erantzukizunik ez badu hamabi hilabetez edo gehiagoz. Azkentze horren ondotik, langileak subsidiarako eskubidea lortu ahalko du soilik berriz ere 274. artikuluan ezarritako goeretakoa batean tokatzen bada eta eskatutako betekizunak betetzen baditu.

280. artikulua. *Subsidioa jasotzen den bitarteko kotizazioa.*

1. Entitate kudeatzaileak erretiro-gertakariengatik kotizatuko du berrogeita hamabost urtetik gorako langileentzako langabezia-subsidioa jasotzen den bitartean.

Aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera egindako kotizazioek ondorioak izango dituzte erretiro-pentsioaren eta hari aplikatzekoa zaion portzentajearen oinarri arautzailea kalkulatzeko. Kotizazio horiek ez dute inolaz ere baliorik eta eraginkortasun juridikorik izango 205.1.b) artikuluan eskatutako gutxieneko kotizazio-aldia egiaztatzeko; aldi horrek, 274.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, egiaztatuta egon beharko du berrogeita hamabost urtetik gorakoentzako langabezia-subsidioa eskatzeko unean.

2. Subsidioa jasotzen duena aldizkako langile finko bat denean, entitate kudeatzaileak honela kotizatuko du erretiro-gertakariengatik:

a) Hirurogei egunez, subsidiarako eskubidea sortzen den egunetik aurrera, baldin eta onuraduna berrogeita hamabost urtetik beherakoa bada eta egiaztatu badu, subsidioaren aitopenearen ondorioetarako, ehun eta laurogei eguneko edo gehiagoko kotizaziopeko jarduera-aldia.

b) Subsidioa jasotzen den denbora guztian zehar, behin berrogeita hamabost urte beteta.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aipatutako kasuetako kotizazioa zehazteren ondorioetarako, kotizazio-oinarri gisa aintzat hartuko da une bakoitzean indarrean den kotizazioaren gutxieneko muga.

4. Gobernuak langileen beste kolektibo batzuei zabaldu ahalko die 2. zenbakian xedatutakoa.

IV. KAPITULUA

Prestazioen araubidea

281. artikulua. *Prestazioetarako eskubidearen automatikotasuna.*

Entitate kudeatzaile eskudunak langabezia-prestazioak ordainduko ditu afiliazio-, alta- eta kotizazio-betebeharrak betetzen ez diren kasuetan, hargatik eragotzi gabe enpresa arau-hauslearen kontra akzioak egikaritzea eta enpresari dagokion erantzukizuna ordaindutako prestazioak direla-eta.

282. artikulua. *Bateraezintasunak.*

1. Langabezia-prestazioa eta -subsidioa bateraezinak izango dira norbere konturako lanarekin, nahiz eta lan horrek Gizarte Segurantzako araubideren batean nahitaez jasota egotea ez ekarri, baita besteren konturako lanarekin ere, lanaldi partzialean egiten denean izan ezik; horrelakoetan, prestazioaren edo subsidioaren zenbatekotik lan egindako denboraren zati proportzionala kenduko da.

Aurreko lerrokadan aipatzen den prestazioaren edo subsidioaren zenbatekoaren kenkaria egingo da bai langilea langabezia-prestazioa edo -subsidioa jasotzen ari denean, lanaldi osoko edo partzialeko lan bat galtzearen ondorioz, eta lanaldi partzialeko lan bat lortzen duenean, bai lanaldi partzialeko bi kontratu izan eta horietako bat galtzen duenean.

2. Langabezia-prestazioa eta -subsudioa, halaber, bateraezinak izango dira Gizarte Segurantzaren izaera ekonomikoko prestazioak jasotzearekin, salbu eta prestazio horiek bateragarriak zirenean prestazioa edo subsudioa eragin zuen lanarekin.

3. 1. zenbakian ezarritakoa salbuetsita, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten taldeen enplegua sustatzeko xedea duten programek hala arautzen dutenean, posible izango da besteren konturako lan bat egin eta, aldi berean, langabezia-prestazioa edo -subsudioa jasotzea. Kasu horietan, entitate kudeatzaileak langileari ordaindu ahalko dizkio hileko prestazioak, erabakitzen diren zenbatekoarekin eta iraupenarekin, Gizarte Segurantzako kotizazioak sartu gabe.

Aurreko lerrokadan ezarritako kasuan, prestazioak jasotzen diren aldian zehar, enpresaburuak langileari ordaindu beharko dio langabezia-prestazioaren edo -subsudioaren eta dagokion soldataren artean dagoen aldea, eta, halaber, Gizarte Segurantzari kotizatzeke erantzukizuna izango du aipatutako soldata osoarengatik, prestazioaren edo subsudioaren zenbatekoa barne.

Halaber, langile landunen prestakuntzarako eskubidea eraginkor egiteko eta langabezia dauden langileen enplegu-aukerak areagotzeko, programa batzuk zehaztuko dira, zeinek aukera emango baitiete enpresei prestakuntzan dauden langileak ordeztzeko langabezia-prestazioen onuradun diren beste langile langabe batzuekin. Kasu horretan, langileek prestazioak eta zenbaki honetan aipatzen den lana bateragarri egin ahalko dituzte.

4. Lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten taldeen enplegua sustatzeko xedea duten programek hala arautzen dutenean, posible izango da norberaren konturako lan bat egin eta, aldi berean, langabezia-prestazioa jasotzea. Kasu horietan, entitate kudeatzaileak langileari hileko prestazioa ordaindu ahalko dio, erabakitzen diren zenbatekoarekin eta iraupenarekin, Gizarte Segurantzako kotizazioak sartu gabe.

283. artikulua. *Langabezia-prestazioa eta aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa.*

1. Langilea gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasun-egoera batean badago eta hark irauten duen bitartean bere kontratua azkentzen bada, aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa jasotzen jarraituko du langabezia-prestazioaren zenbateko berean, harik eta egoera hori azkentzen den arte. Orduan, izan ere, legezko langabezia-egoerara pasatuko da, baldin eta azkentzea 267.1 artikuluan ezarritako arrazoiertako batengatik gertatu bada; gainera, behar diren betekizunak betetzen baditu, dagokion langabezia-prestazio kontributiboa jasoko du, baldin eta hura jasotzen hasia bada lan-kontratua azkendu den datan, edo, bestela, langabezia-subsudioa jasoko du. Kasu horretan, langabezia-prestazioa jasotzeko alditik kendu egingo da, kontsumitutakotzat jota, lan-kontratua azkendu den egunetik aurrera aldi baterako ezintasunean egon den denbora.

Langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateak Gizarte Segurantzako kotizazioak ordainduko ditu 265.1.a) 2. puntuari jarraituz, eta, kasu horretan, bere gain hartuko du langileari dagokion ekarpen osoa, kontsumitutakotzat deskontatzen den aldi osoari dagokiona, are langabezia-prestazioa eskatu ez eta etenik gabe ezintasun iraunkorreko edo erretiroko egoerara pasatzen bada ere, edo langilea hiltzearen ondorioz heriotza eta bizirauenagatiko prestazioetarako eskubidea izaten bada ere.

Langilea gertakari profesionalen ondoriozko aldi baterako ezintasun-egoera batean badago eta hark irauten duen bitartean bere lan-kontratua azkentzen bada, aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa jasotzen jarraituko du, aitortuta zeukan zenbateko berean, harik eta egoera hori azkentzen den arte. Orduan, izan ere, kasua bada, legezko langabezia-egoerara pasatuko da, baldin eta azkentzea 267.1 artikuluan ezarritako arrazoiertako batengatik gertatu bada; gainera, behar diren betekizunak betetzen baditu, bidezko den langabezia-prestazioa jasoko du –halakoetan, ez da bidezkoa izango hura jasotzeko alditik deskontatzea kontratua azkendu ondoren langilea aldi baterako ezintasun-egoeran egon den aldia–, edo, bestela, langabezia-subsudioa jasoko du.

2. Langilea erabateko langabeziako prestazioa jasotzen ari baldin bada eta aldi baterako ezintasun-egoerara pasatzen bada, eta egoera hori lan-kontratua indarrean zen bitartean hasitako prozesu baten berrerortzea bada, gertakari horri dagokion prestazioa

jasoko du langabezia-prestazioaren zenbateko berarekin. Kasu horretan, langileak aldi baterako ezintasun-egoeran jarraitzen baldin bada behin hasiera batean langabezia-prestaziorako ezarri den iraupen-aldia amaituta, aldi baterako ezintasunagatik prestazioa jasotzen jarraituko du ordura arte jasotzen zuen kopuru berebean.

Langilea erabateko langabeziako prestazioa jasotzen ari baldin bada eta aldi baterako ezintasun-egoerara pasatzen bada, eta egoera hori lan-kontratua indarrean zen bitartean hasitako prozesu baten berrerortzea ez bada, gertakari horri dagokion prestazioa jasoko du langabezia-prestazioaren zenbateko berarekin. Kasu horretan, langileak aldi baterako ezintasun-egoeran jarraitzen baldin bada behin hasiera batean langabezia-prestaziorako ezarri den iraupen-aldia amaituta, aldi baterako ezintasunagatik prestazioa jasotzen jarraituko du, baina horren kopurua hileko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 80 izango da.

Langabezia-prestazioa jasotzeko aldia ez da luzatuko langilea aldi baterako ezintasun-egoerara igarotzeagatik. Egoera horrek iraun bitartean, langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateak jarraituko du Gizarte Segurantzako kotizazioak egiten, 265.1.a) 2. puntuan ezarritakoaren arabera.

284. artikulua. *Langabezia-, amatasun- eta aitatasun-prestazioak.*

1. Langilea amatasun- edo aitatasun-egoeran dela lan-kontratua azkentzen bada 267.1 artikuluan jasotako arrazoiren batengatik, langile horrek amatasun- edo aitatasun-prestazioa jasotzen jarraituko du, egoera horiek azkendu arte; une horretan, legezko langabezia-egoerara igaroko da, eta, behar diren betekizunak betez gero, kasuan kasuko prestazioa jasoko du. Kasu horretan, maila kontributiboko langabezia-prestazioa jasotzeko alditik ez da kenduko amatasun- edo aitatasun-egoeran izandako denbora.

2. Langilea erabateko langabeziako prestazioa jasotzen ari dela igarotzen bada amatasun- edo aitatasun-egoerara, gertakari horien ondoriozko prestazioa jasoko du, kasuan kasuko zenbatekoan.

Langilea amatasun- edo aitatasun-egoerara igarotzen bada, eten egingo zaizkio langabezia-prestazioa eta 265.1.a) 2. puntuan ezarritako Gizarte Segurantzako kotizazioa, eta amatasun- edo aitatasun-prestazioa jasoko du, zeina bere entitate kudeatzaileak zuzenean kudeatuko baitu. Behin amatasun- edo aitatasun-prestazioa azkenduta, berriro hasiko da langabezia-prestazioa, 271.4.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, jasotzeko geratzen zen denbora amaitu arte eta etete-unean prestazio horrek zuen zenbatekoan.

285. artikulua. *55 urtetik gorakoen langabezia-subsidioa eta erretiroa.*

Langileak 274.4 artikuluan ezarritako langabezia-subsidioa jasotzen duenean, baldin eta erretiro-pentsio kontributiboa, edozein modalitatetan, eskuratzeko adinera iristen bada, aipatutako pensioaren ondorio ekonomikoak adin horretara iristeagatik subsidioa azkentzen zaion egunera eramango dira. Hartarako, azkentzeko ebazpen irmoaren osteko hiru hilabeteko epearen barruan egin beharko da erretiro-eskaera. Bestela, gehienez hiru hilabeteko atzeraeragina izango du eskaera egiten denetik.

V. KAPITULUA

Kolektibo jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien xedapen bereziak

1. atala. *Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian dauden langileak*

286. artikulua. *Aplikatzekoak diren arauak.*

1. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartutako langileek langabezia-babeserako eskubidea izango dute honako modu hauetan:

a) Besteren konturako nekazaritzako langile finkoen eta aldizkako langile finkoen langabezia-babesa aplikatuko da titulu honetan oro har ezartzen denari jarraituz, bai eta hurrengo artikuluko 1.a)1. puntuan berariaz ezarritakoari jarraituz ere.

b) Besteren konturako nekazaritzako behin-behineko langileen langabezia-babesa aplikatuko da berariaz hurrengo artikuluan eta, oro har, atal honetan ezarritakoari jarraituz.

c) Andaluziako eta Extremadurako autonomia-erkidegoetan bizilekua duten besteren konturako nekazaritzako behin-behineko langileen berariazko langabezia-babesa 288. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da.

2. Gizarte Segurantzako kotizazioa, prestazioak jasotzen diren aldian, 289. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da.

287. artikulua. *Nekazaritzako behin-behineko langileen langabezia-babesa.*

1. Nahitaezkoa izango da besteren konturako nekazaritzako behin-behineko langileen langabezia-kotizazioa, honako berezitasun hauekin:

a) Langabezia-prestazioak jasotzeko eskubidea izateko, 266. artikuluan bildutako betekizunak bete beharko dituzte, honako berezitasun hauekin:

1.a Honako hauek ez dute langabezia-gertakaria dela-eta kotizatuko eta ez dute eskubiderik izango dagozkien jarduera-aldiengatik langabezia-prestazioetarako: nekazaritza-ustiategiaren titularraren ezkontideak eta bigarren gradurainoko –hori barne– odolkidetasunez edo ezkontza bidez eta, hala badagokio, adopzioz haren ondorengo, aurreko eta gainerako ahaide direnek, harekin bizi badira, salbu eta soldatapekoak direla demostratzen bada.

2.a Langabezia-prestazioaren iraupena legezko langabezia-egoeraren aurreko sei urteetan izandako kotizaziopeko jarduera-aldien arabera izango da, edo kotizatze betebeharra amaitu zen unearen arabera, honako eskala honi jarraituz:

Kotizazio-aldia – Egunetan	Prestazio-aldia – Egunetan
360 eta 539 bitarte	120
540 eta 719 bitarte	180
720 eta 899 bitarte	240
900 eta 1.079 bitarte	300
1.080 eta 1.259 bitarte	360
1.260 eta 1.439 bitarte	420
1.440 eta 1.619 bitarte	480
1.620 eta 1.799 bitarte	540
1.800 eta 1.979 bitarte	600
1.980 eta 2.159 bitarte	660
2.160tik gora	720

Baldin eta nekazaritzako behin-behineko langilea hori baino lehentxeago Gizarte Segurantzaren alta emanda egon bada langile autonomo gisa edo bere konturako langile gisa, langabezia-prestazioa eskuratzeko beharrezkoa den gutxieneko kotizazio-aldia zazpiehun eta hogeitau eguneko izango da, eta aldi horretatik aurrera aplikatuko da aipatutako eskala.

b) Langile horiei ez zaie aplikatzekoa izango maila asistentzialeko langabezia-babesa, 274. artikuluan ezarritakoa.

2. 1. zenbakian berariaz jaso ez diren alderdi guztietarako, aplikatzekoa izango da titulu honetan oro har ezarritakoa.

3. Gobernuak mugak batzuk ezarri ahalko ditu kolektibo batzuek langabezia-babesa eskuratzeko; prestazioak ordaindu aurreko jarduera-aitorpena eskatu ahalko du; prestazio kontributiboaren iraupena finkatzen duen eskala aldatu ahalko du; eta langileentzako babes asistentziala zabaldu ahalko du, langabezia-tasaren arabera eta sistemaren finantza-egoeraren arabera.

4. Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Sistema Bereziari lotutako kotizaziopeko jarduera-aldiak, nekazaritzako langile finko gisa egindakoak, edo langabezia-gertakaria dela-eta kotizatzea aurreikusita duten beste araubideetakoak, bai eta behin-behineko nekazaritzako langile gisa izandako kotizaziopeko jarduera-aldiak ere, elkarrekin zenbatuko dira maila kontributiboko prestazioak lortzeko. Kasu horretan, baldin eta frogatzen bada aldirik luzeena ez dagokiola behin-behineko nekazaritzako langile gisa izandako kotizaziopeko jarduera-aldi bati, langabezia-prestazioak eta, kasua bada, haiek agortzearen ondorengo subsidioak emango dira titulu honetan oro har ezarritakoaren arabera; bestela, artikulua honetan ezarritako babes-arau bereziak aplikatuko dira. Eta hori guztia egingo da alde batera utzita legezko langabezia-egoera behin-behineko nekazaritzako lanari uzteagatik gertatzen den ala ez.

Ez da aurreko lerrokan ezarritako kotizazioen elkarrekiko zenbaketarik egingo 274.3 artikuluan ezarritako langabezia-subsidioa eskuratzeko; hori dela-eta, Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Sistema Bereziari estalitako lanaldi errealak, behin-behineko nekazaritzako langile gisa emandakoak, ez dira zenbatuko subsidio hori lortzeko, baina balioko dute etorkizunean maila kontributiboko langabezia-prestaziorako eskubidea lortzeko edo, kasua bada, urtarrilaren 10eko 5/1997 Errege Dekretuan ezarritako langabezia-subsidioa lortzeko, kasuan-kasuan eskatzen diren betekizunak betetzen badira.

5. Langabezia-prestazio orokorrak aitortzeko zenbatu diren lanaldi errealen arabera kotizazioak ezingo dira zenbatu urtarrilaren 10eko 5/1997 Errege Dekretuan jasota dagoen nekazaritzako behin-behineko langileen aldeko langabezia-subsidioa aitortzeko, eta aipatutako subsidioa aitortzeko zenbatutakoak ezingo dira zenbatu langabezia-prestazio orokorrak lortzeko.

6. Baldin eta nekazaritzako behin-behineko langileak behar diren betekizunak betetzen baditu artikulua honetako 1.a) zenbakian araututako maila kontributiboko langabezia-prestazioa lortzeko eta urtarrilaren 10eko 5/1997 Errege Dekretuan ezarritako langabezia-subsidioa lortzeko, eskubide horietako baten alde egin beharko du, eta honako arau hauek aplikatuko dira:

a) 5/1997 Errege Dekretuan ezarritako langabezia-subsidioa eskatzen bada, Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Sistema Bereziari estalitako lanaldi erreal guztiak, edozein dela ere haien kopurua, kontuan hartuko dira aipatutako errege-dekretuaren 2.1.c) artikuluan ezarritako betekizuna frogatzeko. Gizarte Segurantzako beste araubide batzuei langabeziarengatik ordaindutako beste kotizazio batzuk baldin badaude, subsidio hori lortzeko zenbatu ez direnak, horiek balioko dute ondoren langabezia-prestazio edo -subsidio bat lortzeko, titulu honetan ezarritakoari jarraituz.

b) Baldin eta artikulua honetako 1.a) zenbakian araututako maila kontributiboko langabezia-prestazio bat eskatzen bada, kotizaziopeko jarduera-aldia zehaztearen ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Sistema Bereziari kotizatutako lanaldi erreal guztiak zenbatuko dira, bai eta Gizarte Segurantzako beste araubide batzuetan egindako gainerako langabezia-kotizazioak ere, non eta ez diren aurretik zenbatu lehenagokoa den prestazio edo subsidio bat lortzeko, eta legezko langabezia-egoeraren edo kotizatzeke legezko betebeharra amaitu aurreko sei urteetan egin badira. Betiere, aplikatzekoa izango da, kausa bada, aurreko lerrokan ezarritakoa eta artikulua honetako 4. zenbakian ezarritakoa.

288. artikulua. *Andaluzian eta Extremaduran bizilekua duten nekazaritzako behin-behineko langileen langabezia-babesa.*

1. Besteren konturako nekazaritzako behin-behineko langileek, baldin eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziari badaude eta bizilekua

Andaluziako eta Extremadurako autonomia-erkidegoetan badute, aurreko artikuluan araututako babeserako eskubidea izango dute.

2. Halaber, urtarrilaren 10eko 5/1997 Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Bereziari atxikitako behin-behineko langileentzako langabezia-subsidioa arautzen du) eta hurrengo zenbakiak araututako langabezia-subsidiorako eskubidea izango dute, edo, bestela, apirilaren 11ko 426/2003 Errege Dekretuak (Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Bereziari atxikita dauden eta Andaluziako eta Extremadurako autonomia-erkidegoetan bizilekua duten behin-behineko langileentzako nekazaritza-errenta arautzen du) araututako nekazaritza-errentarako eskubidea izango dute, baldin eta, langabeziaren egoera gertatzen denean, frogatzen badute nekazaritzako behin-behineko langileak direla eta arau horietan eskatzen diren betekizunak betetzen badituzte, ondoren aipatzen diren berezitasunekin:

a) Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Bereziari eta araubide horren zentsuari egindako aipamenak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrari eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziari sartzeari egindakotzat joko dira.

b) Kotizatutako lanaldi errealei egindako aipamenak langilea Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziari dagoen bitartean lan egindako lanaldi errealean kopuruari egindakotzat joko dira. Lanaldi horiek zenbatzeko, baldin eta altari eta hilabeteko modalitateko kotizazioari eusten bazaie, hilabete oso batean lan egindako hogeita hiru lanaldi erreal zenbatuko dira, eta hilabetetik behera kotizatutakoentzat baliokidetasun hori aplikatuko da kasuan-kasuan lan egindako lanaldi errealak zehazteko.

c) Entitate kudeatzaileak zuzenean ordainduko dio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrerako kotizazioa, Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziaren barruan, nekazaritzako subsidioa edo nekazaritza-errenta jasotzen den aldian zehar, eta une bakoitzean jarduerarik gabeko aldiatarako indarrean den kotizazioaren gutxieneko muga aplikatuko da.

3. Urtarrilaren 10eko 5/1997 Errege Dekretuan araututako langabezia-subsidioaren onuradunak izan ahalko dira bakarrik hartan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eta subsidio hori eskatu baino lehenagoko hiru urte naturaletako batean subsidioaren onuradun izan diren langabeak.

Langileek, subsidioa eskatzeko datan, jarduera-konpromiso bat izenpetu beharko dute, lege honen 300. artikuluan aipatzen den moduan.

289. artikulua. *Prestazioak jasotzen diren bitarteko kotizazioa.*

1. Maila kontributiboko langabezia-prestazioa edo maila asistentzialeko langabezia-subsidioa jasotzen den bitarteko Gizarte Segurantzako kotizazioa zuzenean ordainduko du entitate kudeatzaileak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian, artikuluko honetan ezarritako moduan.

2. Maila kontributiboko langabezia-prestazioa jasotzen den bitartean, kotizatutako legezko betebeharra dagoen langileen Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria oro har Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean ezarritakoa izango da, bai lan-harremana azkentzen den kasuetan, bai lan-harreman hori eteteko eta lanaldia murrizteko kasuetan ere. Betiere oinarri hori jarduera-aldiei dagozkien oinarrien arabera kalkulatu da.

Kotizazio-tasa jarduerarik gabeko aldiei dagokiena izango da; hain zuzen ere, 255.3 artikuluan aipatutakoa.

Langabezia-prestazioa jasotzen den bitartean, langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko ekarpenaren ehuneko 73,50 entitate kudeatzailearen kargura izango da, eta gainerako ehuneko 26,50 langilearen kargura izango da eta prestazioaren zenbatekotik deskontatuko da.

3. 274. artikuluko langabezia-subsidioa jasotzen den bitartean, Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria Araubide Orokorrean une bakoitzean indarrean den kotizazioaren gutxieneko muga izango da.

Kotizazio-tasa jarduerarik gabeko aldiei dagokiena izango da, eta erretiro-gertakariengatik kotizatuko da soilik 280. artikuluan hala ezarrita dagoen kasuetan, eta kuotari Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zehazten duen koefiziente murriztailea aplikatuko zaio.

Erretiroa dela-eta kotizatu beharra dagoen langabezia-subsidioak jasotzen diren bitartean, entitate kudeatzaileak bere kargura izango du ezartzen den kotizazio-zatia, subsidioa jasotzen den egunei dagokiena, aurreko lerrokadan aipatutako oinarriaren eta tasaren arabera, eta kotizazioaren gainerakoa langileak ordaindu beharko du; azken zenbateko hori subsidiotik deskontatuko zaio, eta entitate kudeatzaileak zuzenean ordainduko dio, osorik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari.

4. Entitate kudeatzaileak kotizatzeko betebeharra duen aldietan, langabezia-prestazioa edo -subsidioak edo nekazaritza-errenta jasotzeko eskubidea aitortu zaien onuradunek, aurreko artikuluetan ezarritako moduan, Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian iraun beharko dute.

5. Nekazaritzako behin-behineko langileen kasuan, prestazioa jasotzeko Gizarte Segurantzako araubide edo sistema desberdinetan egindako kotizazioak zenbatu direnean, prestazioak jaso bitartean, kotizatutako aldi luzeena egiaztatuta dagoen araubidean edo sisteman egin beharko da Gizarte Segurantzako kotizazioa.

2. atala. Beste kolektibo batzuk

290. artikulua. *Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratatutako langileak.*

1. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuetan, langabezia-gertakarirako kotizazioa kuota finko bat izango da, zeina kalkulatu baita laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakarietara dagokien gutxieneko oinarriari praktikaldiko kontraturako ezarrita dagoen enpresaburuaren eta langilearen arteko kotizazio- eta banaketa-tasa aplikatuz.

2. Langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea eta zenbatekoa zehazteko, lege honen 270. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

291. artikulua. *Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Bereziko langileak.*

Lege honen 19. artikuluan ezarritakoa kendu gabe, Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian daudenen langabeziagatik kotizazio-oinarriari aplikatzekoa izango zaie, halaber, Itsasoko eta Arrantzako Langileentzako Gizarte Babesa Arautzen duen urriaren 21eko 47/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoa.

292. artikulua. *Tropako eta itsas armadako militar profesionalak.*

1. Aldi baterako zerbitzu-harremana duten tropako eta itsas armadako militar profesionalak legezko langabezia-egoeran egongo dira dagokien babesari dagokionez, sinatuta duten konpromisoa amaitzean edo konpromiso hori haien borondateaz kanpoko arrazoiengatik deuseztatzean.

2. Langabezia-prestazioa edo -subsidioa bateragarriak izango dira prestasun bereziko erreserbistaren esleipenarekin. Hala eta guztiz ere, esleipen horren zenbatekoa errenta gisa zenbatuko da langabezia-subsidioaren ondorioetarako, 275.2 artikuluan adierazitako moduan.

3. Defentsa Ministerioak jarraipen aktibo eta banakakoa egingo die langabezia-egoeran suertatzen diren tropako eta itsas armadako militar profesionalak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioarekin batera lan eginez, lan-merkatuan azkar integra daitezzen errazteko xedez.

VI. KAPITULUA

Prestazioen finantza-araubidea eta kudeaketa293. artikulua. *Finantzaketa.*

1. Titulu honetan araututako babes-jarduna enpresaburuen eta langileen kotizazioarekin eta Estatuaren ekarpenarekin finantzatuko da.

2. Estatuaren ekarpenaren zenbatekoa urtero Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legearen finkatutakoa izango da.

294. artikulua. *Entitate kudeatzailea.*

1. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokio langabezia-babesaren prestazioetatik eratorzen diren eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzea eta prestazioen aitorpena, etetea, azkentzea eta berrabiatzea deklaratzeko; hori, halere, ez da eragozpena izango Lan Administrazioaren organo eskudunek zehapen-arloan aitortuta dauzkaten eskudantziatarako.

2. Enpresek elkarlanean jardungo dute entitate kudeatzailearekin beren bizkar hartuz langabezia-prestazioaren ordainketa eskuordetua, erregelamendu bidez zehaztutako kasu eta baldintzetan.

295. artikulua. *Bidegabeko ordainketen itzulketa.*

1. Entitate kudeatzaile eskudunari dagokio langileek bidegabeki jasotako prestazioak bidegabe direla deklaratzeko eta horiek itzultzeko eskatzea, bai eta enpresaburuak zuzenean ordaindu beharreko prestazioak itzultzeko eskatzea ere.

Bidegabeki jasotako edo enpresaren erantzukizunekoak diren prestazioak itzultzeko ezarritako epea igaro bada, eta prestazioa itzuli ez bada, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari egokituko zaio prestazio hori nahitaezko betearazpen-bidea baliatuta biltzea, bat etorri Gizarte Segurantzaren diru-bilketa kudeatzeko arauekin; gainera, errekarua eta berandutze-interesa sortuko dira, lege honetan ezarritako modu eta baldintzetan.

2. Horretarako, entitate kudeatzaileak egokitzen dituen zerbitzuak itundu ahalko ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin edota edozein administrazio publikorekin.

296. artikulua. *Prestazioen ordainketa.*

1. Entitate kudeatzaileak ebazpen arrazoitua eman beharko du langabezia-prestazioetarako eskubidea aitortzeko edo ukatzeko, eskaera garaiz eta forman egin denetik hamabost eguneko epean.

2. Prestazioaren ordainketa entitate kudeatzaileak edo enpresak berak egingo du, erregelamenduz zehazten diren kasu eta baldintzetan.

3. Enplegua sustatzeko programaren batek hala ezartzen duenean, entitate kudeatzaileak ordainketa bakarrean ordaindu ahalko du langileak jasotzeko eskubidea duen eta oraindik ere jaso ez duen maila kontributiboko langabezia-prestazioaren zenbatekoaren egungo balioa, guztizkoa nahiz partziala.

Halaber, ordainketa partzialen bitartez ordain dezake langileak jasotzeko eskubidea duen maila kontributiboko langabezia-prestazioaren zenbatekoa, harengatik Gizarte Segurantzako kotizazioa diruz laguntzeko.

4. Enplegua sustatzeko programaren batek mugikortasun geografikoa errazteko horrela ezartzen duenean, entitate kudeatzaileak langabezia-prestazioen iraupenaren hilabeteko zenbatekoa ordaindu ahalko die, edo langabezia-subsidioaren iraupenaren hiru hilabete, oraindik jaso gabe daudenak, haien onuradun direnei, bizilekuz aldatzea dakarren enplegu bat betetzeko.

297. artikulua. *Prestazioen kontrola.*

1. Entitate kudeatzaileari dagokio titulu honetan ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea, eta gerta daitezkeen iruzur-egoerak egiaztatzea, ezertan kendu gabe langabezia-prestazioak jasotzean gerta daitezkeen arau-hausteen zehapenen arloko ikuskapenari eta kontrolari dagokienez zerbitzu eskudunek dauzkaten ahalmenak.

2. Entitate kudeatzaileak lan-harremana 267.1.a) artikuluko 3., 4. eta 5. puntuetan ezarritakoaren arabera azkenduta duten langileei eskatu ahalko die froga dezatela dagokien legezko kalte-ordaina jaso dutela.

Ez badute kalte-ordainik jaso, eta ez badute demanda judizialik jarri kalte-ordain hori erreklamatzeko edo azkentze-erabakiaren aurka egiteko, edo lan-harremana azkentzeak langileari kalte-ordaina emateko betebeharrak ez badakar, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileak esku har dezan eskatuko da lan-harremana uztea borondatezkoa izan ez dela egiaztatzearen.

3. Langabezia-prestazioen ordainketa bertan behera utzi ahalko du entitate kudeatzaileak, baldin eta iruzurraren aurkako borrokan eskudun diren organoek egindako ikerketen bidez iruzur-zantzu nahikoak daudela ikusten bada.

4. Zerga Administrazioak langabezia-prestazioen entitate kudeatzailearekin batera lan egingo du, abenduaren 17ko 58/2003 Tributuaren Lege Orokorraren 95. artikuluan ezarritako moduan, eta tributuei buruz behar duen informazioa emango dio langabezia-prestazioen eta -subsidioren kudeaketaren eta kontrolaren arloan dauzkan eginkizunak bete ditzan.

VII. KAPITULUA

Betebeharren, arau-hausteen eta zehapenen araubidea

298. artikulua. *Enpresaburuen betebeharrak.*

Honako hauek dira enpresaburuen betebeharrak:

- a) Enpresari langabezia-gertakariagatik dagokion parte kotizatzea.
- b) Beraren eta langileen ekarpenak guztiz ordaintzea, kotizatze bidezko betebeharrak betetzeko erantzukizuna bere gain hartuta.
- c) Prestazioetarako eskubidea aitortzeko, eteteko, azkentzeko edo berrekiteko ondorioetarako erregelamenduan erabakitzen diren agiriak eta informazioa ematea.
- d) Langileari enpresa-ziurtagiria ematea, erregelamendu bidez zehaztutako epean eta forman.
- e) Entitate kudeatzaile eskudunari ordaintzea entitate horrek langileei ordaindutako prestazioak, enpresa prestazioaren erantzule deklaratu denean, afiliazioaren, altaren edo kotizazioaren arloko betebeharrak ez betetzeagatik.
- f) Kasua bada, langabezia-prestazioen ordainketa eskuordetua egitea.
- g) Kaleratutako langileari jakinaraztea berrartu dutela, hori gertatu eta bost eguneko epean, eta entitate kudeatzaile eskuduneari ordaintzea entitate horrek langileei ordaindutako prestazioak, 268.5 artikuluan araututako kasuetan.
- h) Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 47. artikuluan kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko aurreikusitako neurriak aplikatuz gero egutegian edo langile bakoitzarentzat hasiera batean aurreikusitako ordutegian egindako aldaketak jakinaraztea, gertatu aurretik.

299. artikulua. *Langileen eta langabezia-prestazioen eskatzaile eta onuradunen betebeharrak.*

Honako hauek dira langileen eta langabezia-prestazioen eskatzaile eta onuradunen betebeharrak:

- a) Langabezia-gertakariagatik dagokien parte kotizatzea.

b) Prestazioetarako eskubidea aitortzeko, eteteko, azkentzeko edo berrekiteko ondorioetarako erregelamenduan erabakitzen diren agiriak eta informazioa ematea, bai eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoei zein Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinarazpenak egiteko helbidea ematea eta, hala badagokio, helbide-aldaketa adieraztea ere, hori gertatzen denean.

Aurrekoari kalterik eragin gabe, prestazioen eskatzaileak edo onuradunak emandako helbidean jakinarazpenak jasotzea bermatuta ez badago, hark behar diren datuak eman beharko dizkie autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoei eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari, jakinarazpena bitarte elektronikoz egin ahal izateko.

c) Enplegu-eskatzaile gisa izena ematea, izena emanda jarraitzea eta jarduera-konpromisoari buruzko eskakizunak izenpetzea eta betetzea, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutako Enpleguaren Legearen testu bateginaren 41. artikuluan ezarritako moduan.

d) Enplegu-eskaera berritzea eskaera hori berritzeko dokumentuan zehaztutako moduan eta datan, eta entitate kudeatzailearen, enplegu-zerbitzu publikoen edo zerbitzu horiekin lankidetzan diharduten enplegu-agentzien aurrean agertzea, hala eskatzen dietenean.

e) Enplegua aktiboki bilatzea eta eskumena duten enplegu-zerbitzu publikoek zehaztutako enplegarritasuna hobetzeko ekintzetan parte hartzea, hala badagokio, laneratzeko ibilbide baten barruan.

Prestazioen onuradunek enplegua aktiboki bilatzeko, laneratzeko edo enplegarritasuna hobetzeko egin dituzten jarduerak frogatu beharko dituzte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoen aurrean, horrelakorik eskatzen zaienean. Organismo horiek elkarlanaren esparruan erabakitzen duten moduan eman beharko da froga hori. Frogarik aurkeztu ezean, jarduera-konpromisoa bete ez dela ulertuko da.

Enplegua aktiboki bilatzen ari direla egiaztatzea ezertan eragotzi gabe, prestazioaren lehen hogeita hamar egunetan borondatezkoa izango da prestazio kontributiboen onuradunentzat ohiko lanbidearekin edo prestakuntzako gaitasunekin bat datozen enplegarritasuna hobetzeko ekintzetan parte hartzea, betiere laneratzeko ibilbidean zehaztutakoaren arabera; horrenbestez, ez da zigortuko horietan parte ez hartzea.

f) Enplegu-zerbitzu publikoek edo zerbitzu horiekin lankidetzan diharduten enplegu-agentziek zehaztutako lankidetzaren sozialeko lanetan, enplegu-programetan edo sustapen, prestakuntza edo birmoldatze profesionaleko ekintzetan parte hartzea, eta enplegu-zerbitzu publikoek edo agentzia horiek eskaintzen dieten enplegu egokia onartzea.

g) Enplegu-zerbitzu publikoei edo, hala behar denean, zerbitzu horiekin elkarlanean diharduten enplegu-agentziei egiaztagiria egokia itzultzea, bost eguneko epean; egiaztagiria horretan, zehaztuko da agertu direla aipatutako erakundeek eskaintako enplegu-eskaintzak betetzeko adierazitako lekuan eta datan.

h) Langabezia-prestazioetan baja eskatzea, eskubidea eteteko edo azkentzeko egoerak gertatzen direnean edo haiek jasotzeko eskatzen diren betekizunak betetzeari uzten zaionean, hain zuzen ere egoera horiek gertatzen diren unean.

i) Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea.

300. artikulua. *Jarduera-konpromisoa.*

Titulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, jarduera-konpromisotzat joko da prestazioen eskatzaileak edo onuradunak hartzen duen konpromisoa, enplegua modu aktiboan bilatzeko, enplegu egokia onartzeko eta motibazio, informazio, orientabide, prestakuntza, birmoldatze edo laneratzearen inguruko ekintza berezietan parte hartzeko, lana izateko aukerak gehitzeari begira, bai eta aurreko artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak betetzeko ere.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoek laneratzeko edo enplegarritasuna hobetzeko jarduerak egin izana frogatzeko eskatuko diete langabezia-prestazioen onuradunei, betiere elkarlanaren esparruan

zehaztutako moduan. Frogarik aurkeztu ezean, jarduera-konpromisoa bete ez dela ulertuko da.

Aurreko lerrokadetan ezarritakoa aplikatzeko orduan, eskumena duen enplegu-zerbitzu publikoak genero-indarkeriaren biktima izatea hartuko du kontuan, hartutako konpromiso horrek dakartzan betebeharrak, beharrezkoa bada, arintzearren.

301. artikulua. *Enplegu egokia.*

Titulu honetan ezarritako ondorioetarako, enplegu egokitzat joko da langileak eskatutako lanbidekoa, eta orobat haren ohiko lanbidearekin bat datorrena edo haren gaitasun fisiko eta prestakuntzako araberakoa den beste edozein. Nolanahi ere, enplegu egokitzat joko da bete den azken lan-jarduerarekin bat datorrena, baldin eta haren iraupena hiru hilabetekoa edo gehiagokoa izan bada.

Prestazioak etengabe jasotzen urtebete iragan denean, aurreko lanbideei dagozkienak ez ezik, beste enplegu batzuk ere hartu ahalko dira egokitzat, enplegu-zerbitzu publikoaren iritziz langileak bete ditzakeenak.

Enplegua egokia dela joko da langileak ohiko bizilekua duen herrian eskaintzen denean, edo herri hori ohiko bizilekutik 30 kilometrotik beherako erradioan badago, salbu eta langileak frogatzen badu joan-etorriarako behar duen gutxieneko denborak lanaren eguneko lanaldiaren iraupenaren ehuneko 25 gainditzen duela, edo joan-etorriaren kostuak hileroko soldataren ehuneko 20tik gorako gastua dakarrela; bestela ere, egokia dela joko da langileak enplegu berrian ostatu egokia edukitzeko aukera duenean.

Langileari eskaintzen zaion enplegua egokia dela jotzeko, kontuan hartuko dira lanaren iraupena –mugagabea edo aldi baterakoa– edo lanaldiaren iraupena –lanaldi osokoa ala partzialekoa–. Gainera, enplegu hori egokia dela jotzeko, soldatak eskaintzen den lanpostuari aplikatzekoa denaren baliokidea izan behar du, edozein dela ere langileak jasotzeko eskubidea duen prestazioaren zenbatekoa, lankidetzaren sozialeko lanak izanda ere.

Aurreko lerrokadetan ezarritakoa aplikatzeko, enplegu-zerbitzu publiko eskudunak kontuan hartuko ditu langabearen inguruabar profesional eta pertsonalak, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren uztartzea, finkatutako laneratze-ibilbidea, eskaintako lanpostuaren ezaugarriak, joan-etorrietarako garraioak egotea edo tokiko enplegu-merkatuen ezaugarriak.

Enplegua egokitzat jo ahal izan dadin, soldata ezingo da izan, inolaz ere, lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa, behin joan-etorrietako gastuak deskontatuta.

302. artikulua. *Arau-haustea eta zehapenak.*

Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, titulu honetan eta abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoa aplikatuko da.

303. artikulua. *Egintzak aurkaratzea.*

1. Entitate kudeatzaile eskudunaren erabakiak direla-eta, langabezia-prestazioetatik edozein aitortu, ukatu, eten edo azkentzeari buruzkoak badira, errekurtsioak aurkeztu ahalko dira gizarte-arloko organo jurisdikzionaletan.

2. Halaber, gizarte-arloko organo jurisdikzionalen aurrean errekurtsioa aurkeztu ahalko da entitate kudeatzaileak honako hauei buruz emandako ebazpenak direla-eta:

a) Bidegabeki jasotako prestazioak eta enpresaburua ordainketaren zuzeneko erantzulea den prestazioak itzultzeko eskakizuna, hain zuzen ere lege honen 268.5.b) eta 295.1 artikuluetan aipatzen direnak, diru-bilketaren kudeaketaren arloko jarduketak kenduta, Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 3.f) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

b) Langabezia-prestazioaren ordainketa, ordainketa bakarraren modalitatean, lege honen 296.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) Langileei Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 48.5 artikuluan ezarritakoaren arabera zehapenak ezartzea.

3. Aurreko zenbakietan jasotako kasuetan, demanda egiteko, interesdunek aurrez erreklamazio bat aurkeztu beharko diote entitate kudeatzaileari, Lan Arloko Jurisdikzioa Arazten duen Legearen 71. artikuluan ezarritako moduan.

VIII. KAPITULUA

Zuzenbide ordezailea

304. artikulua. *Zuzenbide ordezailea.*

Titulu honetan berariaz ezarri ez denean, I. eta II. tituluetan xedatutakoari begiratuko zaio.

IV. TITULUA

Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia

I. KAPITULUA

Aplikazio-eremua

305. artikulua. *Hedadura.*

1. Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian aplikazio-eremuan nahitaez sartuta egongo dira hemezortzi urtetik gorakoak izan eta ohikotasunez, pertsonalki, zuzenean, beren kontura eta beste pertsona baten zuzendaritza- eta antolaketa-esparrutik kanpo irabazizko jarduera ekonomiko edo profesional bat egiten duten pertsonak, besteren konturako langileei enplegua eman ala ez eman, lege honetan eta berau aplikatu eta garatzeko arauetan zehaztutako moduan eta baldintzetan.

2. Lege honen ondorioetarako, honako hauek berariaz deklaritzen dira araubide berezi horren barrukotzat:

a) Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartutako langileak.

b) Kontseilari edo administratzaile kargua betetzeak berekin dakartzan zuzendaritza- eta kudeaketa-eginkizunak betetzen dituztenak, edo kapital-sozietate batentzat irabazizko zerbitzuak ematen dituztenak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean, baldin eta sozietatearen kontrol efektiboa –zuzenekoa edo zeharkakoa– baldin badute. Ulertuko da, nolana ere, inguruabar hori gertatzen dela langilearen akzioek edo partaidetzek gutxienez ere kapital sozialaren erdia egiten dutenean.

Kontrakoa frogatu ezean, ulertuko da langileak sozietatearen kontrol efektiboa duela honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

1.a Zerbitzuak ematen dizkion sozietatearen kapitalaren erdia, gutxienez ere, langilearekin bizi diren bazkideen artean banatuta egotea, baldin eta haiekin duen lotura ezkontza bidezkoa bada edo bigarren gradurainoko odolkidetasun, ezkontza-ahaidetasun edo adopziozkoa bada.

2.a Kapital sozialean duen partaidetza herena edo handiagoa izatea.

3.a Kapital sozialean duen partaidetza laurdena edo handiagoa izatea, baldin eta sozietatearen zuzendaritza- eta kudeaketa-eginkizunak esleituta baditu.

Aurreko inguruabarrak betetzen ez diren kasuetan, Administrazioak, edozein frogabide erabilita, demostratu ahalko du langileak sozietatearen kontrol efektiboa duela.

c) Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 1.2.a) artikuluan aipatzen diren sozietate erregular kolektiboetako eta sozietate komanditarioetako industria-bazkideak.

d) Ondasun-erkidegoetako komuneroak eta sozietate zibil irregularretako bazkideak, salbu eta haien jarduera mugatzen denean amankomunean jarritako ondasunen administrazio hutsera –20/2007 Legearen 1.2.b) artikulua–.

e) Lan-sozietateetako bazkide langileak, baldin eta kapital sozialean duten partaidetza gutxienez ehuneko 50era iristen denean, barnean hartuta berekin bizi diren ezkontideak eta bigarren gradurainoko odolkideek, ezkontza-ahaideek edo adopzio bidezko ahaideek duten partaidetza,, salbu eta frogatzen badute sozietatearen kontrol efektiborako beharrezkoa dela familiatik kanpoko pertsonen parte-hartzea.

f) Ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak, uztailaren 11ko 20/2007 Legeak aipatzen dituenak.

g) Beren konturako jarduera bat egiten dutenak, 1. zenbakian aipatzen diren baldintzetan, baldin eta jarduera horrek eskatzen badu profesionalen elkargo batean sartzea; hori, halere, ez da eragozpena izango hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakorako.

h) Notarioen Kidego Bakarreko kideak.

i) Jabetzaren, Merkataritzaren eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Kidegoko kideak, bai eta Izangaien Kidegokoak ere.

j) Osasun Zerbitzuetako Estatutupeko Langileen Esparru Estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonak, baldin eta zerbitzuak ematen badituzte, lanaldi osoan, autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan edo Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren mendeko zentroetan, egiten dituzten jarduera osagarri pribatuak direla-eta, jarduera horiek eragiten dutenean haien Gizarte Segurantzaren sisteman sartzea, hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa kendu gabe.

k) Bere konturako langilearen edo langile autonomoaren ezkontidea eta ahaideak, baldin eta, 12.1 artikuluan eta artikulua horretako 1. zenbakian ezarritakoaren arabera, ohikotasunez lanak egiten badituzte eta ez badira besteren konturako langiletzat hartzen.

l) Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak, salmenta ibiltarian dihardutenak eta diru-sarrerak zuzenean erosleengandik jasotzen dituztenak.

m) Beren jarduera dela-eta erregelamendu-arau baten bitartez sartzekoak direnak, 7.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

306. artikulua. *Bazter utzitakoak.*

1. Araubide berezitik kanpo geratuko dira aurreko artikuluan aipatzen diren beren konturako langileak edo langile autonomoak, beren itsasoko edo arrantzako jarduera dela-eta Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartu behar direnean.

2. Ez dira Gizarte Segurantzaren sisteman sartuta egongo xede sozial gisa enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak ez dituzten kapital-sozietateetako bazkideak, administratzaileak izan nahiz ez izan; hain zuzen ere, bazkideen ondarea administratze hutseko jardueran aritzen direlako.

II. KAPITULUA

Afiliazioa, kotizazioa eta diru-bilketa

307. artikulua. *Afiliazioa, altak, bajak, datu-aldaketak, kotizazioa eta diru-bilketa.*

1. Beren konturako langileek Gizarte Segurantzaren sisteman afiliazioa eskatu behar dute, eta Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian adierazi behar dituzte beren altak, bajak eta datu-aldaketak, lege honetan eta bera aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan ezarritako moduan, epeetan eta baldintzetan.

2. Hurrengo artikuluetan jasotako berezitasunak kendu gabe, kotizazioaren, likidazioaren eta diru-bilketaren arloan, araubide berezi honi aplikatzekoak izango zaizkio I. tituluko III. kapituluaren eta hura aplikatzeko eta garatzeko xedapenetan ezarritako arauak.

308. artikulua. *Gertakari profesionalak eta jardueraren uztea estalita izanez gero egin beharreko kotizazioa.*

1. Araubide berezi honetan sartutako langileek laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariak estalita dituztenean, 19.3 artikulua lehenera errotik ezarritakoa interesdunak hautatutako kotizazio-oinarriaren gainean aplikatuko da.

2. Jarduera uztearen estaldurak berekin ekarriko du kasuko kotizazioak egiteko betebeharra, 344. artikuluan ezarritako moduan.

Jarduera uzteagatik babes-sistemari atxikitako langile autonomoek 0,5 puntu portzentualen murrizketa izango dute gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunaren estaldurarako kotizazioan.

309. artikulua. *Erretiroa eta norberaren konturako lana bateragarri diren kasuetako kotizazioa.*

Erretiro-pentsioarekin bateragarria den norberaren konturako lan bat egiten den bitartean, 214. artikuluan ezarritako moduan, langileek araubide berezi honetan kotizatuko dute soilik aldi baterako ezintasunarengatik eta gertakari profesionalengatik, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera; halere, elkertasuneko kotizazio berezi bat ordaindu beharko dute, gertakari arruntengatik kotizazio-oinarriaren ehuneko 8koa. Kotizazio hori ez da kontuan hartuko prestazioen ondorioetarako.

310. artikulua. *Kotizazio-oinarriaren hautaketa, adina zein den ere.*

Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko langileek hautatu ahalko dute, beren adina zein den ere, araubide berezi horretarako urtero finkatzen den gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 220 bitarteko kotizazio-oinarria izatea.

311. artikulua. *Hirurogeita bost urterekin edo gehiagorekin kotizatzea.*

1. Araubide berezi honetan sartutako langileak Gizarte Segurantzari kotizatzeke salbuetsita geratuko dira, salbu eta, kasua bada, aldi baterako ezintasunarengatik eta gertakari profesionalengatik, honako kasu hauetako batean baldin badaude:

a) Hirurogeita bost urteko adina eta hogeita hemezortzi urte eta sei hilabeteko kotizazioa.

b) Hirurogeita zazpi urteko adina eta hogeita hamazazpi urteko kotizazioa.

Aipatutako kasu guztietan, kotizazio-urteak zenbatzearen ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko aparteko ordainsarien zati proportzionalak.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den adina betetzerakoan langileak ez baditu kotizatutako kasu bakoitzean eskatutako urte kopurua, artikulua honetan ezarritako salbuespena aplikatzekoak izango da kasu bakoitzerako eskatzen diren kotizazio-urteak egiaztatzen diren egunetik aurrera.

312. artikulua. *Langile autonomo jakin batzuentzako gutxieneko oinarria.*

1. Araubide berezi honetan dauden langileen kasuan, baldin eta ekitaldi ekonomiko bakoitzaren uneren batean beren zerbitzura kontratatuta izan badituzte besteren konturako hamar langile edo gehiago aldi berean, bat etorriko dira hurrengo ekitaldirako izango duten gutxieneko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa eta Araubide Orokorreko 1. kotizazio-taldeko langileei dagokiena.

2. Gutxieneko kotizazio-oinarri hori aplikatzekoak izango da, halaber, ekitaldi ekonomiko bakoitzean, araubide berezi honetan dauden langile autonomoentzat, 305.2

artikuluko b) eta e) letretan ezarritakoaren babesean. Salbuespen izango dira beren jardueraren hasierako hamabi hilabeteetan araubidean alta hartzen duten langile autonomoak, altaren ondorio-datatik zenbatuta.

313. artikulua. *Gutxieneko oinarria, jarduera-aniztasuneko egoeran daudenen hasierako altaren kasuetan.*

Ekintzaileei eta Beren Nazioartekotzeari Laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren babesean, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian hasieran emandako altak berekin baldin badakar jarduera-aniztasuneko egoera batean egotea, honako kotizazio-arau hauek aplikatuko dira:

1.a Araubide berezian lehenengo aldiz alta ematen duten langileek, baldin eta alta horrekin jarduera-aniztasuneko egoera bat hasten badute, kotizazio-oinarri gisa honako hauen artean dagoen bat aukeratu ahal izango dute une horretan: urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean oro har ezartzen den gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 50 –lehenengo hemezortzi hilabeteetan– eta ehuneko 75 –hurrengo hemezortzi hilabeteetan– bitarteko oinarri batetik hasita, araubide berezi horretarako ezarritako gehieneko oinarri arte.

2.a Jarduera-aniztasuneko egoeran dauden langileen kasuetan, zeinetan besteren konturako lan-jarduera lanaldi partzialekoa den, parekagarria den lanaldi osoko langile bati dagokionaren ehuneko 50etik gorakoa, alta egiteko momentuan kotizazio-oinarri gisa hautatu ahalko da urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean oro har ezartzen den gutxieneko kotizazio-oinarriaren ehuneko 75 –lehenengo hemezortzi hilabeteetan– eta ehuneko 85 –hurrengo hemezortzi hilabeteetan– bitarteko oinarri batetik hasita, araubide berezi horretarako ezarritako gehieneko oinarri arte.

3.a Neurri horren aplikazioa bateraezina izango da enplegu autonomoa sustatzeko neurri gisa ezarritako beste edozein hobari edo murrizketarekin, bai eta Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean aurreikus litekeen kuoten itzulketarekin ere, norberaren konturako jarduera batean jarduera-aniztasuneko araubidean aritzearekin batera, besteren konturako beste jarduera batean aritzearen ondorioz.

III. KAPITULUA

Babes-jarduna

1. atala. *Gertakari babesgarriak*

314. artikulua. *Babes-jardunaren irismena.*

Araubide bereziaren babes-jarduna 42. artikuluan ezarritakoa izango da, langabezia-babesa eta prestazio ez-kontributiboak kenduta.

Prestazioak eta onurak titulu honetan eta bera garatzeko eta aplikatzeko xedapenetan ezartzen den moduan aitortuko dira.

Nolanahi ere, prestazioak aitortu eta ordaintzeko, araubide berezi honetan sartutako langileek 47. artikuluan aipatzen diren kotizazioak ordainduta izan beharko dituzte.

315. artikulua. *Aldi baterako ezintasunaren estaldura.*

Araubide berezi honetan nahitaezkoa izango da aldi baterako ezintasunagatiko prestazioaren estaldura, Gizarte Segurantzako beste araubide batean egindako jarduera tarteko estalita eduki ezean.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa ulertu beharko da ezertan kendu gabe 317. artikuluan ezarritako berezitasunak, ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoei dagokienez, eta 326. artikuluan ezarritakoak, Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziko langileei dagokienez.

316. artikulua. *Gertakari profesionalen estaldura.*

1. Araubide berezi honetan sartutako langileek beren borondatez hobetu ahalko dute beren babes-jardunaren esparrua, laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen gertakariei dagokiena gehituz, betiere araubide berezi berean aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa estalita badute.

Aldi baterako ezintasunaren estaldura gauzatu den entitate –kudeatzaile nahiz laguntzaile– berarekin egingo da gertakari profesionalen estaldura, eta estaldura horrek berekin ekarriko du kasuko kotizazioak egiteko betebeharra, 308. artikuluan ezarritako moduan.

Adierazitako gertakariak direla-eta, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean dauden langileei gertakari berdinegatik aitortzen zaizkien prestazioak aitortuko dira, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

2. Langile autonomoaren laneko istripuztat hartuko da bere kontura egiten duen lanaren zuzeneko eta berehalako ondorioa dena eta araubide berezi honen aplikazio-eremuan sartzea berekin dakarrena. Ondorio berdinetarako, gaixotasun profesionaltzat hartuko da norberaren kontura egindako lanaren ondorioz hartutakoa, baldin eta gaixotasun hori sortu badute gaixotasun profesionalen zerrendan zehazten diren elementu nahiz substantziek eta, halaber, gaixotasun hori sortu bada aipatutako zerrendarekin datorren gaixotasun-eragile diren jardueren zerrendan zehaztutako jarduera batean. Zerrenda hori azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuaren eranskinean jasota dago –Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen taula onartu eta hura jakinarazi eta erregistratzeko irizpideak ezartzeko errege-dekretua–.

3. Artikulu honetan ezarritakoa ulertu beharko da ezertan kendu gabe 317. artikuluan xedatutakoa, ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoei dagokienez, eta 326. artikuluan ezarritakoak, Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziko langileei dagokienez.

317. artikulua. *Ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoen babes-jarduna.*

Uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 26.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoek nahitaez jaso beharko dute, Gizarte Segurantzaren babes-jardunaren esparruaren barruan, aldi baterako ezintasunaren eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen estaldura.

Estaldura horren ondorioetarako, laneko istripuztat joko da ekonomikoki mendekoa den langile autonomo baten gorputzeko lesio oro, jarduera profesionalaren karietara edo haren ondorioz pairatutakoa; halaber, laneko istripuztat hartuko da langileak jarduera egiten duen tokira joatean edo hartatik itzultzean pairatutakoa, edo horren kausaz edo ondorioz pairatutakoa. Kontrakoa frogatzen ez den bitartean, joko da istripuak lanarekin zerikusirik ez duela kasuko jarduera profesionalaren garapenetik kanpo gertatzen denean.

2. atala. *Prestazioen arloko xedapenak*

318. artikulua. *Aplikatzekoak diren arauak.*

Honako hauek aplikatuko zaizkio araubide berezi horri:

a) Amatasunaren eta aitatasunaren arloan, II. tituluko VI. eta VII. kapituluetan ezarritakoa, hurrenez hurren.

Bere konturako langileak amatasun- eta aitatasun-subsidioak jasotzeko eskubidea duen aldiak bat etorriko dira, iraupenari nahiz banaketari dagokienez, besteren konturako langileen laneko atsedendiekin; semea edo alaba jaiotzen denetik aurrera hasi ahalko da aitatasun- edo amatasun-subsidioa ordaintzen. Araubide berezi honetako langileek, halaber, amatasun- eta aitatasun-subsidioak jaso ahalko dituzte lanaldi partzialeko araubidean daudenean, erregelamendu bidez ezarriko diren modu eta baldintzetan.

b) Haurdunaldiko arriskuaren eta edoskialdi naturaleko arriskuaren kasuan eta minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeen kasuan, hurrenez hurren, II. tituluko VIII., IX. eta X. kapituluetan ezarritakoa, erregelamendu bidez ezartzen den modu eta baldintzetan.

c) Ezintasun iraunkorraren arloari dagokionez, honako hauetan ezarritakoa: 194. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan; 195. artikuluan, 2. zenbakia kenduta; 197. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan, eta 200. artikuluan.

Halaber, aplikatzekoa izango da 196. artikuluko 2. zenbakiko azken lerrokadan eta 4. zenbakian ezarritakoa. Pentsioaren gutxieneko zenbatekoa eta zenbaki horiek, hurrenez hurren, aipagai duten osagarria zehaztearen ondorioetarako, gutxieneko kotizazio-oinarri gisa aintzat hartuko da Araubide Orokorrean une bakoitzean indarrean dagoena, edozein araubidetakoak direla ere ezintasun iraunkor osoagatiko eta baliaezintasun handiagatiko pentsioak aitortzeko arauak.

d) Erretiroaren arloan, honako hauetan ezarritakoa: 205., 206., 208. eta 209. artikuluetan, azken horren 1. zenbakiko b) letra kenduta; eta 210., 211., 213. eta 214. artikuluetan.

215. artikuluan xedatutakoa erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan izango da aplikatzekoa.

e) Heriotzaren eta biziraupenaren arloari dagokionez, honako hauetan ezarritakoa: 219., 220., 221., 222., 223., 224. eta 225. artikuluetan; 226. artikuluan 4. eta 5. zenbakietan; 227. artikuluan 1. zenbakiko bigarren lerrokadan; eta 229., 231., 232., 233. eta 234. artikuluetan.

f) Familiaren babesa dela-eta II. tituluko XV. kapituluaren jasotako arauak.

319. artikulua. *Altaren aurreko kuoten ondorioak.*

1. Araubide berezi honetan sartuta egoteko betekizunak beteta ere, aginduzko alta ez denean eskatzen erregelamenduz ezarritako moduan, alta formalizatu aurreko aldiei dagozkien eta eskatzekoak diren kotizazioek ondorioak izango dituzte prestazioetan, behin kotizazio horiek legezko errekaru eta guzti ordainduta.

2. Epez kanpo ordaintzeagatik ezarri behar diren administrazio-zehapenak ezertan eragotzi gabe, aipatutako kotizazioek interesak sortuko dituzte, eta haiek eskatzekoak izango dira kotizazioak ordaindu beharko ziren datatik aurrera, ordainketaren unean indarrean den diruaren legezko interes-tasaren arabera.

320. artikulua. *Oinarri arautzailea, 65 urterekin edo gehiagorekin kotizatuz gero.*

Langileak kotizaziorik egin ez duen jarduera-aldiei dagokienez, 311. artikuluan ezarritako moduan, kotizaziotik kanpo utzitako prestazioen oinarri arautzailea zehaztearen ondorioetarako, ekitaldi bakoitzean kotizaziotik salbuetsitako hileko ordainketei dagozkien kotizazio-oinarriak honen berdinak izango dira: aurreko urte naturaleko kotizazio-oinarrien batezbestekoa gehi adierazi den azken urteko kontsumoko prezioen indizearen batez besteko aldakuntzaren portzentaje ezaguna eginda ateratzen den emaitza. Betiere, horrela kalkulaturako oinarriak ezingo dira txikiagoak izan urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak araubide berezi honetan sartuta dauden norberaren konturako langileentzako finkatzen dituen gutxieneko kotizazio-oinarriak edo kotizazio-oinarri bakarrak baino.

321. artikulua. *Aldi baterako ezintasunaren prestazioaren sorrera eta zenbatekoa.*

1. Araubide berezi honetan sartutako langileentzat, dena delako jardueran baja eman eta laugarren egunetik aurrera sortuko da aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa –hartarako eskubidea badute–, erregelamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan. Alabaina, interesdunak gertakari profesionalen estaldura hautatu badu, edo gertakari horiek nahitaez estalita baditu, eta subsidioa sortu bada laneko istripu baten edo gaixotasun profesional baten ondorioz, prestazioa baja egunaren biharamunean sortuko da.

2. Gertakari arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren kopurua zehazteko oinarri arautzaileari aplikatzekoak zaizkion portzentajeak Araubide Orokorrean indarrean daudenak izango dira, aipatutako gertakari horietatik eratorritako prozesuei dagokienez.

322. artikulua. *Erretiro-pentsioaren zenbatekoa.*

Araubide berezi horretan, erretiro-pentsioaren kopurua zehaztuko da oinarri arautzaileari aplikatuz bidezko den portzentajea, Araubide Orokorreko ezarritako eskalari jarraituz, betiere soilik onuradunak benetan kotizatutako urteen arabera.

IV. KAPITULUA

Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezia

323. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Sistema berezi honetan sartuko dira beren konturako nekazaritzako langileak, 18 urtetik gorakoak, baldin eta hurrengo artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

2. Sistema berezi honen araubide juridikoa titulu honetan eta haren aplikazio- eta garapen-arauetan ezarritakoari egokituko zaio, haietan ezartzen diren berezitasunekin.

324. artikulua. *Sisteman sartzeko arauak.*

1. Sistema berezi honetan sartuko dira aurreko artikuluan aipatzen diren eta honako betekizun hauek betetzen dituzten langileak:

a) Nekazaritza-ustiategi baten titularra izatea eta urteko errentaren ehuneko 50, gutxienez, nekazaritza-jardueretatik edo beste jarduera osagarri batzuetatik lortzea; betiere, ustiategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren ehuneko 25 baino txikiagoa, eta nekazaritza-jardueretan edo haien jarduera osagarrietan lanean emandako denbora, lanean guztira emandako denboraren erdia baino gehiago bada.

b) Titular bakoitzak nekazaritza-ustiategitik lortutako urteko etekin garbiek ez gaintzea egiaztapena egiten den ekitaldian indarrean den Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko gehieneko kotizazio-oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 75, urteko konputuan.

c) Nekazaritza-lanak modu pertsonal eta zuzenean egitea nekazaritza-ustiategi horietan, nahiz eta besteren konturako langileek ere lan egin. Halakoetan, ez dira izango bi langile finko baino gehiago, eta, iraupen jakineko lan-kontratua duten langileak badira, berriz, nekazaritzako behin-behineko langileei ordaindutako egunsarien kopurua, guztira, ez da izango urtean bostehun eta berrogeita sei baino gehiago, datatik datara zenbatuta.

Uleruko da aurreko letran besteren konturako langileen kontratazioa dela-eta ezarritako mugak nekazaritza-ustiategi bakoitzeko aplikatuko direla. Nekazaritza-ustiategian bi titular edo gehiago badaude, guztiak ere Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda, aurreko letran ezarritako langileen edo egunsarien kopuruari beste langile bat gehituko zaio, edo urtean berrehun eta hirurogeita hamahiru egunsari, behin-behineko langileen kasuan, nekazaritza-ustiategiaren titular bakoitzeko, lehenengoa kenduta.

a) eta b) letretan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, egiaztapena egiten den ekitaldiaren aurreko sei ekitaldi ekonomikoetako errenta guztien eta urteko etekin garbien batezbesteko sinplea hartu ahalko da kontuan.

2. Sistema berezi honetan ezarritako ondorioetarako, nekazaritza-ustiategitzat hartzen da titularrak nekazaritza-jarduerarako antolatutako ondasun eta eskubideen multzo osoa, berez unitate tekniko-ekonomiko bat osatzen duena; ustiategiaren titularrak edo

titularrek izaera hori izan dezakete nekazaritza-ustiategi horretako finken nahiz elementu materialen jabe, errentari, apartzero, lagapen-hartzaile edo antzekoak izateagatik.

Horri dagokionez, honako hau da nekazaritza-jarduera: nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eskuratzeko behar den lan multzoa.

Sistema berezi honetan ezarritako ondorioetarako, nekazaritza-jardueratzat hartuko da nekazariak bere ekoizpenaren zuzeneko salmenta egitea, eraldaketarik gabe, edo produktuen lehenengo eraldaketa egitea, baldin eta amaierako produktua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatua 38. artikulua I. eranskinean jasota badago, dela ustiatagia osatzen duten elementuen barruan, dela udal-azoketan edo dela merkataritza-establezimendu iraunkor ez direnetan; halaber, nekazaritza-jardueratzat hartuko dira ustiategiaren kudeaketa edo zuzendaritza eta gerentzia dakartzaten guztiak.

Halaber, jarduera osagarritzat hartuko dira titularraren parte-hartzea eta agertzea, hauteskunde publikoen ondorioz, ordezkaritza-erakundeetan, bai eta ordezkaritza-organo sindikal, kooperatibo edo profesionaletan ere, baldin eta nekazaritzako sektoreari lotuak badira.

Halaber, jarduera osagarritzat hartuko dira ustiategiko produktuak eraldatzekoak eta eraldatutako produktuen zuzeneko salmentakoak –betiere aurreko zenbakian aipatutako lehenengoa ez denean–, ingurune naturala kontserbatzearekin, ingurumena babestearekin eta landa-turismoarekin edo nekazaritza-turismoarekin lotutakoak, bai eta ustiategiaren barruan egindako jarduera zinematiko eta artisautzakoak ere.

3. Sistema berezi honetan sartzek eragina izango du, nekazaritza-ustiategiaren titularrarengan ez ezik, haren ezkontidearengan eta hirugarren gradurainoko –hori barne– odolkide edo ezkontza-ahaideengan, besteren konturako langiletzat hartzen ez badira, betiere hemezortzi urtetik gora badituzte eta nekazaritza-jardueran modu pertsonalean eta zuzenean lan egiten badute kasuko familia-ustiategian.

4. Nekazaritza-ustiategiaren titularraren seme-alabak, hogeita hamar urtetik beherakoak, harekin bizi badira ere, besteren konturako langile gisa kontratatu ahalko dira, 12. artikuluan ezarritako moduan.

5. Interesdunek, Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Berezian sartzea eskatzeko unean, aurreko zenbakietan ezarritako betekizunak betetzeari buruzko justifikazio-adierazpena aurkeztu beharko dute hartan sartu ahal izateko. Sistemari sartzea baliozkoa izateko baldintza izango da gero Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egiaztatu ahal izatea aipatutako betekizunak egiazki bete direla. Frogatzea eta geroko egiaztatzea erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta epeetan egingo da.

325. artikulua. *Kotizazioaren arloko berezitasunak.*

Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Berezian sartzek –aurreko artikuluan aurreikusia– berekin ekarriko du Gizarte Segurantzako kotizazioa dela-eta honako arau hauek aplikatzea:

a) Nahitaez estali beharreko gertakariei dagokienez, langileak araubide berezi horretan dagokion gutxieneko oinarriaren ehuneko 120ra arteko zenbatekoa duen oinarri baten alde egiten badu kotizazio-oinarri gisa, ehuneko 18,75ekoa izango da aplikatzekoa den kotizazio-tasa.

Aitzitik, langileak aurreko letran aipatutakotik gorako kotizazio-oinarri baten alde egiten badu, azken hori gaitzen dueneko zenbatekoaren gainean une bakoitzean araubide berezi horretan nahitaez estali beharreko gertakarietarako indarrean den kotizazio-tasa aplikatuko da.

b) Norberaren borondatez estaltzekoak diren gertakariak direla-eta, kuota zehaztuko da kotizazio-oinarriaren kopuru osoaren gainean gertakari horietarako araubide berezi horretan indarrean diren tasak aplikatuz.

326. artikulua. *Aldi baterako ezintasunaren eta gertakari profesionalen estaldura.*

Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, aldi baterako ezintasunaren eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko gertakarien estaldura borondatezkoa izango da sistema berezi honetan; hori, halere, ez da eragozpena izango Estatuko aurrekontu orokorren legeek ezar dezaketenerako, bereziki gertakari profesional horien ondoriozko ezintasun iraunkorraren eta heriotzaren eta biziraupenaren ziozko babesari dagokionez.

V. TITULUA

Jarduera uzteagatiko babesa

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

327. artikulua. *Xedea eta aplikazio-eremua.*

1. Jarduera uzteagatiko berariazko babes-sistema Gizarte Segurantzaren sistemaren babes-jardunaren zati bat da, borondatezkoa, eta honako xede hau du: Gizarte Segurantzaren afiliatuta egonik, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian alta emanda dauden langile autonomoei lege honetan ezarritako prestazioak eta neurriak ematea, araubide berezian alta ematea eragin zuen jarduera erabat uzten dutenean, nahiz eta jarduera ekonomiko edo profesional bat irabazi-asmoz egin ahal eta nahi izan.

Jarduera uztea behin betikoa edo aldi baterakoa izan daiteke. Aldi baterako uztean, etenda geratuko dira langile autonomoa sailkatuta dagoen araubide berezian alta eragin zuten jarduera guztiak, 331. artikuluan araututako kasuetan.

2. Jarduera uzteagatiko babesak lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak ere hartuko ditu, baldin eta kasuan kasuko araubide berezian beren konturako langile gisa sartzearen alde egin badute, bai eta jarduera profesionala beste langile batzuekin batera, sozietate-araubidean nahiz zuzenbidean onartutako beste edozein forma juridikoren pean, lan egiten duten langile autonomoak ere. Betiere, bi kasu horietan, titulu honetan araututako betekizunak bete beharko dira, 335. eta 336. artikuluetan, hurrenez hurren, jasotako berezitasunekin.

328. artikulua. *Araubide juridikoa.*

1. Jarduera uzteagatiko babesa lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoaren mende dago, eta, ordezkio moduan, langilea sailkatuta dagoen Gizarte Segurantzako araubide berezia erregulatzen duten arauetan xedatutakoaren mende.

2. Erregelamendu bidez garatuko dira Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian sartutako norberaren konturako langileen babes-sistema arautzen duten baldintza eta berariazko kasuak.

329. artikulua. *Babes-jarduna.*

1. Jarduera uzteagatiko babes-sistemak honako prestazio hauek jasotzen ditu:

a) Jarduera aldi baterako edo behin betiko erabat uzteagatiko prestazio ekonomikoa. Lege honen eta lege hau garatzen eta osatzen duten xedapenen arabera arautuko da eskusiboki prestazio hori.

b) Langile autonomoak Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean gertakari arruntengatik kotizatutakoaren ordainketa. Ondorio horietarako, organo kudeatzaileak bere kargura hartuko du kasuko kuota, jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa jasotzen

dituen bitartean, jarduera uztearen egitate eragilea gertatu eta hurrengo hilabetetik aurrera. Aldi horretako kotizazio-oinarria jarduera uzteagatik prestazioaren oinarri arautzaileari dagokio, 339. artikuluan ezarritako moduan, baina kotizazio-oinarria ezingo da inolaz ere izan kasuko araubidean ezarritako gutxieneko kotizazio-oinarriaren edo kotizazio-oinarri bakarraren zenbatekoa baino txikiagoa.

331.1.d artikuluan ezarritako kasuetan, ez da Gizarte Segurantzaren kotizatze betebeharririk izango, eta Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Integraleko Neurri buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 21.5 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

2. Jarduera uzteagatik babes-sistemaren barruan sartuko dira, orobat, sistema horren onuradun diren langile autonomoen jarduera ekintzailearen prestakuntzarako, lanbide-orientaziorako eta sustapenerako neurriak, eta 344.5 artikuluan aurreikusitako entitateen ardura izango da neurri horiek kudeatzea.

330. artikulua. *Babeserako eskubidea sortzeko betekizunak.*

1. Jarduera uzteagatik babeserako eskubidea honako betekizun hauek betetzen dituzten langile autonomoei aitortuko zaie:

a) Afiliatuta eta alta emanda egotea Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, kasua hala denean, Itsasoko Langileen Araubide Berezian.

b) Jarduera uzteagatik gutxieneko kotizazio-aldia –338. artikuluan aipatua– estalita edukitzea.

c) Jarduera uztearen legezko egoeran egotea, 300. artikuluan aipatzen den jarduerakonpromisoa izenpetzea eta lan-merkatuan berriz sartzeko prestutasun aktiboa frogatzea prestakuntzako, lanbide-orientazioko eta jarduera ekintzailea sustatzeko jardueren bitartez, hain zuzen ere kasuko autonomia-erkidegoko enplegu-zerbitzu publikoak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak, haietara deitzen badu.

d) Erretiro-pentsio kontributiborako eskubidea sortzeko eskatzen den adin arrunta beteta ez izatea, salbu eta langile autonomoak horretarako eskatzen den kotizazio-aldia frogatuta ez duenean.

e) Gizarte Segurantzako kuotak ordainduta edukitzea. Hala ere, jarduera utzi den datan betekizun hori betetzen ez bada, organo kudeatzaileak ordainketa egiteko eskatuko dio langile autonomoari, zor dituen kuotak hogeita hamar egun naturaleko epe luzaezinean ordain ditzan. Zorpekoa erregularizatzeko erabateko eraginak izango ditu babeserako eskubidea bereganatzeko.

2. Langile autonomoak bere kargura langile bat edo gehiago dituen edo 331.1 artikuluko arrazoi bat gertatzen denean, jarduera uzteko alde aurretiko betekizun izango da lan-arloko legerian araututako berme, betebeharrak eta prozedurak betetzea.

Arau hori bera aplikatzekoa izango da beste batzuekin batera jarduera profesionalean diharduen langile autonomo profesionalaren kasuan, alde batera utzita gainerako profesionalak jarduera utzi duten ala ez; halaber, aplikatzekoa izango da 335. artikuluan aipatzen den kooperatiben kasuan, jarduera erabat uzten denean ere.

331. artikulua. *Jarduera uztearen legezko egoera.*

1. Hurrengo kapituluan ezarritako berezitasunak ezertan eragotzi gabe, jarduera uztearen legezko egoeran egongo dira beren jarduerak arrazoi hauetakoren batengatik utzi duten langile autonomoak:

a) Jarduera ekonomiko edo profesionalarekin jarraitzea bideraezin egiten duten arrazoi ekonomikoak, teknikoak, ekoizpenari buruzkoak edo antolakuntzakoak biltzeagatik.

Publikoari irekita dagoen establezimendua bada, beharrezkoa izango da berori ixtea subsidioa jasotzen den bitartean, edota hirugarren batzuei transmititzea. Hala ere,

establezimendua kokatuta dagoen higiezinaren titular den autonomoak bere eskubideari dagozkion xedatze- edo gozatze-egintzak gauzatu ahalko ditu haren gainean; betiere, egintza horiek ez badakarte autonomoak amaituta dagoen jarduera ekonomiko edo profesionalean jarraitzea.

Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, ekoizpenari buruzkoak edo antolakuntzakoak daudela joko da, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

1.a Jarduera urte osoan gauzatzearen ondorioz izandako galerak denboraldi berean lortutako diru-sarrerak baino ehuneko 10 handiagoak direnean, jarduera abian jarri zen lehen urtean izan ezik.

2.a Exekuzio-organoek aitortutako zorrak kobratzeko betearazpen judizialak edo administratiboak daudenean, baldin eta, gutxienez, aurreko ekitaldi ekonomikoan izandako diru-sarreren ehuneko 30 badira.

3.a Jarduerarekin jarraitzea galarazten duen konkurtso-deklarazio judiziala dagoenean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legean zehaztutako moduan.

b) Ezinbesteagatik, erabakigarria izan denean jarduera ekonomiko edo profesionala aldi baterako edo behin betiko uzteko.

c) Administrazio-lizentzia galtzeagatik, baldin eta lizentzia edukitzea ezinbestekoa bada jarduera ekonomiko edo profesionala gauzatzeko, eta galera hori ez bada arau-hauste penalak egitearen ondorio.

d) Genero-indarkeriagatik, erabakigarria izan denean emakumezko langile autonomoak jarduera aldi baterako edo behin betiko uzteko.

e) Dibortzioagatik edo ezkontideak banantzeagatik, ebazpen judiziala tarteko, baldin eta autonomoak familia-laguntzako eginkizunak betetzen bazituen bere ezkontide ohiaren edo banatu den pertsonaren negozioan, eta eginkizun horiengatik Gizarte Segurantzako araubidean sartuta bazegoen.

2. Honako hauei ez zaie inoiz jarduera uztearen legezko egoera aitortuko:

a) Jarduera beren borondatez uzten edo eteten dutenei, 333.1.b) artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.

b) 333. zenbakian aurreikusitako langile autonomoei, baldin eta, bezeroarekiko erlazioa bukatu eta jarduera uzteagatik prestazioa jaso ondoren, prestazioa azkendu zenetik urtebeteko epean bezero berarekin berriro kontratua egiten badute; kasu horretan, gainera, itzuli egin beharko dute jasotako prestazioa.

332. artikulua. *Jarduera uztearen legezko egoera egiaztatzea.*

1. Langile autonomoen jarduera uztearen legezko egoerak eskatzailearen zinpeko deklarazioaren bidez egiaztatuko dira. Deklarazio horretan, jarduera uztearen zergatia edo zergatiak eta jarduera uztearen ondorio-data zehaztuko dira, eta ondoren adierazten diren agiriak erantsiko zaizkio; nolahi ere, eskatzaileak komenigarri iruditzen zaion eta legez onartuta dagoen beste edozein frogabide ere aurkeztu ahalko du:

a) Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, ekoizpenari buruzkoak edo antolakuntzakoak jarduera bideraezina dela justifikatzen duten agiriaren bidez egiaztatuko dira. Agiri horiek kontabilitatearen arlokoak, profesionalak, zerga-arlokoak, administratiboak edo judizialak izango dira.

Kasu guztietan, honako hauek frogatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira: establezimendua itxi egin dela, 331.1.a) artikuluan ezarritako moduan; Enpresaburuen, Profesionalen eta Atxikitzaileen tributu-eroldan baja emanda dagoela; eta eskatzailea sailkatuta zegoen Gizarte Segurantzako araubide berezian baja emanda dagoela. Jarduerak administrazio-baimen edo -lizentziak edukitzea eskatzen duen kasuetan, baja-eskaeraren komunikazioa erantsiko da, eta, kasua hala denean, hura eman izanarena edota hura erretiratzeko akordioarena.

Aurreko lerrokadan adierazitako dokumentuak alde batera utzi gabe, langileak jarduera arrazoi ekonomikoengatik utzi duela egiaztatuz joko da langile autonomoak eramaten dituen kontabilitate-agiriak aurkezten dituenean, erregelamendu bidez ezartzen den moduan, eta berorietan 331.1.a).1. puntuaren eskatzen den galera maila dagoenean erregistratuta; egiaztatuz joko da, orobat, eramandako kontuetan kontsignatutako partidak justifikatzen dituzten balio erantsiaren gaineko zergaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak eta gainerako nahitaezko dokumentuak aurkezten dituenean. Nolanahi ere, kontsignatzen diren partidak kontabilitatea erregulatzen duten arauetan onartutako kontzeptuekin bat etorriko dira.

Langile autonomoak itxiera-datu zenbatetsiak aurkeztuz formulatu ahalko du bere eskaera, prozeduraren instrukzioa arintzeko xedez, eta ebazpena eman aurretik aurkeztuko ditu behin betiko datuak.

b) Jarduera egitea ahalbidetu zuen administrazio-lizentzia galdu izana dagokion ebazpena aurkeztuz frogatuko da.

c) Genero-indarkeria egiaztatuko da emakumezko eskatzailearen adierazpen idatziaren bidez, non jasoko baita bere jarduera ekonomikoa edo profesionala utzi edo eten duela; adierazpen horri babes-agindua atxikiko zaio, edo, halakorik ezean, Fiskaltzaren txostena, genero-indarkeriaren biktima izatearen zantzuak daudela adierazten duena. Emakumea mendekotasun ekonomikoa duen langile autonomoa bada, adierazpenaren ordean, mendekotasun ekonomikoa dion bezeroaren komunikazio idatzi bat aurkeztu ahalko da, zeinean jarduera utzi edo eten duela jasoko baita. Hala adierazpenak nola komunikazioak jarduera zein datatan utzi edo eten den zehaztu beharko dute.

d) 331.1.e) artikuluan aurreikusitako egoeran nahasturik dauden familiartekoen dibortzioa edo banantze-akordioa dagokion ebazpen judizialaren bitartez egiaztatuko da; ebazpen horri dokumentazio egokia erantsi beharko zaio, zeinean jasota geratuko baita ezkontza hausturaren edo banantzearen aurretik negozioan betetzen zituen familia-laguntzako eginkizunak ez dituela jada betetzen.

2. Erregelamendu bidez garatuko da zein dokumentazio aurkeztu behar duten langile autonomoek artikuluan honetan ezarritako jarduera uztearen legezko egoera egiaztatzeko.

II. KAPITULUA

Jarduera uztearen legezko egoera, kasu berezietan

333. artikulua. *Ekonomikoki mendekoak diren langile autonomoak.*

1. Jarduera uztearen legezko egoeran egongo dira mendekotasun ekonomikoan dauden langile autonomoak, baldin eta, 331. artikulua lehenera zuzendutako aurreikusitako ezertan eragotzi gabe, beren jarduera utzi badute mendekotasun ekonomikoa dioten bezeroarekiko kontratua azkendu delako, honako kasu hauetan:

a) Kontratuan hitzartutako iraupena amaitzeagatik, edota obra edo zerbitzua bukatzeagatik.

b) Bezeroak kontratuan xedatutakoa larriki ez betetzeagatik, ez-betetze hori behar bezala frogatzen denean.

c) Bezeroak, arrazoi justifikatuak tarteko, kontratu-harremana hutsaltzeagatik, uztailearen 11ko 20/2007 Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera.

d) Bezeroak, arrazoi justifikaturik izan gabe, kontratu-harremana hutsaltzeagatik, uztailearen 11ko 20/2007 Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera.

e) Bezeroaren heriotza, ezintasuna edo erretiroagatik; betiere, horrek jarduerarekin jarraitzea galarazten badu.

2. 1. zenbakian ezarritako jarduera uztearen legezko egoera aplikatzekoa izango zaie mendekotasun ekonomikoa aitortuta ez duten langile autonomoei ere; betiere, haien jarduerak honako arau hauetan ezarritako baldintzak betetzen baldin baditu: uztailearen 11ko 20/2007 Legearen 11. artikuluan ezarritakoak, eta otsailaren 23ko 197/2009 Errege

Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoak (errege-dekretu horrek langile autonomoaren estatutua garatzen du, mendekotasun ekonomikoa duten langile autonomoen kontratuen eta erregistroaren arloan, eta langile autonomoen lanbide-elkarteen Estatuko Erregistroa sortzen du).

3. 332.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, mendekotasun ekonomikoa duten langile autonomoen eta 2. zenbakian aipatutakoen jarduera uztearen legezko egoerak honako baliabide hauen bidez egiaztatuko dira:

a) Kontratuan itundutako iraupenaren amaiera edo obra edo zerbitzuaren amaiera, horren berri emanez enplegu-zerbitzu publikoaren kasuko erregistroan, berari buruzko egiaztagiriekin.

b) Bezeroaren kontratua modu larrian ez betetzea, horri buruzko idatzizko komunikazioa eginez. Komunikazio horretan jasoko da zein egunetatik aurrera utzi zaion jarduerari, aurretiazko adiskidetzearen aktaren bitartez edo ebazpen judizialaren bitartez.

c) Bezeroaren arrazoi justifikatua, bezero horrek hura gertatu zenetik hamar eguneko epean igorritako komunikazioaren bitartez. Bertan jaso beharko da zein arrazoi alegatu den eta langile autonomoak zein egunetatik aurrera utzi duen jarduera. Idatzizko komunikaziorik egin ezean, langile autonomoak bezeroari eskatu ahalko dio betekizun hori bete dezan, eta eskaera egin eta hamar egun iragan direnean bezeroak erantzun ez badu, ekonomikoki mendekoa den langile autonomoak organo kudeatzailerara jo ahalko du egoera horren berri emateko. Orduan, bezeroari egindako eskaeraren kopia aurkeztuta, eskatu ahalko du jarduera uzteagatik babes-eskubidea aitortzeko.

d) Justifikatu gabeko arrazoia, bezeroak hura gertatu eta hamar eguneko epean komunikazioa igorritik. Bertan jasota utzi beharko da zein den ordaindutako kalte-ordaina eta zein egunetatik aurrera gertatu zen jarduera uztea, aurretiazko adiskidetzearen aktaren bitartez edo ebazpen judizialaren bitartez, alde batera utzita bezeroak haren aurkako errekurtsioa aurkeztu duen. Idatzizko komunikaziorik egin ezean, langile autonomoak bezeroari eskatu ahalko dio betekizun hori bete dezan, eta eskaera egin eta hamar egun iragan direnean bezeroak erantzun ez badu, ekonomikoki mendekoa den langile autonomoak organo kudeatzailerara jo ahalko du egoera horren berri emateko. Orduan, bezeroari egindako eskaeraren kopia aurkeztuta, eskatu ahalko du jarduera uzteagatik babes-eskubidea aitortzeko.

e) Bezeroaren heriotza, ezintasuna edo erretiroa, Erregistro Zibilarren heriotza-ziurtagiriaren bitartez, edo erretiro-pentsiorako edo ezintasun iraunkoragatik pentsiorako aitortpena frogatzen duen kasuko entitate kudeatzailearen ebazpenaren bitartez.

4. Erregelamendu bidez garatuko da zein dokumentazio aurkeztu behar duten langile autonomoek artikulua honetan ezarritako jarduera uztearen legezko egoera egiaztatzeko.

334. artikulua. *Kapital-sozietateetako bazkide izateagatik autonomo diren langileak.*

1. Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartutako langileen jarduera uztearen legezko egoera, 305.2.b) artikulua aplikatzearen ondoriozkoa, gertatuko da sozietateko kontseilari- edo administratzaile- karguei edo hari zerbitzuak emateari uzten zaienean, hala nahi izan gabe, eta sozietateak galerak izan dituenean 331.1.a)1. puntuan ezarritako moduan, edo sozietatearen ondare garbia jaitsi denean kapital sozialaren zenbatekotik bi herenetik behera.

2. Entitate kapitalistetako bazkideen jarduera uztea batzarrean hartutako akordioaren bidez egiaztatuko da, zeinean administratzaile- edo kontseilari-kargua uztea xedatzen baita; akordioarekin batera, Merkataritza Erregistroaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, akordioaren inskripzioa frogatzen duena. Zerbitzuak emateari uzten zaion kasuan, hori frogatzen duen agiria aurkeztu beharko da, baita galerak direla-eta kapitala murrizteko Batzarrean hartutako erabakia ere.

Bi kasuetan, galera-egoera edo ondare garbiaren murrizketa frogatzeko eskatuko da, 1. zenbakian ezarritako moduan.

335. artikulua. *Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak.*

1. Joko da jarduera uztearen legezko egoeran daudela honako kasu hauetako batean aurkitzen diren lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak:

a) Lan egiteari eta, horrenbestez, kooperatiban garatutako jarduerari behin betiko edo behin-behineko eran utzi diotenak; izan ere, prestazio horretatik zuzenean sortutako eskubide ekonomikoak galduko dituzte, honako arrazoi hauetakoren bat tarteko:

- 1.a Kooperatibatik bidegabeki kanporatzea.
- 2.a Arrazoi ekonomiko, tekniko, produktibo edo antolaketakoak edo ezinbestekoren bat.
- 3.a Iraupen jakineko sozietate-lotura mugatu zeneko aldia amaitzea.
- 4.a Genero-indarkeria, bazkide langile emakumezkoen kasuan.
- 5.a Kooperatibaren administrazio-lizentzia galtzea.

b) Bazkide izan nahi eta probaldian dauden izangaiak, baldin eta lanaren prestazioa amaitzen badute probaldi horretan, kooperatibako zuzendaritza kontseiluaren edo kasuko administrazio-organoaren alde bakarreko erabakiaren ondorioz.

2. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileen jarduera uztearen legezko egoeraren deklarazioa honako arau hauen arabera egingo da:

a) Bazkidea kanporatzen bada, kooperatibako zuzendaritza kontseiluaren edo kasuko administrazio-organoaren kanporatze-erabakiaren jakinarazpena beharko da, ondorio-data adierazita, eta, nolana ere, adiskidetze judizialaren akta edo jurisdikzio eskudunaren behin betiko ebazpena, kanporatzearen bidegabetasuna berariaz deklaritzen duena.

b) Jarduera arrazoi ekonomiko, tekniko, produktibo edo antolaketakoengatik behin betiko edo aldi baterako uzten bada, 331.1.a) artikuluan adierazitako moduan. Ez da eskatuko publikoari irekita dagoen establezimendua ixteko, lan elkartuko kooperatibako langile guztiek jarduera uzten ez badute.

Arrazoi horiek frogatuko dira sozietate kooperatiboak 332.1.a) artikuluan aipatzen diren dokumentu guztiak aurkeztuz. Halaber, batzar nagusiaren erabakiaren hitzez hitzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da, bazkide langileek lana edo jarduera behin betiko edo aldi baterako uzteari buruzkoa.

c) Iraupen jakineko sozietate-lotura mugatu zeneko aldia amaitzen bada, zuzendaritza kontseiluaren edo kasuko administrazio-organoaren ziurtagiria beharko da, kooperatiban arrazoi hori dela-eta baja emateari buruzkoa, ondorio-data adierazita.

d) Genero-indarkeriaren kasuan, emakumezko eskatzailearen adierazpen idatziaren bidez, non sozietate kooperatiboan lan egiteari utzi edo lana eten duela jasoko baita; adierazpen horri babes-agindua atxikiko zaio, edo, halakorik ezean, Fiskaltzaren txostena, genero-indarkeriaren biktima izatearen zantzuak daudela adierazten duena. Adierazpenak jarduera zein egunetan utzi edo eten den zehaztu beharko du.

e) Uzte hori probaldian gertatzen bada, beharrezkoa izango da kooperatibako zuzendaritza-kontseiluak edo kasuko administrazio-organoak onartu ez izateari buruzko erabakia ezagutzera ematea.

3. Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak ez dira egongo jarduera uztearen legezko egoeran, baldin eta lan egiteari behin betiko utzi ondoren –eta, horrenbestez, kooperatiban garatutako jarduera utzi ondoren– eta jarduera uzteagatik prestazioa jaso ondoren berriz ere sozietate kooperatibo horretan sartzen badira urtebete igaro baino lehen, prestazioa azkendu zen unetik kontaktzen hasita. Baldin eta bazkide langilea sozietate kooperatibo horretan aipatutako epean berriz sartzen bada, jaso duen prestazioa itzuli beharko du.

4. Jarduera uztearen legezko egoeran dauden bazkide langileek 346. artikuluko organo kudeatzaileari eskatu beharko diote prestazioetarako eskubidea onartzeko, salbu

eta artikulua horren 3. zenbakian ezarritakoari dagokionez, jarduera uztearen legezko egoera deklaratu eta hurrengo hilaren azken egunera arte, 2. zenbakian aipatutako moduan.

Eskaera aipatutako epeaz kanpo aurkezten bada, titulu honetako arau orokorretan ezarritakoari begiratuko zaio.

336. artikulua. *Beren jarduera profesionala elkarrekin egiten duten langile autonomoak.*

Jarduera uztearen legezko egoeran joko dira jarduera utzi duten langile autonomo profesionalak, behin betiko edo aldi baterako utzi dutenean beste batzuekin batera garatzen zuten lanbidea, honako arrazoi hauetako bat tarteko:

a) 331.1.a) artikuluan aipatzen diren arrazoi ekonomiko, tekniko, produktibo edo antolaketakoak gertatzeagatik, lanbidean jarraitzea bideraezin bihurtzen dutenak, alde batera utzita sozietatearen jarduera edo lanbidean aritzearen forma juridikoa osorik uztea dakarren ala ez.

Ez da eskatuko publikoari irekita dagoen establezimendua ixteko entitateko profesional guztiek jarduera uzten ez duten kasuetan, salbu eta establezimendua soilik profesionalaren kargura dagoen kasuetan. Hala eta guztiz ere, kasu horretan, ezingo da jarduera uztearen legezko egoera deklaratu langile autonomoak, jarduera utzi ondoren eta jarduera uzteagatik prestazioa jaso ondoren, jarduera profesionalean entitate berean berriz hasten bada urtebeteko epean, prestazioa azkendu zen unetik kontaktzen hasita. Klausula hau betetzen ez bada, jasotako prestazioa itzuli egin beharko du.

b) Ezinbesteagatik, erabakigarria izan denean lanbidea aldi baterako edo behin betiko uzteko.

c) Administrazio-lizentzia galtzeagatik, baldin eta lizentzia edukitzea ezinbestekoa bada jarduera ekonomikoa edo profesionala gauzatzeko, eta galera hori ez bada arau-hauste penalak egitearen ondorio.

d) Genero-indarkeriarengatik, erabakigarria izan denean emakumezko langile autonomoak lanbidea aldi baterako edo behin betiko uzteko.

e) Dibortzioarengatik edo ezkontideak banantzeko erabakiarengatik, dagokion ebazpen judiziala tarteko, baldin eta langile autonomo dibortziatuak edo bananduak familia-laguntzako eginkizunak betetzen bazituen bere ezkontide ohiaren edo banandu den pertsonaren negozioan, eta eginkizun horiarengatik baldin bazegoen sartuta zegokion Gizarte Segurantzako araubidean, eta funtzio horiek egiteari uzten badio ezkontza hausturaren edo banantzearen ondorioz.

III. KAPITULUA

Babesaren araubidea

337. artikulua. *Jarduera uzteagatiko babeserako eskubidea eskatzea eta eskubide hori sortzea.*

1. 330. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten langile autonomoek atxikita dauden Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutuari eskatu beharko diote jarduera uzteagatiko babeserako eskubidea aitortzea.

Mutua bati atxikita ez dauden norberaren konturako langileei dagokienez, 346.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Aitorpen horrek prestazio ekonomikoa gozatzeko eskubidea sortuko du, jarduera uztearen egitate eragilea gertatu zenetik zenbatuta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera. Mendekotasun ekonomikoa duen langile autonomoak bezero nagusiarekiko harremana amaitu duenean, prestazioa jasotzeko eskubidea izateko, ezingo du beste bezero batzuekin jarduerarik eduki prestazioa kobratzen hasten den egunetik aurrera.

2. Jarduera uztearen legezko egoeraren aitorpena eskatu ahalko da jarduera-uztea gertatu eta hurrengo hilaren azken egunera arte. Hala eta guztiz ere, arrazoi ekonomiko,

tekniko, produktibo edo antolaketakoek, ezinbestekoek edo genero-indarkeriaren inguruko arazoiek, arrazoi justifikatua duen bezeroaren borondateak eta bezeroaren heriotzak, ezintasunak eta erretiroak eragindako jarduera uztearen legezko egoeretan, epea hasiko da kontatzen egoera horiek gertatzen direla frogatzen duten agirietan egoera horiek jasotzen diren egunetik aurrera.

3. Eskaera aurreko zenbakian finkatutako epea iragan ondoren aurkezten bada eta langile autonomoak legez ezarritako gainerako betekizunak betetzen baditu, prestazioa jasotzeko alditik deskontatuko dira eskaera aurkeztu behar zen egunetik egiazki aurkeztu zen egunera iragan diren egunak.

4. Organo kudeatzailea Gizarte Segurantzaren kuota ordaintzeaz arduratuko da jarduera uztearen egitate eragilea gertatu den hilabetearen hurrengotik aurrera, baldin eta 2. zenbakian ezarritako epean eskatu bada. Bestela, organo kudeatzailea hartaz arduratuko da eskaera egiten den hilabetearen hurrengoan. Ekonomikoki mendekoa den langile autonomoak bezero nagusiarekiko harremana amaitu duenean, baldin eta egitate eragilearen hurrengo hilabetean beste bezero batzuekin jarduera baldin badu, organo kudeatzaileak kotizatu egin beharko du prestazioa hasten den datatik aurrera.

338. artikulua. *Prestazio ekonomikoaren iraupena.*

1. Jarduera uzteagatiko prestazioaren iraupena jarduera uztearen legezko egoeraren aurreko berrogeita zortzi hilabeteetan egindako kotizazio-aldien arabera izango da, eta hilabete horietatik gutxienez hamabik jarraituak eta jarduera uzte hori baino lehenagokoak izan beharko dute, honako eskala honetan ezarritakoaren arabera:

Kotizazio-aldia – Hilabetetan	Babesaren aldia – Hilabetetan
Hamabitik hamazazpira	2
Hemezortzitik hogeita hirura	3
Hogeita lautik hogeita bederatzira	4
Hogeita hamarretik hogeita hamabostera	5
Hogeita hamaseitik berrogeita bira	6
Berrogeita hirutik berrogeita zazpira	8
Berrogeita zortzitik aurrera	12

2. Uztailaren 11ko 20/2007 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera, hirurogei urtetik erretiro-pentsiorako eskubidea sortzeko adinera bitarteko adina duten langile autonomoen kasuan, prestazio horren iraupena taula honetan ezarritakoaren arabera handituko da:

Kotizazio-aldia – Hilabetetan	Babesaren aldia – Hilabetetan
Hamabitik hamazazpira	2
Hemezortzitik hogeita hirura	4
Hogeita lautik hogeita bederatzira	6
Hogeita hamarretik hogeita hamabostera	8
Hogeita hamaseitik berrogeita bira	10
Berrogeita hirutik aurrera	12

3. Jarduera uzteagatiko babes ekonomikorako eskubidea aitortu zaion langile autonomoak beste aitorten bat eskatu ahalko du, baldin eta legezko betekizunak bete eta azken prestazio-eskubidea onartu zitzaionetik hemezortzi hilabete iragan badira.

4. 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren kotizazio-aldiak zehaztearen ondorioetarako:
 - a) Kontuan hartuko dira soilik jarduera uzteagatik kasuko araubide berezian egindako kotizazioak.
 - b) Kontuan hartuko dira izaera bera zuen aurreko eskubide bat aitortzeko kontuan hartu ez ziren jarduera uzteagatik kotizazioak.
 - c) Kotizatutako hilabeteak hilabete osoen gisara zenbatuko dira.
 - d) Jarduera uzteagatik azken prestazioa sortu zuten kotizazioak ezingo dira zenbatu geroko eskubide bat aitortzeko.
 - e) Itsasoko Langileen Araubide Berezian, agintaritza eskudunak ezarritako nahitaezko arrantza-debekualdiak ez dira kontuan hartuko jarduera uztearen legezko egoeraren aurreko hamabi hilabete jarraituko denboraldia zenbatzeko orduan; betiere, esandako arrantza-debekualdi horietan ez bada jarduera uzteagatik prestazioa kobratu.

339. artikulua. *Jarduera uzteagatik prestazio ekonomikoaren zenbatekoa.*

1. Jarduera uzteagatik prestazio ekonomikoaren oinarri arautzailea hauxe izango da: jarduera uztearen legezko egoeraren aurreko hamabi hilabete jarraituetan kotizatutako oinarrien batezbestekoa.

Itsasoko Langileen Araubide Berezian, gertakari horren kotizazio-oinarri osoaren gainean kalkulatu da oinarri arautzailea, kotizazioko koefiziente zuzentzaileak aplikatu gabe; gainera, agintaritza eskudunak ezarritako nahitaezko arrantza-debekualdiak ez dira kontuan hartuko jarduera uztearen legezko egoeraren aurreko 12 hilabete jarraituko denboraldia zenbatzeko orduan, baldin eta esandako arrantza-debekualdi horietan ez bada jarduera uzteagatik prestazioa jaso.

2. Prestazioaren zenbatekoa, hura jasotzen den aldi guztian, oinarri arautzaileari ehuneko 70 aplikatuz zehaztuko da.

Jarduera uzteagatik prestazioaren gehieneko zenbatekoa ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 175 izango da; nolana ere, langile autonomoak ardurapeko seme-alaba bat edo gehiago baditu, zenbatekoa adierazle horren ehuneko 200 edo ehuneko 225 izango da, hurrenez hurren.

Jarduera uzteagatik prestazioaren gutxieneko zenbatekoa ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 107 edo ehuneko 80 izango da, langile autonomoak ardurapeko seme-alabarik duen ala ez duen.

3. Jarduera uzteagatik prestazioaren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoak kalkulatzearen ondorioetarako, norberaren ardurapeko seme-alabak daudela joko da haiek hogeita sei urte baino gutxiago dituztenean edo, adin hori gaindituta badute, gutxienez ehuneko 33ko desgaitasun-gradua dutenean, betiere ez badute lanbide arteko gutxieneko soldata halako errentarik edo handiagorik –edozein izaerakoak–, aparteko soldaten zati proportzionala kenduta, eta onuradunarekin bizi badira.

Jarduera uzteagatik prestazioaren gehieneko eta gutxieneko zenbatekoaren ondorioetarako, kontuan hartuko da eskubidea sortu denean indarrean den hilabeteko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa, seiren batean handituta.

340. artikulua. *Babeserako eskubidea etetea.*

1. Organo kudeatzaileak jarduera uzteagatik babeserako eskubidea honako arrazoi hauengatik etengo du:

- a) Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera arau-hauste arin eta astunengatik zehapena ezartzeagatik bidezkoa den aldian zehar.
- b) Askatasunaz gabetzea dakarren zigor bat betetzen ari den bitartean.
- c) Besteren konturako eta norberaren konturako lan bat egiteko aldian, ezertan kendu gabe jarduera uzteagatik babeserako eskubidea azkentzea, 341.1.c) artikuluan ezarritako kasuan.

2. Eskubidea eteteak berekin ekarriko du prestazio ekonomikoaren ordainketa eta hil osoengatiko kotizazioa geraraztea, baina ez du eraginik izango hura jasotzeko aldiari, salbu eta aurreko zenbakiaren a) letran ezarritako kasuan; izan ere, kasu horretan, prestazioa jasotzeko aldia murriztu egingo da gertatutako eteteak irauten duen denbora berean.

3. Jarduera uzteagatik babesari berrekingo zaio interesdunak hala eskatuta, baldin eta frogatzen badu hura eteteko arrazoia bukatu dela eta jarduera uztearen legezko egoerak bere horretan dirauela.

Eteteko arrazoia amaitzen denean sortuko da prestazioari berrekiteko eskubidea, amaitu eta ondorengo hamabost egunetan eskatzen bada.

Berrekitearen aitorpenak eskubidea emango du kasuko prestazio ekonomikoa, jaso gabe dagoena, jasotzeko, bai eta kotizaziorako ere, berrekiteko eskaera egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera. Eskaera aipatutako epea iraganda aurkezten bada, 337.3 artikuluan ezarritakoari begiratuko zaio.

341. artikulua. *Babeserako eskubidea azkentzea.*

1. Jarduera uzteagatik babeserako eskubidea honako arrazoi hauengatik azkenduko da:

- a) Prestazioaren iraupen-epea agortzeagatik.
- a) Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko legean ezarritakoaren arabera arau-hauste arin eta astunengatik zehapenak ezartzeagatik.
- c) Besteren konturako edo norberaren konturako lan bat egiteagatik hamabi hilabetez edo denbora gehiagoz; azken kasu horretan, autonomo gisa jarduera uzteagatik babeserako eskubidea sortzen bada.
- d) Erretiro-adin arrunta betetzeagatik edo, Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezian dauden besteren konturako langileen kasuan, erretiro-adin teorikora iristeagatik, salbu eta ez direnean betetzen erretiro-pentsio kontributiboa eskuratzeko betekizunak. Kasu horretan, jarduera uzteagatik prestazioa azkenduko da langile autonomoak pensio hori eskuratzeko gainerako baldintzak betetzen dituzenean edo babesaren iraupen-epea agortzen denean.
- e) Erretiro-pentsioa edo ezintasun iraunkorragatik pensioa aitortzeagatik, 342.2 artikuluan ezarritakoa kendu gabe.
- f) Bizilekua atzerrira aldatzeagatik, erregelamenduz ezartzen diren kasuetan izan ezik.
- g) Langileak bere borondatez eskubideari uko egiteagatik.
- h) Langile autonomia hiltzeagatik.

2. Prestaziorako eskubidea azkentzeko arrazoia aurreko zenbakiaren c) letran bildutakoa izanez gero, langile autonomoak, beste prestazio bat aitortzen bazaio, aukeratu ahal du edo hasierako eskubidea berriz ireki, gelditzen zitzaion aldirako eta zegozkion oinarri eta tasen arabera, edo egindako kotizazio berriekekin sortutako prestazioa jaso. Langile autonomoak aurreko prestazioaren hautua egiten baldin badu, aukeratu ez duen prestazioa sortu zuten kotizazioak ezingo dira zenbatu geroko eskubide bat aitortzeko.

342. artikulua. *Bateraezintasunak.*

1. Jarduera uzteagatik prestazio ekonomikoa jasotzea bateraezina da norberaren kontura lan egitearekin, nahiz eta jarduera hori egiteak ez ekarri nahitaez Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartzea; halaber, bateraezina da besteren kontura lan egitearekin.

Norberaren kontura lan egitearekin dagoen bateraezintasunari dagokionez –aurreko lerrokadan jaso–, salbuespen izango dira auto-konsumorako familia-baratzeetarako azaleretan merkataritza-xederik gabe egiten diren nekazaritza-lanak, bai eta nekazaritza-eta ingurumen-baldintza onak mantentzera zuzendutako lanak ere, Europar Batasunaren nekazaritza-lurretarako araudian ezarritakoari jarraituz. Salbuespen horrek hartuko ditu,

halaber, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartutako familiarteko laguntzaileak, jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa jasotzen dutenak. Salbuespen hori erregelamendu-arau baten bitartez garatuko da.

Halaber, bateraezina izango da Gizarte Segurantzaren pentsio edo prestazio ekonomikoa jasotzearekin, salbu eta horiek bateragarriak direnean jarduera uzteagatiko prestazioa ekarri zuen lanarekin, bai eta kolektibo desberdinetarako araudi sektorialean araututako jarduera uztea sustatzeko neurriekin ere, edo etorkizunean estatuan arau daitezkeenekin.

2. Itsasoko Langileen Araubide Berezian sartutako langileei dagokienez, jarduera uzteagatiko prestazioa bateraezina izango da flota gerarazteko laguntzak jasotzearekin.

343. artikulua. *Jarduera uztea, aldi baterako ezintasuna, amatasuna eta aitatasuna.*

1. Jarduera uztearen egitate eragilea gertatzen baldin bada langile autonomoa aldi baterako ezintasun-egoeran dagoenean, langile horrek aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa jasotzen jarraituko du, jarduera uzteagatiko prestazioaren duen zenbateko berean, harik eta hura azkentzen den arte, eta une horretan, legez ezarritako baldintzak betetzen baditu, jarduera uzteagatik dagokion prestazio ekonomikoa jasoko du. Kasu horretan, jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzeko alditik deskontatuko da, kontsumitutakotzat jota, langileak aldi baterako ezintasuneko egoeran eman duen aldia, jarduera uztearen legezko egoeraren egunetik aurrera kontatzen hasita.

2. Jarduera uztearen egitate eragilea gertatzen baldin bada langile autonomoa amatasun- edo aitatasun-egoeran dagoenean, langile horrek amatasun- edo aitatasun-prestazioa jasotzen jarraituko du, harik eta haiek azkentzen diren arte, eta une horretan, legez ezarritako baldintzak betetzen baditu, jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa jasoko du.

3. Jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa jasotzen ari den bitartean langile autonomoa aldi baterako ezintasun-egoerara pasatzen bada, eta egoera hori jarduera uztearen legezko egoeraren aurretik hasitako prozesu baten berrerortzea bada, gertakari horri dagokion prestazioa jasoko du jarduera uzteagatiko prestazioaren zenbateko berean. Kasu horretan, langile autonomoak aldi baterako ezintasun-egoeran jarraitzen badu hasiera batean jarduera uzteagatiko prestaziorako ezarri den iraupen-aldia amaitutakoan, aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa jasotzen jarraituko du ordura arte jasotzen zuen kopuru berean.

Langile autonomoa jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzen ari baldin bada eta aldi baterako ezintasun-egoerara pasatzen bada, eta egoera hori aurretik hasitako prozesu baten berrerortzea ez bada, gertakari horri dagokion prestazioa jasoko du jarduera uzteagatiko prestazioaren zenbateko berean. Kasu horretan, langile autonomoak aldi baterako ezintasun-egoeran jarraitzen baldin badu hasiera batean jarduera uzteagatiko prestaziorako ezarri den iraupen-aldia amaitutakoan, aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa jasotzen jarraituko du, baina horren kopurua hileko ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren ehuneko 80 izango da.

Jarduera uzteagatiko prestazioa jasotzeko aldia ez da luzatuko langile autonomoa aldi baterako ezintasun-egoerara igarotzearen ondorioz. Egoera horrek irauten duen bitartean, prestazioaren organo kudeatzaileak bere kargura hartuko ditu Gizarte Segurantzako kotizazioak, 329.1.b) artikuluan ezarritako moduan, harik eta langileak eskubide duen prestazioaren iraupen-aldia agortzen den arte.

4. Jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa jasotzen ari den bitartean onuraduna amatasun- edo aitatasun-egoeran suertatzen bada, gertakari horiei dagokien prestazioa jasoko du. Behin prestazio hori azkenduta, organo kudeatzaileak, ofizioz, jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoa ordainketari berrekingo dio, harik eta eskubide duen aldia agortzen den arte.

IV. KAPITULUA

Prestazioen finantza-araubidea eta kudeaketa

344. artikulua. *Finantzaketa, kotizazio-oinarria eta -tasa.*

1. Jarduera uzteagatiko babesak gertakari horri dagokion kotizazioaren kargura finantzatu da soil-soilik. Estalduraren ondorio-data babesak formalizatu den hilaren lehenengo egunetik hasiko da.

2. Jarduera uzteagatiko kotizazio-oinarria bat etorriko da, aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoari jarraituz, langile autonomoak berarentzat aukeratutako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko kotizazio-oinarriarekin, edota Itsasoko Langileen Araubide Berezian norberaren konturako langile gisa dagokionarekin.

3. Jarduera uzteagatiko Gizarte Segurantzaren babesari dagokion kotizazio-tasa, aurreko zenbakian zehaztutako oinarriari aplikatzekoa zaiona, 19. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarriko da. Hala ere, babes-sistemaren finantza-iraunkortasunari eusteko helburuz, ekitaldi bakoitzeko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezarriko du adierazitako ekitaldiari aplikatzekoa izango zaion kotizazio-tasa, honako arau hauen arabera:

a) Ehuneko horrenbestean adieraziko den kotizazio-tasa ondorengo formulatik ondorioztatuko da:

$$TC_t = G / BC * 100$$

Non:

t = Estatuko Aurrekontu Orokorretan adierazitako urtea, kotizazio-tasa berria indarrean egongo denekoa.

TC_t = t urtean aplikatzekoa izango den kotizazio-tasa.

G = t-2 urteko abuztuaren 1etik t-1 urteko uztailaren 31ra artean dauden hiletako jarduera uzteagatiko prestazioetan izandako gastuaren batura

BC = t-2 urteko abuztuaren 1etik t-1 urteko uztailaren 31ra artean dauden hiletako jarduera uzteagatiko kotizazio-oinarrien batura

b) Aurreko hori gorabehera, kasu hauetan ez da aplikatuko formulatik ondorioztatzen den tasa, eta indarrean dagoena mantenduko da:

1.a Indarrean dagoen kotizazio-tasa ehuneko 0,5 puntu baino gutxiago igotzea dakarrenean.

2.a Indarrean dagoen kotizazio-tasa ehuneko 0,5 puntu baino gutxiago murriztea dakarrenean, edo, tasaren murrizketa ehuneko 0,5 baino handiagoa izanik, 346.2 artikuluan aipatutako –eta t-1 urtearen itxierarako aurreikusten diren– prestazio honetako erreserbek ez dutenean gaintzen t urterako jarduera uzteagatiko prestaziorako aurrekontuetan sartutako gastua.

c) Edonola ere, urtero finkatu beharreko kotizazio-tasa ezingo da ehuneko 2,2 baino txikiagoa izan, ez eta ehuneko 4 baino handiagoa ere.

Zenbaki honetan aurreikusitakoa aplikatzean finkatu beharreko kotizazio-tasa ehuneko 4 baino handiagoa denean, lege honen 338.1 artikuluan aurreikusitako gabealdi guztiak gorantz berrikusiko dira nahitaez, eta finkatuta geratuko dira kasuan kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean. Goranzko berrikuspen hori gutxienez bi hilabetekoa izango da.

4. Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzak Independentek bere iritzia eman ahalko du, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzak Independentea sortzeko azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren 23. artikulua xedatutakoaren arabera, aurreko zenbakietan aurreikusitakoaren

gainean Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak egiten duen aplikazioari buruz, baita jarduera uzteagatiko babes-sistemaren finantza-iraunkortasunari buruz ere.

5. Jarduera uzteagatiko babesaren onuradun diren langile autonomoen jarduera ekintzailearekin lotutako prestakuntzarako, lanbide-orientaziorako eta sustapenerako neurriak, lege honen 329.2 artikuluan aurreikusten direnak, artikuluan honetan ezarritako diru-sarreraren ehuneko 1ekin finantzatzeko dira. Neurri horiek autonomia-erkidegoko enplegu-zerbitzu publiko eskudunak eta Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatzeko dituzte, kudeatzen duten onuradun kopuruaren proportzioan.

345. artikulua. *Diru-bilketa.*

1. Jarduera uzteagatiko babeserako kuota Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak bilduko du, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren edo Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren kuotarekin edo kuotekin batera, eta likidatu eta ordainduko dira Gizarte Segurantzak araubide berezi horietarako ezarrita dauzkan diru-bilketarako kudeaketa-arau erregulatuzaileen arabera.

2. Kuotak biltzeko arau erregulatuzaileak, bai borondatezko bidean, bai bide exekutiboan, jarduera uzteagatik Gizarte Segurantzaren aipatutako araubideetarako kotizazioari aplikatuko zaizkie.

346. artikulua. *Organo kudeatzailea.*

1. Aurreko artikuluan eta artikuluan honetako 3. zenbakian ezarritakoa salbuetsita, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei dagokie jarduera uzteagatiko babesetik eratorritako funtzioak eta zerbitzuak kudeatzea, ezertan eragotzi gabe gizarte-arloko arau-hausteei dagozkien zehapenak ezartzeko eskudun diren organoei eskuordetutako eskumenak eta 98.1 artikuluan Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari emandako zuzendaritza- eta tutoretza-eskumenak.

Xede horretarako, jarduera uzteagatiko prestazioa kudeatzea egokituko zaio langile autonomoak atxikitze-agiria formalizatzean (eranskina izenpetuz) zehaztu duen mutuari. Jarduera uzteagatiko babesa formalizatzeako prozedura, babesaren indarraldia eta eraginak Gizarte Segurantzaren kudeaketan mutuen elkarlanari aplikatzekoak zaizkion arauak erregulatuko dituzte.

2. Mutuek babes-sistemaren kudeaketatik lortzen duten urteko emaitza positiboa Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserba bat eratzera bideratuko da; erreserba horren gutxieneko zuzkidura-maila ekitaldian gertakari horrengatik sartutako kuoten ehuneko 5en baliokidea izango da, eta, borondatez, esandako kuoten ehuneko 25era heldu arte handitu ahalko da –hori izango da haren zuzkidura-maila handiena–. Erreserbaren helburua kudeaketa horretan etorkizunean gerta litezkeen balizko emaitza negatiboari erantzutea izango da.

Egonkortze Erreserba ekitaldia ixtearen kargura eta ezarrita dagoen moduan zuzkitu ondoren, soberakina Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian sartuko da, Jarduera Uzteagatiko Egonkortze Erreserba Osagarria zuzkitzeko xedearekin; erreserba osagarri horren helburua mutuek beren jarduera uzteagatiko erreserba aplikatu ondoren izan ditzaketan defizitak kitatzea izango da, eta, halaber, erreserba hori adierazitako nahitaezko gutxieneko mailaraino hornitzea, 95.4 artikuluan xedatuaren arabera.

Enpresaburu elkartuentzat ezarritako erantzukizun mankomunatuaren sistema ez da inola ere aplikatuko.

3. Laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondoriozko gertakarietarako ematen den babesa Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaile batekin estalita duten langile autonomoen kasuan, jarduera uzteagatiko prestazioaren eskaeraren eta kudeaketaren izapidetzea honako hauei egokituko zaie:

a) Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren esparruan, Itsasoko Gizarte Institutuari.

b) Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren esparruan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari.

4. Lan Autonomoaren Kontseiluak egokitzen jotzen duen informazioa eskatu ahalko dio organo kudeatzaileari jarduera uzteagatiko babes-sistema dela-eta, eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari proposatu ahalko dizkio haren funtzionamendu hoherako egokitzen jotzen dituen neurriak.

Organo kudeatzaileak Lan Autonomoaren Kontseiluari urteko jarduera uzteagatiko babes-sistemaren bilakaerari buruzko txosten bat aurkeztuko dio. Kontseiluak nahi beste informazio osagarri bildu ahalko du sistema hori dela-eta.

V. KAPITULUA

Betebeharren, arau-hausteen eta zehapenen araubidea

347. artikulua. *Langile autonomoen betebeharrak.*

1. Honako hauek dira jarduera uzteagatiko babesaren eskatzaile eta onuradun diren langile autonomoen betebeharrak:

a) Gertakari profesionalen estaldura Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen zein mutuarekin daukaten itunduta, mutua horri berari eskatzea jarduera uzteagatiko babesaren estaldura.

b) Jarduera uzteagatiko babesari dagokion ekarpenarengatik kotizatzea.

c) Prestazioa aitortzeko, eteteko, azkentzeko edo berrekiteko beharrezkoak diren agiriak eta informazioa ematea.

d) Jarduera uzteagatiko prestazioan baja eskatzea, eskubidea eteteko edo azkentzeko egoerak gertatzen direnean edo haiek jasotzeko eskatzen diren betekizunak betetzeari uzten zaionean, hain zuzen ere egoera horiek gertatzen diren unean.

e) Beren kontura edo besteren kontura lanik ez egitea prestazioa jasotzen duten bitartean.

f) Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea.

g) Organo kudeatzaileak eskatuta agertzea eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoko enplegu-zerbitzu publikoaren eskura egotea, edo Itsasoko Gizarte Institutuaren eskura, haiek dei egiten dietenean kasuko prestakuntzako, lanbide-orientazioko eta jarduera ekintzailea sustatzeko jarduerak egite aldera.

h) Organo kudeatzaileak, autonomia-erkidegoko enplegu-zerbitzu publikoak edo Itsasoko Gizarte Institutuak, kasua bada, langile horien enplegarritasuna areagotzeko erabakitzen dituzten motibazioko, informazioko, orientazioko, prestakuntzako, birmoldatzeko edo laneratzeko ekintza berariazkoetan parte hartzea.

2. Aurreko zenbakiko g) eta h) letretan ezarritakoa aplikatzeko orduan, organo kudeatzaileak edo autonomia-erkidegoko enplegu-zerbitzu publikoak kontuan hartuko du genero-indarkeriaren biktima izatea, hartutako konpromiso horrek dakartzan betebeharrak, beharrezkoa bada, arintzearen.

3. Uztailaren 11ko 20/2007 Legearen 26.4 artikuluan bildutako langile autonomoak artikulua honen 1.g) zenbakian jasotako betebeharratik salbuetsita egongo dira, jarduera ekintzailea sustatzearen arloa dela-eta.

348. artikulua. *Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea.*

Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 47.3 artikuluan xedatutakoa ezertan kendu gabe, lege honen 347.1.e), 331.2.b) eta 335.3 artikuluetan eta 336.a) artikulua bigarren lerrokadan xedatutakoa betetzen ez bada, bidegabeki jasotako prestazioen itzulketarako aplikatzekoa izango da lege honen 55. artikuluan eta ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Diru-bilketari buruzko Erregelamendu Orokorren 80. artikuluan ezarritakoa, eta organo kudeatzaileari egokituko zaio prestazioa bidegabekotzat deklaratzeko.

349. artikulua. *Arau-haustekak.*

Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, lege honetan eta Gizarte-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoa aplikatuko da.

350. artikulua. *Jurisdikzio eskuduna eta alde zurreko erreklamazioa.*

Gizarte-arloko organo jurisdikzionalak izango dira jarduera uzteagatik prestazioak aitortzeari, eteteari edo azkentzeari buruz organo kudeatzaileak hartutako erabakiez arduratzeko eskumena izango dutenak, eta haiexek izango dira haiek ordaintzeko eskumena izango dutenak. 346.3 artikuluan xedatutakoa alde batera utzita, interesdunak alde zurreko erreklamazio bat aurkeztu ahalko dio organo kudeatzaileari, gizarte-arloko organo jurisdikzionalera jo baino lehen. Organo kudeatzailearen ebazpenak berariaz adierazi beharko du erreklamazioa aurkezteko aukera, eta hura aurkezteko epea ere adierazi beharko du.

VI. TITULUA

Prestazio ez-kontributiboak

I. KAPITULUA

Familia-prestazioak, modalitate ez-kontributiboan

1. atala. Prestazioak

351. artikulua. *Zerrenda.*

Gizarte Segurantzaren familia-prestazioak, modalitate ez-kontributiboan, honako hauek izango dira:

a) Onuradunak bere ardurapean duen hemezortzi urtez beherako seme-alaba bakoitzeko edo gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua duen adin horretatik gorako seme-alaba bakoitzeko esleipen ekonomiko bat, seme-alabatasunaren legezko izaera edozein dela ere. Esleipen bera jasoko du familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean bere ardurapean duen adingabe bakoitzeko.

Kausatzaileak ez du galduko besteren ardurapeko seme-alaba edo adingabearen izaera bere konturako nahiz besteren konturako irabazizko lan bat egite hutsarengatik, baldin eta prestazioaren onuradunarekin bizitzen jarraitzen badu eta kausatzailearen urteko diru-sarrerak, lan-etekinen kontzeptuarenak, ez badira lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 100etik gorakoak, orduan ere urteko konputuan.

Izaera horri eutsiko zaio nahiz eta kausatzaileak langile gisa duen afiliazioak berekin ekarri hura Gizarte Segurantzaren egotea prestazioaren onuraduna afiliatuta dagoenaz beste araubide batean.

b) Seme-alaba bat jaiotzeko edo adoptatzeagatik oroharreko prestazio ekonomiko bat, ordainketa bakarrekoa, familia ugarietzat, guraso bakarrekoko familientzat edo desgaitasuna duten amentzat.

c) Erditze edo adopzio anizkoitzengatik ordainketa bakarrekoko prestazio ekonomiko bat.

2. atala. *Norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatiko diru-esleipena*

352. artikulua. *Onuradunak.*

1. Norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatiko diru-esleipena jasotzeko eskubidea izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Legezko bizilekua Espainian izatea.

b) Beren ardurapean seme-alabak edo adingabeak dituztenak familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean, baldin eta haiengan biltzen badira aurreko artikuluko a) letran aipatutako inguruabarrak eta Espainiako lurraldean bizi badira.

Banantze judizialeko edo dibortzioko kasuetan, diru-esleipena jasotzeko eskubidea, seme-alabak bere ardurapean dituen aitak edo amak gordeko du.

c) 11.576,83 euroko muga gainditzen duen edozein eratako diru-sarrerarik ez jasotzea. Aurreko zenbatekoari ehuneko 15 gehituko zaio norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, bigarrena barne.

Aurrekoa gorabehera, familia ugariako kide badira, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean xedatuari jarraituz, eskubidea izango dute, halaber, diru-esleipen bat jasotzeko beren ardurapeko seme-alaba bakoitzarengatik, horien urteko diru-sarrerak 17.423,84 eurotik gorakoak ez badira, betiere, hiru seme-alaba badituzte ardurapean. Zenbateko horri 2.822,18 euro gehituko zaizkio norberaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, laugarrenetik aurrera (laugarrena barne).

Aita eta ama elkarrekin bizi badira, bien diru-sarreraren batura aurreko lerrokadetan diru-sarreretakoz ezarritako mugatik gora badago, ez zaie onuradun izaera aitortuko haietako bati ere. Arau bera aplikatuko da familia-harrera iraunkorraren kasuan edo adopzio-helburuko zaintzaren kasuan, familia-unitate bera osatzen duten bi pertsonak eratu badute.

Lehenengo bi lerrokaidek aipatzen dituzten urteko diru-sarreraren mugak urtero gaurkotuko dira Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean, aurreko ekitaldian ezarritako zenbatekoari dagokionez, gutxienez ere lege horretan Gizarte Segurantzaren pentsio kontributiboaren gehikuntza orokorrerako ezartzen den portzentaje berean.

Hala eta guztiz ere, norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatiko diru-esleipenen onuradun izan ahalko dira aurreko lerrokadetan aipatzen den zenbatekotik gorako urteko diru-sarrerak (edozein motatakoak) jasotzen dituztenak, baldin eta zenbateko horiek kopuru jakin bat baino txikiagoak badira. Kopuru hori da arestian aipatutako zenbatekoari honako hau gehitzearen emaitza: seme-alaba edo adingabe bakoitzeko ordainsariaren urteko kopurua bider onuradunen ardurapeko seme-alaben edo adingabeen kopurua egitearen biderkadura.

Halakoetan, esleipenaren urteko zenbatekoa onuradunak jasotako diru-sarreraren eta aurreko lerrokadetan adierazitakoa aplikatuta lortzen den kopuruaren arteko aldea izango da. Zenbateko hori onuradunaren ardurapeko seme-alaben edo adingabeen eta ekitaldi bakoitzaren barruan esleipena jasotzeko eskubidea dagoen hileko ordainketen artean banatuko da.

Ez da diru-esleipenik aitortuko norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatik, baldin eta aurreko lerrokadetan aipatzen den aldea txikiagoa bada 353.1 artikuluan norberaren ardurapeko desgaitasunik gabeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko ezarritako esleipenaren hileko zenbatekoa baino.

d) Ez aitak, ez amak, ez izatea eskubiderik gizarte-babeseko beste ezein araubide publikotan izaera horretako prestazioak jasotzeko.

2. Halaber, honako hauek berengatik gurasoei legokiekeen esleipenaren onuradun izango dira, kasua bada:

a) Aita- eta ama-zurtz direnak, hemezortzi urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izan eta ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasuna badute.

b) Umezurtz ez baina euren gurasoek abandonatu dituzten pertsonak, betiere familia-harrera iraunkorraren edo adopzio-helburuko zaintzaren araubidean ez badaude.

c) Hemezortzi urtetik gorakoak izan eta desgaitasuna duten seme-alabak, gaitasuna judizialki aldatuta ez badute eta jarduteko gaitasunari eusten badiote, beren gurasoei berengatik legozkiekeen esleipenen onuradunak izango dira.

Desgaitasunik ez duten adingabeak direnean, ezinbesteko betekizuna izango da beren urteko diru-sarrerek, zurztasun-pentsioa barne, 1.c) zenbakian ezarritako muga ez gainditzea.

3. Norberaren ardurapean egon eta desgaitasuna duten seme-alaben edo adingabeen kasuan, ez da baliabide ekonomikoen mugarik eskatuko onuradun-izaera aitortzeko ondorioetarako.

353. artikulua. *Esleipenen zenbatekoa.*

1. 351.a) artikulua aipatzen duen diru-esleipenaren zenbatekoa, urteko konputuan, 291 eurokoa izango da, hurrengo zenbakian jasotako kasu berezietan izan ezik.

2. Baldin eta norberaren ardurapeko seme-alabak edo adingabeak desgaitasuna duen pertsonaren izaera badu, diru-esleipena, urteko konputuan, honako hau izango da:

a) 1.000 euro, norberaren ardurapeko seme-alabaren edo adingabearen desgaitasun-gradua ehuneko 33koa edo gehiagokoa denean.

b) 4.414,80 euro, norberaren ardurapeko seme-alaba hemezortzi urtetik gorakoa denean eta gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua duenean.

c) 6.622,80 euro, norberaren ardurapeko seme-alabak hemezortzi urte baino gehiago dituen, gutxienez ehuneko 75eko desgaitasun-gradua duenean, eta, galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz beste pertsona baten laguntza behar duenean eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko, hala nola jantzeko, lekualdatzeko, jateko edo antzekoetarako.

354. artikulua. *Desgaitasun-gradua eta beste pertsona baten laguntza-premia zehaztea.*

Gobernuak errege-dekretu bidez onartuko duen baremoa aplikatuz zehaztuko dira, bai desgaitasun-gradua –norberaren ardurapean egon eta desgaitasuna duen seme-alaba edo adingabeagatiko esleipenen aitopenen ondorioetarako–, bai mendekotasun-egoera eta beste pertsona baten laguntza-premia –aurreko artikulua 2.c) zenbakian aipatua–.

355. artikulua. *Familia-aldaketen adierazpena eta ondorioak.*

1. Onuradun orok bere familian gertatutako aldaketen berri eman behar du, betiere horiek kontuan hartu behar badira eskubidearen sorrera, aldaketa edo azkentzearen ondorioetarako.

Inolaz ere ez da beharrezkoa izango agiri bidez frogatzea Gizarte Segurantzaren Administrazioak berak zuzenean ezagutu beharreko alderdiak edo inguruabarrak, besteak beste, pentsioen eta subsidioen zenbatekoa.

Onuradun orok, urte bakoitzaren lehenengo hiruhilekoan, aurreko urtean izandako diru-sarrerak azalduko dituen aitopene bat aurkeztu beharko du.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren aldaketak gertatzen direnean, ondorioak hasiko dira:

a) Eskubidea sortuz gero, haren aitopena eskatu den egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehenengo egunetik aurrera.

b) Eskubidea azkenduz gero, kasuan kasuko aldaketa gertatu den hiruhileko naturalaren azken egunetik aurrera.

356. artikulua. *Sortzapena eta ordainketa.*

1. Onuradunak zenbat hilabete-saritarako eskubidea duen ekitaldi ekonomiko bakoitzean, horren arabera sorraraziko dira norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatiko diru-esleipenak.

2. Norberaren ardurapeko seme-alaba edo adingabeagatiko diru-esleipenen ordainketa lege hau garatzeko arauetan ezartzen den aldizkakotasunarekin egingo da.

3. atala. *Seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatiko prestazio ekonomikoa, familia ugarentzat, guraso bakarreko familientzat edo desgaitasuna duten amentzat*

357. artikulua. *Prestazioa eta onuradunak.*

1. Espainian seme-alaba bat jaio edo adoptatzen bada familia ugari batean, edo, arrazoi hori tarteko, familia ugari bihurtzen bada, edo guraso bakarreko familia bada, edo amak gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua badu, familia horrek eskubidea izango du Gizarte Segurantzaren sistemako prestazio ekonomiko bat jasotzeko, atal honetan ezarritako zenbatekoaren eta baldintzen arabera.

2. Familia ugaria izatearen ondorioetarako, Familia Ugariak Babesteko Legean ezarritakoari begiratuko zaio.

Guraso bakarreko familia hau da: guraso bakar batek osatutakoa, jaiotako edo adoptatutako umea harekin bizi bada eta bera bada familiari eusten dion bakarra.

3. Prestazioaren onuraduntzat hartzearen ondorioetarako, beharrezkoa izango da aitak, amak edo, halakorik ezean, erregelamenduz ezartzen den pertsonak 352.1 artikulua a), c) eta d) letretan ezarritako betekizunak betetzea.

Aita eta ama elkarrekin bizi badira, bien diru-sarrereren batura 352.1.c) artikuluan ezarritako mugatik gora badago, ez zaie onuradun izaera aitortuko haietako bati ere.

358. artikulua. *Prestazioaren zenbatekoa.*

1. Seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatiko prestazioa, atal honetan araututakoa, 1.000 euroko ordainketa bakar bat izango da.

2. Jasotako urteko diru-sarrerak, edozein motatakoak, 352.1.c) artikuluan ezarritako mugatik gorakoak izanik ere, muga horren eta prestazioaren zenbatekoaren batura baino gutxiago badira,, prestazioaren zenbatekoa onuradunak jasotako diru-sarrereren eta aipatutako baturaren emaitzaren arteko aldea izango da.

Ez da aitortuko prestaziorako eskubidea aurreko lerrokadan aipatzen den aldea txikiagoa denean 353.1 artikuluan norberaren ardurapean egon eta desgaitasunik ez duen seme-alaba edo adingabe bakoitzeko ezarritako esleipenaren hileroko zenbatekoa baino,.

4. atala. *Prestazioa erditze edo adopzio anizkoitzarengatik*

359. artikulua. *Onuradunak.*

Espainian gertatutako erditze edo adopzio anizkoitzagatiko prestazio ekonomikoaren onuradun izango dira 352.1 artikulua a) eta d) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituzten pertsonak (aita edo ama edo, halakorik ezean, erregelamenduz ezartzen den pertsona).

Erditze edo adopzio anizkoitza dagoela joko da jaiotakoak edo adoptatutakoak bi edo gehiago direnean.

360. artikulua. *Zenbatekoa.*

Honako hau izango da erditze edo adopzio anizkoitzengatiko prestazio ekonomikoaren zenbatekoa:

Jaiotako edo adoptatutako seme-alaben kopurua	Zenbat bider lanbide arteko gutxieneko soldata
2	4
3	8
4 edo gehiago	12

*5. atala. Xedapen erkideak*361. artikulua. *Bateraezintasunak.*

1. Kapitulu honetan araututako prestazioen onuradun izateko behar diren inguruabarrak aitak zein amak betetzen badituzte, prestazioa jasotzeko eskubidea haietako bati besterik ez zaio aitortuko.

2. Kapitulu honetan araututako prestazioak bateraezinak izango dira aitak edo amak gizarte-babeseko beste ezein araubide publikotan izaera horretako prestazioen bat jasotzearekin.

Gurasoetako bat, egiten duen jardueragatik edo pentsiodun izateagatik Gizarte Segurantzako araubide publiko batean sartuta badago, dagokion prestazioa araubide horrek aitortuko dio.

3. Norberaren ardurapean egon eta desgaitasuna duen seme-alabaren bat edukitzeagatik diru-esleipenak, 353.2 artikulua b) eta c) letretan ezarritakoak, jasotzea bateraezina izango da seme-alabak modalitate ez-kontributiboko baliaezintasun- edo erretiro-pentsioa jasotzearekin.

362. artikulua. *Errebalorizazioa.*

Kapitulu honetan araututako modalitate ez-kontributiboko familia-prestazioei aplikatzekoa izango zaie 58. artikuluan ezarritako errebalorizazio-irizpidea.

II. KAPITULUA

Pentsio ez-kontributiboak*1. atala. Baliaezintasun ez-kontributiboa*363. artikulua. *Onuradunak.*

1. Baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboa jaso ahalko dute betekizun hauek betetzen dituztenek:

- a) Hogeita bost urte baino gehiago eta hirurogeita bost baino gutxiago izatea.
- b) Legez Espainiako lurraldean izatea bizilekua, eta bost urtez bizi izatea lurralde horretan; bost urte horietatik bik justu pentsio-eskaera aurkeztu aurrekoak izan beharko dute.
- c) Desgaitasun bat edo gaixotasun kroniko bat izatea, gutxienez ehuneko 65eko graduan.
- d) Nahikoa errenta edo diru-sarrerarik ez izatea. Nahiko errenta edo diru-sarrerak daudela joko da haien batura, urteko konputuan, hurrengo artikulua 1. zenbakiak aipatzen duen prestazioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa denean.

Eskatzailea, errenta edo diru-sarrera berekirik ez izanda ere, aurreko lerrokadan adierazitako moduan, beste pertsona batzuekin unitate ekonomiko berean bizi baldin bada, ulertuko da errentaren edo diru-sarreraren gabeziaren betekizuna betetzen dela soilik hura osatzen duten guztien batura txikiagoa denean ondorengo zenbakietan ezarritakoaren arabera lortutako baliabide-metatzeen muga baino.

Baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboaren onuradunek, besteren kontura kontratatzen badituzte, beren kontura ezartzen badira edo luzaro langabezian egon diren berrogeita bost urtetik gorako langileen gizarteratzeko errenta aktiboko programetara biltzen badira, automatikoki berreskuratuko dute, kasua bada, pentsio horretarako eskubidea, hurrenez hurren, haien kontratua azkentzen denean, lan-jarduera egiteari uzten diotenean edo gizarteratzeko errenta aktiboko programa uzten dutenean; horretarako, 5. zenbakian ezarritakoa gorabehera, ez dira kontuan hartuko, haien errenten urteko konputuari dagokionez, kontratua amaitzen, lan-jarduera uzten edo programa uzten den urteko ekitaldi

ekonomikoan besteren konturako lan-jardueraren ondorioz, beren konturako lanaren ondorioz edo gizarteratzeko errenta aktiboko programan sartuta egotearen ondorioz jasotako errentak.

2. Baliabide-metatzearen mugak, unitate ekonomikoaren kasuan, honen baliokideak izango dira: pentsioaren zenbatekoa, urteko konputuan, gehi zenbateko horren ehuneko 70 bider bizikideen kopurua ken bat egitearen emaitza.

3. Unitate ekonomiko beraren barruko bizikidetzak eskatzailearen eta haren lehen graduko ondorengoaren eta aurrekoen artean gertatzen denean, baliabide-metatzearen mugak 2. zenbakian xedatutakoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa halako bi eta erdi izango dira.

4. Onuradun bat beste pertsona batzuekin bizi deneko kasu guztietan unitate ekonomiko bat egongo da, pertsona horiek onuradunak izan ala ez izan, pertsona horiek onuradunarekin ezkontza bidez edo bigarren gradurainoko odolkidetasuneko ahaidetasun-harremanen bidez lotuta badaude.

5. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren ondorioetarako, diru-sarrera edo errenta konputagarritzat hartuko dira bai lanetik bai kapitaletik sortutako ondasun eta eskubideak, bai eta prestazio-izaera dutenak ere.

Eskatzaileak edo hura sartuta dagoen bizikidetzak-unitateko kideek ondasunak, higigarriak zein higiezinak, badauzkatenean, haien benetako etekinak hartuko dira kontuan. Benetako etekinik ez badago, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarako ezarritako arauen arabera baloratuko dira; nolana ere, salbuespen izango da onuradunak erabili ohi duen etxebizitza. Ez dira zenbatuko, ezta ere, norberaren ardurapeko seme-alabengatik aldizkako esleipenak.

6. Errenta edo diru-sarrera berekiek –bai eta unitate ekonomiko berean elkarrekin bizitzeagatik konputagarriak diren besterenean ere–, bizilekua Espainiako lurraldean izateak eta desgaitasunaren edo gaixotasun kronikoaren graduak pentsiorako eskubidea eta hari eustea baldintzatzen dituzte, bai eta, kasua bada, haren zenbatekoa ere.

364. artikulua. *Pentsioaren zenbatekoa.*

1. Baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboaren urteko zenbatekoa kasuan kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean finkatuko da.

Unitate ekonomiko berean izaera horretako pentsioa jasotzeko eskubidea duten onuradun bat baino gehiago daudenean, pentsio horietako bakoitzaren zenbatekoa honako arau hauen arabera zehaztuko da:

a) Zenbaki honetako lehen lerrokan aipatzen den zenbatekoari kopuru horren ehuneko 70 gehituko zaio, honenbeste aldiz: unitate ekonomikoan zenbat onuradun diren, bat gutxiago.

b) Onuradun bakoitzarentzako pentsioaren zenbatekoa aurreko letran aurreikusitako batuketaren emaitza zati pentsiorako eskubidea duten onuradunen kopurua egitetik ateratzen dena izango da.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondoriozko zenbatekoak, urteko konputuan kalkulatu, bateragarriak dira onuradun bakoitzak, kasuan-kasuan, dituen urteko errentekin edo diru-sarrerekin, betiere pentsio ez-kontributiboaren zenbatekoaren ehuneko 35 gainditzen ez badute, urteko konputuan. Bestela, pentsio horren zenbatekoari portzentaje horretatik gorako errenten edo diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio, 366. artikuluan ezarritakoa salbu.

3. Onuraduna edo onuradunak hala ez direnekin bizi badira, baldin eta unitate ekonomikoaren urteko diru-sarrerak edo errentak gehi aurreko bi zenbakietan xedatutakoaren arabera kalkulatuak pentsio ez-kontributiboaren emaitza handiagoa bada aurreko artikuluen 2. eta 3. zenbakietan ezarritako baliabide-metatzearen muga baino, pentsioa edo pentsioak murriztu egingo dira aipatutako muga ez gainditzeko, pentsioetako bakoitzari zenbateko berdina kenduz.

4. Artikulu honen 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoa gorabehera, aitortutako pentsioaren zenbatekoa 1. zenbakian aipatzen den pentsioaren zenbatekoaren ehuneko 25ekoa izango da gutxienez.

5. Aurreko zenbakietan xedatutakoaren ondorioetarako, errenta edo diru-sarrera konputagarriak dira aurreko artikulua 5. zenbakian halakotzat hartzen direnak.

6. Aurreko artikulua 1.a), b) eta d) zenbakian aipatutako betekizunak betetzen dituztenek, gutxienez ehuneko 75eko desgaitasun-gradua edo gaixotasun kronikoa dutenean, eta, galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz beste pertsona baten laguntza-premia dutenean eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko, hala nola janzteko, lekualdatzeko, jateko edo antzekoetarako, eskubidea izango dute 1. zenbakiko lehenengo lerrokadan aipatzen den pentsioaren ehuneko 50eko osagarria jasotzeko.

365. artikulua. *Pentsioen ondorio ekonomikoak.*

Baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboetarako eskubide-aitorpenaren ondorio ekonomikoak gertatuko dira eskaera aurkeztzen denaren hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera.

366. artikulua. *Pentsioen bateragarritasuna.*

Modalitate ez-kontributiboko baliaezintasun-pentsioek ez diote eragotziko baliaezintasuna duen pertsonari jarduerak egitea, irabazizkoak izan edo ez, betiere baliaezintasunegoerarekin bateragarriak badira eta lan-gaitasunaren aldaketarik ez badakarte.

Irabazizko jarduera hasi aurretik modalitate ez-kontributiboko baliaezintasun-pentsioa jasotzen zuten pertsonen kasuan, jardueraren hasieraren ondorengo lau urteetan baliaezintasun-pentsioaren zenbatekoaren eta garatutako jardueraren bidez lortutako diru-sarreraren baturak ezingo du gainditu, urteko konputuan, honako batura honen urteko zenbatekoa: une bakoitzean indarrean diren ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren, aparteko ordainsariak kenduta, eta baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboaren batura. Zenbateko hori gaindituz gero, pentsioaren zenbatekoa murriztuko da muga hori ez gainditzeko behar den beste. Murrizketa horrek ez du eraginik izango 364.6 artikuluan ezarritako osagarrian.

367. artikulua. *Kalifikazioa.*

1. Pairatzen den desgaitasunaren edo gaixotasun kronikoaren gradua, baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboaren aitortzearen ondorioetarako, baremo bat aplikatuz zehaztuko da. Baremo hori Gobernuak onartuko du, eta bertan baloratuko dira bai ustez desgaitasuna duen pertsonaren faktore fisiko, psikiko edo sentzorialak, bai faktore sozial osagarriak ere.

2. Halaber, mendekotasun-egoera eta beste pertsona baten laguntza-premia, 364.6 artikuluan aipatzen dena, Gobernuak onartuko duen baremoa aplikatuz zehaztuko dira.

3. Baliaezintasun-pentsioei erretiro-pentsio deituko zaie haien onuradunek hirurogeita bost urte betetzen dituzten unetik aurrera. Izendapen berri horrek ez du inongo aldaketarik ekarriko, ordura arte jasotako prestazioaren baldintzei dagokienez.

368. artikulua. *Onuradunen betebeharrak.*

Baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboak jasotzen dituztenek prestazioa ordaintzen dien entitateari jakinarazi beharko dizkiote beren bizikidetz-egoeran, egoera zibilean, bizilekuan eta pentsioei eustean edo haien zenbatekoan eragina izan ditzaketan aldaketa guztiak.

Nolanahi ere, onuradunak, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, partaide den unitate ekonomikoaren diru-sarreraren aitortze bat aurkeztu beharko du, aurreko urteari buruzkoa.

2. atala. Erretiroa, modalitate ez-kontributiboan

369. artikulua. *Onuradunak.*

1. Modalitate ez-kontributiboko erretiro-pentsio bat jasotzeko eskubidea izango dute hirurogeita bost urte bete dituzten eta 363. artikuluan ezarritako mugatik gorako errentak edo diru-sarrerak ez dituzten pertsonak, baldin eta legez Espainiako lurraldean badute bizilekua eta bizileku hori hamar urtez izan badute hamasei urte zituztenetik pentsioa sortzeko adinera arte; hamar urte horietatik bik elkarren segidakoak izan behar dute, eta prestazio-eskaeraren aurre-aurrekoak.

2. Errenta eta diru-sarrera berekiek –bai eta unitate ekonomiko berean elkarrekin bizi zeagatik konputagarriak diren besterenek ere– eta legez Espainiako lurraldean bizilekua izateak pentsiorako eskubidea eta hari eustea baldintzatzen dituzte, bai eta, kasua bada, haren zenbatekoa ere.

370. artikulua. *Pentsioaren zenbatekoa.*

Modalitate ez-kontributiboko erretiro-pentsioaren zenbatekoa zehazteko, 364. artikuluan baliaezintasun-pentsioa dela-eta xedatutakoari begiratuko zaio.

371. artikulua. *Eskubide-aitorpenaren ondorio ekonomikoak.*

Modalitate ez-kontributiboko erretiro-pentsiorako eskubidea aitortzearen ondorio ekonomikoak gertatuko dira eskaera aurkezten denaren hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera.

372. artikulua. *Onuradunen betebeharrak.*

Modalitate ez-kontributiboko erretiro-pentsioa jasotzen dutenek 368. artikuluan baliaezintasun-pentsio ez-kontributiborako ezarritakoa bete beharko dute.

III. KAPITULUA.

Prestazio ez-kontributiboei buruzko xedapen erkideak

373. artikulua. *Kudeaketa.*

1. Prestazio ez-kontributiboen kudeaketaz honako entitate kudeatzaile hauek arduratuko dira:

- a) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, hurrengo b) letran aipatutako pentsioen kasuan izan ezik.
- b) Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionala, baliaezintasun- eta erretiro-pentsio ez-kontributiboen kasuan.

2. Aurreko zenbakiko b) letran ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, estatutuen arabera eskudunak diren autonomia-erkidegoek kudeatu ahalko dituzte, kasua bada, baliaezintasun- eta erretiro-pentsio ez-kontributiboak, baldin eta aipatutako institutuaren zerbitzuak eskualdatuak badituzte.

3. Gobernuak eta Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalaren zerbitzuak eskualdatu ez zaizkien autonomia-erkidegoek itunak egin ahalko dituzte, Gizarte Segurantzaren pentsio ez-kontributiboak kudeatu ahal izan ditzaten.

4. Modalitate ez-kontributiboko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak 72. artikulua arautzen duen Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan sartuko dira.

Horretarako, baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak kudeatzen dituzten entitate eta organismoek nahitaez ezagutarazi beharko dizkiote Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eman dituzten pentsioei buruzko datuak, erregelamenduz ezarritakoari jarraituz.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Araubide bereziei aplikatzekoak zaizkien arauak.*

1. Gizarte Segurantzako ikatz-meatzaritzako araubide bereziari honako hauetan ezarritakoak izango zaizkio aplikatzekoak: 151., 152., 153. eta 161.4 artikulua; II. tituluko VI., VII., VIII., IX. eta X. kapituluak; 194. artikuluen 2. eta 3. zenbakiak; 195. artikulua, 2. zenbakia kenduta; 197., 200., 205., 206., 207., 208., 209., 210., 211., 213., 214., 215., 219., 220., 221., 222., 223., 224. eta 225. artikulua; 226. artikuluen 4. eta 5. zenbakiak; 227. artikuluen 1. zenbakiko bigarren lerrokada; 229., 231., 232., 233. eta 234. artikulua; eta II. tituluko XV. eta XVII. kapituluak.

Halaber, araubide horretan aplikatzekoa izango da 196. artikuluko 2. zenbakiko azken lerrokadan eta 4. zenbakian ezarritakoa. Pentsioen gutxieneko zenbatekoa eta zenbaki horiek aipagai duten osagarria zehaztearen ondorioetarako, gutxieneko kotizazio-oinarri gisa aintzat hartuko da Araubide Orokorrean une bakoitzean indarrean dagoena, edozein araubidetakoak direla ere ezintasun iraunkor osoagatik eta baliaezintasun handiagatik pentsioak aitortzeko arauak.

2. Itsasoko eta Arrantzako Langileentzako Gizarte Babesa Arazten duen urriaren 21eko 47/2015 Legean ezarritakoa kendu gabe, eta, bereziki, lege horren I. tituluen IV. kapituluko babes-jardunari dagokionez, lege honen xedapen hauek izango zaizkio aplikatzekoak Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Bereziari:

a) Besteren konturako langileei, 151., 152. eta 153. artikuluetan xedatutakoa, bai eta II. tituluko XV. eta XVII. kapituluetan xedatutakoa ere.

b) Norberaren konturako langileei, 306.2, 308.2, 309., 310. eta 311. artikuluetan xedatutakoa, bai eta II. tituluko XV. kapituluaren xedatutakoa ere.

3. Aurreko zenbakietan adierazitakoa gorabehera, Itsasoko eta Arrantzako Langileentzako Gizarte Babesa Arazten duen urriaren 21eko 47/2015 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean aipatzen diren langileei ez zaie aplikatuko 210.3 artikuluan xedatutakoa, bigarren tartekian aurreikusitako ehuneko 0,50eko murrizketari dagokionez, ez eta 215.2.a) artikuluan ezarritako adinaren betekizuna eta hamargarren xedapen iragankorrean jasotako adinen eskala ere.

4. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, hari atxikitako ikuskatzaile medikoen bitartez, 170.1 artikuluan ezarritako eskumenak beteko ditu, bai Araubide Orokorrean sartutako langileei dagokienez, bai Gizarte Segurantzaren sistemako araubide berezietako batean sartutakoei dagokienez ere, Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren aplikazio-eremuaren barruan dauden langileen kasuan izan ezik; izan ere, halako langileen kasuan, eskumen horiek Itsasoko Gizarte Institutuak beteko ditu, aipatutako artikuluan eta zenbakian ezarritako moduan, entitate horri atxikitako ikuskatzaile medikoen bitartez.

Bigarren xedapen gehigarria. *Langile emigratzaileen babes.*

1. Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu Gizarte Segurantzaren babes-jarduna zabal dakien atzerriko herrialde batera lan-arrazoiak tarteko doazen espainiarrei, bai eta haien ardurapean edo haien mendean dauden familiartekoei ere.

Horretarako, Gobernuak behar den guztia egingo du emigratzaileak Gizarte Segurantzaren arloan herrialde hartzaileko nazionalekin berdindu edo pareka daitezen bermatzeko, zuzenean nahiz gobernuarteko organismo eskudunen bitartez, lanerako nazioarteko hitzarmenak berretsiz, alde anitzeko hitzarmenei atxikiz eta estatu hartzaileekin tratatuak eta akordioak sinatuz.

Hitzarmenik ez badago edo, edozein arrazoi edo inguruabar tarteko, horiek ez badituzte Gizarte Segurantzaren prestazio jakin batzuk estaltzen, Gobernuak, kasuko xedapenen bitartez, arloko bere babes-jarduna zabalduko die, bai emigratzaileei, bai Espainian bizi diren haien familiartekoei.

2. Migrazioen Zuzendaritza Nagusiak egiten dituen operazioetan, edo haren esku-hartzearekin egiten direnetan, emigratzaileen joaneko nahiz itzulerako bidaiari zehar gertatzen diren istripuak laneko istripuztat hartuko dira, baldin eta erregelamenduz ezartzen

diren baldintzak betetzen badira. Ondorio horretarako, zuzendaritza zentro horrek behar diren itunak egingo ditu Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin gertakari hori babeste aldera. Istripua dela-eta bidezko diren prestazio ekonomikoak, zenbaki honetan xedatutakoaren arabera, bateragarriak izango dira istripuari eskubidez dagokion beste edozein kalte-ordain edo prestaziorekin.

Berdin hartuko dira joaneko edo itzulerako bidaiaren kausa zuzenez sortutako gaixotasunak.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Funtzionario publikoak eta sartu berriak diren beste langile batzuk Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzea.*

1. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutako Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 2.1 artikuluan aipatzen diren langileak, i) letran jasotakoak izan ezik, nahitaez sartuta egongo dira, arau horretan eta bera garatzeko xedapenetan ezarritakoaren ondorio hutsetarako, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean, kasuan kasuko egoeran data hartatik aurrera sartu badira.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren langileak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzeko, kolektibo bakoitzaren berezitasunak errespetatu beharko dira beti, derrigorrezko erretiro-adinari dagozkionak, bai eta, kasua bada, funtzionarioaren ezintasuna edo ezereztasuna deklaratzeko eskudunak diren epaitegi medikoei dagozkienak ere.

Bereziki, izaera iraunkorra ez duten langile militarrek Gizarte Segurantzaren sartzeko garaian, kontuan hartuko dira araubide horren babes-jardunean baliokide diren figurak direla-eta jaso gabe dauden gertakariei buruz aurreikusitako berezitasunak.

Gainera, Estatuko Indar Armatueta eta Segurtasun Indar eta Kidegoetako langileen kasuan, Araubide Orokorrean sartzeko, errespetatu egingo da Estatuko Klase Pasiboen araudian aurreikusitako aparteko pentsioetarako araubidea; horrez gain, behar diren egokitzapenak egingo dira.

3. 2010eko abenduaren 31n Klase Pasiboen Araubidearen estalduraren eremu pertsonalean sartuta dauden langileek, baldin eta egun horretatik aurrera eta etenik gabe sartzen badira –sartzeko sistema edozein dela ere–, edo berriz sartzen badira, egun horretan Klase Pasiboen Araubidean sailkatzea eragingo zuen beste kidego batean, araubide horretan jarraituko dute.

4. Estatuko Klase Pasiboen Araubideari buruzko araudiaren menpe jarraituko dute Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 2.1 artikuluko i) letran jasotako langileek beren buruaren alde edo beren familiartekoen alde sortutako eskubide pasiboek.

Laugarren xedapen gehigarria. *Administrazio publikoei bigarren lanpostu edo jarduera batean emandako zerbitzuak aintzat hartzea.*

Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen babesean baimendutako jarduera publikoen arteko bateragarritasun-kasuetan, bigarren lanpostuan edo jardueran emandako zerbitzuak ezingo dira zenbatu Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen ondorioetarako, bateragarri diren lanpostuetatik edozeinetan lanaldi arruntari dagokion prestazioa gaintzen duten heinean. Kotizazioa egoera horretara egokitu ahalko da erregelamendu bidez ezarritako moduan.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Europar Batasuneko Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten aseguratuen Gizarte Segurantzako araubidea.*

Gizarte Segurantzaren sistemaren estalduraren eremu pertsonalean sartuta egon den aseguratutako bat Europar Batasunaren Administrazioan zerbitzuak ematen hasten bada eta Europar Batasuneko Funtzionarioen Estatutuaren VIII. eranskinaren 11. artikuluan 2. zenbakiak ematen dion eskubidea baliatzea hautatzen badu –estatutu hori Kontseiluaren 1968ko otsailaren 29ko 259/1968 Erregelamenduaren bidez (EEE, EURATOM, IAEA)

onartu zen—, berehala baja emango zaio sistema horretan, aurrez egin ez bada, eta hartan kotizatzeke betebeharra azkenduko da behin estatutuan aipatzen den Europar Batasunerako transferentzia egin denean.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa kendu gabe, interesdunak, halere, aukera izango du Gizarte Segurantzaren Espainiako sistemaren babesean jarraitzeko, baldin eta aurrez, edo ondoren eta erregelamenduz ezarritako epeetan, kasuko hitzarmen berezia izenpetzen badu; hitzarmen horren babes-jardunetik kanpo geratuko dira, edonola ere, erretiro-pentsioa eta heriotza eta biziraupenagatiko prestazioak.

Aurreko lerrokadetan aipatutakoa gorabehera, Europar Batasunaren Administrazioan zerbitzuak emateari utzitakoan interesduna Espainiara itzultzen bada, Gizarte Segurantzaren sisteman berriz sartzea eragiten duen besteren konturako edo bere konturako lan-jardueraren bat egiten badu eta Europar Batasuneko Funtzionarioen Estatutuaren VIII. eranskinaren 11. artikulua 1. zenbakian ematen zaion eskubidea baliatzen badu, behin Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian bidezkoa den sarrera egin duenean, sistema horretan erretiro-pentsioa edo heriotza eta biziraupenagatiko prestazioak jasotzeko eskubidea sortzean zenbatu egingo zaio Europar Batasunaren zerbitzuan eman duen aldia.

Seigarren xedapen gehigarria. *Prestakuntzako, praktiketako, lankidetzako edo espezializazioko egonaldiak.*

1. Titulu akademikoak dituztenei zuzendutako laguntzek, eginbeharrak zerbitzu-prestazioko araubidean egitea dakarten prestakuntzako, praktiketako, lankidetzako edo espezializazioko egonaldiak diruz laguntzeko direnek, ezarri beharko dute Gizarte Segurantzako kotizazioa prestakuntza-kontratuen erara egingo dela, betiere lan-araudiaren menpe, baldin eta onuradunei lan-kontratua egitera behartzen badu, edo atxikipeneko entitatean indarrean diren hitzarmen edo akordio kolektiboen menpe, baldin eta orokorrean aplikatzekoa denaz gainera hobekuntzak ezartzen badituzte.

2. Administrazio publiko eskudunek berariazko planak egingo dituzte lanpostuak ezkututzen dituzten bekei lotuta dauden laneko iruzurra, iruzur fiskala eta Gizarte Segurantzarekiko iruzurra desagerrarazteko.

Zazpigarren xedapen gehigarria. *Deuseztatuta dagoen Toki Administrazioari Funtzionarioen Araubide Berezitik datozen funtzionarioentzako osasun-laguntzaren araubidea.*

Deuseztatuta dagoen Toki Administrazioari Funtzionarioen Araubide Berezitik datozen funtzionarioen eta Toki Administrazioari datozen langileen osasun-laguntzaren estaldura, baldin eta prestazioa Osasun Sistema Nazionaletik jasotzen ari baziren Toki Administrazioa osatzen duten korporazio, erakunde edo entitateen kargura, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorraren babes-jardunean jasotako gertakariari aplikatzekoa zaion araubide juridiko eta ekonomikoaren menpean geratzen da ondorio guztietarako.

Zortzigarren xedapen gehigarria. *Amatasunagatiko eta aitatasunagatiko prestazio ekonomikoaren kudeaketa.*

Lege honetan araututako amatasunagatiko eta aitatasunagatiko prestazio ekonomikoaren kudeaketa kasuan kasuko entitate kudeatzaileak gauzatuko du zuzenean eta modu eksklusiboan.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Itsasoko Gizarte Institutua.*

1. Itsasoko Gizarte Institutuak jarraituko du Gizarte Segurantzako Itsasoko Langileen Araubide Berezia kudeaketan esleituta dituen eginkizun eta zerbitzuak betetzen, ezertan kendu gabe hura garatzen duten legeek eta arloari buruz indarrean dauden beste xedapen batzuek esleitzen dizkioten gainerakoak.

2. 74. eta 104. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Itsasoko Gizarte Institutuaren baliabide ekonomikoak eta ondarearen titulartasuna Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari atxikitzen zaizkio, eta azken horrek hartuko du bere gain institutuaren obligazioen ordainketa.

Itsasoko Gizarte Institutuaren ondare garbia islatzen duten kontuak Diruzaintza Nagusiari eskualdatuko zaizkio, zerbitzu erkide horren balantzean sar daitezten.

Hamargarren xedapen gehigarria. *Hirugarrenei ondasunak saltzeagatik eta zerbitzuak emateagatik lortutako diru-sarrerak.*

1. Ez dute Gizarte Segurantzaren baliabideen izaerarik izango honako arreta, prestazio edo zerbitzu hauetatik eratortzen direnak:

a) Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren 16.3 eta 83. artikuluek aipatzen dituzten diru-sarrerak, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak Gizarte Segurantzaren osasun-laguntzarako eskubiderik ez duten erabiltzaileei emandako osasun-laguntzatik datozenak, bai eta, orobat, nahitaezko aseguru pribatuen kasuetan eta ordaintzera behartutako hirugarren bat dagoen kasu guztietan, aseguratuak izan ala ez izan.

b) Osasun-zentroen jardueratik datozen eta inbentariaezinak diren produktuen, hondakin-materialen edo azpiproduktu sanitarioen edo ez-sanitarioen salmenta, Osasunari buruzko Lege Orokorraren, uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bateginaren eta osasunari buruzko gainerako xedapenen arabera halako jarduerak egin daitezkeen kasuetan.

c) Hertsiki asistentziala ez den izaera duten hornidura edo zerbitzu-prestazioetatik datozen diru-sarrerak.

d) Hitzarmen, laguntza edo dohaintza finalista edo altruistetatik datozen diru-sarrerak, ikerketa- eta irakaskuntza-jarduerak egiteko, transplanteak eta odol-emateak sustatzeko edo antzeko beste jardueretarako direnak. Ez dira horren barnean egongo ministerio-sailen aurrekontuen bitartez finantzatuta dauden programa bereziei dagozkien diru-sarrerak.

e) Oro har, gainerako diru-sarrera guztiak, Gizarte Segurantzaren prestazio ez diren osasun-arretei edo -zerbitzuei dagozkienak.

2. Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak finkatuko du arreta, prestazio eta zerbitzu horien prezio eta tarifen araubidea, zenbatetsitako kostuak oinarri hartuta.

3. Diru-sarreraren zertarakoa:

a) Aurreko zenbakietan aipatzen diren diru-sarrerek beren zenbateko osoaren araberrako kreditua sortuko dute, eta funtzionamendu-gastuak estaltzeko erabiliko dira, alde batera utzita langileen ordainsariak eta osasun-erakundeen birjartze-inbertsioak, bai eta kasuko osasun- eta laguntza-helburuak zaintzera bideratutakoak ere.

Hala eta guztiz ere, ikerketa-jardueretarako kontratu edo lankidetzeta-hitzarmenetatik datozen diru-sarrerek beren zenbateko osoaren araberrako kreditua sortu ahalko dute, eta jarduera horiek egiteko aurreikusitako gastu guztiak estaltzeko erabiliko dira. Baldin eta sortutako kreditu guztiak edo haren zati batek I. kapituluan eragina badu, ikertzaileek ez dute arrazoi hori tarteko inongo lan-eskubiderik eskuratuko ikerketa-jarduera amaitzen dutenean.

b) Funtz horien banaketak laguntzetatik edo dohaintzetatik datozen funtsen zertarakoa errespetatuko du.

c) Baliabide horiek Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak erreklamatuko ditu, Estatuaren Administrazio Orokorraren izenean eta haren kontura, Altxor Publikoan sartzeko. Altxor Publikoak, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren titularrak onartutako kreditu-sorkuntzen zenbatekoa aintzat hartuta, behar diren transferentziak egingo ditu Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ondorio horietarako osasun-zentro bakoitzean irekita dauzkan kontuetara.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Gastuak baimentzearen arloko eskumenak.*

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioari gastu-baimenen arloan dagozkion eskumenak Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak beteko ditu, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren kudeaketari dagokionez.

Aldi berean, Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren kudeaketari dagokionez, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioak beteko ditu gastu-baimenen arloko eskumenak, Estatuko Aurrekontuko ekarpen finalistekin finantzatzaren diren partiden kasuan.

Hamabigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentzia, beste estatu batean aseguratuta egonik Espainian bizilekua dutenei dagokionez.*

Urtero, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak aurre-aurreko ekitaldian lortutako saldo garbi positiboa transferituko die autonomia-erkidegoei. Saldo hori bi hauen arteko eremu nazionalako diferentzia izango da: batetik, beste estatu batean aseguratuta dagoen langile baten familiako kideen, Espainiako lurraldean bizi direnen, eta beste estatu batean aseguratuta dauden eta Espainian bizi diren pentsioen titularren eta haien familiako kideen osasun-laguntzaren estalduragatiko kuota orokorren kontzeptuan bildutako zenbatekoa; eta, bestetik, Espainian aseguratuta dagoen langile baten familiako kideengatik, beste estatu baten lurraldean bizi direngatik, eta Espainian aseguratuta dauden eta beste estatu baten lurraldean bizi diren pentsioen titularrengatik eta haien familiako kideengatik beste estatu batzuei ordaindutako kopurua. Hori guztia, nazioarteko araudiaren babesean.

Aurreko zenbakiaren arabera lortutako saldo garbiaren autonomia-erkidegoen arteko banaketa beste estatuetatik etorritako egoiliar aseguratuen kopuruaren proportzioan egingo da, bai eta autonomia-erkidego bakoitzean bizilekua izan duten aldiaren proportzioan ere, aseguru-organismoak emandako ziurtagiriaren araberrako osasun-estaldurarekin eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalen behar bezala izena emanda.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Kaleratze kolektiboko espediente jakin batzuk direla-eta izenpetu beharreko hitzarmen bereziaren araubide juridikoa.*

1. Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51.9 artikulua aipatutako hitzarmen berezian, kotizazioek aldi hau hartuko dute: lana amaitzen zaion egunetik edo, bestela, langabezia-prestazio kontributiboa azkendu zaiolako kotizatzeko betebeharra bukatzen den egunetik, langilea 205.1.a) artikulua aipatutako adinera iristen den egunera arteko aldia, hurrengo zenbakietan ezarritako moduan.

2. Aldi horrengatik kotizazioak honela zehaztuko dira: langileak kotizaziopeko jardueran emandako azken sei hilabeteetako kotizazio-oinarrien batezbestekoari hitzarmen bereziaren arau erregulatzaila ezarritako kotizazio-tasa aplikatuz. Ateratzen den emaitzatik, kendu egingo da langileak langabezia-subsidioa jasotzeko eskubidea izan dezakeen aldiari dagokion kotizazioa –Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren konturako kotizazioa–, erretiro-gertakariarengatik kotizatu behar denean; hitzarmen berezia sinatzeko datan aplikatzekoak ziren oinarriaren eta tasaren arabera kalkulatu da hori.

Hitzarmenari dagozkion kotizazioak enpresaburuaren kontura izango dira langileak hirurogeita hiru urte betetzen dituen arte, salbu eta arrazoi ekonomikoen ondoriozko kaleratze kolektiboko espedienteen kasuetan, zeinetan betebeharrak hori langileak hirurogeita bat urte betetzen dituen arte izango baita.

Kotizazio horiek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian ordaindu beharko dira, edo aldi bakarrean, aipatutako zerbitzu erkideak ordaindu beharreko kopuruari buruzko jakinarazpena egin eta hurrengo hilabeteetan, edo modu zatikatuan, ordaintzeko gelditzen den zenbatekoa segurtatuz abal solidario batekin edo aseguru- edo finantza-entitate batek enpresaburua ordeztuz betebeharra betetzeko garaian, betiere Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia ados badago eta Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezarritako moduan.

Langileak hirurogeita hiru urte betetzen dituen unetik aurrera, edo, kasua bada, hirurogeita bat urte betetzen dituen unetik aurrera, hitzarmen berezirako ekarpenak nahitaezkoak izango dira eta langilearen kontura izango dira guztiz, hitzarmen bereziaren araudian ezarritako moduan, 205.1.a) artikuluan aipatzen den adina betetzen den arte edo erretiro aurreratuaren pentsioa eskuratzen duen arte, 4. zenbakian ezarritakoa kendu gabe.

3. Langilea hiltzen bada edo enpresaburuari dagokion kotizazio-aldian zehar ezintasun iraunkorragatiko pentsio bat aitortzen bazaio, enpresaburuak eskubidea izango du hitzarmen berezia dela-eta ordainduak dituen kuotak itzul diezazkioten, hain zuzen ere heriotza gertatu denetik edo pentsioa aitortu denetik iragan den aldiari dagozkionak, urteko erregularizazioa egin ondoren eta erregelamenduz ezartzen den moduan.

4. Baldin eta, enpresaburuaren konturako kotizazio-aldian zehar, langileak jardueraren bat egiten badu eta horregatik Gizarte Segurantzaren sistemari kotizatzen badu, egindako jarduerari dagozkionekin batera gertatzen diren kuotak –hain zenbatekoraino– hitzarmen bereziaren ordainketari aplikatuko zaizkio 2. zenbakiaren azken lerrokan jasotako langilearen konturako aldiari zehar, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta ezertan kendu gabe enpresaburuak bidezko kuotak itzul dakizkion daukan eskubidea, betiere langileak erretiro-pentsioa sortzen duen datan gerakinik badago.

5. 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren itzulketek egitate eragilea gertatzen den egunean indarrean den diruaren legezko interesa sortuko dute, eta interes hori kalkulatu da hura gertatzen denetik ordainketa-proposamena egiten den arteko aldia aintzat hartuta.

Ondorio horretarako, itzulketaren egitate eragilea gertatuko da langilea hiltzen den egunean edo azken horrek ezintasun iraunkorragatiko pentsioa sortu duen egunean, 3. zenbakian ezarritako kasuetarako, eta langileak erretiro-pentsioa sortu duen egunean, 4. zenbakian ezarritako kasurako.

6. Aurreko zenbakietan ezarrita ez dagoenerako, hitzarmen berezi hau arautuko da Gizarte Segurantzaren sistemako hitzarmen bereziari buruzko arau erregulatuarekin xedatutakoaren arabera.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalen hitzarmen berezien araubide juridikoa.

1. 2012ko uztailaren 15etik, Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantzaren arautzen duen maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuan araututako hitzarmen berezia borondatezkoa izango da zaintzaile ez-profesionalentzat, eta zaintzaile ez-profesionalaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren artean sinatu ahalko da.

2. Aurreko zenbakian adierazitako hitzarmen bereziagatik Gizarte Segurantzako kotizazioak berau sinatzen duenak baino ez ditu ordaindu behar.

3. Hitzarmen berezi horiek ondorioak izango dituzte hitzarmen berezia sinatzeko eskaera egiten den egunetik.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziaren jarraipen batzordea.

Gizarte Segurantzaren Administrazioaren ordezkariak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren ordezkariak eta ekonomiaren arloan edo landa-, nekazaritza- eta abeltzaintza-arloan eskumenak dituzten beste ministerio-sail batzuen ordezkariak, enplegatzaileen eta langileen ordezkariak handiena duten estatu mailako enpresa- eta sindikatu-erakundearen ordezkariak batera, batzorde bat eratuko dute, zeinek zainduko baitu Besteren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziaren aplikatzeak diren kotizazio-onurak pizgarri gerta daitezkeen enpleguaren egonkortasunerako, kontratuek iraupen luzeagoa izateko, aldizkako kontratu finkoak gehiago erabiltzeko eta nekazaritza-ustiatzearen lehiakortasunerako eta enplegurako kaltegarria den kostu-igoera saihesteko.

Batzorde horrek aztertuko ditu, 2017ko urtarrilaren lehenetik aurrera, bai kotizazio efektiboak, bai finantzaketa-iturrien bereizteari buruzko arau orokorren betetzea ere. Halaber, berrikusiko ditu hemezortzigarren xedapen iragankorrean ezarritako murrizketak, baldin eta kotizazio-tasa orokorrak aldatu badira, aurreko lerrokadan adierazitako helburuak betetzeari begira.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Nekazaritza-ustiategiaren titularraren ezkontidea.*

Ulertuko da nekazaritza-ustiategiaren titularraren ezkontideari buruzko aipamenak, lege honen IV. tituluaren IV. kapituluaren jasotakoak, harekin ezkontzaren antzeko afektibotasun-harreman batez modu iraunkorrean lotutako pertsonari buruzkoak ere badirela, behin erregulatzen denean, Gizarte Segurantzaren sistemaren eta hura osatzen duten araubideen aplikazio-eremuan, enpresaburuaren edo industria- nahiz merkataritza-negozioaren edo nekazaritza- nahiz arrantza-ustiategiaren titularraren izatezko bikotekidearen sailkapenaren irismena.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia egokitzea.*

Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, norberaren konturako langileen babes-jardunaren intentsitatea besteren konturako langileenarekin uztartzeko, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren batez besteko kotizazio-oinarriek Araubide Orokorreko oinarrien batezbestekoak izan duen hazkundearen antzeko hazkundera izango dute gutxienez.

Nolanahi ere, urteko igoerak ez du gaindituko Araubide Orokorreko batezbestekoen hazkundera gehi ehuneko bat. Urte bakoitzeko igoerak, bai eta sistemaren beste edozein funtsezko aldaketa ere, lehenik elkarrizketa sozialaren esparruan eztabaidatuko dira ordezkaritza handieneko sindikatu- eta enpresa-erakundeekin, bai eta ordezkaritza handiena duten langile autonomoen antolakunde profesionalekin ere, eta Lan Autonomoaren Estatuko Kontseiluari kontsulta egingo zaio, uztailearen 11ko 20/2007 Legearen 22. artikulua ezarri bezala, eta ez dira aplikatzekoak izango krisialdi ekonomikoen ondorioz kolektibo horiek errenta- edo enplegu-galerak izan dituzten urteak.

Kontuan hartuko da Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko Legearen 25.3 eta 27.2.c) artikuluetan ezarritako aukera; hau da, beren izaera dela-eta gaitasun ekonomikoa eta errentak sortzeko gaitasuna handitzeko zailtasun bereziak dituzten langile autonomoen zenbait kolektibori, edo aldi baterako beren ohiko diru-sarreretan murrizketak pairatzeko aukerak dauzkaten zenbait sektore profesionali Gizarte Segurantzaren kotizazioetan salbuespenak, murrizketak edo onurak ezartzea.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. *Profesional elkargokideen sailkapena.*

1. Beren konturako jarduera bat egiten dutenak –lege honetan eta Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezia arautzen duen abuztuaren 20ko 2530/1970 Dekretuan ezarritako baldintzen arabera–, baldin eta jarduera horrek profesionalen elkargo batean sartzea eskatzen badu eta kolektibo hori ez badago sartuta Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian, ulertuko da azken horren aplikazio-eremuan sartuta daudela, eta, kasua bada, afiliazioa eskatu beharko dute, bai eta araubide horretan alta eman dakiela ere, erregelamenduz ezarritako moduan.

Profesional elkargokidea 1995eko azaroaren 10etik 1998ko abenduaren 31ra bitartean hasi bazen jarduerarekin, araubide berezi horretako alta, azken data hori baino lehen eskatzekoa izan ez bada, 1999ko lehenengo hiruhilekoan zehar eskatu beharko da, eta ondorioak izango ditu eskaera egin den hilaren lehenengo egunetik aurrera. Aipatutako

epean egiten ez bada, atzeratutako alten ondorioak erregelamendu bidez ezarritakoak izango dira, eta jardueraren hasiera-data gisa 1999ko urtarrilaren 1a finkatuko da.

Aurreko lerrokadetan ezarritakoa gorabehera, araubide berezi horretan alta emateko betebeharretik salbuetsita egongo dira kasuan kasuko profesionalen elkargoak ezarrita izan dezakeen gizarte-aurreikuspeneko mutualitatean sartzearen alde egiten duten edo egin duten elkargokideak, baldin eta mutualitate hori 1995eko azaroaren 10a baino lehen eraturako bat bada, abenduaren 4ko 2615/1985 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Erregelamenduaren 1. artikuluaen 2. zenbakiaren babesean. Interesdunak, eskubidea izanda, kasuko mutualitatean sartzearen alde egiten ez badu, ezingo du hautu hori egin aurrerago.

2. Aurreko zenbakiaren lehen lerrokan ezarritako alta-betebeharretik salbuetsita geratuko dira beren jarduera 1995eko azaroaren 10a baino lehen hasi duten profesional elkargokideak, baldin eta haien profesionalen elkargoek ez badute egun horretan ezarria Gizarte Aurreikuspeneko Entitateen Erregelamenduaren 1. artikuluaen 2. zenbakian babestuta dauden mutualitateetako bat, eta egun hori baino lehen araubide berezian sartu ez badira. Hala eta guztiz ere, interesdunek, beren borondatez, aukera izango dute, behin bakarrik eta 1999an zehar, araubide berezi horretan alta eskatzeko. Alta horrek ondorioak izango ditu eskaera egiten den hilaren lehenengo egunetik aurrera.

Beren jarduera 1995eko azaroaren 10a baino lehen hasia duten profesional elkargokideak, baldin eta data horretan sartuta badaude aurreko zenbakian aipatutako mutualitateetako batean, alta eskatu beharko dute araubide berezi horretan, mutualitate horretan jarraitu nahi ez badute Aseguru Pribatuen Antolamenduari eta Gainbegiratzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legearen bosgarren xedapen iragankorreko 3. zenbakian aurreikusitako egokitzapena egiten den unean. Baldin eta egokitzapen hori 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatzen bada, balioa izango du aipatutako xedapen iragankorrean ezarritakoaren babesean interesdunak egindako hautuak.

3. Aurreko zenbakietan jasotako kasuetatik edozeinetan, araubide berezi horretan sartzea gauzatuko da aurrez kasuan kasuko profesionalen elkargoetako ordezkartzaren organo gorenek eskaerarik egin behar izan gabe.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren ordezko aukera diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateen babes-eremua.*

1. Hemezortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren indarrez, profesional elkargokideak direla-eta, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta ematearen ordezko aukera diren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek, beren afiliatuei, erabiltzen dituzten banakako kapitalizazioaren eta aseguru-teknikaren bitartez, honako estaldura hauek eskaini beharko dizkiete nahitaez: erretiroa; ezintasun iraunkorra; aldi baterako ezintasuna, horren barne direla amatasuna, aitatasuna eta haurdunaldiko arriskua; eta heriotza, zeinak alarguntasuna eta zurtasuna sor ditzakeen.

2. Aipatutako araubide bereziaren ordezko aukera diren aldetik halako mutualitateek ematen dituzten prestazioek, errentaren forma hartzen dutenean, aurreko zenbakian aipatzen diren eta estalita dauden gertakarietatik edozein gertatzen den unean Gizarte Segurantzaren sisteman pentsio mota horretarako ezarrita dagoen gutxieneko hasierako zenbatekoaren ehuneko 60ra iritsi behar dute, edo, handiagoa bada, Gizarte Segurantzaren pentsio ez-kontributiboetarako ezarritako zenbatekora. Baldin eta prestazio horiek kapital gisa ematen badira, kapital hori ezingo da izan txikiagoa errenta-kasurako ezarritako gutxieneko zenbatekoaren kapitalizatutako kopurua baino.

Halaber, joko da prestazioaren gutxieneko zenbatekoaren betebeharra betetzen dela baldin eta mutualistak ordaindu beharreko kuotak, ordezko aukera den mutualitatearekin 1. zenbakian aipatutako nahitaezkoetatik kontratatutako gertakariak edozein direla ere, araubide berezi horretan orokorrean ordaindu behar den gutxieneko kuotaren ehuneko 80ren baliokideak badira.

3. Mutualistek aipatutako araubide bereziaren ordezkio aukera diren mutualitateei ordaintzen dizkieten diru-ekarpenak eta kuotak, araubide horrek estalitako gertakarien estaldura xede duen zatian, kengarriak izango dira, ekitaldi bakoitzean eta araubide berezi horretan gertakari arruntetarako ezarrita dagoen gehieneko kuotaren mugarekin.

Hogeigarren xedapen gehigarria. *Ertzaintzako kideen erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak.*

1. 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera erretiro-pentsioa jaso ahal izateko eskatzen den adin arrunta gutxitu egingo da Ertzaintzako kide gisa edo Ertzaintzan sartuta geratu ziren taldeetako kide gisa benetan lan egindako urte osoei 0,20ko koefiziente murriztailea aplikatuta lortzen den aldiaz.

Aurreko zenbakian aipatutako erretiro-adinaren gutxitzea aplikatzeak ez du inolaz ere eragingo interesdunak, aurreko paragrafoan aipatzen den jardueran aritu izateagatik, erretiro-pentsioa eskuratu ahal izatea hirurogei urte bete baino lehenago, edo berrogeita hemeretzi urte bete baino lehenago, baldin eta egiaztatzen bada Ertzaintzan, edo hartan sartuta geratu ziren taldeetan, hogeita hamabost urtez edo gehiago egiazki jardun dela eta kotizatu dela. Nolanahi ere, ez da zenbatuko aparteko ordainsariei dagokien zati proportzionala.

2. Langilearen erretiro-adina aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera murrizten den denbora kotizatutako alditzat hartuko da ondorio honetarako soilik: dagokion oinarriari erretiro-pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko zer ehuneko aplikatu behar zion erabakitzeko.

Bai adinaren murrizketa, bai adin hori kotizazio-ondorioetarako murrizten den denboraren zenbaketa, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera, aplikatzeak izango zaizkie Ertzaintzako kideei, baldin eta jarduera horretan alta-egoeran egon badira erretiro-pentsioaren egitate eragilea gertatu den egunera arte.

Halaber, onura beretarako eskubidea izango dute xedapen gehigarri honen 1. zenbakian ezarritakoa aplikatuta kasu bakoitzean ateratzen den erretiro-adinera iristean kidego horretako kide gisa zeukaten jarduera eten arren beste lan-jarduera batean aritzeagatik altan jarraitzen dutenek, edozein dela ere jarduera horren ondorioz Gizarte Segurantzaren sartuta dauden araubidea.

3. Xedapen honek aipagai duen kolektiboari dagokionez, gertakari arruntengatik kotizazio-oinarriaren gainean kotizazio-tasa gehigarri bat aplikatuko da, bai enpresarentzat, bai langilearentzat ere. Kotizazio-tasa horiek aktiboen eta pasiboen egoerari egokitu zaizkio.

4. Xedapen gehigarri honetan ezarritako sistema aplikatu aurretik, Kupoaren Batzorde Mistoak finantzaketa-akordio bat egingo du; hain zuzen ere, Estatuak finantza dezan erretiro-adina aurreratzeagatik eta erretiro-adina aurreratzen den urteetako prestazioen igoeragatik ezarri beharreko kotizazio errekaragudunei dagokien urteko zenbatekoa; betiere zenbateko hori parekoa izango da Estatuak Administrazioak Klase Pasiboen Araubidekoak diren Estatuak Seguratasun Indar eta Kidegoetako kideen erretiro aurreratuaren kasuan ordaintzen duenarekin.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. *Nafarroako administrazio publikoetako montepioei kotizatutako aldiaren zenbaketa.*

1. Gizarte Segurantzaren Sistemako ezintasun iraunkorragatik pentsioaren, erretiro-pentsioaren eta heriotza eta biziraupenagatik pentsioaren ondorioetarako, edozein araubidekoak direla ere, zenbatu egingo dira langileek Nafarroako administrazio publikoetako montepioei kotizatutako aldiak, baldin eta aldi horiek ez bazaizkie gainezartzen aipatutako sisteman kotizatutako beste batzuei, bai kasuan-kasuan pentsiorako eskubidea eskuratzeko eskatzen diren gabealdiak frogatzeari begira, bai, kasua bada, hura kalkulatzeko kotizazio-urteen arabera portzentajea zehazteari begira ere. Kasuko pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatzeko zenbatze horren xede diren aldiak kontuan hartu behar direnean, aintzat hartu beharreko kotizazio-oinarrien zehaztapena

egingo da langileek aldi horietan izandako benetako ordainsarrietatik abiatuta, une bakoitzean Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren esparruan indarrean dauden kotizazio-arauak aplikatuz.

Aurreko lerrokadan adierazitakoa gorabehera, montepioei kotizatutako aldiak ez dira inoiz ere zenbatuko montepioek aldi horiengatik, kasua bada beste batzuekin metatuta, pentsiorako eskubidea aitortu izan dutenean.

2. Xedapen honetan ezarritakoa atzeraeraginez aplikatuko da, eta alde batek eskatuta berrikusi ahalko dira behinola Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko entitate kudeatzaileak ebatzitako espedienteak, baina berrikuspen horien ondorio ekonomikoak soilik gertatuko dira kasuko eskaera egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunetik aurrera.

3. Aurreko zenbakietan araututako zenbatzea egingo da Nafarroako Foru Komunitateak Gizarte Segurantzaren sisteman frogatutako kotizazio-aldiak direla-eta berdin jokatzeko duen bitartean, abenduaren 30eko 13/1993 Foru Legetik aurrera Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko ondoz ondoko foru-legeetan eta Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorri buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 30. artikuluan horri buruz ezarritakoa aplikatuz.

Xedapen hau ez da aplikatzekoa izango honako hauetan: Gizarte Segurantzako Estatuko Funtzionario Zibilen Araubide Berezia, Gizarte Segurantzako Indar Armatuaren Araubide Berezia eta Gizarte Segurantzako Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Langileen Araubide Berezia.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen egokitzapenari eta nahikotasunari buruzko txostena.*

Gobernuak, Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren jasangarritasun-faktorea eta errealizazio-indizea arautzen dituen abenduaren 23ko 23/2013 Legea onartzen denetik aurrera, arau horretan hartutako neurriek Gizarte Segurantzaren erretiro-pentsioen nahikotasunean eta egokitzapenean dituzten ondorioei buruzko azterlan bat egingo du bost urtean behin; azterlan hori Diputatuen Kongresuari aurkeztuko dio, bai eta sindikatu-eta enpresa-erakundeekin izango duen elkarrizketa sozialean ere.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. *Gizarte Segurantzaren kuoten eta baterako diru-bilketaren ekarpenen hobariak izaera bereziko zenbait lan-harremanetan, eta zenbait eremu geografikotako langileak direla-eta aplikatu beharreko murrizketak.*

1. Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntzaren zuzenbide publikoko estatu-entitateak edo haren baliokidea den organo autonomikoak eta espetxeetan lan-jarduerak egiten dituzten espetxeratuek eskubidea izango dute haiei dagozkien kotizazioen ehuneko 65eko hobaria jasotzeko, langabeziarako, lanbide-heziketarako eta Soldatak Bermatzeko Funtserako baterako diru-bilketaren kontzeptuetan.

Halaber, langile horientzat ezartzen diren gertakari arruntengatik enpresa-kuotei aplikatu egingo zaizkie laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langileen kontrataziorako ematen diren hobari orokorrak, baina ez zaizkie aplikatuko izaera bereziko lan-harremanetarako ezar litezkeen bazterketak. Izaera bereziko lan-harremanetarako ezarrita egon daitezkeen edo ezartzen diren hobariak aplikatzekoak direnean, onuragarrien gertatzen direnak aukeratuko dira.

Adingabeen Erantzukizun Penal Arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan sartzen diren adingabeen izaera bereziko lan-harremanaren alderdiek aurreko bi lerroketan aipatzen diren hobariak hartu ahalko dituzte.

Xedapen honetan ezarritako hobariak finantzatzeko dira Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan dagoen aurrekontu-partidaren kargura, Soldatak Bermatzeko Funtzionarioen ekarpenari dagozkionak izan ezik, zeinak organismo horren aurrekontuaren kargura finantzatzeko baitira.

Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak zehaztuko ditu kolektibo horren kotizazio-oinarriak, ekitaldi bakoitzean Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak ezartzen dituen gehieneko eta gutxieneko mugen barruan, haien ezaugarri berezien arabera. Oinarri horiek, nolana ere, ezingo dira izan txikiagoak aldi baterako kontratueterako finkatutako gutxieneko oinarriak baino.

2. Enpresaburuek (salbu eta Administrazio Publikoa eta sektore publikoko erakunde, organismo eta enpresak), sektore jakin batzuetan badihardute Ceutan eta Melillan (nekazaritza, arrantza eta akuikultura; industria –energia eta ura izan ezik–; merkataritza; turismoa; ostalaritza eta gainerako zerbitzuak –aireko garraioa, eraikinen eraikuntza, finantza- eta aseguru-jarduerak eta higiezin jarduerak izan ezik–), aipatu herrietan kokatutako lan-zentroetan lan egiten duten langileei dagokienez, ehuneko 50eko hobaria izango dute gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzari ordaintzen dizkieten kuotetan, baita langabeziaren baterako bilketagatik, lanbide-heziketagatik eta Soldatak Bermatzeko Funtzagatik ordaintzen dizkietenetan ere.

Halaber, Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartuta dauden langileek, aurreko lerrokadan azaldutako sektoreetan sailkatutako jardueretan aritzen badira eta Ceuta eta Melilla hirietan bizi eta lan egiten badute, ehuneko 50eko hobaria izango dute gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzari ordaintzen dizkieten kuotetan.

Aurreko lerrokadetan ezarritako hobarien ezarpena eta aplikazio eraginkorra progresiboak izango dira araua indarra jarri ondorengo lehenengo hiru urteetan. Lehenengo urtean ehuneko 43koa izango da; bigarren urtean, ehuneko 46koa, eta hirugarren urtean eta hurrengoetan, ehuneko 50ekoa.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. *Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko kotizazioan onurak aplikatzea.*

1. Indarreko legerian etxeko langileen enplegataileen alde aitortutako kotizazioko onurak, hurrengo zenbakikoak barne, ez dira aplikatuko baldin eta enplegataile bakoitzari hilean hirurogei ordutik beherako zerbitzuak ematen dizkieten langileek beren gain hartzen badituzte, erregelamenduz ezarritako moduan, sistema horretako sailkatze-, kotizazio- eta bilketa-betebeharrak.

2. Familia ugarietan zaintzaileak kontratatzeagatik Gizarte Segurantzako kuotetan ezarritako hobaria Araubide Orokorreko Etxeko Langileentzako Sistema Berezian aplikatuko da, legez ezarritako moduan eta irismenarekin.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Epai bidez ezgai deklaratu diren pertsonen parekatzea.*

Lege honen aplikazioaren ondorioetarako, ulertuko da epai bidez ezgai deklaratu diren pertsonen gutxienez ehuneko 65eko desgaitasun-gradua dutela.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. *Familia-establezimenduen titularren ezkontideak.*

Ezkontideetako batek, ezkontzak iraun duen aldian, Gizarte Segurantzako kasuko araubidean alta eman gabe familiaren negozioaren aldeko lanak egin dituela frogatzen den kasuetan, banantze-, dibortzio- edo deuseztasun-prozesuaz arduratzen den epaileak egitate horren berri emango dio Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailtzari, azken horrek bidezko diren jarduketak egin ditzan. Preskribatu gabeko kotizazioek, kasua bada aitortutako alta-aldiengatik egiten direnek, ordenamenduan ezarritako ondorio guztiak izango dituzte, Gizarte Segurantzaren prestazioak sortzeari begira. Kotizazio horien zenbatekoa familiaren negozioari egotziko zaio eta, horrenbestez, haien ordainketa negozio horren titularraren kargura izango da.

Lehenengo xedapen iragankorra. *1967 baino lehenagoko legeriatik eratorritako eskubide iragankorrak.*

1. 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako Araubide Orokorreko prestazioek aurreko legeriaren arabera izaten jarraituko dute. Arau bera aplikatuko da araubide berezietako prestazioetan, prestazioaren ondorioak hasi baino lehenagoko data batean sortuak direnean, eta hori gertatuko da Gizarte Segurantzari buruzko 1966ko apirilaren 21eko Legearen azkeneko xedapenetatik lehenengoaren 3. zenbakian ezarritako moduan.

Sortutako prestaziotzat joko da babesaren xede diren gertakariak edo egoerak gertatzeagatik onuradunak eskubide duena, eskubide hori baldintzatzen duten betekizun guztiak betetzen dituelako, nahiz eta eskubide hori gauzatu ez.

2. Halaber, aurreko legeriaren arabera izaten jarraituko dute jada sortuta dauden eta legeria hartan ezarritakoaren ondorio diren pentsioen berrikuspen eta bihurketek.

3. Beren horretan iraungo dute Gizarte Segurantzaren prestazioen borondatezko hobekuntzek, enpresek aurreko legeriaren arabera ezarritakoek; hori, halere, ez da eragozpena izango haiek egungo legearen arauetara egokitzeko egin beharreko aldatetarako.

4. 1954ko irailaren 10eko Lan Mutualismoaren Erregelamendu Orokorren 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz mutualista-izaera dutenek, izaera hori eutsiko diote eta, ondorio guztietarako, erregelamendu orokor horren arabera jokatzeko jarraituko dute, kasuan kasuko kontratutik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak aldatu gabe.

Bigarren xedapen iragankorra. *Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko prestazioak.*

1. 1967ko urtarrilaren 1ean, egun horretan daukaten adina daukatela ere, deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Aseguruak eskatzen zuen kotizazio-aldia estalita dutenek edo, bestela, deuseztatuta dagoen Langileen Nahitaezko Erretiroaren Araubidean afiliatuta zeudenek, aseguru horietako lehenengoaren prestazioak sortzeko eskubidea izango dute, hari buruzko legerian eskatzen diren baldintzen arabera, betiere interesdunek eskubiderik ez badute Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten araubideen kargurako inongo prestaziotarako, onuradun izan daitezkeen alarguntasun-pentsioak kenduta. Joko da pentsio horien artean daudela sistema horretan sartu beharrekoak diren ordezkotako entitateei dagozkienak, hogeita batgarren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraituz.

2. Deuseztatuta dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren pentsioen zenbatekoa, pentsio horiek beste prestazio publiko batzuekin batera gertatu nahiz ez gertatu, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritakoa izango da.

3. Alarguntasun-pentsioa eta Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruak batera gertatzen direnean, haien batura ezingo da izan handiagoa une bakoitzean hirurogeita bost urteko edo gehiagoko onuradunentzat ezarrita dagoen alarguntasun-pentsioaren gutxieneko pentsioaren zenbatekoa halako bi baino. Muga hori gainditzen bada, Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaren zenbatekoa gutxitu egingo da, baturak muga hori ez gainditzeko bezainbeste.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Lehenengo araubideetan egindako kotizazioak.*

1. Gizarte Aseguru Bateratuen, Langabeziaren eta Lan Mutualitateen lehenengo araubideetan eginiko kotizazioak zenbatu egingo dira Gizarte Segurantzako Araubide Orokorren prestazioak jasotzearen ondorioetarako.

2. Gizarte Segurantzaren Administrazioaren esku dauden kotizazio-datuak haren aurrean aurkaratu ahalko dira, bai eta, kasua bada, gizarte-arloko jurisdikzio-organoen aurrean ere. Bere garaian diru-bilketako bulegoek bideratu zituzten kotizazio-dokumentu ofizialak izango dira ondorio horietarako onartuko diren frogabide bakarrak.

3. Lege hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenek finkatuko dituzte Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Aseguruaren eta Lan Mutualitateen lehenengo araubideetan egindako

kotizazioak zenbatzeko arau berariazkoak, lege honetan ezarritako erretiro-pentsioaren zenbatekoa zenbat kotizazio-urteren pean dagoen zehazteko.

Arau horiek honako printzipio hauei egokitu beharko zaien zenbatze-sistema bat eratuko dute:

a) Oinarri gisa hartzea 1967ko urtarrilaren 1aren aurre-aurreko zazpi urteetan egiazki egindako kotizazioak.

b) Adieraztea, irizpide orokor gisa eta aipatutako aldian kotizatutako egunen kopurua abiapuntutzat hartuta, langile bakoitzari zenbat kotizazio-urte dagozkion a) letran aipatutako data baino lehenagokoak.

c) Jada indarrrik gabe utzitako zahartzaroko eta erretiroko pentsioen araubideetan ezarri ziren datak eta langileek 1967ko urtarrilaren 1ean zuten adina haztatzea.

d) Aukera ematea a) letran aipatutako datan adin handiagoa duten langileei, kasua bada, hirurogeita bost urte betetzen dituztenean, indarrrik gabe utzitako araubideetako urteak ikusita ezin erdietsiko zituzten pentsio-mailak eskuratzeko.

Laugarren xedapen iragankorra. *Aurreko legeriaren aplikazioa, erretiro-pentsiorako eskubidea sortzeko.*

1. Erretiro-pentsioetarako eskubidea honako arau hauen arabera erregulatuko da Araubide Orokorrean:

1.a Lege hau aplikatzeko eta garatzeko xedapenek arautuko dute Araubide Orokorrean zer aukera duten, eta, kasua bada, zer eskubide dagozkien 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Aseguruaren aplikazio-eremuan sarturik baina Lan Mutualitateen aplikazio-eremuan sartu gabe –edo alderantziz– zeuden langileei.

2.a 1967ko urtarrilaren 1ean mutualista-izaera zutenek hirurogei urteko aurrera sortu ahalko dute erretiro-pentsiorako eskubidea. Kasu horretan, pentsioaren zenbatekoa ehuneko 8 jaitsiko da egitate eragilearen unean langileari 65 urte betetzeko falta zaion urte bakoitzeko edo urte-zati bakoitzeko.

Baldin eta aurreko zenbakian aipatutako betekizunak betetzen dituzten eta hogeita hamar urteko edo gehiagoko kotizazioa frogatuta duten langileek erretiro aurreratua eskatzen badute langilearen borondate askeari ezin egotz dakioken arrazoi batengatik lan-kontratua azkentzearen ondorioz lan egiteari utzi diotelako, aurreko lerrokadan aipatzen den pentsio-zenbatekoaren murrizketaren ehunekoa, frogatutako kotizazio-urteen arabera, honako hau izango da:

1.a Hogeita hamar eta hogeita hamalau urte bitarteko kotizazioa frogatuz gero: ehuneko 7,5.

2.a Hogeita hamabost eta hogeita hamazazpi urte bitarteko kotizazioa frogatuz gero: ehuneko 7.

3.a Hogeita hemezortzi eta hogeita hemeretzi urte bitarteko kotizazioa frogatuz gero: ehuneko 6,5.

4.a Berrogei urteko edo gehiagoko kotizazioa frogatuz gero: ehuneko 6.

Ondorio horietarako, langilearen borondate askeak hau esan nahi du: lan-harremanarekin jarraitzeko aukera izanik eta hori eragozten dion arrazoi objektiborik ez izanik, langileak argi eta garbi adierazi duela harreman hori amaitzeko erabakia. Nolanahi ere, joko da lan-harremana uztea langilearen borondatearen aurka gertatu dela azkentzea gertatu denean 267.1.a) artikuluan ezarritako arrazoi batengatik.

Halaber, kotizazio-urteak zenbatzeko garaian aldi osoak hartuko dira kontuan; urte-zatiak ez dira urte osoekin parekatuko.

Ahalmena ematen zaio Gobernuari 2. arau honen aurreko lerrokadetan ezarritako kasuak erregelamendu bidez garatzeko. Gobernuak, erretirorako irispidea borondatezkoa

ala borondatearen aurkakoa izatearen arabera, haietarako ezarritako baldintzak egokitu ahalko ditu.

206. artikuluan erretiro-adinerako aipatzen diren koefiziente murriztaileak ez dira kontuan hartuko, inolaz ere, 2. arau honetan xedatutako erretirora irispidea izateko eskatzen den adina frogatzearen ondorioetarako. Arau honetan erregulatutako erretiroari ez zaio aplikatzekoa izango, ezta ere, lege honen 210.3 artikuluan ezarritako 0,50eko koefizientea.

2. Gizarte Segurantzaren egitura eta babes-jarduna arrazionalizatzeko presako neurriei buruzko uztailaren 31ko 26/1985 Legea indarrean jarri zen egunean erretiro-pentsiorako eskubidea aitortzeko baldintza guztiak betetzen zituzten baina eskubide hori baliatu ez zuten langileek aurreko legeriara jo ahalko dute pentsioa lortzeko, lege hori indarrean jarri aurreko egunean eskubide izango zuten baldintza eta zenbateko berekin.

3. Halaber, aurreko legeriara jo ahalko dute uztailaren 31ko 26/1985 Legea indarrean jarri baino lehen erretiro aurreratuaren baliokideak diren laguntzak, Gizarte Segurantzaren sistemako etorkizuneko erretiro-pentsioaren arabera zehaztuak, aitortuta zituzten langileek –dela Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen nahiz Birmoldaketa Industrialerako neurriei buruzko ekainaren 9ko 21/1982 Legearen arabera egindako enpresen birmoldaketa-planen babesean, dela Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren baimenaren babesean–; betiere, Lana Babesteko Funts Nazionalaren Administrazio Unitate deuseztatuak garatzen zituen programetan edo aipatutako ministerioaren 1985eko martxoaren 12ko Aginduaren bidez onartutako enplegua babesteko programetan ezarritakoaren barruan.

Aurreko lerokadan ezarritako eskubidea izango dute, halaber, uztailaren 31ko 26/1985 Legea indarrean jarri baino lehen onartuta zeuden birmoldaketa-planetan sartutako langileek, esandako lerokadan aipatutako arauen arabera,, nahiz eta erretiro aurreratuaren baliokidea den laguntzarik banaka eskatuta ez izan.

4. Gizarte Segurantzaren Sistema Sendotu eta Arrazionalizatzeari buruzko uztailaren 15eko 24/1997 Legea indarrean jarri zen egunean erretiro-pentsiorako eskubidea aitortzeko baldintza guztiak betetzen zituzten baina eskubide hori baliatu ez zuten langileek aurreko legeriara jo ahalko dute pentsioa lortzeko, lege hori indarrean jarri aurreko egunean eskubide izango zuten baldintza eta zenbateko berekin.

5. 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen sortzen diren erretiro-pentsioei Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legea indarrean jarri aurretik indarrean zeuden erretiro-pentsioaren modalitateak, eskuratzeko betekizunak, baldintzak eta prestazioak zehazteko arauak aplikatuko zaizkie oraindik, kasu hauetan:

a) Lan-harremana 2013ko apirilaren 1a baino lehenago azkendu zaien pertsoneri, betiere data horren ondoren Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean berriro sartzen ez badira.

b) Enplegua erregulatzeko espedienteetan hartutako erabakien ondorioz nahiz edozein esparrutako hitzarmen kolektibo, enpresako akordio kolektibo zein konkurtso-prozeduratan hartutako erabakien ondorioz lan-harremana etena edo azkendua duten pertsoneri, horiek 2013ko apirilaren 1a baino lehen onartu, sinatu edo deklaratu badira, betiere lan-harremana 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenago azkendu edo eten bada.

c) 2013ko apirilaren 1a baino lehen erretiro partzialeko pentsioa eskuratu dutenei, bai eta data horren aurretik edozein esparrutako hitzarmen kolektiboetan edo enpresako akordio kolektiboetan jasotako erretiro-planetan sartutako pertsoneri ere, erretiro partziala 2013ko apirilaren 1aren aurretik edo ondoren hartu den kontuan hartu gabe.

b) eta c) letrek aipatutako kasuetan, baldin eta aurreko legeria aplikatu bada enpresako akordio kolektiboetan jasotako erretiro partzialeko planen edo hartutako erabakien ondorioz, ezinbesteko baldintza izango da enpresako akordio kolektibo horiek behar bezala erregistratuta egotea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalan edo Itsasoko Gizarte Institutuan, hala badagokio, erregelamendu bidez erabakitzen den epean.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Erretiro aurreratua zenbait kasu berezitan.*

1. Xedapen hau aplikatzekoa izango zaie 1998ko apirilaren 1etik aurrera gertatutako egitate eragileei, baldin eta, Gizarte Segurantzaren sistemako araubide bati baino gehiagori kotizatu ondoren, interesdunak ez baditu betetzen horietako bakarrean ere erretiro-pentsioa eskuratzeko eskatzen diren betekizunak, soilik araubide horietako bakoitzean frogatutako kotizazioak aintzat hartuta.

Aipatutako kasuetan, erretiro-pentsiorako eskubidea ebazteko aintzat hartuko da kotizazio gehien frogatuta dauden araubidea, eta interesdunak frogatzen dituen kotizazio guztiak hartan kotizatutakotzat hartuko dira.

Aurreko lerrokadetan ezarritakoa gorabehera, langileak ez duenean bete eskubidea ebatzi behar deneko araubidean –araubide horretan frogatu direlako kotizazio gehien–erretiro-pentsioa sortzeko gutxieneko adina, pensioa araubide horretan aitortu ahalko da, baina horretarako frogatu beharko da kotizazio-aldien gutzizkoa kalkulatzeko kontuan hartu diren kotizatutako gainerako araubideetako batean adinaren betekizuna bete duela, hurrengo zenbakietan ezartzen den moduan.

2. Aurreko zenbakiko hirugarren lerrokadan ezarritakoa aplikatzeko, nahitaezkoa izango da betekizun hauek betetzea:

a) Interesdunak mutualista-izaera edukitzea 1967ko urtarrilaren 1ean edo aurreko beste dataren batean, edo atzerriko herrialderen batek kotizazio-aldiak edo antzekoak frogatzea, herrialde horretan egindako jarduerengatik, aipatutako data baino lehen, baldin eta jarduera horiek, Espainian egin izan balira, lan-mutualitatearen batean sartzea eragin izango bazuten, eta, nazioarteko zuzenbidearen arauen indarrez, aintzat hartu beharrekoak badira.

b) Langilearen lan-bizitzan zehar guztira metatutako kotizazioen laurden bat, gutxienez ere, erretiro aurreraturako eskubidea aitortzen duten araubideetan, edo araubide horien aurrekoetan, edo Gizarte Segurantzako atzerriko araubideetan egin izana, aurreko letran aipatutako moduan eta baldintzetan, salbu eta langilearen lan-bizitzan zeharreko kotizazioan gutzizkoa hogeita hamar urtekoa edo gehiagokoa denean; izan ere, azken kasu horretan, nahikoa izango da aipatutako araubideetan gutxienez ere bost urtez kotizatu izana frogatzea.

3. Aurreko zenbakietan ezarritako eskakizunak betetzen badira, hirurogeita bost urte baino gutxiagorekin erretiro-pentsiorako eskubidea aitortuko da interesdunak kotizazio gehien frogatzen dituen araubidean, eta araubide horren arau erregulatzailerak aplikatuko dira.

Erretiro-pentsioa honela murriztuko da: egitate eragilearen unean interesdunari hirurogeita bost urte betetzeko falta zaión urte bakoitzeko edo urte-zati bakoitzeko ehuneko 8 aplikatuta.

Aurreko lerrokadan ezarritakoak ez du kentzen lege honen laugarren xedapen iragankorreko 2. arauko bigarren lerrokadan eta Itsasoko eta Arrantzako Langileentzako Gizarte Babesa Arautzen duen urriaren 21eko 47/2015 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoa.

4. Ulertuko da 1967ko urtarrilaren 1ari buruzko erreferentziak kasuan kasuko arau erregulatzaileretan zehazten den datari buruz eginda daudela, besteren bat jasotzen duten araubide edo kolektiboek dagokienez, erretiro-adina aurreratzeko aukerari begira.

5. Xedapen hau ez da aplikatuko Estatuko Klase Pasiboen Araubidean. Araubide horren eta Gizarte Segurantzaren sistemako gainerako araubideen arteko kotizazioen elkarrekiko zenbaketa Gizarte Segurantzako araubideen arteko kuoten elkarrekiko zenbaketari buruzko apirilaren 12ko 691/1991 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo da.

Seigarren xedapen iragankorra. *Altarekin parekatutako egoera birmoldaketa-prozesuetan.*

1. Birmoldaketari eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legean ezarritako erretiro aurreratuaren baliokidea den laguntza jasotzen den aldiari, joko da onuraduna Gizarte Segurantzako kasuko araubidean altarekin parekatutako egoeran dagoela, eta haren arabera kotizatzen jarraituko du, kasuan kasuko araubideko gertakari orokorretarako ezarritako tasaren arabera. Horretarako, kotizazio-oinarritzat hartuko da erretiro aurreratuaren baliokidea den laguntzaren zenbatekoa zehazteko erabili den batez besteko ordainsaria, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezartzen duen urteko gaurkotze koefizientea aplikatuta, halako moduz non, erretirorako adin orokorra betetzean, onuradunak, eskubide osoz, pentsioa eskuratu ahalko duen.

2. Enpresek edo enplegua sustatzeko funtsek egiten dituzten ekarpenak, bai erretiro aurreratuaren baliokideak diren laguntzak finantzatzeko, bai aurreko zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, Gizarte Segurantzaren kuotekin parekatu ahalko dira diru-bilketaren ondorioetarako.

Zazpigarren xedapen iragankorra. *Erretiro-adinaren eta kotizazio-urteen pixkanakako aplikazioa.*

205.1.a) artikulua aipatzen dituen erretiro-adinak eta kotizazio-aldia, bai eta 152.1, 207.1.a) eta 207.2, 208.1.a) eta 208.2, 214.1.a) eta 311.1 artikuluetan jasotako adinari buruzko erreferentziak, gradualki aplikatuko dira, honako taula honetan ezarritako moduan:

Urtea	Kotizatutako aldiak	Eskatutako adina
2013	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	35 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 1 hilabete bat.
2014	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	35 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 2 hilabete.
2015	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	35 urte eta 9 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 3 hilabete.
2016	36 urte edo gehiago.	65 urte.
	36 urte baino gutxiago.	65 urte eta 4 hilabete.
2017	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	36 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 5 hilabete.
2018	36 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	36 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 6 hilabete.
2019	36 urte eta 9 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	36 urte eta 9 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 8 hilabete.
2020	37 urte edo gehiago.	65 urte.
	37 urte baino gutxiago.	65 urte eta 10 hilabete.
2021	37 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	37 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	66 urte.
2022	37 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	37 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 2 hilabete.
2023	37 urte eta 9 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	37 urte eta 9 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 4 hilabete.
2024	38 urte edo gehiago.	65 urte.
	38 urte baino gutxiago.	66 urte eta 6 hilabete.

Urtea	Kotizatutako aldiak	Eskatutako adina
2025	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 8 hilabete.
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 10 hilabete.
2027. urtetik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	67 urte.

Hirurogeita zazpi urteko adina, 196.5 eta 200.4 artikuluetan aipatzen dena, gradualki aplikatuko da, urte bakoitzerako aurreko taulan ezarritakoetatik altuena kontuan hartuta.

Zortzigarren xedapen iragankorra. *Erretiro-pentsioaren oinarri arautzaileari buruzko arau iragankorrak.*

1. 209.1 artikuluan ezarritakoa gradualki aplikatuko da, honako honen arabera:

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 192 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 224.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 204 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 238.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 216 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 252.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 228 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 266.

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 240 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 280.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 252 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 294.

2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 264 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 308.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 276 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 322.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea zatiketa honen emaitza izango da: egitate eragilearen aurreko hilaren aurreko 288 hiletan onuradunak izandako kotizazio-oinarriak zati 336.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, erretiro-pentsioaren oinarri arautzailea kalkulatu da 209.1 artikuluan ezarritakoa oso-osorik aplikatuz.

2. 2013ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra, lana beren borondate askeari ezin egotz dakioken arrazoi batengatik utzi dutenei, baldin eta 267.1.a) artikuluan jasotako arrazoiengatik eta kasuetan izan bada eta berrogeita hamabost urte betetzen dutenetik aurrera gutxienez ere hogeita lau hilabetez kotizazio-oinarriak murriztu bazaizkie lan-harremana azkendu aurretik frogatuta zegoenarekin alderatuta, oinarri arautzaile gisa hartuko zaie egitate eragilearen aurreko hilabetearen aurre-aurreko 240 hilabeteetako kotizazio-oinarriak zati 280 egitearen emaitza, baldin eta emaitza hori haien aldekoagoa bada aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera legokiekeena baino.

3. 2017ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra, lana beren borondate askeari ezin egotz dakioken arrazoi batengatik utzi dutenei, baldin eta 267.1.a) artikuluan jasotako arrazoiengatik eta kasuetan izan bada eta berrogeita hamabost urte betetzen dutenetik aurrera gutxienez ere hogeita lau hilabetez kotizazio-oinarriak murriztu bazaizkie lan-harremana azkendu aurretik frogatuta zegoenarekin alderatuta, oinarri arautzaile gisa hartuko zaie 209.1 artikuluan ezarritakoa, baldin eta azken hori haien aldekoagoa bada 1. zenbakian ezarritakoaren arabera legokiekena baino.

4. Pentsiorako oinarri arautzailearen zehaztapena, 2. eta 3. zenbakietan araututako moduan, norberaren konturako langileei edo langile autonomoei aplikatzekoa izango zaie, baldin eta V. tituluan araututako jarduera uzteagatik prestazioa agortu denetik urtebete iragan baldin bada, eta jardueraren uzte hori gertatzen bada langile horiek berrogeita hamabost urte betetzen dituztenetik aurrera.

5. 1. zenbakian ezarritakoa Gizarte Segurantzako araubide guztietan aplikatuko da.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. *Erretiro-pentsioa kalkulatzeko, kotizatutako urteei esleitu beharreko portzentajeak aplikatzea.*

210.1.b) artikulua aipatzen dituen ehunekoak honako hauekin ordeztuko dira:

2013tik 2019ra bitarteko urteetan.	1. eta 163. hilabeteen arteko kotizazioko hilabete gehigarri bakoitzeko, ehuneko 0,21, eta hurrengo 83 hilabeteetako bakoitzarengatik, ehuneko 0,19.
2020tik 2022ra bitarteko urteetan.	1. eta 106. hilabeteen arteko kotizazioko hilabete gehigarri bakoitzeko, ehuneko 0,21, eta hurrengo 146 hilabeteetako bakoitzarengatik, ehuneko 0,19.
2023tik 2026ra bitarteko urteetan.	1. eta 49. hilabeteen arteko kotizazioko hilabete gehigarri bakoitzeko, ehuneko 0,21, eta hurrengo 209 hilabeteetako bakoitzarengatik, ehuneko 0,19.
2027. urtetik aurrera.	1. eta 248. hilabeteen arteko kotizazioko hilabete gehigarri bakoitzeko, ehuneko 0,19, eta hurrengo 16 hilabeteetako bakoitzarengatik, ehuneko 0,18.

Aipatutako ehunekoak aplikatzekoak izango dira, halaber, 248.3 artikulua bigarren larrokadan ezarritako kasuan.

Hamargarren xedapen iragankorra. *Erretiro partzialari buruzko arau iragankorrak.*

1. 215. artikulua 1. eta 2.f) zenbakietan aipatzen den adin-betekizunaren eskaera pixkanaka aplikatuko da, lege honen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

2. 215.2.a) artikuluan aipatzen den adin-betekizunaren eskaera pixkanaka aplikatuko da, honako taula honetan jasotakoaren arabera:

Egitate eragilearen urtea	Egitate eragilearen unean kotizatutako aldien arabera eskatzen den adina		Egitate eragilearen unean 33 urte kotizatuta izanik eskatzen den adina
2013	61 eta 1 hilabete	33 urte eta 3 hilabete edo gehiago	61 eta 2 hilabete
2014	61 eta 2 hilabete	33 urte eta 6 hilabete edo gehiago	61 eta 4 hilabete
2015	61 eta 3 hilabete	33 urte eta 9 hilabete edo gehiago	61 eta 6 hilabete
2016	61 eta 4 hilabete	34 urte edo gehiago	61 eta 8 hilabete
2017	61 eta 5 hilabete	34 urte eta 3 hilabete edo gehiago	61 eta 10 hilabete
2018	61 eta 6 hilabete	34 urte eta 6 hilabete edo gehiago	62 urte
2019	61 eta 8 hilabete	34 urte eta 9 hilabete edo gehiago	62 eta 4 hilabete
2020	61 eta 10 hilabete	35 urte edo gehiago	62 eta 8 hilabete
2021	62 urte	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	63 urte
2022	62 eta 2 hilabete	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	63 eta 4 hilabete
2023	62 eta 4 hilabete	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago	63 eta 8 hilabete

Egitate eragilearen urtea	Egitate eragilearen unean kotizatutako aldien arabera eskatzen den adina		Egitate eragilearen unean 33 urte kotizatuta izanik eskatzen den adina
2024	62 eta 6 hilabete	36 urte edo gehiago	64 urte
2025	62 eta 8 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 4 hilabete
2026	62 eta 10 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 8 hilabete
2027 eta hurrengoak	63 urte	36 urte eta 6 hilabete	65 urte

Adierazitako adin-eskala hori ez zaie aplikatuko laugarren xedapen iragankorraren 1. zenbakiaren 2. arauan aipatzen diren langileei; haiei hirurogei urte beteta izatea eskatuko zaie, eta, ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko interesdunei aplikatu ahal zaizkien erretiro-adinaren hobariak edo aurrerapenak.

3. 215.2.g) artikulua aipatzen duen erretiro partzialeko kotizazio-oinarria pixkanaka aplikatuko da lanaldi osoko kotizazio-oinarriaren gainean kalkulaturako ehunekoen arabera, eskala honi jarraituz:

a) 2013. urtean, kotizazio-oinarria lanaldi osoari legokiokeen kotizazio-oinarriaren ehuneko 50 izango da.

b) 2014tik igarotako urte bakoitzeko ehuneko 5 gehituko zaio lanaldi osoari legokiokeen kotizazio-oinarriaren ehuneko 100era iritsi arte.

c) Aurreko eskalan ekitaldi bakoitzerako finkaturako kotizazio-oinarriaren ehunekoa ez da inola ere txikiagoa izango benetan egindako lan-jardueraren ehunekoa baino.

Hamaikagarren xedapen iragankorra. *Erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak aplikatzea.*

Gizarte Segurantzaren Arloko Neurriei buruzko abenduaren 4ko 40/2007 Legearen bigarren xedapen iragankorrari jarraituz, 206.3 artikulua lehengo lerrokadan ezarritakoa ez zaie aplikatuko araubide berezietan sartuta dauden langileei, baldin eta lege hori indarrean jarri zen egunean erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak aitortuta bazituzten; izan ere, halakoetan, aurreko araudian ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

Hamabigarren xedapen iragankorra. *Hirurogeita bost urte edo gehiago dituzten langileak kuotetatik salbuesita egon diren aldiak erretiro-pentsioaren ondorioetarako nola zenbatu.*

2013ko urtarrilaren 1a baino lehen 152. eta 311. artikuluetan ezarritako kotizazio-betebeharraren salbuespenak sortu dituzten langileen kasuan, baldin eta erretiro-pentsiorako eskubidea data horren ondotik eskuratzen badute, salbuespen horiek luzatu direneko aldia kotizatutakotzat joko da kasuko pensioa kalkulatzearan ondorioetarako.

Hamahirugarren xedapen iragankorra. *Alarguntasun-pentsioari buruzko arau iragankorra, 2008ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko banantze judizial edo dibortzio kasuetan.*

1. Alarguntasun-pentsiorako eskubidea aitortzeko, ez da baldintza izango dibortziatuta edo judizialki bananduta dagoen pertsona 220.1 artikulua bigarren lerrokadan aipatzen den konpentsazio-pentsioaren hartzekodun izatea, baldin eta dibortzioaren edo banantze judizialaren datatik alarguntasun-pentsioaren kausatzailearen heriotzaren egunera arte hamar urte baino gutxiago iragan badira, betiere ezkontza-loturak gutxienez ere hamar urte iraun badu eta, gainera, onuradunak honako baldintza hauetakoren bat betetzen badu:

a) Ezkontideek elkarrekin izandako seme-alabak egotea.

b) Berrogeita hamar urte baino gehiago izatea pensioaren kausatzailea hiltzen den egunean.

Ateratzen den alarguntasun-pentsioaren zenbatekoa kalkulatu da Gizarte Segurantzaren Arloko Neurriei buruzko abenduaren 4ko 40/2007 Legea indarrean jarri aurretik zegoen indarreko araudiaren arabera.

Xedapen iragankor honen lehenengo lerrokadak aipatzen dituen kasuetan, dibortziatuta edo judizialki bananduta dagoen pertsona konpentsazio-pentsioaren zordun izan bada, ez du alarguntasun-pentsioa jasotzeko eskubiderik izango.

Nolanahi ere, banantzeak edo dibortzioak abenduaren 4ko 40/2007 Legea indarrean jarri baino lehenagokoa izan beharko du.

Xedapen iragankor honetan xedatutakoa aplikatzekoa izango zaie, halaber, 2008ko urtarrilaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra bitartean gertatzen diren egitate eragileei, zeinei lege honen 220. artikuluan xedatutakoa ere aplikatuko baitzaie.

2. Orobat, alarguntasun-pentsiorako eskubidea izango dute aurreko zenbakiko lehen lerrokadak aipatutako egoeran dauden pertsonak, nahiz eta ez bildu hartan adierazitako betekizunak, betiere hirurogeita bost urte edo gehiagoko pertsonak badira, beste pentsio publiko baterako eskubidea ez badute eta pentsioaren kausatzailearekin ezkondata egon diren aldia hamabost urtekoa baino laburragoa izan ez bada.

Pentsioa aurreko zenbakian ezarritako moduan aitortuko da.

Hamalagarren xedapen iragankorra. *Seme-alabak edo adingabeak zaintzeagatiko onuren aplikazioa.*

1. 236. artikuluan ezarritako onurak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira aplikatzekoak. Urte horretarako, kotizatutakotzat zenbatu daitekeen gehieneko aldia ehun eta hamabi egunekoa izango da seme-alaba bakoitzeko edo adoptatutako nahiz harreraren hartutako adingabe bakoitzeko. Aldi hori urtero luzatzen joango da, harik eta 2019. urtean, seme-alaba bakoitzeko, gehienez ere berrehun eta hirurogeita hamar egunekoa izan arte; zenbatu daitekeen aldia ez da inoiz izango kotizazioaren egiazko etetea baino luzeagoa.

Hala eta guztiz ere, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta 205.1.a) artikuluan ezarritako erretiroa hartzeko adina zehaztearen ondorio hutsetarako, zenbatu daitekeen aldia gehienez ere kotizatutako berrehun eta hirurogeita hamar egunekoa izango da norberaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko edo norberaren kargura hartutako adingabe bakoitzeko.

2. Gizarte Segurantzaren sistemak dauzkan aukera ekonomikoen arabera, behar diren xedapenak eman ahalko dira seme-alaba edo adingabea zaintzen emandako aldia benetan kotizatutakotzat zenbatzen has dadin 2018. urtea baino lehen, betiere aurreko zenbakiko lehenengo lerrokadak jasotako moduan eta familia ugarien kasuan.

Hamabosgarren xedapen iragankorra. *Adierazpen matematikoaren α parametroaren balioa pentsio kontributiboaren errebalorizazio-indizea finkatzeko.*

2014tik 2019ra bitarteko aldian, biak barne, 58. artikuluan ezarritako pentsioen errebalorizazio-indizea zehaztearen ondorioetarako, 0,25 izango da artikuluko horren 2. zenbakian aipatutako α adierazpen matematikoaren balioa.

Hamaseigarren xedapen iragankorra. *Kotizazio-oinarriak eta -tasak eta babes-jarduna Etxeko Langileentzako Sistema Berezian.*

1. Lege honen II. tituluaren II. kapituluko bigarren atalean ezarritakoa ezertan kendu gabe, 2018ra arte Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean ezarritako Etxeko Langileentzako Sistema Berezian Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioa honako arau hauen arabera egingo da:

a) Kotizazio-oinarrien kalkulua:

1.a 2012an, gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak eskala honi jarraituz kalkulatu dira, etxeko langileek jasotako ordainsariaren arabera:

Tartea	Hileko ordainsaria	Kotizazio-oinarria
1.a	Hilean 74,83 euro gehienez	Hilean 90,20 euro
2.a	Hilean 74,84 eurotik hilean 122,93 eurora bitarte.	Hilean 98,89 euro
3.a	Hilean 122,94 eurotik hilean 171,02 eurora bitarte.	Hilean 146,98 euro
4.a	Hilean 171,03 eurotik hilean 219,11 eurora bitarte.	Hilean 195,07 euro
5.a	Hilean 219,12 eurotik hilean 267,20 eurora bitarte.	Hilean 243,16 euro
6.a	Hilean 267,21 eurotik hilean 315,30 eurora bitarte.	Hilean 291,26 euro
7.a	Hilean 315,31 eurotik hilean 363,40 eurora bitarte.	Hilean 339,36 euro
8.a	Hilean 363,41 eurotik hilean 411,50 eurora bitarte.	Hilean 387,46 euro
9.a	Hilean 411,51 eurotik hilean 459,60 eurora bitarte.	Hilean 435,56 euro
10.a	Hilean 459,61 eurotik hilean 507,70 eurora bitarte.	Hilean 483,66 euro
11.a	Hilean 507,71 eurotik hilean 555,80 eurora bitarte.	Hilean 531,76 euro
12.a	Hilean 555,81 eurotik hilean 603,90 eurora bitarte.	Hilean 579,86 euro
13.a	Hilean 603,91 eurotik hilean 652,00 eurora bitarte.	Hilean 627,96 euro
14.a	Hilean 652,01 eurotik hilean 700,10 eurora bitarte.	Hilean 676,06 euro
15.a	Hilean 700,11 eurotik gora	Hilean 748,20 euro

Aurreko eskalako kotizazio-oinarriak handitu egingo dira 2012ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean Araubide Orokorraren gutxienerako oinarriarako ezar daitekeen handitzearen proportzioan.

2.a 2013an, gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak eskala honi jarraituz kalkulatu dira, etxeko langileek jasotako ordainsariaren arabera:

Tartea	Hileko ordainsaria, aparteko ordainsarien proportzioa gehituta — euro/hil	Kotizazio-oinarria — euro/hil
1.a	172,05 gehienez.	147,86
2.a	172,06 eta 268,80 bitarte	244,62
3.a	268,81 eta 365,60 bitarte	341,40
4.a	365,61 eta 462,40 bitarte	438,17
5.a	462,41 eta 559,10 bitarte	534,95
6.a	559,11 eta 655,90 bitarte	631,73
7.a	655,91 eta 753,00 bitarte	753,00
8.a	753,01 eurotik gora.	790,65

3.a 2014tik 2018ra arte, eskalako hileko ordainsariak eta kotizazio-oinarriak urte horietako bakoitzean lanbide arteko gutxienerako soldata handitzen den proportzio berean eguneratuko dira.

4.a 2019tik aurrera, gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak zehaztuko dira lege honen 147. artikuluan ezarritakoaren arabera; halere, kotizazioa ezingo da txikiagoa izan legez ezartzen den gutxienerako oinarria baino.

b) Aplikatzekoak diren kotizazio-tasak:

1.a Gertakari arruntengatiko kotizaziorako, a) letran aipatutakoaren arabera egoki den kotizazio-oinarriaren gainean, honako kotizazio-tasa hauek aplikatuko dira:

2012an, kotizazio-tasa ehuneko 22 izango da; hortik, ehuneko 18,30 enpresaburuaren kontura izango da, eta ehuneko 3,70, berriz, langilearen kontura.

2013tik 2018ra, kotizazio-tasa urtero ehuneko 0,90 handituko da, eta haren zenbatekoa eta enplegatzailearen eta langilearen arteko banaketa kasuan kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko da.

2019tik aurrera, kotizazio-tasa eta enpleguaren eta langilearen arteko banaketa kasuko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko oro har ezartzen direnak izango dira.

2.a Gertakari profesionalengatiko kotizaziorako, a) letran aipatutakoaren arabera egoki den kotizazio-oinarriaren gainean lege ezarritako primen tarifa ezarritako kotizazio-tasa aplikatuko da, eta ateratzen den kuota langileak ordainduko du osorik.

2. 2012tik 2018ra, 247. artikuluan a) arauan aipatzen den partzialtasun-koefizientea –Etxeko Langileentzako Sistema Berezian aplikatuko dena– zehaztearen ondorioetarako, hartan benetan lan egindako orduak honela zehaztuko dira: xedapen honen 1.a) zenbakiko 1., 2. eta 3. puntuetan aipatzen diren kotizazio-oinarriak zati Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ekitaldi bakoitzerako Araubide Orokorren orduko gutxieneko oinarriko finkatutako zenbatekoa eginda.

3. 251.a) artikuluan ezarritakoa 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

4. 2012. urtetik 2018. urtera, etxeko langileek sortutako gertakari arrunten ondoriozko ezintasun iraunkorragatiko pentsioen eta erretiro-pentsioen oinarri arautzailea kalkulatzeko, sistema berezi horretan kotizatutako aldiei dagokienez, kontuan hartuko dira soilik egiazki kotizatutako aldiak, eta ez da aplikatzekoa izango 197.4 eta 209.1.b) artikuluetan ezarritakoa.

Hamazazpigarren xedapen iragankorra. *Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezitik datozen besteren konturako langileak.*

1. Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezitik datozen langileak, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian atxikita geratu zirenak irailaren 22ko 28/2011 Legearen indarrez, sistema berezi horri aplikatzekoak zaizkion arauen pean egongo dira, honako berezitasun hauekin:

a) Nekazaritza-lanetako jarduerarik gabeko aldietan Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian jarraitzearen ondorioetarako, Araubide Orokorrean alta emanda, xedapen honetan aipatzen diren langileek ez dute zertan 253.2 artikuluan ezarritako baldintza bete.

b) Halako langileak jarduerarik gabeko aldietan sistema berezitik kanpo geratuko dira –horrenbestez, Araubide Orokorrean baja emanda, nahiz eta haiek berariaz eskatu ez– bakar-bakarrik ez badituzte ordaintzen epe horiei dagozkien kuotak, 253.4.b).2. puntuan adierazitakoaren arabera.

c) Halako langileak sistema berezian berriz sartzeak berekin ekarriko du hartan jarraitzea xedapen honen 1.a) zenbakian ezarritako baldintzetan.

2. Xedapen honek aipatzen dituen langileek deuseztatuta dagoen Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian ordaindutako kotizazioak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean egindakotzat joko dira, eta balio osoa izango dute bai eskubidea perfektionatzeko, bai langile horiek eskura ditzaketan Araubide Orokorreko babes-jarduneko prestazioen zenbatekoa zehazteko, lege honetan ezarritakoari jarraituz.

Hemezortzigarren xedapen iragankorra. *Kotizazio-oinarriak eta -tasak eta murrizketak pixkanaka aplikatzea Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian.*

1. Lege honen II. tituluaren II. kapituluko bigarren atalean eta, bereziki, 255. artikuluan ezarritakoa kendu gabe, Besteren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziko jarduera-aldietako kotizazioak baldintza hauek bete behar ditu:

A) 2012tik aurrera, baterako diru-bilketaren kontzeptu eta gertakari guztien kotizazio-oinarriak 147. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira, 255. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aipatutako ekitaldian, aplikatzekoa izango den gehieneko kotizazio-oinarria hileko 1.800 eurokoa izango da, edo egindako lanaldi bakoitzeko 78,26 eurokoa. Etorkizuneko Estatuko aurrekontu orokorren legeetan, 2012tik hasita lau urteko epean, gehieneko kotizazio-oinarria handitu egingo da Araubide Orokorrean dagoenaren parean jartzeraino, eta zenbaki honetako C) letran ezarritako murrizketen igoera portzental bat ezarriko da, halako moduz non kotizazio-igoerek ez duten gaitutuko, urteko zenbatekoei erreparatuta, kotizazio-oinarrietarako ezarritako gehienekoak, zeinak 1.800 eurokoak baitira.

B) 2. eta 11. kotizazio-taldean sartutako langileei dagokienez, enpresaburuaren kargura aplikatzekoa izango den kotizazio-tasa ehuneko 15,95koa izango da 2012. urtean, eta urtero ehuneko 0,45 gehituko da 2013-2021 aldian zehar, ehuneko 0,24, berriz, 2022-2026 aldian zehar, eta ehuneko 0,48 puntu, azkenik, 2027-2031 aldian zehar. Hartara, 2031n, ehuneko 23,60ko tasara iritsiko da, honako eskala honi jarraituta:

2012 - % 15,95
2013 - % 16,40
2014 - % 16,85
2015 - % 17,30
2016 - % 17,75
2017 - % 18,20
2018 - % 18,65
2019 - % 19,10
2020 - % 19,55
2021 - % 20,00
2022 - % 20,24
2023 - % 20,48
2024 - % 20,72
2025 - % 20,96
2026 - % 21,20
2027 - % 21,68
2028 - % 22,16
2029 - % 22,64
2030 - % 23,12
2031 - % 23,60

C) 2012. urtetik aurrera, honako murrizketa hauek aplikatuko dira enpresek gertakari arruntengatiko kotizaziora egiten duten ekarpenean:

a) 1. kotizazio-taldean sartutako langileei dagokienez, 2012-2031 aldian kotizazio-oinarriaren ehuneko 8,10 puntuko murrizketa aplikatuko da; hortaz, gertakari arruntengatiko kotizazio-tasa efektiboa ehuneko 15,50 izango da epe horretarako.

b) 2. kotizazio-taldetik 11.era bitartean dauden langileei dagokionez, murrizketa erregela hauen arabera egingo da:

1.a Kotizazio-oinarriak hilean 986,70 euro edo gutxiago badira edo egindako lanaldi bakoitzeko 42,90 euroko edo gutxiago, aplikatzekoak diren murrizketak taula honetan ageri direnak izango dira (kotizazio-oinarriaren ehunekotan adierazita):

2012 - % 6,15
2013 - % 6,33
2014 - % 6,50
2015 - % 6,68
2016 - % 6,83
2017 - % 6,97
2018 - % 7,11
2019 - % 7,20
2020 - % 7,29
2021 - % 7,36

2022 - % 7,40
2023 - % 7,40
2024 - % 7,40
2025 - % 7,40
2026 - % 7,40
2027 - % 7,60
2028 - % 7,75
2029 - % 7,90
2030 - % 8,00
2031 - % 8,10

2.a Kotizazio-oinarriak aurreko erregelari adierazitako zenbatekoak baino handiagoak badira, eta gehienez ere hilean 1.800 eurokoak edota lanean emandako egun bakoitzeko 78,26 eurokoak, honako formula hauek aplikatzean lortutako ehunekoa aplikatuko zaie 2012-2021 aldian kotizazio-oinarri horiei:

Hileko kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$X \text{ urteko hileko oinarriaren murrizketaren } \% = \text{Taulako } X \text{ urteko oinarriaren murrizketaren } \% \times \left(1 + \frac{X \text{ urteko hileko oinarria} - 986,70}{X \text{ urteko hileko oinarria}} \times 2,52 \times \frac{\% 6,15}{\text{Taulako } X \text{ urteko oinarriaren murrizketaren } \%} \right)$$

X = 2012. eta 2021. urteen arteko urte natural bat, zeinerako murrizketa kalkulatzen baita.

Lanaldi errealeko araberako kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$X \text{ urteko lanaldiko oinarriaren murrizketaren } \% = \text{Taulako } X \text{ urteko oinarriaren murrizketaren } \% \times \left(1 + \frac{X \text{ urteko lanaldiko oinarria} - 42,90}{X \text{ urteko lanaldiko oinarria}} \times 2,52 \times \frac{\% 6,15}{\text{Taulako } X \text{ urteko oinarriaren murrizketaren } \%} \right)$$

X = 2012. eta 2021. urteen arteko urte natural bat, zeinerako murrizketa kalkulatzen baita.

2022-2030 aldirako, kotizazio-oinarriaren ehunekotan aplikatu beharreko murrizketak honako formula honetatik ateratzen direnak izango dira:

$$X \text{ urteko hileko edo lanaldiko oinarriaren murrizketaren } \% = \text{2021eko hileko edo lanaldiko oinarriaren murrizketaren } \% + \left(\frac{\% 8,1 - \text{2021eko hileko edo lanaldiko oinarriaren murrizketaren } \%}{10} \times (X \text{ urtea} - 2021) \right)$$

X = 2022. eta 2030. urteen arteko urte natural bat, zeinerako murrizketa kalkulatzen baita.

2031rako murrizketak ehuneko 8,10ekoak izango dira kasu guztietan.

Hileko oinarrien arabera kotizatuz gero, langileek beren jarduera hasten edo amaitzen dutenean hilabete natural baten hasierarekin edo amaierarekin bat etorri gabe, C) letra honetan aipatzen diren murrizketak hilean lan egindako egunen proportzionalak izango dira.

2. Jarduera-aldietan sortutako aldi baterako ezintasuneko, haurdunaldiko arriskuko nahiz edoskialdi naturaleko arriskuko, amatasuneko eta aitatasuneko egoeretan, honako murrizketa hauek egingo dira enpresak kotizaziorako egin beharreko ekarpenean:

a) Gertakari arruntengatiko kotizazioan, 2012. urtean ehuneko 13,20ko murrizketa kotizazio-oinarrrian, zeina urtero honela handituko baita: urtero ehuneko 0,45 gehituko da 2013-2021 aldian zehar; ehuneko 0,24, berriz, 2022-2026 aldian zehar, eta ehuneko 0,48 puntu, azkenik, 2027-2031 aldian zehar. Hartara, 2031n, ehuneko 20,85eko tasara iritsiko da, honako eskala honi jarraituta:

2012 - 13,20
2013 - 13,65
2014 - 14,10
2015 - 14,55
2016 - 15,00
2017 - 15,45
2018 - 15,90
2019 - 16,35
2020 - 16,80
2021 - 17,25
2022 - 17,49
2023 - 17,73
2024 - 17,97
2025 - 18,21
2026 - 18,45
2027 - 18,93
2028 - 19,41
2029 - 19,89
2030 - 20,37
2031 - 20,85

b) Langabezia-kotizazioan, kotizazio-oinarriaren ehuneko 2,75en pareko kuota-murrizketa.

3. Xedapen honetan ezarritako kotizazio-murrizketak hiru urtez behin eguneratu ahaliko dira etorkizuneko Estatuko aurrekontu orokorren legeen bitartez, aldi horietan kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaeraren arabera.

Hemeretzigarren xedapen iragankorra. *Lan-bazkide jakin batzuk sailkatzeko araubidea.*

Lege honen 14.2 artikuluan xedatutakoa ezertan kendu gabe, Kooperatibei buruzko apirilaren 2ko 3/1987 Lege Orokorraren zazpigarren xedapen iragankorraren babesean, beren lan-bazkideak langile autonomoekin parekatzearen alde egin zuten kooperatibek, Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, aukera-eskubide horri eutsiko diote 14.1 artikuluan ezarritako moduan.

Hala eta guztiz ere, kooperatiba horiek beren lan-bazkideen sailkatze-araubidea aldatzen badute besteren konturako langile gisa kasuko araubidean sartzeko, ezingo dute aukera-eskubidea berriz baliatu.

Hogeigarren xedapen iragankorra. *Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian alta eman aurretiko kuotek prestazioen ondorioetarako daukaten balioa.*

319. artikuluan ezarritakoa soilik aplikatuko zaie 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako altei.

Hogeita batgarren xedapen iragankorra. *Ordezko entitateen integrazioa.*

Gobernuak erabakiko du, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposatuta, zein modutan eta baldintzatan integratuko diren Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean, edo haren araubide berezietako batean, oraindik integratu gabeko

ordezko entitateetan aseguratuta dauden kolektiboak, lege honetan xedatutakoaren arabera Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-esparruan sartuta daudenak. Ezartzen diren arauetan jasoko da zer xedapen ekonomikoren bitartez konpentsatuko den, kasu bakoitzean, integrazio hori.

Hogeita bigarren xedapen iragankorra. *Futbol-klubek Gizarte Segurantzarekin dituzten zorrak.*

1. Futbol Profesionala Saneatzeko Hitzarmenaren esparruan, hari buruzkoa baita Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarria, Profesionalen Futbol Ligak bere gain hartuko du Gizarte Segurantzarekin 1989ko abenduaren 31n zeuden zorren ordainketa; haietatik libratuta geratuko dira, beraz, Profesionalen Ligarekin hitzarmen partikularrak izenpetuta dituzten futbol-klubak.

Ulertuko da aurreko lerrokadan adierazitako zorrak direla 1989-1990 eta 1990-1991 denboraldietan Futboleko Lehen Mailako eta Bigarren A Mailako lehiaketa ofizialetan parte hartu zuten klubei dagozkienak.

2. Halaber, 1985eko Saneatze Planean hartutako konpromisoari aurre egite aldera, Profesionalen Futbol Ligak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzarekiko zor jakin batzuk; hain zuzen ere, planean jasotako klubetako bat izanik, aurreko zenbakiko bigarren lerrokadan sartuta ez daudenen zorrak, baldin eta plan horren aurretik sortuak badira eta 1989ko abenduaren 31n ordaintzeko bazeuden.

3. Profesionalen Ligak aurreko zenbakietan aipatzen diren zorrak guztiz edo partzialki ordaindu gabe uzten baditu, Gizarte Segurantzaren diru-bilketaren arloko organoek betearaziko dituzte, premiamendu bidean, Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen hirugarren xedapen iragankorraren 3. zenbakian aipatzen diren bermeak, eta ordaindu gabe utzitako zorren proportzioan egotziko da lortutako zenbatekoa.

4. Saneatze Hitzarmenaren esparruan, eta behin Profesionalen Futbol Liga Nazionalak bere gain hartuta futbol-klubek, kontzeptu guztiak direla-eta, Gizarte Segurantzarekin zeuzkaten zorrak, erabaki ahalko da haien ordainketa geroratzea, gehienez ere hamabi urtez, ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Gizarte Segurantzaren Diru-bilketari buruzko indarreko Erregelamendu Orokorraren 31. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz.

Ordainketak seihilekoko amortizazioen bitartez egingo dira, eta geroraturako zenbatekoek berandutze-interesak sortuko dituzte, zeinak geroraturako zor bakoitzaren azkeneko epean ordainduko baitira.

Hogeita hirugarren xedapen iragankorra. *Diru-bilketarako itunak.*

Diru-bilketako zerbitzuak ituntzeko ahalmenak, 21. artikulua Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari emandakoak, iraun egingo du Estaturako eta Gizarte Segurantzarako diru-bilketarako sistema bateratua antolatu arte.

Hogeita laugarren xedapen iragankorra. *Prestazio ez-kontributiboen bateraezintasuna.*

1. Gizarte Segurantzaren pentsio ez-kontributiboen onuraduna izatea bateraezina izango da pentsio asistentzialak jasotzearekin –pentsio horiek uztailaren 21eko 45/1960 Legean arautu ziren, zeinaren bidez zenbait funts nazional sortzen baitira zergaren eta aurrezkiaren aplikazio sozialerako, eta kendu, berriz, Presako Aurrekontu Neurriari buruzko azaroaren 24ko 28/1992 Legearen bitartez kendu ziren–; orobat, bateraezina izango da gutxienezko diru-sarrerak bermatzeko subsidioekin eta beste pertsona baten laguntzarako subsidioak jasotzearekin –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 8.3 artikuluan eta xedapen iragankor bakarrean aipatuak–.

2. Norberaren ardurapean egon eta desgaitasuna duen seme-alabaren bat edukitzeagatik diru-esleipenak jasotzea –353.2.b) eta c) artikuluan ezarriak– bateraezina

izango da desgaitasuna duen seme-alaba honako hauen onuradun izatearekin: pentsio asistentzialen onuradun izatearekin –pentsio horiek 1960ko uztailaren 21eko 45/1960 Legean arautu ziren, eta kendu, berriz, azaroaren 24ko 28/1992 Legearen bitartez kendu ziren–; eta gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko subsidioen eta beste pertsona baten laguntzarako subsidioen onuradun izatearekin –Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizartertzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 8.3 artikuluan eta xedapen iragankor bakarrean aipatuak–.

Hogeita bosgarren xedapen iragankorra. *Desgaitasuna duten pertsonen subsidio ekonomikoen iraupena.*

1. Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko subsidioak eta beste pertsona baten laguntzarako subsidioak jasotzen dituzten pertsonak haiek jasotzen jarraitzeko eskubidea izango dute, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizartertzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 8.3 artikulua eta xedapen iragankor bakarrak ezarritakoari jarraituz –testu bategin hori azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen–, haiei buruzko berariazko legerian ezarritako moduan eta baldintzetan, interesdunak pentsio ez-kontributibo bat jasotzen hasi ezean; izan ere, orduan, lege honen hogeita laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa beteko da.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa kendu gabe, bertan behera utziko dira berariazko legerian gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko subsidioaren onuradunek –zentro publikoetan nahiz pribatuetan artatuak izan– jaso beharreko zenbatekoei buruz ezarritako arauak, alde batera utzita subsidio horren onuradunek egonaldiaren kostuan daukaten partaidetza zein den, halako zentroen finantzaketari aplikatu behar zaizkion indarreko arau orokorrei jarraituz.

3. Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko subsidioaren onuradunak besteren konturako kontratu bidez edo beren kontura lanean hasten diren kasuan, aplikatzekoa izango da, onuradunok subsidiarako eskubidea automatikoki berreskuratzeari dagokionez, lege honen 363. artikuluan baliaezintasun-pentsio ez-kontributiboaren onuradunentzat ezarritakoa. Halaber, beren errenten urteko konputurako ez dira kontuan hartuko, aplikatzekoa den berariazko legeriaren ondorioetarako, kontratu-azkentzea edo lan-jarduera uztea gertatu den ekitaldi ekonomikoan besteren konturako edo norberaren konturako lan-jardueraren ondorioz jasotako errentak.

Hogeita seigarren xedapen iragankorra. *Ezintasun iraunkorraren kalifikazioa.*

Bat. Lege honen 194. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da soilik artikuluko horren 3. zenbakian aipatzen diren erregelamenduzko xedapenak indarrean jartzen diren egunetik aurrera. Artikulu hori erregelamendu bidez garatzen ez den arte, honako testu hau izango da aplikatzekoa:

«194. artikulua. *Ezintasun iraunkorraren graduak.*

1. Ezintasun iraunkorra, edozein dela ere bera eragiten duen arrazoia, honako gradu hauen arabera sailkatuko da:

- a) Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partziala.
- b) Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa.
- c) Edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolutua.
- d) Baliaezintasun handia.

2. Ohiko lanbidetzat hartuko da, istripu kasuetan (lanekoak nahiz kanpokoak izan), istripua izan zuenean langilea aritu ohi zena. Gaixotasun arruntaren edo profesionalaren kasuan, berriz, ohiko lanbide izango da ezintasunaren aurretik, erregelamenduz ezartzen den aldiaren, langileak funtsezko jardueratzat zuena.

3. Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partzialtzat hartuko da osoa izateraino iritsi ez, baina langileari bere lanbidean aritzeko gaitasun normala ehuneko 33 edo gehiago murrizten diona, lanbide horren eginkizun funtsezkoak egitea galarazi gabe.

4. Ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osotzat hartuko da langilea lanbide horretako eginkizun guztiak edo funtsezkoenak egiteko ezintzen duena, betiere beste lanbide batean aritzeko gai bada.

5. Edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolututzat hartuko da langilea edozein lanbide edo ofiziotarako ezintzen duena.

6. Baliaezintasun handitzat hartuko da ezintasun iraunkorra duen langile batek, galera anatomiko edo funtzionalen ondorioz beste pertsona baten laguntza behar duenean eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko, hala nola janzteko, lekualdatzeko, jateko edo antzekoetarako.»

Bi. Artikulu hori erregelamendu bidez garatzen ez den arte, testu bategin honetan eta gainerako xedapenetan «ezintasun iraunkor partziala»ri egindako aipamen guztiak ulertu behar da «ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor partziala»ri eginak direla; «ezintasun iraunkor osoa»ri egindako aipamen guztiak «ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa»ri eginak direla, eta «ezintasun iraunkor absolutua»ri egindako aipamen guztiak, berriz, «edozein lanetarako ezintasun iraunkor absolutu»ari.

Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra. *Pentsio kontributiboetarako gutxienerako osagarriak.*

1. 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako pentsioei ez zaie aplikatuko 59.2 artikuluan aurreikusitako muga, pentsioen gutxienerako zenbatekoa lortzeko beharrezkoak diren osagarriei dagokiena.

2. Halaber, Espainiako lurraldean bizitzeko betekizuna, 59.1 artikuluan adierazten dena, egitate eragilea 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izan duten pentsioen kasuan bete beharko da, pentsioen gutxienerako zenbatekoa lortzeko osagarriarako eskubidea izateko.

Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. *Legezko langabezia-egoera jakin batzuk egiaztatzea.*

267. artikulua 1.a) zenbakiaren 2., 3. eta 4. puntuetan jasotako kasuetako legezko langabezia-egoera, artikulu hori erregelamenduz garatzen ez den bitartean, honela frogatu beharko du langileak:

1.a Kontratua enpresaburu indibidualaren heriotzarengatik, erretiroarengatik edo ezintasunarengatik azkentzen bada, enpresaburuaren, haren jaraunsleen edo legezko ordezkariaren idatzizko komunikazioaren bidez, zeinean langileari jakinaraziko baitzaio lan-harremana azkendu dela aipatutako arrazoi horietakoren batengatik, edo administrazio-adiskidetzearen nahiz adiskidetze judizialaren aktaren bidez, edo behin betiko ebazpen judizialaren bidez, hurrengo lerrokadan finkatutako moduan.

2.a Kaleratze kasuan, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 55.1 artikuluan aipatzen den idatzizko jakinarazpenaren bidez. Horrelako jakinarazpenik ezean, enpresa-ziurtagiriaren bitartez edo Laneko eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzailatzaren txostenaren bitartez –haitan jaso beharko da lan-prestazioa nahi gabe utzi dela eta noiztik aurrerako ondorioak dituen horrek–, edo administrazio-adiskidetzearen aktaren bitartez, zeinean jasoko baita langileak kaleratzea aurkaratu duela eta enpresaburua ez dela bertaratu.

Halaber, administrazio-adiskidetzearen edo adiskidetze judizialaren aktaren bidez edo behin betiko ebazpen judizialaren bidez frogatu ahalko da, kaleratzea bidezkoa ala bidegabea den adierazita. Kaleratzea bidegabea bada, frogatu beharko da, halaber, enpresaburuak, edo langileak, langileen legezko ordezkaria denean, ez duela lanpostuan berrartzearen aldeko hautua egin.

3.a Arrazoi objektiboetan oinarritutako kaleratzearen kasuan, langileari idatzizko komunikazioa eginez, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 53.

artikuluaren ezarritako moduan, edo administrazio-adiskidetzaren edo adiskidetze judizialaren aktaren bitartez edo behin betiko ebazpen judizialaren bitartez, aurreko lerrokan finkatutako moduan.

Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. *Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen sartutako langileen aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren estaldura.*

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua batekin 83.1.b) artikuluan ezarritako aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoaren babesa formalizatzeko betebeharra, ez zaie eskatzekoa izango 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezian sartutako langileei, hura bera entitate kudeatzailearekin estalita bazuten.

Azken xedapenetatik lehena. *Eskumen-titulua.*

Lege honetan jasotako erregulazioa orokorrean aplikatzekoa izango da Konstituzioaren 149.1.17 artikuluan ezarritakoaren babesean, salbu eta eskumenak baliatzeko moduari eta zerbitzuak antolatzeari buruzko alderdiak, araututako arloan autonomia estatutueta ezarritakoaren arabera eskumenak hartu dituzten autonomia-erkidegoen kasuan.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Beste ministerio-sail batzuen eskumenak.*

Lege honetan Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari esleitzen zaizkion eskumenak ulertuko dira ezertan kendu gabe beste ministerio-sail batzuei egokitu dakizkienak, lege honetan bertan araututako gaiei dagokienez.

Azken xedapenetatik hirugarrena. *Erretiro-pentsioari buruzko arauak egokitzea, adina jaisteagatik.*

Gobernuak, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak proposatuta, Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro-pentsioari buruz indarrean den legeria egokituko du lege honen 215 artikuluan ezarritakoa aplikatzearen ondorioetarako, bai eta oro har pentsio hori jasotzeko eskubidea izateko ezarrita dagoen adina jaitsi behar den gainerako kasuetan ere, enplegua sustatzeko neurriak garatzearen, betiere haiek berekin dakartenean erretiratutako langile batzuen ordez langabezia dauden beste langile batzuk jartzea.

Azken xedapenetatik laugarrena. *Jardunean dauden langileak.*

Gobernuak zerga-arintzeak edo kotizazio sozialen kenkariak eman ahalko ditu langileak jardunean irautearen alde egiten duen kasuetan, behin 205.1 artikuluan ezarritako adinera iritsita, pentsioa jasotzearen etete proportzionalarekin. Horiek erregularizatzeko, aldeztatik ordezkaritza handieneko sindikatu- eta enpresa-erakundeekin hitz egin beharko du gobernuak.

Azken xedapenetatik bosgarrena. *Besteren konturako nekazaritzako langileei buruzko xedapenak.*

1. Erregelamenduz arautuko da gaur egun Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sailkatuta dauden nekazaritzako langile jakin batzuk sartu ahal izatea Besteren Konturako Nekazaritzako Langileen Araubide Berezian, betiere lege honetan ezarritako betekizunak betez eta kolektibo horietako langileei aitortutako Gizarte Segurantzaren eskubideak bermatuz, hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako Jarraipen Batzordeari kontsulta egin ondoren.

2. Lanaldi partzialeko lan-kontratua duten nekazaritzako langileen kotizazioa egiazki egindako lanaldiaren zatiarekin proportzionala den eran egingo da, erregelamenduz

ezartzen diren moduan eta baldintzetan, eta ezertan kendu gabe legeak une bakoitzean ezartzen dituen kotizazioko gutxieneko oinarrien aplikazioa.

3. 255.2.e) artikulua 3. puntuan aipatzen den lanbide-heziketarako kotizazioaren tasaren balizko eguneratzearen ondorioetarako, kontuan hartuko dira, kasua bada, kasuko elkarrizketa sozialaren mahaiak egiten dituen proposamenak.

Azken xedapenetatik seigarrena. *Kalez kaleko edo etxez etxeko salmentan diharduten langile autonomoak.*

Kalez kaleko edo etxez etxeko salmentan diharduten beren konturako langileei dagokienez, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Berezirako gutxieneko kotizazio-oinarri bat ezarriko da, urtero orokorrean araubide berezi horretarako finkatzen dena baino txikiagoa, ekitaldi bakoitzerako Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak ezartzen dituen moduan eta baldintzetan.

Azken xedapenetatik zazpigarrena. *Aldi baterako ezintasunari buruzko eskumenak.*

Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak proposatuta eta *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko den ebazpen baten bitartez, zehaztuko du zein egunetatik aurrera hartuko diren 170.1 artikuluan esleitutako eginkizunak.

Azken xedapenetatik zortzigarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

Ahalmena ematen zaio Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari lege hau aplikatzeko eta garatzeko arauak eman ditzan eta Gobernuari hari buruzko erregelamendu orokorrak proposa diezazkion, azken horrek onar ditzan.

Gobernuak, halaber, lege honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko behar diren gainerako xedapen guztiak onartuko ditu.